

E U S K E R A

Euskaltzaindiaren lan eta agiriak
Trabajos y actas de la Real Academia de la Lengua Vasca
Travaux et actes de l'Académie de la Langue Basque



EUSKALTZAINDIA

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE

1994, 2
39. liburukia (2. aldia)
BILBO

EUSKALTZAINDIA

Plaza Barria, 15. 48005 Bilbo

Argitalpenen-Batzordea / Comisión de Publicaciones:

Burua:	Jean Haritschelhar
Kideak:	Juan Mari Lekuona Endrike Knörr J. A. Arana Martija Patxi Altuna Txomin Peillen Ibon Sarasola
Eragile eta idazkaria:	Ricardo Badiola Uriarte

© Euskaltzaindia

ISSN. 0210-1564

Euskera

ISBN. 85479

Legezko Gordailua BI-1.244-58

Fotokonposaketa: Rali. Particular de Costa, 12-14 - 48010 Bilbo

Elkar, E. Koop. grafikagintza. Autonomia, 71 - 48012 Bilbo

Aldizkari hau beste agerkariekin trukutzen da. Otoi, idatz Zuzendariari.
Esta **Revista** admite el intercambio con otras publicaciones. Se ruega dirigirse al Director.

AURKIBIDEA

EUSKALTZAINDIAREN 75.URTEURRENA GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAN

Jean Haritschelhar, euskaltzainburuaren mintzaldia, <i>Euskaltzaindiaren 75. mugakari</i>	355
Jose Antonio Ardanza, Euskal Herriko Autonomi Elkarteko Lehendakaria, <i>Euskaltzaindiaren 75. urteurrena Gipuzkoako Foru Aldundian</i>	361
Jose M. ^a Rodriguez Ochoa, Nafarroako Gobernuko Hizkuntza Politikarako zuzendari nagusia, <i>Euskaltzaindiaren 75. urte direla-ta</i>	365
Alberto Ansola, Arabako diputatu nagusia, <i>Euskaltzaindiaren 75. urteurrenean: Araba eta Euskara</i>	367
Jose Alberto Pradera, Bizkaiko diputatu nagusia, <i>Euskaltzaindiaren 75. urteurrenean</i>	371
Eli Galdos, Gipuzkoako diputatu nagusia, <i>Euskaltzaindiaren 75. urteurrena</i>	373

EUSKALTZAINDIAREN AGIRIAK

BATZAR AGIRIAK

1994.eko martxoan	379
1994.eko apirila	386
1994.eko maiatza	390

1994.eko ekaina	394
1994.eko uztaila	397
1994.eko iraila	400

BATZAR TXOSTENAK

ARTURO CAMPION ETA BRUNO ETXENIKE

Jose Mari Satrustegi, <i>Arturo Campionen itzala</i>	407
Iñaki Camino, <i>Etxenike eta Aezkoako lekukotasun dialektologikoa</i>	417
J. A. Arana Martija, <i>Bruno Etxenike, Bonaparteren itzultzaile eta bidelagun Nafarroan zehar</i>	435

RAIMUNDO OLABIDE, ODON APRAIZ, FEDERIKO BELAUSTEGIGOITIA ETA LUIS GONZALEZ DE ETXABARRI

Juan Pastor Alvarez, Presidente de las Juntas Generales de Araba/Alava, <i>En el 75 aniversario de la fundación de la Real Academia de la lengua vasca/Euskaltzaindia</i>	443
Alberto Ansola Maiztegi, Arabako diputatu nagusia, <i>Euskaltzaindiaren 75. urteurrenean</i>	445
Jean Haritschelhar, euskaltzainburua, <i>Erraimun Olabide, Odon Apraiz, Federico Belaustegigoitia eta Luis Gonzalez de Etxabarri jaunei omenaldia Euskaltzaindiaren 75. urtemugan</i>	447
Patxi Altuna, <i>Raimundo Olabideren bizitza eta lanak (1869-1942)</i>	451
Manuel M. ^a Ruiz Urrestarazu, <i>Luis Gonzalez de Etxabarri, hasierako euskaltzain urgazlea</i>	469

PIERRE LHANDÉ-MARTIN LANDERRETXE

Jean-Louis Davant, <i>Aita Lhande zenaz</i>	477
Xabier Diharce "Iratzeder", <i>Martin Landerretxe, euskaltzain apezka, (1842-1930)</i>	481

BESTELAKO TXOSTENAK

Jose Garmendia Arruebarrena, <i>Un inédito de Aizquibel</i>	487
Jose Garmendia Arruebarrena, <i>Aizquibel e Iztueta</i>	501

Andoni Barreña Agirrebeitia, <i>Deklinabidearen jabekuntza-garape-na haur euskaldun elebekar batengan</i>	505
Michel Morvan, <i>Commentaire critique sur les 'Materiales para un diccionario etimológico de la lengua vasca'</i>	539
Patxi Salaberri Muñoa, <i>Legutioko hidronimia aitzaki</i>	551

'ONOMASTIKA' DIKTAMENAK

Mikel Gorrotxategi Nieto, secretario de la comisión de Onomástica, <i>Ubidea/Ubide, Salvatierra/Agurain</i>	569
Mikel Gorrotxategi Nieto, <i>Atxuriaga-La Aceña</i>	573
Mikel Gorrotxategi Nieto, Onomastika batzordekidea, <i>Herri-ikastetxe izen zenbaitez xehetasunak</i>	579

BERRIAK

<i>Federiko Krutwig Sagredo</i>	585
Andoni Iriondo, <i>Los clásicos del pensamiento universal en euskara</i>	589
Xabier Mendiguren Bereziartu, <i>Unamuno eta Schopenhauer euskaraz</i>	595
Xabier Kintana, <i>Unamuno y Schopenhauer en euskara</i>	599
Andoni Iriondo, <i>Pentsamenduaren klasikoak euskaraz</i>	603

HIL BERRIAK

Jon Bilbao Azkarreta	611
----------------------------	-----

**EUSKALTZAINDIAREN 75. URTEURRENA
GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAN**

1994.09.21

EUSKALTZAINDIAREN 75. MUGAKARI

Donostian, 94.09.21

*Jean Haritschelhar
euskaltzainburuaren mintzaldia*

Agintari ohoragarriak,
Euskaltzainkideak,
Jaun-Andereak,
Agur.

Bilduak gara egun, Gipuzkoako Aldundi honetan, Euskaltzaindiaren sortzearen 75. urtemuga ospatzeko.

Agurtzen zaituztet, agintari ohoragarriak, hemen zaudetelakotz gure deiari erantzun baikor bat emanez, frogatzen duzelakotz Eusko Jauralaritza, Nafarroako Gobernua, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako aldundiek estimu handitan daukazuela Euskaltzaindia, onartu duzelakotz ere aholkulari ofizial gisa euskarari dagokionez.

Euskara, gure hizkuntza maitea, da elgarretaratzen gaituena, gure arteko lokarririk sakonena, egiazko euskaldun egiten gaituena, gure nortasunaren ikurririk nabarmenena.

Ohore zuei, agintari jaun-andereak eta bihotzaren zolatik mila esker Euskaltzaindiaren izenean.

* * *

1919.eko irailaren 21ean, duela 75 urte, hemen berean, Gipuzkoako Aldundiko areto nagusi honetan, sortu zen Euskaltzaindia. Aspaldian aintzek ikusten eta aldarrikatzen zuten akademia baten beharra. Lehena, Jose Paulo Ulibarri Galindez-ek bere *Gutun liburuan* argitaratzen ditu ukan eta idatzi dituen gutunak, haien artean Pedro Novia de Salzedo-ri hauxe derasana:

“Ogueta lau gizon biar dira icentau Guernicaco bazarrean euskera-
ren ganean eguîteco aleguîne au.”

Bakarrik aipatzekotan, haren ondotik hor ditugu Aizkibel, Louis Lucien Bonaparte printzea, d'Abbadie euskal letren Mezenas haundia, Jose Manterola, Artiñano, Arana Goiri...

Azkenean, 1918.eko urtarrilaren 25ean, Bizkaiko Diputazioan, Kosme Elgezabal eta Felix Landaburu bizkaitar diputatuak irakurtu zuten euskal akademia baten sortzeari buruzko txosten bat, aho batez onartua.

Bildu zelarik euskal estudioen lehen kongresua 1918.eko irailean, hartu zen Akademiaren sortzearen erabakia eta izendatuak izan ziren lehenbiziko lau euskaltzainak: Resurreccion Maria de Azkue, Arturo Campion, Luis Eleizalde eta Julio de Urquijo. Aurre-araudi bat egin zuen Raimundo Olabidek, Eusko Ikaskuntzak bere gain hartu zuena, eta presentatu lau diputazioei, denen babesaren lortzeko: Gipuzkoak 1919.eko apirilaren 11an, Bizkaikoak maiatzaren 5ean, Arabakoak irailaren 2an eta Nafarroakoak irailaren 3an.

Babesak lorturik prest dago haurtxoa mundura agertzeko. Irailaren 21ean, beraz, Eusko Ikaskuntzak deiturik bildu ziren hemen berean jadanik izendatuak izan ziren lau euskaltzainak: Azkue, Campion, Eleizalde eta Urkijo eta horiekin batean *Jaungoiko-zale*, *Euzko-Deia*, *Jesusen Biotzaren Deia*, *Irugarrengo Prantziskotarra*, *Euskal-Erria*, *Euskal-Erriaren alde*, *Euskal-Esnalea*, *Revista Internacional de los Estudios Vascos* eta Baionako *Eskualduna* "deritzen agerkariak bialdutako autesleak".

Euskal kulturen murgiltzen ziren agerkarien ordezkariak hautatu zituzten bertze zortzi euskaltzainak: Domingo Agirre, Pierre Broussain, Blaise Adema, Ramon Intzagarai, Jose Agerre, Juan Bautista Eguzkitza, Raimundo Olabide eta azkenik zubereraren izenean, Aita Pierre Lhande. Hamabi euskaltzain: bederatzi Hegoaldekoak eta hiru Iparraldekoak; sortu zen ordutik mugaz gaineko erakundea izan da Euskaltzaindia.

Bilkura sortzaile horren buru Julian Elorza jauna izan zen, idazkaria Angel de Apraiz, biak Eusko Ikaskuntzako buru eta idazkaria. Eusko Ikaskuntza aita ponteko izan zen. Hori nahi nuen argiki agertu Goio Monreal orain Eusko Ikaskuntzako buru denaren aitzinean, denbora berean agurtzen dudalarik.

* * *

Orain itzultzen naiz gaurko komunikabideetako zuzendariei buruz. Orduko euskal agerkarien buruzagiak, Hegoaldeko lau aldundiak eta Eusko Ikaskuntza izan dira Euskaltzaindiaren sortzaileak. Orduko agintariek eta, dudarik gabe, orduko idazleek hedatzen, kaleratzen zuten

euskara. Orain, zuek zarete euskararen hedatzaileak. Zer aldaketa ikaragarria anartean, bereziki frankismo garaia bururatuz gero!

Sekulan baino gehiago idazten da euskaraz, ikusiz zenbat eta zenbat liburu agertzen diren urtero, gai guziak hunkituz, hezkuntzakoak, administraziokoak, zientzia, filosofia, literatura eta abar... Hor ditugu al-dizkariak, astekariak eta bereziki *Euskaldunon egunkaria*, egunero eskaintzen dizkigularik bere 32 orrialdeak. Euskaldunek eta euskaltzaleek badaukate eguneroko bazka.

Hor ditugu irratiak, Hegoaldekoak Iparraldekoak bezala, ez baitzen holakorik duela 75 urte. Euskal irratiei esker, euskaldunak badauka orain, nahi duelarik, euskararen entzuteko parada.

Hor dago ere Euskal Telebista, Eusko Jaurlaritzak eta Eusko Parlamentuak sortua, duela orain hamar dotzena bat urte. Sartzen zaigu etxean, atseginekin hartzen dugu, hamabi orenez egunean ikus ditzake-gularik zabaltzen dituen emankizunak.

Aro berri honetan, zuek zarete euskararen hedatzaile berriak. Segiz-kitzue zuen lanak, hedazazue euskara garbi, txukun eta alai bat eta zuen eginbidea osoki betez, ukanen dituzue gero eta irakurle, entzule eta ikusle gehiago, euskararen onerako.

* * *

Jauzi haundi bat eginez, heldu gara 1968.eko urtera. Euskaltzaindiak ospatuko du orduan bere 50. urteurrena. Bilbon urtarrilaren 26an egin zen bilkuran, hartu zuen xede bat. Honela dio Agiriak: "Aresti-k dio ordua dela euskararen batasuna serioski artzeko eta biltzar nagusi orretarako gairik bearrezkoena euskararen batasuna dela. Gero, euskera-ren batasunari buruz, erabagi batzuek artzeko euskaltzainak bakarrik, be-ren artean autatzen dituzten beste norbaitzuk ekipoan arturik, oiñarri batzuek artu bear lituzkeela esan da. Euskalki bakoitza errientzat erres-petatuaz, literaturarako euskera batasun bat lortzeko".

Arantzazun bildu zen kongresua urriaren 3tik urriaren 5a arte. Ez ditut hemen aipatuko han izan ziren kataskak eta kalapitak, historian sartuak direlaketz. Halere, labur bilduz, oroitaraziko ditut Koldo Mitxel-enak agertu zituen oinarriak:

1. "Ezin bestekoa, il edo bizikoa, dela uste dugu euskara batasun bidean jartzea.

2. Ez luke gai honetan iñor mindu nahi Euskaltzaindiak, baina ezin ditekete batasunera jo, iñor mindu gabe. Batasun osorik egiteko, or-dea, ez du Euskaltzaindiak ez eskurik ez indarrik, ez berez ez besteren

bitartez. Gidari eta bide erakusle agertu nahi luke orain, gauden egoeran, egin ditezkeanaren neurrian.”

3. Azkenik, mugatzen ditu xedeak:

- a) Idazkera eta ortografia
- b) Antzinako euskal hitzen formak
- c) Hitz berrien eraketa eta bestetandik hartuen forma
- d) Morfologia: izena (izen-ordea) eta aditza
- e) Joskera

Ez zen gai berria euskararen batasuna, gai berritua baizik, aspaldidanik aipatua. 1920.eko Euskaltzaindiaren sortarauetan, hauxe irakur dezakegu: “ekingo du eskualgi oroen odolez azitako euskal eredu bat gertutzen, itzez, itz-yoskeraz ta idazkeraz albait erabatetsuena, euskaldun guziak idatz-irakurketan erabiltzekoa”.

Argi eta garbi dago euskararen batasuna gure aitzinekoen xedea zela, Campion eta Broussain-ek landu zutena idatzi zuten txostenean. Zorigaitzez hortan gelditu zen.

50 urteren buruan, gure belaunaldia lotu zitzaion lanari. Hamar urtez Euskaltzaindiak eskaini zituen proposamenak batasunaren gauzatze-ko: ortografia, deklinabidea, erakusleak, aditz laguntzaileak eta bertze... Hamar urteren buruan, 1978.eko irailean, Bergarako biltzar nagusira dei zabal bat egin zuen Euskaltzaindiak, ehun bat jende baino gehiago etorri zirelarik biltzar hartara.

Berriz ere Mitxelenarengana noa bere “Arantzazutik Bergarara” artikuluan hauxe dioelarik: “Natorren berriz arira. Arantzazukoaz eta ondorengoez oroitzen naizenean, gogoan barrena sumatzen dudana poza da eta ez damua. Iñolako damurik nabaritzen ez dudala esango balinbanu ez nuke gezurrik esango...”.

Eta urruntxago: “Erabakirik onena hartu zuen, Euskal Herriari, euskaldun guziak minduko bazituen ere, aspaldixko zor ziona: batasun bidetik, gerotik gerora ibili gabe, gogotik eta deliberatuki abiatzea”.

Egia da urrats ederrak eman zirela anartean eta idazleek emanikako erantzunei esker, ikus zitekeen idazle gehiengoak Euskaltzaindiaren proposamenak onartu zituela eta baliatu. Euskara batuaren (hala izendatua izana da) lehen urratsak hamar urte horietan eman dira. Bergarako biltzarkideek eskainitako iritzia bereganatu zituen Euskaltzaindiak eta Arrasateko Biltzarrean erabakiak hartu. Erran nezake zuhurki jokatu zela Euskaltzaindia eta geroztik, morfologian bederen, batasuna lortu zuela.

Aski dira irakurtzea liburu, prentsa eta bertze konturatzeko zer aldaketa haundia izan zen zenbait urtez.

Begara eta Arrasatetik (hau 1979.ean) Leioara, aurtengo urriaren 3tik 7ra bertze itxura bat hartu dute Euskal Herriak eta Euskaltzaindiak. Lau diputazioen ordez baditugu Hegoaldean Euskal Komunitate Autonomoko Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernua eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako diputazioak. Euskara hizkuntza ofiziala da Komunitate Autonomoan eta Nafarroako euskal eremuan.

Euskaltzaindia Erret Akademia bilakatu da 1976.ko otsailaren 26ko Erret Dekretuari esker eta aholkulari gisa onartua da, bai Komunitate Autonomoan, bai Nafarroan.

Oxtion erraiten nuen bezala, aro berri batean sartuak gara aldaketa haundiak izan baitira politikan, gizartean, hizkuntzan bezala. Euskaltzaindiak batzordeetan egiten du lan eta fruituak ageri dira:

1. *Orotariko Euskal Hiztegia* bere sei liburukiekin, zazpigarrena laster agertzekotan.

2. LEF azpibatzerdea hitz elkarketen proposamenak eginik, orain eratorpena eskainiko duena.

3. *Gramatika lehen urratsak*: lau liburuki argitaratuak, joskeran murgildurik daudela Gramatika batzordekideak.

4. Euskal Herriko Hizkuntz Atlasak, inkesta guziak bururatu ditu eta datuen informatizatzen ari dira batzordekideak.

5. Onomastika batzordeak segitzen du hain artoski hasi duen lana kongresu eta argitalpenek frogaturik.

6. Literatura batzordeak antolatu ditu kongresuak eta jardunaldiak istudio sakon batzuk argitaratu dituelarik, Elizanburu eta Oihenarteren obrei buruz azken biak aipatzekotan bakarrik.

Duela urte bat, Oñatin, erraiten nuen 75. urtea lan urtea izanen zela. Jardunaldiz Jardunaldi ibili da Euskaltzaindia, urtarrilean Donostian, otsailean Bilbon, martxoan Iruñean, apirilean Gasteizen, maiatzean Bilbon, ekainean Miarritzen, uztailen Donostian. Euskal Herriko eremu guzietan egin diren jardunaldietan etorri dira entzuleak, eztabaidatu dira batzordeek landutako txostenak.

Hemen datza urte honetako emaitza:

1. Euskara Batuko batzordeak: Euskaltzaindiaren gomendio-erabakiak, 39 orrialde.

2. Gramatika batzordeak:
 - a) Batasunerako proposamenak, 65 orrialde.
 - b) Okerrak zuzenduz, 55 orrialde.
3. Euskara Batuko batzordeak: hitanoaz, 65 orrialde.
4. LEF batzordeak: eratorpenaz, 23 orrialde.
5. Hiztegi Batuko batzordeak: aztergai sistematikoak: irizpideak, 37 orrialde.
6. Literatura batzordeak: euskal metrikaz, 69 orrialde.
7. Onomastika batzordeak: exonomastikaz, 115 orrialde.
8. Ahoskera batzordeak:
 - a) Azentua eta euskara batua, 17 orrialde.
 - b) Ahoskera baturantz, 29 orrialde.

Orotara, 514 orrialde, kondu gabe Hiztegi Batuak A eta B letrak eskaini dituen D eta E letrak eskainiko dituelarik egun hauetan eta ber-
teak geroxeago.

Barkatuko didazue zerrenda luze hau baina nahi dut erakutsi zer
lan mota egiten den Euskaltzaindian eta, bidenabar, batzorde kide gu-
ziak eskertu bihotzaren erditik.

* * *

Leioan bilduko gara beraz datorren urriaren 3tik 7a arte, txosten gu-
zien eztabaidatzeko, euskaltzaleen iritzia lortu nahiz (300 baino gehiago
izena emanik). Euskaltzaindiak, gehiengoaren onespina ardietsi eta,
Arantzazuko kongresuan bezala, erabakiak hartuko ditu.

Egun, Euskaltzaindiaren 75. urtemuga ospatzean eta Leioako biltzar
nagusiaren bezperan, ez nagoke Koldo Mitxelenaren oroitzapena gogo-
ratu gabe.

Koldo, nahiz ez zaren sekulan euskaltzainburu izan, egiazko “pri-
mus inter pares” izan zara urte luzeetan. Beti argitu duzu Euskaltzaindia
zure jakituriaz. Euskararen batasunerako bidea urratu duzu Arantzazun
lehenik, Bergaran eta Arrasaten gero. Goi hartarik ikus dezakezu bagoa-
tzila bide beretik, euskara landuz, euskara hobetuz, euskara gaurkotuz,
euskara baturantz urrats bat gehiago emanez.

Iragana gogoan, jotzen dugu aurrera geroari buruz.

Eskerrik asko.

EUSKALTZAINDIAREN 75. URTEURRENA GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAN

Donostia, 1994.09.21

*Jose Antonio Ardanza,
Euskal Herriko Autonomi Elkarteko Lehendakaria*

Euskaltzainburu jauna,
Agintariok,
Jaun-Andreok,

Ez dut une berean leku desberdinetan egoteko dohainik. Bestela, egia esan, hortxe ere izango nintzateke zuekin. Izan ere, euskara zaintzen, euskarari bizirik eusten 75 urtez jardun duen erakundeak merezi du. Eta merezi duzue zuek, Herri honen ezaugarririk nabarmenaren, ondarerik ederrenaren eta hango eta hemengo euskaldunen lokarririk sendoenaren arduradun eta zaintzaile zaretonak. Eta merezi duzue ospakizun horretara bildu zareten euskal irakasle, idazle eta euskalgile guztiok ere.

Baina itsaso haundi batek eragozten dit gorputzez zuen artean iza-tea, Euskal Herriari eta euskaldunei munduko leihoak zabaldu nahian etorria bainauzue Ipar Ameriketara. Ez naiz lehenengoa. Nire aurretik euskaldun asko dira hona etorriak, lan bila, bizimodu hobearen bila, babes eta gordeleku bila. Ameriketak, berriz, beti ongi hartu gaitu euskaldunok.

Euskal Herriak oraintxe ere badu Ameriketaren beharra. Premia horrek beharturik etorria nauzue hona, dakizuen bezala. Gure aurrekoei esker lortutako adiskidetasuna sendotzera eta ekonomiari eta merkatuari bideak zabaltzera etorria nauzue, hain zuzen. Hemen bizi diren euskaldunei eta beroien ondorengoei ere erakutsi nahi nieke, bide batez, Euskal Herriaren maitasuna. Nonnahi bizi garelarik ere euskaldunok herri bat garela sentiarazi nahin nieke.

Horregatik mintzo natzaizue Ameriketatik. Horretan ere ez naiz lehenengoa. Behin eta berriz hitzegin baitzigun hemendik Jose Antonio Agirre lehendakariak Euskal Herriko jendeari, euskaldun espetxeratu eta

atzerriratuei, laguntza eta adorea eskainiz. Niri ere Ameriketatik hizketatzea suertatu zait, hor elkarrekin bildu zareten euskaltzale guztiokin, Euskaltzaindiaren egun seinalatu honetan.

Hitzezin ere zorionak emateko, lanerako gogoia berotzeko eta Ameriketako euskaldunek Euskal Herriarentzat eta euskararentzat egin zutena gogorarazteko, hitzezin nahi nizueke.

Langile zintzo eta hitzeko gizonen fama zabaldu ziguten euskaldunoi mundu osoan. Baina eskulanera, artzaintzara, nekazaritzara eta aberastera bakarrik ez ziren etorri euskaldunak. Lekuan lekuko jendearekin bat eginik, amerikarren askatasunaren eta aurrerapidearen alde ere saiatu ziren. Badira euskaldunon kultura eta artea erakutsi dutenak ere. Baita euskara irakasten eta lantzen ahaleginak egin zituztenak ere. Garai haietan adina euskarazko gutun eta bertso gutxitan egingo zioten euskaldunek elkarri. Ameriketako euskaldunek sortutako bertsoak, olerkiak eta prosa ezaguna eta miretsia izan da. Hegoaldean euskara zigorturik zegoen garai larri hartan ere Ameriketako sortu ziren euskarazko aldizkariak eta liburuak. Orixe, Zaitegi, Andima Ibiñagabeitia, hil zaharrak ez diren Justo Garate eta Jon Bilbao eta abarrek egindako lan eskerga gogoratu besterik ez dugu. Ameriketa eta euskaldunen arteko beste lotura adierazgarria Nevadako Unibertsitatetik Renon egiten den guztia ere badugu.

Nik baino hobeto dakizue hau guztia, jakina, baina Ameriketatik mintzo natzaizuenek, beharrezkoa zait euskaragatik erasotuak izan ziren guztiak oroitzea eta eskertzea.

Orain, berriz, nire aldetik ausardi haundiegia bada ere, utzidazue bi hitz, zuei, euskaltzain eta euskalgileoi esaten. Lau diputazioek sortu zuten Euskaltzaindia, artean ez baitzen Eusko Jaurlaritzarik. Baina Euskaltzaindia eta Eusko Ikaskuntza sortu zituzten iritzi guztietako euskaldun haien buru-bihotzetan zegoen burujabetzaren, autonomiaren eta elkaritasunaren burubidea ere. Euskal erakundeak eta burujabetza geroago gauzatu badira ere, Autonomi Estatutuaren eta Jaurlaritzaren asmoak ere hantxe egosi ziren. Eta Euskaltzaindiak berak ere euskal erakundeak osatu direnean eskuratu ditu lanerako behar zituen baliabideak eta tresnak.

75 urte geroago elkarrekin bildurik gaude Euskaltzaindiaren partaideok eta herri-agintariok. Euskaltzaindiak itzal haundia lortu du bere bizitza luzean, Resurreccion Maria Azkue, Inazio Maria Etxaide, Jose Maria Lojendio, Manuel Lekuona, Koldo Mitxelena eta Luis Villasante bezalako gizon argi, jakintsu eta zentzudunei esker. Eta lortu du herri-erakundeen babesia eta laguntza ere.

Euskara batuak, euskarak berak hizkuntza bezala ere, behar-beharrezkoa du guztion onarpena. Koldo Mitxelenak esan ohi zuen bezala euskarak ere Aita Santu bakar bat behar zuen gidari. Aita Santu hori Euskaltzaindia suertatu da, Mitxelenaren nahia betez. Lortu duzuen guztion onarpen hori ez ezazue gal, beraz, inoren zabarkeriaz, harrokeriaz, setakeriaz edo alderdikeriaz.

Hizkuntzalari bati ez zaio presaka erabaki beharra atsegin. Baina administrazioan, irakaskuntzan eta kazetaritzan dihardutenek presa haundiko premiak dituzte eskuartean. Presa eta premia haundiak dituen hizkuntzaren akademia da Euskaltzaindia. Euskarak galtzorian dituen altxorrek biltzeko, beste hizkuntzek egindako mailatuak eta maspildurak konpontzeko eta gaurko egunerako tresna egokia bihurtzeko premia eta presa ditu euskarak eta hizkuntza horretan lan egin behar duen irakasleak, funtzionariak, kazetariak, idazleak eta abarrek.

Orain arte egin duzuenaren esker ona agertu ondoren, lanerako deia egin nahi dizuet, beraz. Euskarari eta bere ikerketari zenbat eta emangoak zareten, argibideak, aholkuak eta erabakiak zenbat eta egokiagoak, garaizagoak eta bateratuagoak, hitzez eta ekintzaz, eskaintzen dituzuen orduan eta itzal haundiagoa izango duzue. Orain 75 urteko gizon-ema-kume haiek ezer erakutsi baziguten horixe erakutsi ziguten: iritziak iritzi eta ideologiak ideologi, elkarrekin egin behar dela lan euskararen, euskal kulturaren eta herri-erakundeen alde.

Aurrera, beraz: *Ekin eta Jarrai.*

Zorionak eta eskerrik asko.

New York, 1994.eko irailaren 21ean

EUSKALTZAINDIAREN 75. URTE DIRELA-TA

Donostia, 1994.09.21

*Jose M.^a Rodriguez Ochoa,
Nafarroako Gobernuko Hizkuntza Politikarako zuzendari nagusia*

Gaurko ospakizun handi honetan Nafarroako Gobernuko Lehendakaria bera pozik izango zen hemen, baina eragozpen pisuzkoak izan ditu. Ohore handia da niretzat, haren izenean hemen agertzea; baina badakit ez dudala erakutsiko hark duen autoritate, trebetasun eta estilo bereizgarria.

Gaurko eguna oso berezia da eta helburu zehatza du Euskaltzaindiaren sorreraren hirurogeita hamabosgarren urteurreneko ekintzen esparru zabalean. Hertsiki mintzatuz, Euskaltzaindiaren osakera deitu ohi dena ospatzeko, bildu gara. Zer esan genezake mila bederatziehun eta hemeretzigarren urteko irailaren hogeita bat hartaz aurtengo irailaren hogeita bateko ikuspegitik? Dudarik gabe orduan bildutakoen jarrera eta asmoak gaurko gureen oso antzekoak ziren. Ikuspegian daude aldeak, batere alderik badago. Lehenbiziko bileran haren ezaugarri nagusi izan zen hasierak berekin izan ohi duen ilusioa; asmoak ugari ziren, baina ezin ukatu etorkizunari buruzko beldur eta ziurtasunik eza. Gaur, berriz, atsegin handiz ikusten dugu Euskaltzaindiak burutu duen lan eskerga. Oztopoak ez dira nolanahikoak izan: batez ere gerra zibil baten esperientzia mingarria, ez baita ahaztu behar hizkuntza txikietan izan zuen eragin larria. Baina askoz gehiago da aldatu gabe lehengo berean iraun duena. Izan ere, Euskal Herriko erakunde berak gaude, laguntzarako eta erantzunkizuneko jarrera berarekin. Eta batez ere Euskaltzaindia berbera da, euskara ikertu, babestu eta jagoteko asmo berberekin. Horregatik adierazgarria da oso, hirurogeita hamabost urteren buruan, erakunde berberak eta egun, leku eta ordu berean biltzea, ordu aldaketak kontuan hartzen baditugu.

Bigarrenik, ordezkari bidali nauen instituzioari dagokionez, gogora ekarri nahi nuke laburki Nafarroako Gobernuak Euskaltzaindiarekin izan duen jokabidea. Nafarroak ohoretzat dauka Euskaltzaindia sortzeko ideiari bere babes suharra eman izana. Izan ere, Nafarroako Diputazioak

Urkijoren mozioa deritzanaren proiektua onartu zuen mila bederatziehun eta seian. Azkuek mila bederatziehun eta hamahiruan emandako pausoen alde agertu zen. Eta bereziki Oñatin mila bederatziehun eta hemezortzian Eusko Ikaskuntzaren I. Batzarrean hartutako erabakien alde agertu zen. Ondoren bide horretatik jarraitu du, garbi uzten duenez Euskararen Foru Legean, mila bederatziehun eta laurogeita seikoan, aholku erakunde ofizialtzat Euskaltzaindia hartzeak, eta Eusko Jaurlaritzarekin eta Foru Diputazioekin batera mila bederatziehun eta laurogeita hemezortzian Hitzarmena sinatu izanak. Horregatik, Nafarroako Gobernua pozik sentitzen da Euskal Herriko bere kideko instituzioekin batera Euskaltzaindiari beti loturik egon izanaz. Ohoretzat dauka hori egina, eta —zergatik ez—, bidezko du horretaz harro sentitzea. Aldi berean aldarrikatu nahi dut norabide horretantxe aurrera jarraitzeko asmo sendoa, eta hartutako konpromisuak hitzeman bezala betetzekoa.

Azkenik, Nafarroako Gobernuaren ordezkari gisa, honako hau besterik ez zait geratzen: Euskaltzaindiari zorionak ematea eta egindako lan eskerga eskertzea. Eta animatu nahi nuke, *Ekin eta Jarrai* ikurrarekin bat, beti zintzo egon dadin bere helburuekin, ikerketa eta hizkuntzarekiko ardura, alegia. Ikur horixe behar genuke gidari gainerako herri-agintariok eta Euskal Herriko biztanleok euskararen erabilpena normalizatzeke elkartasunezko eginbeharrean.

EUSKALTZAINDIAREN 75. URTEURRENEAN: ARABA ETA EUSKARA

*Donostia, 1994.09.21
Gipuzkoako Foru Aldundian*

*Alberto Ansola,
Arabako diputatu nagusia*

Arabatik natorkizue. Haren izenean eta arabar hizkuntzaz mintzatzen natzaizue.

Araba, lur laua eta era berean menditsua. Lurralde goi eta orekatua. Orekatua, bere biztanleak diren bezala: adeitsu eta atseginak.

Zer da Araba euskararentzat?

Iragandako historian, dirudien baino gehiago. Araban zehar eta mendez mende, zenbait euskalki gurutzatu dira.

Euskararen garapen luzearekin Arabaren lurretako toponimian topa gaitzke: *Haritzabaleta* hamaikagarren mendean eta *Aretxabaleta* gaur, *Lexargibel* hamazazpigarrenean eta *Abaisolo* mende honetan. Han, urrutian, *Artzena* mendizerra eta *Artziniega* hiria, antzinako Autrigonian biak. Bertan ere, eta *Gobea* haranaren erdian, *Karria* izenaz deritzan haitzak deitura harrigarri hori Erdi Arotik gutxienez darama, K gogortu horrekin. Apur bat ekialderago, *Harkamo* mendizerrarekin egiten dugu topo; oraindik orain, ingurukoek *Karkamo* deritzate karezko mendikate honi.

Hona ba aspaldiko izen eta ahoskera gogortu bereziak Arabako mendebaldean.

Beste aztarna mota batzurekin ere topatzen gara Arabako bi bazterretan: bai ekialdean, eta bai eta mendebaldean ere. Lehenengo erderekin, alegia.

Ekialdean, Kanpezu aldean, nafar erromantzea nabaritzen dugu toponimia txipian eta mendebaldean berriz, Gobearen haranean, hain zuzen, antzinateko gaztelera, Erdi Aroko itxuraz gainera. Erromantze horien sorpena gure inguru gertuan, gurean ez bazen, gertatua dugu.

Eta erromantze horien ondoan, alboan, barnean eta gainean euskara soma eta aurki dezakegu.

Arabaren oparotasunaz hitz egiten digu historia uhinkor eta aberats horrek.

Eta eboluzio luze honen ondorio nagusitzat, eta batzurentzat paradoxa gerta litekeen arren, hauxe aurkitzen dut: funts eta muinean, Araba batzen duena euskara dela. Araba sustatzen duen sustrai sendo eta mardula euskara da. Arabarren sen sakonean euskara datza. Sen sakon horren agerpen bizi nabariena arabar euskaltzaleek eratzen dute.

Arabako Ahaldun Nagusia naizen aldetik, euskara landu duten arabar euskaltzaleen izen guztiak agertu nahi nizkizuke, pozaren pozez, inor aipatzeke geratu bage; baina agerpen oso hori ia ezinezkoa izanik, izen soil batzuk behintzat, testigantza gisa, aipatuko dizkizuet:

Aramaioko Barrutia, Jauregi, Untzueta eta Pujana; Sabandoko Gamiz; Laudioko Belaustegigoitia; Araiako Urrestarazu "Umandi" eta Gas-teizko Olabide, Apraiz eta, beste batzuren artean, egun, gure artean Euskaltzaindiaren idazkari bezala lan egiten duen Endrike Knörr jaun prestu eta argia.

Konturatu zarete, jadanik, arabar euskaltzale denak ez ditudala ize-nez izen aipatu eta horien artean, azkenerako utzi dut espreski, joan den mendearen hasieran, euskararen alde kemenez jardun zuen mariskal beterinario baten izena, hots, Jose Paulo Ulibarri, Okondokoa. Gizon adoretu hori aurrelari gertatu zitzaigun, euskararen onerako hain onuragarria izango zen Euskaltzaindiaren beharra, bere *Gutunliburuan* agertu zigunean:

"Ogetalau gizon biar dira izentau
Gernikako batzarrian
egiteko alegin an,
euskeraren ganian."

Ia ehun urte iragan behar izan ziren, Euskaltzaindiak, Aldundien eskutik, gorputza hartu arte.

Hirurogeita hamabost urte betetzen ditugu gaur, egun zoragarri hartatik. Har ezazue, ba, nire zorion beroena.

Giro pozgarri honetan, eta amaitzeko, Jose Paulo Ulibarrik bere hiri-riaz esan zituen hitz haiek gogoratu nahi dizkizuet:

"Okondoko erria,
da euskaldun bere izatia."

Araba osoa kontuan izanik, Arabako diputatu nagusia naizenez gero, ene egitekoa hori baita, zilegi bekit Ulibarriren baieztapen hori honelaosatzen saiatzea:

“Arabako herria,
euskaldun duzu
zure izatea.”

Eskerrik asko.

EUSKALTZAINDIAREN 75. URTEURRENEAN

*Donostia, 1994.09.21
Gipuzkoako Foru Aldundian*

*Jose Alberto Pradera,
Bizkaiko diputatu nagusia*

Agintari,
Euskaltzain,
Jaun eta Andreok:

Euskaltzaindiaren lehen bileraren hirurogeita hamabost urte betetzen doguz gaur, bilera ha egin zen toki berean eta, aitagarriago dana, euskera zaindu, batu, indartu eta suspertuteko ispiritu beraz eta, hobe dana, agian orduko itxaropen beraz eta handiagoaz euskararen etorkizunari buruz.

Hirurogeita hamabost urte honeek berez merezi dabe zorionik suitsuenak. Hainbeste urte ez dira sekula urte gitxi izango edozein erakunderentzat, baina askoz ere gitxiago Euskaltzaindia lako erakunde baten zat, euskarak urte honeetan jasan dituen erasoak Euskaltzaindian mamitzen zirelako, Euskaltzaindian aurkitzen ebelako okela eta hezur, Euskaltzaindia izan delako urterik txarrenetan ere euskararen ageriko ordezkaria eta euskeraren suzia pizturik eusten saiatu dena.

Euskerak egiten gaitu bat, hori egia da eta horri eutsi behar deusgu. Nahiz hiru, nahiz lau, nahiz sei edo zazpi izan, Euskal Herria bat da euskarari esker, euskarak egiten du Euskal Herria bat; eta euskaldunok ere, nahiz Hegoaldean, nahiz Iparraldean, nahiz Europan, nahiz Ameriketean izan, euskarari esker gara euskaldun eta anaiak.

Hori horrela izanik ere eta hori horrela delako, Euskaltzaindia da batasun hori garbien agertu eta orain ere agertzen dauana. Euskaltzaindiak beti hartu izan dau Euskal Herri osoa eta zuhurtasunez gordetzen jakin izan dau eraketa hori. Aurrerantzean ere bide berari eutsi dagiola itxaroten dogu, sekula ahaztu barik Euskal Herria denon artean osotuten dogula.

Nik, Bizkaiko ahaldun nagusia nazanez, baina baita Bizkaiko seme nazanez ere, gogora ekarri gura neuke Euskaltzaindiaren sorreran partaidetza berezia izan ebela Bizkaiko Foru Aldundian aurkeztu ebenak euskeraren zaingorako akademia sortu beharra. Eskari hori gero Oñatiko bazterrera eroan eban Kosme Elgezabalek eta hantxe izendatu ziran lehenengo lau euskaltzainak, eta horren artean Azkue lekeitiarra, eta urte askotan Euskaltzaindiko buru izan zana.

Beraz, Bizkaia hasieratik Euskaltzaindiaren alde egon da, eta harro gagoz gaur be bere egoitza gure lurraldean dagoalako.

Ez noa gehiago nire hitzok luzatzera. Urak bere bidea daroa, eta Euskaltzaindiak ere jarrai dagiola bere betiko bideari. Zorionik bizienak hirurogeita hamabost urte honekaitik, eskerrik egiazkoenak egin dauan lan handiagatik, eta eskaririk barrukoena jarraitu dagian ekinean, bere le-maren araura, inoiztxo ahaztu barik Bizkaia euskararen habe nagusia izan dela eta horrela izaten jarraitu gura dabela. Besterik ez.

Zorionak

EUSKALTZAINDIAREN 75. URTEURRENA

*Donostia, 1994.09.21
Gipuzkoako Foru Aldundian*

*Eli Galdos,
Gipuzkoako diputatu nagusia*

Jaun-Andreok,
arratsaldeon.

Gaurko nire lehen hitzak, zuei denoi, herri-agintari, euskaltzain zein Gipuzkoako Diputazioaren jauregi honetara hurbildu zareten hiritar guztioi, nire ongi etorririk beroena helarazteko erabili nahi nituzke, eta bide batez, Euskaltzaindiari ospakizun pozgarri honen anfitriioia izateko eman digun aukera, bihotz-bihotzez, eskertzeko.

Euskaltzaindiaren diamantezko ezteiak ospatzeko antolatu den egitarauak gaurko honetara bildu gaitu, beraz, mila bederatziehun hemeretzigarreneko irailaren hogeita batean, hirurogeita hamabost urte direla zehatz mehatz, Gipuzkoako Diputazioaren areto hauetan Euskaltzaindiak burutu zuen lehen bileraren konmemorazio ekitaldira, alegia.

Esan gabe doa, guretzat ohore handia ezezik barne poz berezirako arrazoia ere badela Euskaltzaindiaren historia jaiotze momentutik bertatik hain estuki lotuta agertzea Diputazioarekin. Ikuspegi horretatik, guregurea sentitzen dugu urtebetetze hau. Eta Euskaltzaindiari zorionak ematean, neurri txiki batean, geure burua ere zoriontzen dugulakoan nago.

Izan ere, sortze garaian Foru Aldundiak eta Euskararen Akademia-ren artean eman zen uztardurak orain arteko ibilbidean zehar iraun du. Fisikoki ere egoitza izan dituzte euskaltzainek, sarri askotan, jauregi honen gelak eta aretoak, (asko pozten gaituena bidenabar esanda). Momentu zailetan sostengu izaten saiatu gara. Eta koiuntura historikoak esfortzuak berrindartzeko egokiera eskaini duenean bulkatzaile eta suspertzaile izateko erronkari adorez eutsi diogu.

Orain dela zenbait hilabete Oñatin izandako bileran esan nuenaren harira, ezinbesteko iruditzen zait diamantezko ezteiekin batera gaur ere

garrantzi handia daukan beste urteurrena aipatzea, ongi dakizuenez, aurreten betetzen baitira hogeitabost urte Arantzazuko bilera ospatu zenetik. Hogeitabost urte, beraz, euskara batuaren oinarriak jarri zirenetik.

Hiru diputazioek, Kosme Elgezabal eta Felix Landaburu Bizkaiko diputatu jaunek egindako proposamenari jarraituz, Eusko Ikaskuntzari euskararen akademia bat sortzeko proiektuaren ardura eman ziotenetik, ibilbide luzea egin du Euskaltzaindiak hogeigarren mendean barrena. Asko dira bere ardurapeko arlo desberdinetan burutu diren ekarpen eta lan emankorrak. Baina guzti hauen artean, duda izpirik gabe, gure hizkuntzaren batasunarena izan da nagusia.

Perspektiba historikoak ematen baitigu gaur egun aukera egokia bere momentuan Arantzazun hartu zen bidea noraino izan den erabakiorra baloratu ahal izateko, eta noraino hizkuntzaren batasun literarioa ezinbesteko lanabesa den komunikabideetan zein bizimodu modernoaren gainontzeko esparruetan ematen diren baldintzetan gure hizkuntza bizi dadin.

Arantzazun Euskaltzaindiak euskara hogeita batgarren mendeko hizkuntza modernoa bilakatzeko oinarriak jarri zituen eta horrek euskaldun guztion aldetiko errekonozimendu berezia merezi du.

Aldi berean, egoki iruditzen zait prozesu honetan euskararen alde hain lan eskerga egin duten eta honezkero gurekin ez dauden hainbat eta hainbat euskaltzale gogora ekartzea eta omentzea.

Denok aipatzea ezinezkoa denez, zilegi bekit izen batean sinbolizatzea pertsona guzti horiena eta une honetan Koldo Mitxelenaren oriotzapenarekin batera joan dadila Euskaltzaindiaren altzoan gure hizkuntzaren alde ahalegindu diren guztientzako agurra eta ohorea.

Beraiek izan dira denontzako aintzindari eta eredu. Izan gaitezela gauza aurrekoek ireki ziguten bidean aurrera egiteko, ondorengoek ez dezaten inoiz esan: "euskara deitzen zen hizkuntza bat izan zen".

Euskalkaindia osatzen duzuen guztioi, berriz ere, zorionak, bihotz-bihotzez, eta, horrekin batera, jaso itzazue nire animorik beroenak zuen enbleman goiburua, *Ekin eta Jarrai* aurrera eramanez gabe. Egon zaitezte ziur ahalegin horietan ez zaretela bakarrik izango eta Gipuzkoako Diputazioa izango duzuela lankide zinko eta leial.

Mila esker denoi.

EUSKALTZAINDIAREN AGIRIAK

BATZAR AGIRIAK

Iruñean, 1994ko martxoaren 24an

Haritschelhar, J., euskaltzainburua

Knörr, E., idazkaria

Arana, J.A., diruzaina

Altuna, P.

Azkarate, M.

Charritton, P.

Diharce, X.

Irigoyen, A.

Kintana, X.

Krutwig, F.

Larre, E.

Ondarra, P.

Oyharçabal, B.

Salaburu, P.

Satrustegi, J.M.

Villasante, L.

Zabaleta, P.

Lizundia, J.L., idazkariordea

Zearreta, J.J., ekonomi eragilea

Azken puntuan:

A. Urrutia eta

M. Zalbide, Jagon sailkideak

Iruñean, ordezkaritzan, 1994ko martxoaren 24an, ostegunez, arratsaldeko lauetan, bildu da Euskaltzaindia, aldameneko lerrokadan ageri diren lagunak bertan zirela. Ezin etorria J.L. Davant, J.M. Lekuona, Tx. Peillen eta I. Sarasolak adierazi dute.

Agiria

Otsaileko agiria onartu da, zenbait alaketarekin.

Barne-erregelak

X. eta XI. atalburuak aztertu dira egun eta 21. artikulutik 25.era bitarteko testua onartu. J.M. Satrustegiren gutuna irakurri da gero, karguen luzeraz. Arautegiak bi urteko agintaldia ezartzen duenez (28. artikulua) eta testu hori ahalik gutxien aldatzea komeni baita, bere horretan uztea proposatzen du. Inor ere aurka agertu ez delarik, bi urteko agintaldiak izango dira, orain arte bezala.

Botoaren prokurazioaz hitz egin da ondoren. J. Haritschelharren proposamena (erabateko askatasunaren alde) eta A. Irigoyenena (kasu berezi batzuentzat bakarrik, ez gai arruntak erabiltzeko, izan dadin eskatuz) eztabaidatu dira. P. Zabaletak beste proposamen bat ekarri du ahoz, hots, gai zerrendan ageri ez denaz ez dadila boto-prokuraziorik eman. J.A. Aranak, halaber ahoz, beste bat aurkeztu du: ahala izan dadila orotarako, baina zerrendan diren gaientzat soilik. Azkenean, lehen bi proposamenak bozkatu dira. J. Haritschelharrek Tx. Peillenen boto ahalatu zuen, eta M. Azkaratek I. Sarasolarena. Isilpeko bozketaren emaitza honako hau izan da:

J. Haritschelharren proposamenaren alde	13 boto
A. Irigoyenen proposamenaren alde	5
Zuriz	1

Gero, E. Knörren proposamena irakurri da. Bozketan parte hartu ahal izateko eta botoaren prokurazioa emateko euskaltzainak urtean lau aldiz etorri behar duela proposatzen du. “Euskaltzain osoen botoen nagusitasuna”, Arautegiak aipatzen duena, une hartan boto eskubidea luketenen kopurutik ulertuko litzateke. J.M. Satrustegik Arautegiak zer dioen zehaztea eskatu du. Erabakiak botoen nagusitasunaz hartuko direla dio 21. artikulua. P. Zabaletaren iritziz, proposatzen dena pixka bat gogorra da eta, zernahi gisaz, bereizi beharko litzateke ezin etorri adierazia, batetik, eta etorri ez eta adierazi ez, bestetik. B. Oyharçabalen ustez, aldaketa handia da eta horretara euskaltzainen eskubideak murrizten dira hein batean. J. Haritschelharrek esan du garrantzi handiko beste artikulua bat aldatzea erabaki dela, hots, ezinduek beren tokia utzi ahal izateaz. Gaia hurrengo batzarraren aztertuko da berriro.

Hitanoa

P. Altunak hartu du hitza. Haren aburuz, erabakitzeko garaia da eta aukerak gutxi dira. Adibidetzat hiru forma hauek aipatu ditu: *zegok*, *zagok* eta *diagok*. Maiztasun eta hedaduraren aldetik bi baizik ez dira kontuan hartzekoak: *zegok* eta *zagok*.

A. Irigoyenek esan du *niagok* eta horren ondorengoa dena, *ñagok*, guztiz zabalduak direla. P. Altunak erantzun dio *negok* ere *niagok*-en ondorengoa dela.

M. Azkaratek txosten laburra irakurri du. Bi abiapuntu hauek ditu: “1. Ez dirudi forma zaharretara, ahoz orain, mende honetan, erabiltzen ez direnetera jotzea komeni denik. 2. Literaturan ere ahozko erregistroa jasotzen duten testu idatzietan aurkituko ditugu gehienbat hitanoko formak. Ez digu, beraz, literaturak, gure ahozko euskararen ezaguerak ematen ez digunik emango”. Galdeketa ehun-tsu iritzi-maileri eskutaratu zitzaiera esan ondoren, hau proposatzen du: a) *na-gok* edo *negok*, baina ez *niagok*, azken hau zaharra izaki eta besteak askoz ere erabiliagoak; b) *negok/zegok* ala *negok/zegok* auzian, *a*-dun formak hartzea, erantzule gehienak horren alde agertu baitira; c) *zabilak* ala *zebilak* eta antzeko hautabidean, *-ek* bukaera hartzea, lehentasuna zor zaionez gero; d) nori formetako pluralgilerako ere laguntzaile arruntaren paradigmak hobestea, hots, *zizkidak*, e.a., *zitidak* eta besteren kaltetan.

Eztabaida luzearen ondoren, bozketa egin da *niagok* ala *nagok* hobetsi behar denentz. Hau izan da emaitza:

<i>niagok</i>	10 boto
<i>nagok</i>	7
zuri	2

P. Altunak esan du euskara batuarekiko erabakizunetan ez dela orain arte horrela jokatu. E. Knörr-ek Etxepareren *niatorqueçu* gogorarazi du, bizirik dirauten eta hedadura handia duten *niagok* eta beste forma zaharren lekuko.

Euskara batuko batzordekideek eskaturiko bost minutuko etenaldiaren ondoren, P. Salaburuk batzordeak beste proposamen bat ekarriko duela esan du.

Hirugarren pertsonaz mintzatu da gero. A. Irigoyenek esan du *dia-* edo *ze-* ageri direla testu zaharretatik. Une horretan J.L. Lizundia aditzera eman du batzarreen lana eta jardupidea arautu beharra dela. Horri buruzko iradokizuna aurkeztuko du Zuzendaritzak.

Bozketa egin da, halaber isilpekoa, hirugarren pertsonari dagokiola, eta emaitza hau izan da:

<i>zagok</i>	11
<i>zegok</i>	5
zuri	2
baliogabe	1

Emaitza ezaguturik, M. Azkaratek esan du paradigmak kaleratu baino lehen ongi moldatu behar direla, barne lotura behar baitute. Euskara Batuko batzordeak, esan bezala, lan osoari buruzko beste proposamen bat aurkeztuko du.

Kontuen azalpena

1993. urteko balantzea aurkeztu dute J.A. Arana diruzainak eta J.J. Zearreta ekonomi eragileak. Bestalde, Herri Kontuen Euskal Epaitegia eta Comptos Garbata Euskaltzaindiaren urte bereko sartze-ateratze guztiak arakatzen ari direla aditzera eman dute.

P. Zabaletak Euskaltzaindiaren inbentarioa egina den galdetu du. Baietz erantzun zaio. Katalogatu eta baloratu gabe dagoen parte liburuetakoa ondare zaharra eta biltokia dira.

P. Salaburuk itaundu du ea ezin litekeen katalogatze lana soldadutza-ukataile edota bibliotekonomia masterdunen laguntzaz aurrera eramane. J.A. Aranak erantzun du diru egoera argitu eta hobetu ahala har litezkeela horrelako erabakiak.

P. Charrittonen iritziz, Euskaltzaindiak, egoera hobea etorri bitartean, zer eginkizun baztertuko dituen esan beharko luke.

J.A. Aranak Madrileko Gorteei onarturiko diruaren berri eman du. Hizkuntz Akademientzako kopuru bat finkatu da, urteoro berrituko dena. Gainera, ikerketa proiektuen bidez dirua eskura daitekeela esan du. Azkenik, Europar Batasunean den aukera ere aipatu du. Horretarako emango diren urratsez apirileko batzarrean mintzatuko da.

Eskuarteak

Apirileko batzarrea Gasteizen egingo dela esan du J.L. Lizundia idazkariordeak. San Prudentzioko jaiak direla eta, astebete aurreratuko da osoko batzarrea: hilaren 22an, ostiralean, egingo da. Ageriko batzarrean, Diputazioaren jauregian, Erraimun Olabide, Odon Apraiz, Federico Belaustegigoitia eta Luis Gonzalez de Etxabarriren omenezko hitzaldiak izango dira. Hitzegi Batuko Jardunaldiak, be-

rriz, ostiralean eta larunbatean egingo dira, ordezkaritzan. LEF jardunaldien bigarren zatia ere egingo da, apirilaren 22an.

Ondoren, A. Irigoyen euskaltzainak, zenbait urgazlek, irakasle batzuek eta bestelako lagunek bidalitako izkribua, "Euskara okerregatiko zigorren asmo harri-garriaz" deritzana, aztertu da. Izkribua, euskaraz eta erdaraz, komunikabideetara igorri zen hilaren 18an eta Euskaltzaindiaren egoitzara aipatu euskaltzain osoak martxoaren 23an eraman zuen. Testuan Jagon jardunaldien ondorioen aurkako iritzia azaldu dute sinatzaileek, *zigorbidea* gogoetaren kontra bereziki.

E. Knörr Jagon sailburuak sinatzaileen prozedura gaitzetsi du. Irigoyen jaunari galdetu dio Deustuko unibertsitatean inola ere egingo ez lukeena, adibidez, errektorearekin edo dekanoarekin ados ez egonik, zergatik egin behar duen Euskaltzaindian. Irainez gainezka zegoen haren artikulua, "Ñaño alluzinaturen [sic] baten zigorgura" izenekoa, *Egin-en* (martxoaren 23an) argitaratua, aipatu du halaber. Ondorioen aurka beste artikulua bat (*Euskaldunon Egunkaria*, martxoaren Sean) idatzi zuen P. Charritton Jagon sailkideari ere galdetu dio ea Baionako udalean, bere zinegotzi lanean, inola ere egingo ez lukeena, hau da, arazoak erakundetik kanpo haizatzea, zergatik iruditzen zaion zilegi Euskaltzaindian. Sinatzaileen artean euskara batuaren aurkako amorratuak eta bideseinale-zikintzaileak (*zigorbidea* erabili dutenak, bada) badirela esan du. Azken hitzetan Anton Aranburu, Jagon jardunaldien Akademi batzordekidearen gutunetik zati bat irakurri du.

Mikel Zalbide Jagon sailkidea mintzatu da hurrena. Jagon sailak jendaurreko euskara duina izan dadin nahi duela esan du, eta izkribuagatik eta artikuluenagatik mindua eta mingostua dagoela erantsi. Auziak gizalegez aztertu eta eztabaidatzea eskatu du.

A. Urrutia Jagon sailkideak barruko kontuak barruan garbitzea eskatu du orobat. P. Charrittonen jokabidegatik agertu da kexu. Frantziako moldeak ez duela euskararako balio esan du, gure hizkuntza ahul baitago. A. Irigoyenen artikuluari dagokiola, onar ezina iruditzen zaio.

J.L. Lizundia Jagon jardunaldien akademi batzordekideak hartu du ondoren hitza. Sinatzaileetarikoa den Anton Aurre, Bizkaiko Batzar Nagusietako lehendakariaren idazkia aurkeztu du, euskara batuko ortografian ez dagoena. Halaber izkribuaren sinatzailea den Tomas Uribebebarriak, Bizkaiko foru diputatuak, sinaturiko zenbait dekretu aipatu ditu, eta bertan *zigorbidea* edo zehapen erregimena ageri dela aditzera eman. Euskara zuzenaren edota euskararik ezaren arazoa Jagon sailaren ez ezik, beste herrikide askoren kezka dela esan du. Adibideztat Gasteiztik Agurainerainoko autobideko seinaleak ezarri ditu, bai eta Eusko Jaurlaritzaren Merkataritza eta Turismo Sailarentzat agentzia batek egin-dako hutsen aitormena.

P. Charrittonek *Euskaldunon Egunkari*-koa *La Croix* berriraperean agertu artikulua irakurri ondoren idatzi zuela aitortu du. Bere hutsagatik barkamena eskatu du eta Jagon sailean tokia uzteko prest agertu.

P. Altunak hitz egin du gero. Euskaltzaindian bertan laidoak eta irainak errazgi jaurtikitzen direla esan du. Haren ustez, ez dago eskubiderik. Berotzea eta

haserretzea normala dela iruditzen zaio, baina irainik ez erabiltzea arren eskatu du.

P. Salaburuk hau ez dela lehen aldia adierazi du eta Akademiak batzorde guztietan duen uste ona agertu behar duela. Batzordeen arteko begirunea eta leialtasuna nahitaezkoak direla esan ondoren, eskatu du Euskaltzaindiarekikoak batzordeetan eta osoko batzarreetan eztabaida eta erabaki daitezen.

A. Irigoyen mintzatu da gero. Ondorioak hileko batzarretik ez zirela pasa esan du. Haren aburuz *zigorbide* hitzaren adiera garbia da. Bestalde, sinadurak ez zituela berak bildu aditzera eman du, eta sinatzaile batzuk ez dituela ezagutzen.

J.A. Aranek hasieran ere ez zuela *zigorbide* hitza ongi ikusten esan du, eta hala adierazi zuela Zuzendaritzan.

J.L. Lizundiak Euskaltzaindiaren orain arteko jokabidea azaldu du. Kongresuen eta jardunaldien bukaeran irakurri diren adierazpenak aipatu ditu, hala nola Renon, 1992ko irailean, A. Irigoyen partaide izan zela. Ondorioak, *desideratum* gisakoak izaten direnak, erabaki akademikoak baino areago, dagokion batzordeak prestatzen dituela esan du. *Zigorbide* hitzari dagokiola, berriz, adiera argia du, haren iritziz, hots, zigorra ezartzeko era.

P. Salaburuk aipatu du Euskal Herriko Unibertsitatean ez dela agindutako lan bat ordaindu, euskararen aldetik hutsak baitzituen. Ondoren, auzi honen gaineko adierazpen zirriborroa irakurri du.

B. Oyharçabalek hitz egin du, deus ere ez kanpora ateratzearen aurka. Horrela ere onartu da aho batez. Agirian Euskaltzaindiak horrelako jokabidea gaitzesten duela eta bere batzordeen lanean duen konfidantza berresten duela azalduko da. M. Azkarateren iradokizuna jasoaz, urgazleei azalpen bat bidaltzea komeni denentz aztertuko du jardunaldien akademi batzordeak.

F. Krutwig izkribuaren sinatzailea den J.J. Pujana urgazlearen alde mintzatu da, Jagon jardunaldien ondorioak ez zituela ongi aditu aitortu baitzion. Bestalde, Euskaltzaindiaren eta euskararen kaltetan gerta daitekeen kazeten erabileraren arriskua aipatu du.

Eta beste gairik ez zela bukatu da batzarrea.

AGERIKO BATZARREA

Iruñean, 1994ko martxoaren 25ean

Haritschelhar, J., euskaltzainburua
 Lekuona, J.M., euskaltzainburordea
 Knorr, E., idazkaria
 Arana, J.A., diruzaina
 Altuna, P.
 Azkarate, M.
 Charritton, P.
 Diharce, X.
 Irigoyen, A.
 Kintana, X.
 Krutwig, F.
 Larre, E.
 Ondarra, P.
 Oyharçabal, B.
 Salaburu, P.
 San Martin, J.
 Satrustegi, J.M.
 Villasante, L.
 Zabaleta, P.

Apezetxea, J.
 Badiola, R.
 Echaide, A.M.
 Goenaga, P.
 Goikoetxea, J.L.
 Iñigo, A.
 Lasarte, M.P.
 Laspiur, I.
 Larrarte, J.M.
 Lizundia, J.L.
 Mujika, J.A.
 Ruz Urrestarazu, M.M.
 Zearreta, J.J.

Iruñean, Nafarroako Diputazioaren jauregian, 1994ko martxoaren 25ean, eguerdiz, egin du Euskaltzaindiak ageriko batzarrea, Akademiaren 75. urtemugaren ospakizunen barnean, aldamenean aipatzen diren kideak bertan zirela. Ezin etorria J.L. Davant, Tx. Peillen eta I. Sarasolak adierazi dute.

Mahaian, J. Haritschelhar euskaltzainburuaren ondoan, Juan Cruz Alli Aranguren, Nafarroako Gobernuburua, jarri da. Ezker-eskuin, E. Knörr, J.A. Arana, J.M. Rodríguez Ochoa, Nafarroako Hizkuntz Politikarako zuzendari nagusia, J.M. Satrustegi eta Iñaki Camino. Aretoa beterik zegoen eta bertan ziren, besteak beste, Mirentxu Amigorena, Nafarroako Hizkuntz Politikarako zuzendariordea; Juan José Ekisoain, Nafarroako Hezkuntza saileko Euskara Zerbitzuaren arduraduna, eta Tomas Urzainki, Eusko Ikaskuntzaren Nafarroako buruordea. Jardunaldietara etorririko euskaltzale asko eta kazetalarari andana bat ere aurkitzen ziren. Ezin etorria Fernando Sebastián Aguilar Iruñeko artzapezpiku eta Tuterako apezpiku jaunak adierazi du.

Alli jaunak egin ditu hasierako hitzak. Euskaltzaindia Diputazioaren jauregian behin baino gehiagotan izan dela oroitarazi ondoren, Akademiaren lana go-raipatu du, euskara trebatzeko eta gaurkotzeko bere ahaleginean. Arturo Campión historigilea, sorterrir- eta euskaltzalea omentzea guztiz egokia dela esan du, eta *Blancos y negros* eleberriak zer pentsa eman behar duela, gizartearen hausturak gainditzeko.

J. Haritschelharrek, euskaraz eta erdaraz, Euskaltzaindiaren esker ona agertu dio Nafarroako gobernuburuari. Aurtengo eginkizunez labor mintzatu eta gero, hizkuntzak bizi duen ofizialkidetasun maila aipatu du esperantzatsu.

J.M. Satrustegi Nafarroako ordezkariak Campiónen izena eta omena noraino zapuztu izan zen adieraziz hasi du “Arturo Campiónen itzala” deritzan bere mintzaldia. Haren ondareak nozitu duen egoera tamalgarria azaldu du, eta euskaltzale eta euskaltzainaren bizitz zertzelada nagusiak gogora ekarri, besteak beste, Asociación Euskara de Navarra eta Nafarroako Euskararen Adiskideak elkartean izan zuen lekua, eta *Zazpiak bat* ikurritza.

Iñaki Caminok, “Etxenike eta Aezkoako lekukotasun dialektologikoa” izeneko hitzaldian, baztandarrak egin eta eragindako lanak aipatu ditu xehekiro.

J.A. Arana Martijak, “Bruno Etxenike, Bonaparteren itzultzaile eta bidelaguna Nafarroan zehar” titulupean, printzeak Nafarroan egindako hiru bidaien berri dakarren dokumentu orain arte ezezagunaz hitz egin du.

Azkenik, euskaltzainburuak J.L. Lizundiari eta M.P. Lasarteri Euskaltzaindiaren domina bana eman die, Akademiako beren lanaren 25. urteurrenkari. Bien izenean, J.L. Lizundia mintzatu da esker ona agertzeko, eta Zuzendaritzan izandako kideak bereziki aipatu.

Jean Haritschelhar,
euskaltzainburua

Endrike Knörr,
idazkaria

Gasteizen, 1994ko apirilaren 22an

Haritschelhar, J., euskaltzainburua
 Lekuona, J.M., euskaltzainburuordea
 Knörr, E., idazkaria
 Arana, J.A., diruzaina
 Altuna, P.
 Azkarate, M.
 Charritton, P.
 Davant, J.-L.
 Irigoyen, A.
 Kintana, X.
 Krutwig, F.
 Larre, E.
 Ondarra, P.
 Oyharçabal, B.
 Peillen, Tx.
 Salaburu, P.
 Salaburu, P.
 San Martin, J.
 Satrustegi, J.M.
 Villasante, L.

Lizundia, J.L., idazkariordea
 Zearreta, J.J., ekonomi eragilea

Gasteizen, Arabako Diputazioaren jauregian, 1994ko apirilaren 22an, goizeko hamarretan, bildu da Euskaltzaindia, aldameneko lerrokadan ageri diren lagunak bertan zirela. Ezin etorrria X. Diharcek adierazi du.

Agiria

Martxoko agiria onartu da, P. Charrittonek, A. Irigoyenek eta F. Krutwigek egindako zuzenketak jaso ondoren.

Hitanoa

J. Haritschelharrek Euskara Batuko batzordeburuari proposaturikoa azaldu du, hots, lehenik aditz laguntzailerak aztertzea. Horrela egin ere da eta euskaltzainek alde aurretik harturiko paradigma multzoa ikeritu dute egun. Aho batez onartu da proposamena, aldagetak batzuekin. Adibidez, **edin* aditzean, X. Kintanak proposaturik, *dakidakek* onetsi da, eta ez *zakidakek*. **Ezan*-en kasuan, *na-baina ze-dela* erabakia adieraziko da ohar batean, bai eta (*hik*) *dezakek* / (*hark*) *zezakek* diferentziaz zerbait esango. Etorkizunean aztertuko diren bizkaierazko formetan, A. Irigoyenek —i— bokala tartekatzea eskatu du (*niauk*, e.a.). Honi dagokiola, J.A. Aranak Azkueren *Flexionario del verbo bizkaino* deritzan lan argitaragabea kontuan har dadin eskatu du.

Batzordeak beste testu proposamen bat banatu du, maiatzeko batzarrean erabakizun: *benetako* eta *ohiko*, batetik, eta *bat-batean*, *behinik-behin* eta *batik-bat*, bestetik.

Erregelak

E. Knörr-ek boto-eskubideaz eta boto-ahalmenaz Iruñean aurkeztu proposamena maiatzeko bilkurarako utzi da orobat, euskaltzainek puntu honi buruz zenbait Akademiaren arauak ikusteko denbora izan dezaten.

Eskuartekoak

Euskalkien erabilera Administrazioko 1. eta 2 Hizkuntza-eskakizunetan izeneko lana, Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntz Politikarako Idazkaritza Nagusiak eskatua, M. Azkaratek, batzorde suntsikorraren buruak, aurkeztu du. P. Salaburuk txostena goraipatu du, baina mintzatzeari garrantzi handiagoa ematearen alde agertu da. Haren ustez, 1. eskakizunean idatzizko deus ere ez eskatzea da hoberena. A. Irigoyenek, izkribua onetsirik ere, literatur bizkaiera irakatsi behar duela esan du. Literatur euskalkien berri jakitea eskatu du halaber J. San Martinek, alfabetatze kanpainak hasi zireneko irizpidea jarraiki. J.J. Zearretak lanpostu bakoitzerako egoki den hizkuntz eskakizuna kontuan hartzea proposatu du. Iritzi hauek entzun ondoren, batzordeak ahozko trebetasunaz eranskin gomendio bat ezarriko du txostenaren sarrera gisa.

Francisco J. Bobillok, Kultur Ministerioaren Liburuaren zuzendariak, martxoaren 29an egindako gutuna, literatur sormenaren dirulaguntzak erabakitzeke Euskaltzaindiaren ordezkari baten eske, irakurri da. Epaimahaiaren bilkura hil honen 19an izan zenez, X. Kintana izendatu zuen Zuzendaritzak. Batzarrea izendapenaren jakitun gelditu da.

AGERIKO BATZARREA**Gasteizen, 1994ko apirilaren 22ean**

Haritschelhar, J., euskaltzainburua
 Lekuona, J.M., euskaltzainburuordea
 Knörr, E., idazkaria
 Arana, J.A., diruzaina
 Altuna, P.
 Azkarate, M.
 Charritton, P.
 Davant, J.L.
 Irigoyen, A.
 Kintana, X.
 Krutwig, F.
 Larre, E.
 Ondarra, P.
 Oyharçabal, B.
 Peillen. Tx.
 Salaburu, P.
 San Martin, J.
 Satrustegi, J.M.
 Villasante, L.
 Aulestia, G.
 Badiola, R.
 Goenaga, P.
 Larrarte, J.M.
 Lizundia, J.L.
 Mendiguren, X.
 Ruiz Urrestarazu, M.M.
 Zearreta, J.J.

Gasteizen, Arabako Diputazioaren jauregian, 1994ko apirilaren 22an, eguerdiko hamabiak eta erditan, egin du Euskaltzaindiak ageriko batzarrea, Akademiaren 75. urtemugako ospakizunen barnean, aldameneko lerrokan aipatzen diren kideak bertan zirela. X. Diharcek ezin etorria adierazi du.

Batzarre Nagusien aretoan ziren, gainera, agintari hauek: Juan Pastor, Batzarre Nagusien burua; Alberto Ansola, diputatu nagusia; Roberto San Ildefonso, diputatu nagusiordea; M. Teresa Rodriguez Barahona, Lehendakaritza saileko foru diputatua, eta J. Carlos Asin, Plangintza saileko foru diputatua. M. Karmen Garmendia, Hizkuntz Politikarako idazkari nagusiaren izenean Roman Berrioizabal etorri da. Eneko Oregi, Herri Ardularitzaren Euskal Erakundeko Itzulpen Zerbitzu Ofizialaren burua ere aretoan zen.

Juan Pastorrek egin ditu hasierako hitzak. 500 urte baino gehiago dituzten eta euskara jagon eta jagoten duten Batzarre Nagusientzat ohore dela Euskaltzaindiak bilera areto hartan izatea esan du.

Alberto Ansola mintzatu da hurrena, euskaraz. Euskal Herriaren erakundeen artean Euskaltzaindiak toki berezia duela esan du. Arabako lehenbiziko euskaltzainak oroitaraztea egoki dela aditzera eman du eta probintziaren euskaltasuna gerora ere gordetzeko guztion ahaleginen beharra dagoela esan, arabarrek euskara jakin eta erabil dezaten.

J. Haritschelharrek, euskaraz eta erdaraz. Euskaltzaindiaren esker ona agertu dio Arabako Diputazioari. Ospakizun urte hau lan urtea izango dela esan du eta egindakoa eta eginkizuna laburbildu.

Patxi Altunak Erraimun Olabideren (1865-1942) bizitza eta lanak azaldu ditu, orobat euskaraz eta erdaraz, bere hitzaldian, orain arte ezezagunak ziren agiri eta berri askorekin.

E. Knörrek, halaber bi hizkuntzetan, Odon Apraiz gasteiztarra (1896-1984) eta Federiko Belaustegigoitia laudiarra (1865-1947), hasierako urgazle arabarrak, goraipatu ditu, zein bere merezimenduekin. Apraizen ikerlanak azaldu ditu labur eta Belaustegigoitiak euskararekiko zuen jarrera praktikoa eta Euskaltzaindia politikatik at edukitzeko iritzi sendoa nabarmendu.

Azkenik, M.M. Ruiz Urrestarazuk Ubiden jaiotako eta Arabako euskararen ordezkari urgazle izendatu zen Luis Gonzalez de Etxabarri, "Aizkibel'dar Bingen" (1893-1971) idazlearen bizitza eta lanen berri eman du, aurreko hizlariak bezala euskaraz eta erdaraz.

Jean Haritschelhar,
euskaltzainburua

Endrike Knörr,
idazkaria

Bilbon, 1994ko maiatzaren 27an

Haritschelhar, J., euskaltzainburua
 Lekuona, J.M., euskaltzainburuordea
 Knörr, E., idazkaria
 Arana, J.A., diruzaina
 Altuna, P.
 Azkarate, M.
 Charritton, P.
 Davant, J.-L.
 Irigoyen, A.
 Kintana, X.
 Krutwig, F.
 Larre, E.
 Oyharçabal, B.
 Peillen, Tx.
 Salaburu, P.
 Sarasola, I.
 Satrustegi, J.M.
 Villasante, L.
 Zabaleta, P.

Lizundia, J. L., idazkariordea

Akademi gaietan:
 Eguzkitza, A.

Bestalde, X. Diharceci Eusko Ikaskuntzaren Manuel Lekuona saria eman zaiola aditzera eman du J. Haritschelharrek. Akademiaren izenean zorion agurra agertuko dio.

A. Irigoyenek horrela iradokirik, zorion agurra eman zaio orobat F. Krutwigi ondoko hiru izendapenengatik: Atenasko Nazioarteko Zientzi Forumaren ohorezko lehendakari, Tesalonikako Grekera Nazioartean Sustatzeko Elkarteko kide eta Erromako Accademia Internazionale di Propaganda Culturale deritzaneko kide.

Barne erregelak

Ondoren, Erregelen artikuluen azterketari jarraiki, boto eskubideaz eta boto prokurazioaz E. Knörrek aurkezturiko proposamena, apirileko batzarrean mahai gainean gelditu zena, eztabaidatu da. Proposamena honako hau da: zeinahi den ere gaia, aurreko urtean hiru aldiz gutxienez etorri behar izan duela euskaltzainak, osoko batzarrean boto eskubidea izateko eta besteren boto ahala hartzeko. Batzarreko dokumentazioan sartu den beste zenbait Akademiaren legeria, gai beraren gainekoa, aipatu du E. Knörrek.

Proposatzailearen azalpenaren ondian, A. Irigoyen mintzatu da. Arazo zaila dela adierazi du eta prokurazioaren aurka agertu da osoki. P. Altunak orain arteko araua aldatzeko beharra ez duela ikusten esan du. F. Krutwigek abokatu ba-

Bilbon, Plaza Barriko egoitzan, 1994ko maiatzaren 27an, goizeko hamarretan, bildu da Euskaltzaindia, aldameneko lerrokadan ageri diren lagunak bertan zirela. Ezin etorria X. Diharcek, P. Ondarrak eta J. San Martinek adierazi dute.

Agiria

Apirileko agiria A. Irigoyenek, M. Azkaratek eta P. Salaburuk egindako zuzenketak jaso ondoren onartu da.

Gaietan sartu baino lehen, euskaltzainburuak Jon Bilbao euskaltzain ohorezkoaren heriotzearen berri eman du. Bibliografilari ospetsua hilaren 23an hil zen, 79 urterekin. Dolumina agertuko zaie senideei. J.A. Aranak egingo du zenduari buruzko inintzaldia, hurrengo osoko batzarrearen batean.

ten iritzia aipatu du, hots, prokurazio orokorra ez dela legezkoa. P. Zabaletaren-tzat, berriz, prokurazioa orokorra, betikoa eta neurrigabea izan daiteke eskubide ekonomikoei dagokiela, eta, aldiz, eskubide pertsonalak erabiltzen direnean prokurazioak behingoa izan behar du eta gai zerrendan agertu erabiltzen den puntu horrek. E. Knörrek Euskaltzaindiaren bizitasuna, batetik, eta batzarreetara etorri edo ez eskubide berberak izatea, bestetik, aipatu ditu proposamenaren oinarri. Lehengo eta oraintsuko prokurazioaz luze hitz egin dute batzartuek. Proposame-na bozkaturik, hau izan da emaitza:

Bai	6
Ez	9
Zuri	5

Hortaz, orain arte bezala jokatu da aurrerantzean ere boto eskubide eta prokurazioari buruz.

Akademi bilkura, onartze mailakatze eta prozeduraz deritzan atala aurkeztu du J.L. Lizundia idazkariordeak Zuzendaritzak onartu ondoren. Oharrak ekainaren 20a baino lehen bidali behar dira.

Euskara Batuko batzordea

Euskara Batuko batzordeak apirilean banaturiko bi erabaki proposamen ez-tabaidatu dira: *Benetako*, *ohiko* tituluduna eta *Bat-batean*, *behinik-behin*, *batik-bat* deritzana. Iritsi diren oharrak aztertu ondoren, eta batzarrean gaiak erabilirik, haxe izan da aho batez erabaki dena: lehenari dagokiola, bi formak, *ohiko* eta *ohizko*, zilegi jotzea, baina *ohikoa* dela tradizioan nagusi eta Iparraldean bizi den bakarra oroitaraziz, bigarren testuari buruz, *bat-batean* (eta halaber *bat-batekota-sun* eta bestelako eratorriak, bai eta *bet-betan* aldaki soila), *behinik behin* eta *batik bat* gomendatzen dira, hauen ahoskera betiko legeen arabera egin behar dela dela go-gorazaraziz.

Hitanoa

Nor-nori-nork sailaren paradigmak banatu dira egun. Azalpena B. Oyharçabalek egin du. Ekainaren 20rako igorriko dira oharrak eta osoko batzarrearen gaitan sartuko da erabakizuna.

“Adizkera alokutiboetako lehen silabaren formak paradigmetan auzkeztuak” izeneko txostena ere banatu da. B. Oyharçabalek egin du halaber azalpena. Ekai-neko osoko batzarrean eztabaidatuko da erabaki proposamen hau ere.

“Euskalkien erabilera administrazioko hizkuntz eskakizunetan”

“Euskalkien erabilera administrazioko 1. eta 2. hizkuntza eskakizunetan” de-ritzan txostena, joan den hileko batzarrean ahozko trebetasunaz gomendio bat erantsirik onartu zen. Izendaturiko batzordeak eranskin hori ekarri du eta aho batez onetsirik txostenari birrespena eman zaio.

Miarritzeko Jardunaldiak eta batzarrea

Miarritzen, uztailaren 1ean eta 2an, egingo diren, Exonomastika gai bakarra dela. V. Onomastika Jardunaldien egitaraua banatu du idazkariordeak. Hileko batzarrea ekainaren 30an izango da. Euskaltzaindiaren 75. urteurrenkari Miarritzeko herriko etxean izango da ageriko batzarrea.

Eskuarteak eta azken ordukoak

P. Charritton Iparraldeko ordezkariak hango Departamenduko Conseil de Développement delakoaren eskaria jaso zuela esan du. Euskaltzaindia kide izatea nahi du Kontseilu horrek, hizkuntza eta kulturari buruz bere aholkua emateko. Iparraldeko euskaltzainen iritzia entzunik, baietz erantzutea erabaki zen eta Txomin Peillen Akademiaren ordezkari izatea. Gauzak nola joango diren ikusi eta Kontseiluan jarraitzea edo ez erabakiko da.

Bestalde, agintariek Euskaltzaindiaren ordezkaritza Baionatik Uztaritzera eramateko proposamena egin dutela aditzera eman du. Ezezkoa izan da erantzuna, erakundearen ordezkaritza guztiak hiriburuetan kokatuak baitira. J.M. Satrustegik harreman hauetan Euskaltzaindiari akademi maila aitor dakion eskatu du.

Nafarroako Euskararen Legean inolako aldaketarik egin gabe uztea erabaki berri du parlamentuak. Hori dela eta J.M. Satrustegi Nafarroako ordezkariak euskaltzainburuari idatzitako gutuna irakurri da. Gutunean P. Zabaleta euskaltzain eta Herri Batasuneko parlamentariaren jokabideagatik bere kezka agertu du. P. Zabaletak erantzuna irakurri du, lege honi buruz eta Nafarroako euskararen egoeraz bere iritzia azalduz.

E. Knörr Jagon sailburuak bezperaz, Zuzendaritzaren bilkuran, onarturiko izkribua, Euskaltzainduaren adierazpen zirriborroa, irakurri du. Lau puntutan, Akademiak legea zegoenean uztea eta alderdiek eskuzabal jokatu ez izana deitoratzen du; martxoaren 21eko Foru Aginduen alde agertzen da, administrazioan euskararen tokia hobetzen duelako, eta zenbait politikarik eta bestelako lagunek egindako agerpen batzuk, euskararentzat laido garriak eta Konstituzioaren aurkakoak, gaitzesten ditu.

Euskaltzaindiak adierazpenik egin behar duenentz eztabaidatu da lehenik. B. Oyharçabalen iritziz, Euskaltzaindiak ez luke deus ere esan behar. Bozketa egin da eta hau izan da emaitza:

Bai	11
Ez	9
Zuri	1

Ekainaren 20a baino lehen bidaliko dira gai honi buruzko proposamenak eta osoko batzarrean erabakiko da adierazpenaren testua.

Bilbao Bizkaia Kutzaren babespean Euskaltzaindiaren literatur sariak iragarri dira.

J. Haritschelharrek Euskaltzaindiak Herri Aginteekin egin behar duen hitzarmen berrirako ildo nagusiak azaldu ditu. Ontzat hartu dira.

Arratsaldean egitekoa den Ahoskera Jardunaldia aipatu du J. Haritschelhar euskaltzainburuak. Rosa M. Pagola batzordekidearen amaren heriotzearen berri goirean jaso de goizean jaso da eta dolumina bidaliko zaio.

E. Knörrek hala eskaturik, adierazpen hau iragarki ordaindu gisa argitaratuko da Nafarroan inprimatzen diren bi egunkarietan.

Miarritzen, 1994ko ekainaren 30a

Haritschelhar, J., euskaltzainburua.
 Lekuona, J. M., euskaltzainburuordea.
 Knörr, E., idazkaria.
 Arana, J. A., diruzaina.
 Azkarate, M.
 Charritton, P.
 Diharce, X.
 Irigoyen, A.
 Kintana, X.
 Oyharçabal, B.
 Peillen, Tx.
 Salaburu, P.
 Villasante, L.

Lizundia, J.L., idazkariordea
 Zearreta, J.J., ekonomi eragilea

Miarritzen, udalaren Palais des Festivals izenekoan, 1994ko ekainaren 30ean, arratsaldeko hiruretan, bildu da Euskaltzaindia, alboan aipatzen diren kideak bertan zirela. Ezin etorria P. Altuna, F. Krutwig, E. Larre, P. Ondarra, J. San Martin, I. Sarasola eta J.M. Satrustegik adierazi dute.

Agiria

Maiatzeko agiria onartu da, zenbait zuzenketa egin ondoren.

Hitanoa

Aurreko batzarrean aztertutako paradigmak (hots, nor-nori-nork saillekoak) ontzat eman dira, artean oharrik iritsi ez denez.

Maiatzeko bilkuran aurkeztu ziren adizki trinkoez B. Oyharçabalek egin du azalpena, lau puntutan labur daitekeena: 1. Paradigmen erabateko barne-atxikidura ezin dela lortu; 2. Ez dela komeni paradigma zailak proposatzea; 3. Paradigma bakoitzak hobe dela, eta 4. Lehenbiziko silabaz denaz bezainbatean, *nagok* eta antzeko formen alde agertzen dela Euskara Batuko batzordea.

A. Irigoyenek hitz egin du ondoren. Erraztasuna ez dela irizpide esan du eta forma sorberrien aurkako bere iritzia azaldu. X. Kintanaren aburuz, hizkuntza biziak hartu behar dira formak eta honako eredu hau proposatu du: *nagok / zegok / zeudek*. Hirugarren pertsonarako, bai singularrean eta bai pluralean, bina forma onartzea komeni den eztabaidatu da. X. Kintanak aipatu du aditz trinkoan *doakio* eta *dihoakio* erabaki zirela eta era honetara egitea eskatu, hots, *zagok / zegok, zaudek / zeudek* eta antzekoak. Horrela erabaki da aho batez, baina paradigmekin honako bi ohar hauek erantsiko zaizkie: 1. Testu berean, ahoz nahiz izkribuz, ez daitezela nahas bi formak (*-a-* / *-e-*), eta 2. Honetaz ez dira ahozko beste formak baztertzen. A. Irigoyenek eskatu du agirian agertzea, paradigmekin ados dagoen arren, *niagok* eta parekoak izan daitezkeela horien osagarri.

Bukaera izan da gero eztabaidagai (*nabilk / nabilak / nabilek; nenbilean, nenbilaan*, e.a.). Puntu hau beste batzarre baterako utzi da; nolanahi ere den, bokaldun bukaerak hobetsi dira, *natork* eta antzekoen aldean.

X. Kintanak proposatu du Euskaltzaindiak gomendatzea irakaskuntzan *ni naiz / hi haiz* saila kontuan har dadila, alokuzioan *hi haiz* formak *ni nauk* badakar ere. Mahai gainean gelditu da gai hau.

Barne Erregelak

Aurreko batzarrean banatu *Akademia bilkurak* deritzan atala onartu da aho batez. *Onarpen mailak eta prozedura* izenekoa egun aurkeztu da. Idazkariordeak egin du azalpena. Ohi bezala, oharrak idatziz igorriko dira. Uztailleko osoko batzarrea astebete aurreratuko denez, ordea, hilaren 15ko bidali beharko dira egoitzara.

Nafarroako Euskararen Foru legearen berriztatzeaz adierazpena

Aurreko batzarrean erabaki bezala, Euskaltzaindiak adierazpen bat plazaratu du Nafarroako Euskararen Legea zegoen zegoenean utzi dela eta. E. Knörrek egin du labur berak proposaturiko testuaren azalpena. P. Zabaleta mintzatu da ondoren. Euskal Herriko Autonomi Elkartearen laster bozkatuko den arartekogaia euskaraz ez dakiela eta Euskaltzaindiak adierazpenik egingo duenentz galdetu du. Gero Javier Marcotegui Nafarroako Hezkuntza sailburuak Iruñeko irakaskuntza elebidunaz berriki esandakoa aipatu du, hots, ez dela horretarako eraikitze berririk onartuko. Bestalde, Foru Dekretuaren aurka agertu da Zabaleta jauna. Egia omen da Nafarroako ikuspegi orokorra eskaintzen duela, esan du, baina, besteak beste direla, erantzuna zer hizkuntzatan jaso nahi den hautatu behar da aldioro. Batzartu guztien jakingarri, Dekretua irakurri du. Azkenik, probintziakerian erori gabe, Euskal Herri osorako adierazpena egin dadin eskatu du, berak proposaturiko eta euskaltzainen artean banaturiko testua irakurri ondoren.

P. Charrittonek Europako parlamentuak aurrean onarturiko Killilea txostenagatik Euskaltzaindiak bere poza agertzea eskatu du, eta paradaz baliatuz adierazpen bakar bat plazaratzea.

J.L. Lizundia idazkariordea mintzatu da hurrena. Arartekoaren Legeak ez du kargu hau euskalduna izan behar duela eskatzen, esan du. Killilez txostena Jagon sailak aztertzea proposatu du. Horrela egitea onetsi da.

J. Haritschelharrek E. Knörren testuari bi paragrafo kentzea proposatu du ondoren, Foru Dekretua eta alderdi politikoen eskuzabaltasunik eza aipatzen zituztenak. E. Knörrek bere testuaren azken lerroetan euskararen aurka esan eta idatzi direnak garbiago salatzea iradoki du. Horrela gelditu da bozketa-gai.

P. Salaburuk P. Zabaletaren testua eta Euskal Herri osoko hizkuntz arazoaz aurrez litezkeenak urriko Biltzarren ondoren aztertzea proposatu du. Onartu da.

Euskaltzainburuak banatu du beste testu bat, Iparraldeari datxekona, euskararen ofizialkidetasuna eta Euskaltzaindiaren aitorpen ofiziala eskatuaz. Zenbait aldaketa egin zaizkio testuari bozkatu baino lehen. Berau eta E. Knörrek Nafarroako proposatua bozkatu dira. Hauek ziren prokurazioak: M. Azkaratek P. Altunarena, P. Ondarrarena eta J. M. Satrustegirena zituen; P. Sakaburuk I. Sarasolarena, eta A. Irigoyenek F. Krutwigena.

Iparraldeko adierazpena aho batez onartu da. Nafarroakoari dagokiola, hona emaitza:

Bai	13
Ez	1
Zuri	4

E. Knörrek hala eskaturik, adierazpen hau iragarki ordaindu gisa argitaratuko da Nafarroan inprimatzen diren bi egunkarietan.

Eskuartekoak eta azken ordukoak

1993ko abenduaren 20an Euskadiko Kutzak Euskaltzaindiari emandako 20 milioiko diru-maileguaren erdia kitatu da sei hilebeteko epean, J.A. Arana diru-zainak azaldu duenez. Beste erdia ordaintzeko mailegu-poliza bat sinatu behar da. Aho batez erabaki da hitzarmen berria egiteko ardura J.A. Aranak hartzea, egokien etsiko dituen baldintzekin.

X. Kintanak, Madrileko Kultur Ministerioak antolatzen dituen sorketa laguntzetarako Euskaltzaindiaren ordezkariak, eman du epaiaren berri. Euskarazkoei dagokienez, Patri Urziku (saiakeran), Xabier Mendiguren Elizegi (eleberrigintzan), eta Xabier Olarra eta Koldo Biguri (itzulpenean) izan dira laguntza jaso dutenak.

Jean Haritschelhar,
euskaltzainburua

Endrike Knörr,
idazkaria

Donostian, 1994ko uztailaren 22an

Haritschelhar, J.
 Lekuona, J.M.
 Knörr, E.
 Arana, J.A.
 Altuna, P.
 Azkarate, M.
 Charritton, M.
 Diharce, X.
 Irigoyen, A.
 Kintana, X.
 Krutwig, F.
 Larre, E.
 Ondarra, P.
 Oyharçabal, B.
 Salaburu, P.
 Satrustegi, J.M.
 Villasante, L.

Lizundia, J.L., idazkariordea
 Zearreta, J.J., ekonomi eragilea

Donostian, Gipuzkoako Diputazioaren jauregian, 1 994ko uztailaren 22an, goizeko hamarretan, bildu da Euskaltzaindia, aldameneko lagunak bertan zirela. J.L. Davantek eta Tx. Peillenek ezin etorria adierazi dute.

Agiria

Ekaineko agiria onartu da, zenbait zuzenketa egin ondoren.

Gaietan sartu aitzin, B. Oyharçabal Centre National de la Recherche Scientifique-ko *Directeur de Recherches* izendatu berri dela adierazi du euskaltzainburuak. Bilduen zorionagurra jaso du Oyharçabal jaunak.

Jon Bilbao zenaren hilberri-txostena

J.A. Aranak irakurri dur Jon Bilbao euskaltzain ohorezkoari buruzko bere txostena. Bilbao jaunaren bizitzaren xehe-tasunak eman ondoren, haren lana goraipatu du, oroz gain *Eusko Bibliographia* izenekoa, 1970az gero argitaratzen hasia, Amaieran, E. Knörr eta F. Krutwig-ek zenbait iruzkin egin dituzte.

Barne Erregelak

Uztaileko batzarrean banaturiko atalaz, *Onarpen mailak eta prozedura* deritzanaz, X. Kintanak igorri ditu oharrak ezarritako epe barruan. 2.2. puntuari dagokiola, urgazleei esku gehiago ematearen alde ageri da, gaiaren arabera. J.L. Lizundiaren ustez, nahiz urgazle guztiei erabakizunen testuak ezin dakizkiekeen bidal, ohargile direnei edo ohargile izatea eskatu dutenei igorri ahal zaie aurre-erantzeari. P. Altunarentzat, berriz, urgazleek berek beharko lukete interesa azaldu. J. Haritschelharrek gogorarazi du aurreko batean 150 gutun hartzaileetarik 11k bakarrik erantzun zutela. A. Irigoyenen iritziz, gai guztiek ez dute garrantzi bera eta aldiari aldiko jokabidea har liteke. Geroko utzi da arazo hau.

2.3. puntuaz denaz bezain batean, Kintana jaunak epe lasaiagoak eskatzen ditu. J. Haritschelharrek oroitarazi du edozein euskaltzainek duela gaia hurrengo batzarrerara arte mahai gainean utz dadin eskatzeko eskubidea.

3.3. puntuan, *argitarapen* hitza erabiltzea eskatzen du X. Kintanak. M. Azkaratek erantzun dio Euskaltzaindiak *argitalpen* forma hobetsi zuela iazko uztail-ean, Paben egindako batzarrean. Nolanahi ere den, auzi hau eta bestelakoak, idazketa ukitzen dutenak, testu guztiak onartuko direnean aztertuko dira.

Hortaz, Zuzendaritzaren erregela proposamena onartutzat eman da.

Hitanoko aditz trinkoa

Egungo gaia ikertzen hasi baino lehen, Euskara Batuko batzordekide den P. Salaburuk maiatzeko batzarrean onaturiko testuan, *batik bat* esapideari dagokio-la, pasarte bat aldatzea eskatu du. Aurreko testua behar bezain argi ez zela eta, aho batez onartu da idazketa berria.

B. Oyharçabalek *Adizkera trinko alokutiboak: ergatiborik gabeko formak eta Adizkera trinko alokutiboak: forma ergatibodunak* izeneko txostena aurkeztu du, Euskara Batuko batzordearen izenean. Lehen erabakitako formak, Miarritzekoan erabakizun gelditu zirenak eta beste batzuk biltzen ditu txosten horrek. Bestetan bezala, hiru zutabetan ageri dira formak: ez alokutiboa, alokutibo maskulinoa eta alokutibo femeninoa.

X. Kintanak proposamenarekin bat datorrela esan du. Hala ere, *za-* eta *ze-* (*zagok / zegok* eta beste), bi-biak zilegi izatea eskatu du. Gainera, erregularatasunari eutsi beharko litzaioke, haren ustez, paradigma hauetan, eta kontraesanak saihestu. A. Irigoyenek esan du *zegok* eta antzekoak jarritz gero ez dituela txartzat hartuko paradigmak. Hala ere, uste du *niagok*, *diagok* eta horrelakoek ere agertu beharko luketela, baina jartzen ez badira bere oharra agirian azal dadin nahi duela. Bestalde, bizkaieraz *ñatorna* eta antzekoak erabiltzen direla esan du, baina *na-torren* eta abarrekoak ere ontzat hartzen dituela.

Ikusi aditzaren kasuan, bestetan bezala *za-* / *zekusaat* onartu dira. Orobat *entzun* aditzarenean: *za-* / *zentzuat*.

P. Charrittonen galderari erantzunez, batzordea forma berririk asmatzen ari denentz, P. Altunak esan du dozenaka formak direla inon ageri ez direnak. Batzordeak paradigmak osatzen ihardun du, Aditz batzordeak egin zuen bezala. A. Irigoyenen aburuz, aski litzateke *e.a.* ezartzea. J.L. Lizundiak aditzera eman du horrelakoetan *antzeko* edo jartzen dela, baina ez *e.a.*

Oharrak irailaren zortzia baino lehen bidaliko dira Bilboko egoitzara, atalka, ahal dela: kontraesanak; jotzean gertatu diren hutsak; hutsuneak.

X. Kintanak *ni naiz* eta *hi haiz* irakasteko prozeduraz azken bilkuran egin eskaria berritu du. P. Altunak ez du aipamen hori beharrezkoa ikusten. B. Oyharçabaleen ustez, egia da hitanoa ez dela irakasten eta zerbait egin beharko litzateke. M. Azkaraterentzat horrelako gomendioek eta zuzentasunaz esan litezkeenek ez dute txosten honetan tokirik. J.L. Lizundiari ez zaio iruditzen Euskaltzaindia aplikazioa garatzeko Erakundea denik. A. Irigoyenek esan du hitanoa atzera doala eta askatasuna behar dela eman.

Diruzaintza

J.A. Arana Euskaltzaindiaren 1995eko aurrekontuaz mintzatu da. Hizkuntz Politikarako idazkari nagusiak gutun batean eskatu du aurrekontua uztailaren 31a baino lehen aurkeztea, baina guztiz zaila da eskaria betetzea. Batetik, Euskaltzaindiak ez daki oraindik datorren urtean zenbat diru beharko duen. Bestetik,

epea estua da eta, gainera, langileen oporraldiagatik nekeza da dokumentazioa behar bezala prestatzea. Bi galde egin zaie euskaltzainei: 1. Irailerako utzi mintzatzea? 2. Uztailaren 31a baino lehen aurkeztuko dira aurrekontuak ala urrirako utzi hau ere?

E. Knörr-en iritziz, Herri Aginteekin irailan beharko litzateke hitz egin, ezen epe kontuan ez baita zorrotz ibiltzerik. P. Charrittonek esan du Zuzendaritzak erabaki behar duela komenien dena. J. Haritschelharren ustez, behin-behineko aurrekontua beharko litzateke orain aurkeztu eta behin-betikoa irailan. Ildo beretik, P. Salaburuk esan du Administrazioak bere epeak dituela; egin liteke orain aurrekontu bat, nahiz irailan aurkeztuko dena desberdina izan.

Heldu den astean agintariekin mintzatzea eta behin-behineko aurrekontua aurkezte erabaki da.

J. Haritschelharrek aditzera eman du Herri Kontuen Euskal Epaitegiak laster emango duela Euskaltzaindiaz azken hilabetetotan ondu duen txostena.

Eskuartekoak eta azken ordukoak

Espainiako Kultur Ministerioak Euskaltzaindiaren ordezkari bana eskatu du urteoroko Nazio Sariak izenekoak erabakiko dituen epaimahaietarako. Literatur batzordearen proposamena ontzat harturik, haxe izan da batzarreak birretsi duena:

Letretako Nazio Saria: J.M. Satrustegi.

Poesia: Karlos Otegi.

Narrazioa: Ana Toledo.

Saiakera: Jon Kortazar.

Antzerki Literatura: Luis Haranburu Altuna.

Haur eta Gazte Literatura: X. Etxaniz.

Itzulpena: Josu Zabaleta.

Gipuzkoako Batzar Nagusietako lehendakaria den Jon Esnalek gutunez galde-tu du zein den hobetsi behar den forma: *batzar*, *batzarra* ala *batzarre*. E. Knörren aburuz, Hiztegi Batuko batzordeak behar du auzia ikertu. A. Irigoyenek esan du *batzar* dela tradizio gehien duen aldakia. J.M. Satrustegik aditzera eman du *batzar* erabiltzen zela Euskaltzaindiaren agerietan, eta gero *batzarre*, ustez hau zela gomendatzeko era. P. Salaburuk esan du Baztanen *batzarre* esaten dela, nahiz ibarraren eguna *Baztandarren Biltzarra* deitu. J.L. Lizundiak Bizkaiko Batzarre Nagusietako euskarazko zenbait testu ekarri ditu, joan den mendekoak; horietan *batzar* eta *batzaar* erabiltzen da. Hiztegi Batuko batzordera pasako da gaia.

P. Charrittonek eskatu du Euskaltzaindiak *Biarritz* eta *Miarritze* formen artean bat hobestea. J.L. Lizundiak erantzun du atzo bildu zela Andoianen Onomastika batzordea eta, nahiz biak zilegi izan, *Biarritz* hobestea erabaki zuela goiko erabilerarako eta udazkenean erabateko proposamena egingo duela.

Jean Haritschelhar,
euskaltzainburua

Endrike Knörr,
idazkaria

AGERIKO BATZARRA

Donostian, 1994ko irailaren 21ean

Haritschelhar, J., euskaltzainburua
 Lekuona, J.M., euskaltzainburuordea
 Knörr, E., idazkaria
 Arana, J.A., diruzaina
 Altuna, P.
 Azkarate, M.
 Charritton, P.
 Diharce, X.
 Irigoyen, A.
 Kintana, X.
 Krutwig, F.
 OndalTa. P.
 Oyharçabal, B.
 Peillen, Tx.
 Salaburu, P.
 Sarasola, I.
 Villasante, L.
 Zavala, A.

Arbelbide, X.
 Badiola, R.
 Dirassar, J.B.
 Etxebarria, J. Maria
 Etxezarreta, E.
 Garmendia, Juan
 Iriondo, J.M.
 Landart, D.
 Lizundia, J.L.
 Loidi, J.A.
 Mujika, J.A.
 Mujika, L.M.
 Mendiguren, X.
 Pagola, R.M.
 Rotaetxe, K.
 Urkizu, P.
 Velez de Mendizabal, J.M.
 Zatarain, A.
 Zearreta, J.J.

Donostian, Gipuzkoako Diputazioaren jauregian, 1994ko irailaren 21ean, arratsaldeko bostetan, egin du Euskaltzaindiak ageriko batzarra, Akademia eratu zeneko 75. urtemugakari. Aldamenean aipatzen diren lagunak bertan ziren. J.L. Davant, E. Larre eta J.M. Satrustegik ezin etorria adierazi dute.

Mahaian, J. Haritschelhar euskaltzainburuaren ondoan, jaun-andere hauek jarri dira: Eli Galdos, Gipuzkoako diputatu nagusia; Jose Alberto Pradera, Bizkaiko diputatu nagusia; Alberto Ansola, Arabako diputatu nagusia; M. Karmen Garmendia, Eusko Jaurilaritzako Hizkuntza Politikarako idazkari nagusia, Jose Antonio Ardanza lehendakariaren izenean, eta Jose Maria Rodriguez Ochoa, Nafar Gobernuako Hizkuntza Politikarako zuzendari nagusia, Juan Cruz Alli gobernuburuaren ordezkari. Aretoan, euskaltzain oso eta urgazleez gainera, kultura, politika eta gizarte alorretako pertsona asko ziren, besteak beste, Jose Maria Setien, Donostiako apezpiku jauna; Gregorio Monreal, Eusko Ikaskuntzaren burua; Jon Esnal, Gipuzkoako Batzar Nagusien burua; M. Jesus Aranburu eta Tomas Uribe txabarria, Gipuzkoako eta Bizkaiko kultura foru diputatuak. Bereziki gonbidatuak izan dira kazetolari asko.

Jean Haritschelhar izan da lehen hizlaria. Hasi aitzin, jaso diren goresmenezko zenbait telegramaren berri eman du: Juan Carlos erregearena; Juan Ignacio Uribe, Euskal Herriaren Adiskideen Erret Elkarteko buruarena; Ander Manteola, Labayru elkartearen zuzendariarena, besteren artean. Bere hitzaldian, Haritschelhar jaunak Akademia eratu zeneko 75. urtemugan, toki, egun eta ordu

berean, bildu dela, esan du. Erakundearen esker ona agertu du gero Herri Aginteenganako. aldioro Euskaltzaindiarengana erakusten duten estimu eta atxikimenduagatik. Euskaltzaindiaren iragana, oraina eta geroa izan ditu hizpide ondoren. Sorreran bertan kazetalaritza, zuen garrantziagatik, aintzat hartua izan zela gogoratu du eta Euskaltzaindia orduko uste hartatik ez dela aldendu. Euskara batuari buruz orain arte egindako bide luzea aipatu ondoren, Leioako Biltzarra, urtemuga lantsu honen amaiera, Euskaltzaindiak igurikipenez betea begiratzen duela esan du.

Ondoren, M.K. Garmendiak Jose Antonio Ardanza lehendakariaren gutuna irakurri du. Estatu Batuetan delako bere ezin etorria adieraziz gainera, Ameriketako euskaldunen lana oroitarazi du. Orixe, Zaitegi, Ibiñagabeitia. Garate eta Bilbao aipatuaz, besteak beste, bai eta adierazi zenbait egitasmo, autonomi estatutua eta Eusko Jaurlaritza bera, han egosi zirela. Akademiak agintarien babesa duela esanez bukatu du bere gutuna.

Jose Maria Rodriguez Ochoa mintzatu da hurren. Nafarroako Diputazioa eta Gobernua Euskaltzaindiaren laguntzaile izan dela esan du, eta lan ugaria opa hizkuntza erakundeari.

Alberto Ansolak Arabaren nortasunean euskarak duen garrantzia aditzera eman du, batez ere, bere mintzaldian.

Jose Alberto Praderak Euskaltzaindiak Euskal Herri osorako sortzetik bereetik izan zuen asmo eta helburua aipatu du, bai eta Bizkaiak euskarari egin dion ekarpen aberatsa. Azkenik, Eli Galdosek euskaldun guztien Euskaltzaindiarekiko aitorpena azaldu du.

Ekitaldi honen bukaeran ahamen bat eskaini die Gipuzkoako Diputazioak etorritako guztiei.

Jean Haritschelhar,
euskaltzainburua

Endrike Knörr,
idazkaria

TXOSTENAK

ARTURO CAMPION ETA BRUNO ETXENIKE

Iruñea, 1994.03.25

ARTURO CAMPIONEN ITZALA

Iruñea, 1994.03.24

Jose Mari Satrustegi

Euskaltzaindia sortu zeneko 75. urtemuga ospatzen da gaur Iruñeko batzarre honetan. Eta Nafarroako Gobernuaren Jauregian ospatu ere, lehen Diputazioa zeneko egoitza berean. Ohore guztiekin beraz sartua da Arturo Campion Nafarroako Jauregian. Benetan pozgarria da, herria zorretan baitago bere seme ospetsuetako batekin. Esker txarraren lotsa gorria zuritzen joateko ordua da.

Historia ofizialetan bada lerro arteko isiluneen beste historia bat. Egia borobila da irabazleak idazten duela historia. Etsaiaren aurrean zapaldurik bizia galduta irabazi dute batzuek garaipenaren burute ospetsua; eta arerioen argudioak maisuki isilarazi ondoren inoiz burua apaldu gabe galdu dute beste batzuek, hil ondoren, irabazia zuten izen ona eta ohorea. Kontraesanaren bigarren multzoan murgildurik desagertu zen Nafarroako gizarte berrientzat, herri honen eskubideak aztertu, galerak salatu eta berreskuratzeko ahaleginetan nabarmendutako abertzale jakintsua.

Gezurra dirudi zenbaterainoko beldurrez baztertuak izan ziren idazle ospetsu honen lanak bere azken urteetan, eta batez ere, hil ondoren. Argialetxeak gorde zituen Estafeta kaleko dendako zokoren batean, eta bertara jotzen genuen bekatuaren pareko jakinminez Nafarroako historia izkutuaren uretan “pozointzen” hasiak ginen burugabe bakar batzuek. Ez zen ongi ikusia gure desbideratze arriskugarria eta ahal bezala isiltzen genuen “errua”.

Bere izkribu argitaragabe eta gutunen artxibuarekin gertatua erdi-purdi jakin dugun arazoa da. Familiako zenbait alderditan banaturik gelditu omen ziren bere ondasunak, eta biblioteca nahiz izkribuen jarraipena egitea ia ezinezkoa zen denbora luzean. Adiskide baten eskutik jasoak ditut “Euskara” eta orduko beste aldizkari batzuen aleak Campionek bere eskuz egindako oharrekin. Entzuna genuen, noski, gordailuko altxorraren zati handi bat Nafarroako Diputazioaren eskuetan erori zela,

baina inor gutxi ausartzen zen iturrietara heltzen. Duela urte gutxi, 1986ko martxoaren 3a seinale, eskuizkribu baten kopia eskuratu zidan norbaitek. "Biblioteca de D. Arturo Campion" dio zigiluak. Non aurkitu zuen galdetzean, "bisitariak hanka azpian sakabanaturik dauzkaten hondakinetan" jaso zuela, erantzun zidan. Adiskide moduan baserritar bati euskaraz lege arloko aholkuak ematen dizkion gutun baten zirriborroa da, zuzenketa, ezabapen eta guzti bere sinadurarekin. Egoera tresondagariaren adibide xumea besterik ez da esandakoa. Arduradunei jakinaz nien berehala aurkipenaren itxura larria ezagututa gerta zitekeen galararen arriskua eta, gero jakin dudanez, apaletan jasotzen ahalegindu omen da norbait.

Arturo Campion euskaltzainaren akats politiko nagusia euskara gauzetan murgildu izana da. Politika alorrean Nafarroaren burujabetasuna eta foruen ikurra astindu zituen etxean eta kanpoan.

Campion handiaren itzala baizik ez du sumatu gure adinakoen gizarateak. Itzal iluna, beldurgarria eta mamu beltzaren itxura txarreko moztorra balitz bezalakoa. Jendeak beldurra galdu duen azken denbora hauetan goraka doa maisu jatorraren ezaupena, baloratze eta aipua.

Gaur Nafarroako Gobernuaren jauregian egiten den goratzarrea esanguratsua da Erreinu Zahar honetan gertatzen ari den aldaketa ulertzen joateko. Baina entzunlegoari begira, aipamen zehatzagoa oraikoz erdara batuan egingo dut guztion baimenarekin.

* * *

Venía diciendo en la vieja *Lingua Navarrorum*, señoras y señores, que es una invitación asumida desde el respeto y la admiración por mi parte, la que me dispensa el honor de recordar en los limitados términos de esta breve intervención, la egregia figura del polígrafo y académico navarro Arturo Campión. Es referencia emblemática en los avatares políticos y culturales de su tiempo y figura, por oscuros motivos, inscrito en la letra pequeña de la historia más reciente del Antiguo Reino. El día en que la tierra plomiza de la descalificación y el olvido cavada o con bayonetas en 1937 cubrió sus restos mortales, el manto gris de los intereses partidistas ahogó también el vibrante mensaje del pensamiento patriótico que él encarnaba.

La evocación se inscribe en el programa conmemorativo del septuagésimo quinto aniversario de la fundación de la Real Academia de la Lengua Vasca, Euskaltzaindia, que con este motivo celebra en Pamplona esta sesión académica. Arturo Campión fue miembro privilegiado del cuarteto inicial que estrenó la andadura de la naciente Academia, en

compañía de su primer fundador R.M. de Azkue, y de los también académicos Luis Eleizalde y Julio de Urquijo, salidos del propio seno materno del Congreso de Oñati en la primera semana de setiembre de 1918.

A la efeméride conmemorativa de la fundación de la Academia de la Lengua Vasca, en Pamplona se suma hoy el espléndido marco oficial que le brinda uno de los socios fundadores, antigua Diputación Foral convertida en Gobierno de Navarra, que indirectamente aporta también el espaldarazo al prestigio marginado y a la memoria del ilustre académico navarro ante sus paisanos.

No es mi intención detenerme a enumerar sus títulos —fue miembro correspondiente de tres academias más—, ni presentaré el profuso catálogo de libros y artículos publicados en las disciplinas que cultivó su polifacética personalidad. Concejal del Ayuntamiento de Pamplona, diputado en Cortes por Navarra, y senador también en Madrid por Bizkaia, son algunos de los cargos más destacados que desempeñó en su dilatada actividad política.

Mi reflexión se centra en el amor apasionado que despertó en él la lengua de los navarros golpeada por la desidia, y me fijaré luego en el ostracismo al que fue relegado, a cambio, su noble memoria por el propio pueblo que le vio nacer.

No es hora de resabios ácidos ni de revanchismo mezquino en cantonalismo fraticida de descalificaciones absurdas. Resulta más gratificante el talante conciliador que se atisba tímidamente por parte de cualificados responsables en la nueva sensibilidad hacia valores históricos como la propia *Lingua Navarrorum* que, lejos de ser estorbo o afrenta para nadie, es patrimonio de inestimable valor cultural en esta tierra pleotórica de contrastes, que fue ejemplar en la convivencia milenaria de pueblos y culturas.

AMANTE DE LA LENGUA VASCA

En bella expresión que descubre la fibra poética del intelectual poco dado a efusiones afectivas, refiriéndose al certamen literario en lengua vasca que la Comisión de Fiestas del Ayuntamiento de Pamplona organizó el año 1882, Arturo Campión escribió “que era el primero en que un organismo oficial daba amorosa cabida a la princesa cenicienta, víctima de incohonestable desvío; a la misteriosa, bella, vetustísima lengua baska, reliquia viva y monumento insigne de las edades prehistóricas”.

Aporta el dato positivo de la aprobación sin reparos por unanimidad en el Consistorio, “a pesar de ser estos números del certamen trans-

posición a otras esferas de los certámenes que solía organizar por entonces la *Asociación Euskara*, sospechosa, cuando no odiosa, a los partidos de izquierda” (1).

Su afecto hacia la *Lingua Navarrorum* no se limitaba a la mera expresión literaria de un amor platónico, sino que se identificó con ella asumiendo en edad adulta el reto de su aprendizaje, y superó la prueba con brillantez, en réplica pragmática al político que en Madrid le acusó de defender con entusiasmo un idioma que personalmente desconocía (2).

El idioma no era en sí mismo la meta acariciada. No actuaba siquiera en función exclusiva del amor propio herido en la fibra sutil del sentimiento. Su valoración sobrepasaba los contenidos lingüísticos para convertirse en emblema histórico, cultural y afectivo de la naturaleza del Pueblo Vasco. Compartía con su amigo Iturralde y Suit la idea magnífica del lenguaje como elemento diferenciador de la idiosincrasia: “En la conservación de la lengua euskara hay para nosotros más que un interés científico... No hay que dudarlo, el idioma de un pueblo es la manifestación más elocuente de su genio popular” (3).

Campión era partidario de defender sus ideales patrióticos no tanto en razón de la fuerza, como por la fuerza dialéctica de la razón. En la conferencia de Gernika apeló al pragmatismo operativo, con estas palabras: “El idealismo establece la alternativa que siempre se lleva el aplauso de la muchedumbre: *o todo o nada*. El oportunismo responde: si los gérmenes de los seres observasen esa ley de la intransigencia, ninguno de ellos llegaría a término. El mundo estaría poblado de monstruosos fetos, cuyo desarrollo se paralizó al recibir el primer hálito de la vida. El procedimiento de la naturaleza es otro: una serie de *algos* que se completan y complementan incesante y progresivamente y producen el *todo*, fruto del tiempo” (4).

Por su parte no se trataba de soflamas testimoniales habituales en los foros políticos. El deseo de aunar esfuerzos en la defensa de la lengua y cultura vasca inspiró la iniciativa de crear la *Asociación Euskara* por parte de un reducido grupo de intelectuales navarros en 1877, des-

(1) CAMPION, Arturo: “Prólogo a Obras Completas de D. Juan Iturralde y Suit.”. Imprenta de Jesús García. Pamplona 1912. Cf. *Obras Completas* de Arturo Campión, t. I, p. 60. Editorial Mintzoa, Iruñea, 1983.

(2) SATRUSTEGUI, José María: ¿Cuándo aprendió el vascuence Arturo Campión? *Navarra Hoy*, Suplemento semanal, 22-9-1984.

(3) Ibid.

(4) CAMPION, Arturo: *Conferencia / Acerca del Nacionalismo / dada por / Don Arturo Campión / en Gernika / el día 19 de Abril de 1908*. Imp. y Enc. de Antonio de Egurola. Gernika, 1908 (32 páginas).

pués de un intento anterior que no había prosperado. “El objeto de la Sociedad, se decía en la presentación oficial al público (6-1-1878), es conservar y propagar la lengua, literatura e historia vasco-navarras; estudiar su legislación y procurar cuanto tienda al bienestar moral y material del país”.

Son las funciones asignadas más tarde a la Sección Tutelar de Euskaltzaindia. Curiosamente, en el cuño diseñado por Iturralde y Suit, cuya traza calificó de primorosa Campión, figura el motivo central del árbol de Gernika con la cruz encima, motivo que pasó a ser luego el emblema de Euskaltzaindia hasta nuestros días, sin el escudo y la orla de Navarra, por supuesto. Hay más coincidencias. El título *Euskara* de la revista de aquella Asociación navarra, referencia obligada de seis efímeros años de vida, es precursor del nombre adoptado para el órgano oficial de la Academia de la Lengua Vasca, y el investigador desapasionado puede detectar en todo el proceso convergente la sombra anónima del primer académico navarro de la lengua vasca.

La historia no siempre es justa a la hora de valorar los acontecimientos en la estricta realidad de los hechos historiados, vicio achacable a la superficialidad, producto natural de la ignorancia, o a los impúdicos desmanes del protagonismo deleznable. Quiérase o no, la iniciativa cultural que surgió con ímpetu en el último tercio del siglo XIX, fue pionera en el renacimiento de los estudios vascos, y provocó la inmediata reacción contraria de acoso y derribo por parte de otros grupos, dejando a la *Asociación Euskara*, en palabras de Campión, “convertida poco a poco en blanco de suspicacias y ojerizas que la debilitaron e hicieron rodar por la triste pendiente de la decadencia”. Y el prócer navarro, dolorido, rompe lanzas, en 1909, por el buen nombre de aquel movimiento, y reclama el lugar que le corresponde en la memoria olvidadiza del Pueblo Vasco. Dice así:

“Mas si el espíritu, tosco y estéril, de los partidos realizó su labor negativa, las ideas capitales de la *Asociación Euskara* de Navarra continuaron actuando en el espíritu euskariano hasta asumir la autoridad de cosa juzgada. Los certámenes de poesía e historia euskaras, el cultivo de la lengua y música baskas, la publicación de revistas como *Euskal Herria*, *Revista de las Provincias Euskaras*, *Revista de Vizcaya*, *Euzkadi*, *Revista Internacional de Estudios Vascos*, *La Basconia*, y otras; la formación de sociedades patrióticas, como *Euskal-Zaleen Bilzarra*, *Euskal Eснаlea*, centros baskos, batzokis, en España, Francia y América, poseen un precedente escrito por aquella insigne Asociación, aunque se comete la frecuente injusticia de ignorarlo u ocultarlo. Ella, modernamente, fue la primera que proclamó el dogma de la

fraternidad euskariana, substituyendo el raquítko *Irurak-Bat*, no con el completo *Laurak-Bat*, sino con el lema definitivo de *Zazpiyak-Bat*" (5).

Hasta aquí la expansión sentimental del hombre que rememora páginas muy meritorias escamoteadas a la historia del pueblo vasco. El silencio provocado es producto infame de la mezquindad del hombre.

Desaparecida la AE siguió vivo el espíritu de sus promotores que un día cristalizó en la nueva sociedad *Nafarroa-ko "Euskeraren Adiskideak"*. Por escasez de subvenciones oficiales, reclamaba a sus socios el dispendio mínimo de "un céntimo por día" o la ayuda de 0,50 céntimos de cuota mensual con destino a la conservación del euskera en Navarra. Publicaciones, música y danzas, y la organización de fiestas vascas, eran algunas de las actividades que promovía.

Cabría destacar dos iniciativas de singular relevancia en la nueva etapa de las actuaciones en defensa de la lengua vasca: la entrega de premios a los niños euskaldunes en la modalidad de libretas de CAN, simpática campaña de promoción retomada en la posguerra, y la creación de escuelas vascas iniciada en Pamplona. La Memoria del año 1933 dice textualmente lo siguiente:

"Otra de las actuaciones brillantes de la Sociedad son las Escuelas vascas de Iruña, instaladas en higiénicos locales de la calle Olite, 1-2.º (edificio de los PP. Escolapios); ha entrado en el tercer año de vida, y no hace más que aumentar la matrícula; actualmente son tres clases con tres profesoras tituladas.

El plan pedagógico es bilingüe (método Decroly), enseñándose además del plan de materias corrientes y doctrina cristiana, la lengua, geografía e historia de los vascos; de la envergadura de esta obra dará idea su presupuesto, que pasa de 15.000 pesetas anuales: para nivelarlo se precisa urgente ayuda de todos los que desean vivamente que los futuros pamploneses instruyan y encariñen con las características de nuestro pueblo, suplicando la falta que nosotros hemos sentido" (6).

(5) *Obras Completas* de Arturo Campión, t. I, p. 73.

(6) *Los fines de la Sociedad se condensan en los siguientes apartados:*

Primero. Conservación y fomento, en Navarra, del euskera y costumbres, danzas y música vascas. *Segundo.* La Sociedad está al margen de todo bando político. *Tercero.* Podrá formar parte de la Sociedad todo individuo o Corporación (Ayuntamientos, Sociedades, etc.) que lo desee. *Cuarto.* Ayudará esta Sociedad todo lo que fomente las características vascas en Navarra; y podrá entablar relaciones con las demás entidades euskeristas del País. (Forma parte de la Federación de Sociedades euskeristas, domiciliada en Estudios Vascos. San Sebastián). *Quinto.* La mitad de la Junta se elegirá por los que cesan; y la otra mitad por

El monto de esta inversión doblaba prácticamente el presupuesto anual de la Sociedad, que suponía 8.828 pesetas en el resto de las actividades públicas y de gestión.

Campión, aquejado de ceguera además de los achaques propios de la edad, apenas podía aportar ya al resurgimiento de los ideales de su vida otro aval que el testimonio moral de su autoridad, pero sintió el consuelo momentáneo de ver florecer la semilla cultivada con entrega y tesón.

FIGURA PROSCRITA

He titulado “La sombra de Arturo Campión” (*Arturo Campionen itzala*) esta elemental reflexión, no por masoquismo intelectual que cifra el elogio del homenajeado en la eficiencia del látigo enemigo que desbarata inmisericorde la barraca de sus prometedores proyectos, sino por simple y llana sucesión de datos históricos que superan la ficción.

Basta hojear una sola página de la provinciana hermeroteca foral para constatar, además del servilismo intelectual y moral de los inquisidores de turno, el más que seguro ostracismo que se cernía sobre el pensamiento de un intelectual íntegro sometido a cuarentena de apestado político.

Resulta sibilino hasta el elogio más rimbombante que le dedica un periódico local con motivo del fallecimiento. Dice así:

“... después de los Anales del P. Moret, su obra histórica de Navarra, objetivamente considerada, es nuestra obra clásica y de la que Navarra no podrá prescindir, *siquiera sea para subsanarla, corregirla y enmendarla.*”

Nadie niega su talento, incluidos sus enemigos, pero pocos comulgaron con su talante.

De sus bellas páginas literarias se dice: “Sus novelas son las que ya no tienen clima. Posible es que con el tiempo les vuelva. Llevan grabada a fuego la manera realista de la época”.

La descalificación política es sencillamente lapidaria: “De sus trabajos de ensayismo político quedará sólo el testimonio personal de sus filiaciones”.

los socios en Junta general anual; alternándose cada año, cada elección parcial. *Sexto.* La cuota mínima de cada socio es de un céntimo diario, pudiendo el asociado cotizar mayor cantidad.

El retrato personal crítico lo sume en la quimera esperpéntica de caballero andante blandiendo el aire con la utopía de frustrados amores. Literalmente caballeresco:

“Don Arturo lanzó sus voces fuertes y apasionadas, durante largos años, a la soledad más adusta. Un viento de sierra batió largamente las rosas de su jardín. Sintió a Navarra con ímpetu de pasión y vehemencia de enamorado carnal, *pero no la conoció*” (7).

No olvidemos lo que Campión había escrito en *El genio de Navarra*: “Los mayores enemigos que los nabarros han tenido y tienen son nabarros”.

RECONOCIMIENTO

Según una conseja vasca, Dios se dedica a hacer escaleras. Un anciano me aclaró su significado: “para que suban los de abajo y bajen los que están arriba”, me dijo. No sé dónde paran los detractores de Campión, pero alguien ha debido ocupar un puesto en la escala del olvido, ya que el amante de las gestas, leyes y tradiciones de Navarra es un valor en alza para las nuevas generaciones, tanto en la Montaña como en la Ribera. En este acto institucional le recordamos con respeto y admiración a través de Euskaltzaindia todos los amantes de la vieja *Lingua Navarrorum*, del mismo modo que ensalzaron su memoria los riberos el año pasado con motivo del centenario de la Gamazada.

Campión pintado por Ciga y fundido en bronce por el roncalés Orduna, es punto de referencia del arte en su tierra.

Recibió el homenaje literario de la publicación de las *Obras Completas*, y el espaldarazo de sus paisanos en la excelente acogida que dispensaron a la edición inmediatamente agotada.

Ya sólo espera paciente que Pamplona, la ciudad que le vio nacer y a la que perteneció en todo momento como ciudadano, intelectual y mandatario, le honre como se merece para que figure oficialmente en la Galería de sus hijos ilustres.

En cuanto al euskera, el tesoro más singular y representativo de nuestro pueblo, debería ser incluido con carácter destacado en el patrimonio cultural de Europa, por tratarse del idioma más antiguo del Viejo Continente.

(7) *Diario de Navarra*, 19 de agosto de 1937.

Brindé ya la idea en mi comparecencia ante la Comisión correspondiente del Parlamento de Navarra. No es utopía. El reconocimiento quedaría corto ante la valoración del científico de la Academia de Rusia V. Cichmariov, al proclamar sin complejos que “la vascolología es actualmente un problema de importancia mundial” (8).

Honor a la memoria de Arturo Campión, que luchó y sufrió como nadie a causa de la lengua Vasca.

Resumen

Arturo Campión no es la figura sombría que se nos ha presentado, sino el astro ensombrecido por el velo de humo en el que sectariamente se ha querido envolver su pensamiento.

Su pluma ágil y el talento lúcido hacían que sus dotes de parlamentario, polemista y escritor, destacaran con luz propia en el panorama gris de la época en que le tocó vivir. Era, sobre todo, la voz del patriota navarro —no navarrista— celoso de su historia y sus derechos.

El euskera fue uno de sus grandes amores. Lo aprendió de mayor como un reto autoimpuesto por coherencia con sus principios, cuando un parlamentario le objetó en Madrid que dedicaba su entusiasmo a proclamar las excelencias de una lengua que ni siquiera conocía.

Hoy hubiera ido más lejos la perspicacia de Campión en la era comunitaria de la Europa sin fronteras. Es hora de que salga de su reducto cantonalista el tesoro vivo más extraordinario de la cultura occidental, y debemos intentar sin complejos que la lengua más antigua del Viejo Continente sea declarada riqueza perteneciente al *patrimonio cultural de Europa*.

No debería resultar utópico a nuestros oídos caseros, cuando el miembro de la Academia de Rusia, V. Cichmariov considera que “la vascolología es actualmente un problema de importancia mundial”.

Laburpena

Euskaltzaindia sortu zeneko 75. urtemuga ospatzen da une hone-tan Iruñean, eta lehenengo lau euskaltzainetako Arturo Campionen go-goeta egin nahi da haren omenez.

(8) DZIDZIGURI, Shota: *Vascos y Georgianos*. Versión española, Bilbao 1982, p. 2. Prof. Voot: “su lengua es la más importante contribución que los vascos pueden hacer, no sólo a la historia de Europa, sino posiblemente a la del mundo. Su propia estructura, sus palabras y conceptos nos remiten a las primeras eras humanas”.

Historia ofizialetan dagoen lerro arteko isilune lotsagarria aipatu nahirik, euskaltzaletasuna izan zela bere etsaientzat akatsik larriena, esango genuke.

“Asociación Euskara” 1877an sortu zenetik, euskararen eta Euskal Herriko Kultura aberatsaren eragile bezala agertzen zaigu, gaur Euskaltzaindiak duen Jagon Saileko eginkizunen aurrelari; Iturralde y Suit bazkide ospetsuak egindako ikurrean ikusten da lehen aldiz Gernikako Arbolaren irudia gurutzea gainean duela, gaur Euskaltzaindiaren ezaggarria. Azkenik, Nafarroako elkarte haren aldizkariaren izena EUSKARRA, hartu zuen gero —letra baten aldaketarekin— bere *lan eta agirien* aldizkariaren izenburutzat Euskaltzaindiak. Bertan ikusten da Arturo Campionen esku izkutua.

Gaur gorakada handia egin du Campionen estimuak Nafarroan. Bere lanak plazaratuak dira eta omenaldia egiten zaio Iruñeko Jauregi nagusian. Egun haundia da euskaltzale guztiontzat.

ETXENIKE ETA AEZKOAKO LEKUKOTASUN DIALEKTOLOGIKOA

1994.03.25

Nafarroako Diputazioa

Iñaki Camino

Jaun-Andre euskaltzainak,
Nafarroako kargudunak
eta gainerako entzule, lankide eta adiskideak.
Egunon!

Euskaltzaindiak hala eskaturik, Etxenike eta beraren ihardunaren ondoriozko Aezkoako lekukotasun dialektologikoez mintzatuko natzai-zue. Honekin batean, hizkuntzaren aldakortasunaren gaiaren inguruan Ipar Ameriketan eta Europan hondarreko hamarkadetan izan diren saio teoriko batzuez bi hitz esan nahi nituzke, euskal adibidetzat, XIX. mendeko Aezkoako kristau ikasbide baten lekukotasuna hona ekarriz.

Eta besterik gabe, alde zaurretik eskerrak emanik, hasiko naiz.

1) Dialektologia diakronikoa hizkuntzalaritza orokorraren atal gisa eta honen mesedetan ulertu da gehien bat gurean. Gu ez gaude usaturik, ingelesak edo frantsesak bezala, edota Greziako aspaldiko hizkerez arduratzen direnak dauden moduan, Erdi Aroko nahiz are aspaldiagoko testuen arteko dialektologi alderaketak egitera, hizkuntz ezaugarri baten geografi eta kronologi hedadura zehatz-mehatz ikertzeraz —aldakuntza, berrikuntza edo dena delakoa—, testuetan oinarriturik, hizkeren arteko elkarreraginak nondik nora doazen aztertzeraz, testu zaharrak alderatuaz aldakuntza baten iturri edo fokoa zein geografi eremu izan datekeen iradokitzeraz —ia absolutuki agrafoa izan den geure Herriaren inguruko hainbat gertakari historiko ilunpean geratu baitira—, hitz jakin batek garai berezi batean lekuren batean estigma nola hartzen duen frogatzeraz e.a. Gurean honelako ohiturak ez dira hedatu, nagusiki, testu dei daitekeenik ez dagoelako arraz berandu arte euskaraz idatzirik. Hainbat argitaratzailearen fruituak ugaltzen ari diren garai honetan ordea —nahiz XVII. edo XVIII. mendeko testu ezezagun guti agertzen den—, geroari esperantza apur batez begiratzeko aukera ematen zaigu.

Hitz, otoitz, olerki, esaldi, ezkon zin, bertso, gutun, kantu eta leku-izen zahar zenbaitez landa, nafarrera idatziaren aroa Berriain utergarrak

irekitzen du XVII. mendearen hasieran. Haren metodoaz gain, nola edo halako luzera duten testuen artean Elizalderen dotrina (1735) (1), 1729ko sermoi F. Ondarrak argitara emana (2), eta Munarritz, Muruzabal eta Larraasoñako idazkiak ditugu 1745. urtea artean (3). Jakina, baita 1626ko Beriainen dotrina ere, nahiz hura ezagutzeko aukera egun hutsa izan. Larrekok Ollakarizketan lortu eta Aingeru Irigaray zenak gorde zuen dotrina haren *unicum*- a Javier eta Joxeanjel Irigaray adiskideek dute, eta Joseba Andoni Lakarra eta mintzatzen ari zaizuen honi utzi digute argitara eman dezagun. Aitor dizuegu luze gabeko gora-behera dela, eta aurki edonork eskueran izanen duela ia osorik kontserbatzen den aipaturikako dotrinaren edizio bat.

Nafarrera Zaharraz ari gara, muga nonbait finkatzekotan, Larramendi gogoan, 1745. urtea arte edo iristen denaz. Baina Nafarrera Zaharra gisa izendatzen dugun horrek biltzen dituen testuen artean ez dira dialektologikoki baten baten ustez balkanizaturik ageri den Nafarroa Garaiak biltzen dituen hizkera guztiak sartzen. Nafarroako bazter hizkera deitu direnez bezainbatean, aipatzekoa da, guk uste, ez dela beti esplizitatzen zergatik diren “bazterreko”: Nafarroa Garaiaren administrazio egituraren ertzetan kokaturik daudelako, status aldetik euskal literaturan ia inolako itzalik gabekoak eta berankorrek direlako, ala kokaturik dauden euskalkietan beste euskalkien mugakide —esan nahi baita berak biltzen dituen euskalkiaren hegian— gertatzen direlako?

Nolanahi ere den, XIX. mendea arte itxaron beharra dago Nafarroako bazter hizkera batzuen berri izateko. Hauen artean, eta Pirinioetako hiru hizkeretara mugatuaz, Joanes Etxeberri Sarakoak erronkarieraren izakerari buruz esandakoek dakarkigute lekukotasun ia bakarra. Dialektologia historikorako garrantzi handikoa da Florencio Idoatek 1975.ean argitara eman Burgiko XVI. mende bukaerako sorginkerari buruzko testua (4), bere laburrean ere. Antzinatasunari dagokionez, aipatu behar den Zaraitzu ibarreko dotrina bat dugu ere, Benito Gil-ek 1727. ean Itzallen idatzitakoa (5). Dotrina hau sarri argitara emanen dugu Joseba Andoni Lakarrak eta biok 1745. urtea arteko Nafarrera Zaharreko testuekin osatu dugun bildumaren barrenean.

Badira XVIII. mendeko dotrina gehiago ere, esaterako, Erronkariko bat argitara eman du Ricardo Gómezek (*Memoriae* 1991), Zaraitzuko bat

(1) *FLV* 65, 1994, 41-65.

(2) *FLV* 38, 1981, 147-173.

(3) Jose M. Satrustegi, *Euskal testu zaharrak I*, Iruñea, 1987.

(4) *CEEN* 1975, 225-276 eta orain Ibon Sarasola, *Contribución al estudio y edición de textos antiguos vascos*, *ASJU*-ren gehigarriak XI, Donostia, 1990, 239-240.

(5) González Echegaray eta Arana Martijaren katalogoan (Euskaltzaindia, 1989), 110.a.

Jose M. Satrustegik (*Symbolae* 1985 eta *Euskal Testu Zaharrak I* 1987), eta bada 1794ko Aezkoako Abaurrepeako bat ere, sarri argitaratuko dena. Honezaz landa, kronologi zehaztasuna nahi izanez gero, ez dago ia beste ezer XIX. mendeko bigarren erdian Luis Luziano Bonaparte lanabes bila eta taxonomi helburuak gogoan, ekinari otsoa bezala lotzen zaion arte. Erdietsi zituen katiximen artean, data zehatza dutenak eta ez dutenak ageri dira.

2) Ezinezko gertatzen da Bruno Etxenikeren irudia printzearenetik berezte, honexek bulkatu baitzuen euskal testuen eta hainbat daturen biltzera eta testu batzuen itzulpenak egitera 1856ko abuztuaren 11-13 bitartean Baigorriin Etxauzen jauregian ezagutu zuenez geroztik.

Bruno Eugenio Maria Etxenike Garmendia, Urdazubin sortu zen, 1819. urteko uztailaren 9an, eta Iruñean hil, 1893ko martxoaren 14an; egoki dateke beraz haren heriotzearen mendeurrenaren inguruan hainbat berri ematea.

Aita Juan Bautista ere urdazubiarra zuen eta ama Maria Lorenza, beratarra. Badakigu *Asociación Euscarica de Navarra* edo “Nafarroco Euscarazco Elcarg”ko kide zela eta Larresoron matematikak eta frantsesa ikasi zituela. Aitorenseme zen eta bi bider ezkondu zen. Lehen aldian deitura Alegria zuen gasteiztar batekin, honekin seme-alaba bi izan zituela. Bigarren emaztearekin aldiz hiru seme. Lau seme haietarik bi militar izan ziren, eta enparauak bata eskribau eta mediku bestea. Alaba ezkongabea Elizondon hil zen. Bruno Etxenikeren ondoko senitartekoak oso ugaldutxo ziren eta nobleziarekin harreman handia izaten jarraitu zuten.

Etxenike Elizondon bizi izan zen luzaz, “Datuegaraya” edo “Datueña” izeneko jauregian, baina Gasteiz eta Araba kurritu beharra ere gertatu zitzaion: bera izan zen printzeak herrialde horretarako baliatu zuen bilatzailerik nagusia. Ekonomi ahalbide handikoa zela dakigu, eta ehizarako grina zuena. Nafarroako eta Arabako oihanetan ibiltzera usaturik, Odon Apraizek kontatzen zuen behin Bonaparterekin mendian barrera zihola bidelapur bat atera zitzailela eta Etxenikek rau pistola atera ziola honi kapapetik. Bidelapurra ihesari eman zitzaion, eta orduan Etxenikek erretzeko pipa baizik etzen pistolatzakoa erakutsi zion printze euskalaria-ri. Printzeak, ehizarako zuen grina ezaguturik, eskopeta bat eta bi pistola erregalatu zizkion Etxenikeri, honek ez baitzuen onartzen printzearen dirurik euskalgintzan egiten zizkion mesedean truke. Etxenikeren biloba baten etxean, printzeak eman urrezko ordulari bat ere gordetzen zen, eskaintza euskarazko bat eta guzti zuena.

Bruno Etxenike baztanerara egindako bost testuren itzulpenarengatik da idazle gisa aipatua; honatx testuak:

1) San Mateoren Ebanjelioa, Bonaparteren aginduz urte batzuk ge-roago berrehun eta laurogeita zortzi zuzenketa erantsi zizkiona;

2) Jonasen profezia;

3) Apokalipsia;

4) Salomonen Kantuen kantua, eta

5) Ruthen liburua.

Bonapartek bostak argitaratzeko asmoa izan bazuen ere, bi besterik ez ziren orduan argitaratu, 1857an Ebanjelioa eta 1862an Jonasen profezia. Pello Salaburuk bostak batera argitaratu zituen 1980.ean (6). Itzulpen hauetan kutsu literarioa sumatu du euskaltzain arizkundarrak, nahiz printzeak Etxenikeri itzulpenak egiteko ereduaz kolaboratzaileen artean jabetuena bera zela aitortzen zion. Itzulpen haietarako literatur kutsurik gabeko folk edo herri-hizkera garbia estimatzen zuen Bonapartek, era guztietako fonetismoak eta guzti. Zerabilen kaligrafia txukuna ere esker-tzen zion printzeak urdazubiarrari.

Horrezaz gain aipatzekoa da Bonapartek Hego Euskal Herriko ere-muetan barrena egindako lan ibilaldietan Etxenike laguntzaile izan zue-la, esaterako 1866ko neguan Nafarroako ekialdeko ibar zenbaitetara egin ibilaldian Claudio Otaegik eta Etxenikek lagundu zuten printzea. Gai-nera, euskarari buruzko datu dialektalen eta euskal testuen bilketan la-gundu zuen euskaltzale urdazubiarrak, esate baterako Sakanan eta Bu-rundan, Elizondotik Gasteiza oinez joan ohi baitzen eskopeta bizkarrean. Nafarroako berrogei bat testu eskuratu zizkion, eta eskualdeak kurrituaz, 1864. urtean euskararen hegoaldeko mugaren berri zehatzak eman ziz-kion printzeari, Nafarroari dagokionez. Asteteren dotrina herriko hizke-rara itzuliko zuten apezak eta Bonaparteren berriemate izanen ziren la-gunak ere bilatu zituen. Aurretik, Arabako datuak emana zen hari 1862. urteko gutunek erakusten digutenez.

Bonapartek Etxenikeri igorri gutunak interes handikoak dira Euskal Filologia nahiz Dialektologiarako. Halaz ere, ez dakigu non diren Etxe-nikek printzeari igorri zizkionak, normalena, horiek ere, Duvoisin, Uriar-te edo Inchausperenak bezala, gorderik egotea litzatekeen arren. 1979ko *Euskera* aldizkarian Juan San Martinek aipatzen ditu gutun horiek (7), baina aipamen hori nahasketaren ondorioa besterik ez da, egiazki aipatu nahi direnak Bonapartek Etxenikeri igorriak baitira, 1910ko *RIEV*-en Ju-lio Urkixok argitara eman zituenak berak (8). Komeni litzateke hauts eta

(6) *Batzango euskalkiaz (I)*, Deustuko Unibertsitateko argitarazioak, Bilbo.

(7) "Bruno Etxenike (1819-1893)", 561-568.

(8) "Cartas escritas por el príncipe L. L. Bonaparte a algunos de sus colaboradores", 233-297.

zoko zenbait harrotzea ea aipatu gutunok —Etxenikek Bonaparteri igorriak— nonbait agertzen diren.

3) Etxenikek printzearentzat erdietsitako katiximen itzulpenetan Javier Loperena Garraldako apaizak 1862tik aurrera itzuliak garrantzi berezia du —González Echegaray eta Arana Martijaren katalogoan 132. eskuizkribua—. Bonapartek biltzen duen aezkerazko lehen testua hauxe da. Loperena honi egotzen zaio Eguesibarko Elkanoko hizkerara itzulitako San Mateoren Ebanjelioa —González Echegaray eta Arana Martijaren katalogoan 49. eskuizkribua—, baina gauzak ilunsko daude gure ustez honi dagokionez. Bi testuetako grafia erkatu beharko litzateke eta Loperenaren gainean berri gehiago bildu, Elkanorekin zer lotura zukeen ikusteko, non eta ez dagokion Elkanoko testuan lapitzaz ageri den “par Loperena” hori beste Loperena bati.

San Mateoren Ebanjelioaren gaia ukitu dugunez, aipa dezagun, kontrakoa dioenik dagoen arren, ez dagoela Bonaparteren garaiko aezkerazko San Mateoren ebanjeliorik, soilik Erronkarikoa —Bidankozeko Hualderena— eta Zaraitzukoa —Eiaurrietako Samperrena— daudela (9). Aezkeraz idatzi San Mateoren ebanjelioa modernoa da biziki, Agoitzeko seme den Josu Cabodevillak 1991n argitara eman eta moldatua (*Aetzen uskara* bilduman hain zuzen).

Gai hau bazterrera utzirik, eman ditzagun orain Loperenari buruzko biografia datu batzuk.

Ez genekien orain arte Javier Loperena Orbaizetako seme zenik. Herriko sarreran dagoen “Arlakoa” edota “Arriola” izeneko etxean sorturik, aitetamak ere orbaiztarrak zituen. Joaquín Javier Gregorio Loperena Iturralde 1796ko maiatzaren 12an sortu zen eta Garraldan hil zen 1867ko abenduaren 12an 72 urterekin.

Gatozen ordea berak idatzi zuen katiximara. Aipatu katixima honen originala baino lehen —Loperenak bere eskuz izkiriatu kristau ikasbidea baino lehen—, Etxenikek orijinal honetatik egindako kopia txukuna iritsi zitzaion printzeari 1865eko urtarrilaren 24an, eta orijinala berriz otsailaren 9an. Bonaparteren lanen katalogoan, lehen ere idatzirik gaude honetaz (10), 132.a da orijinala eta Etxenikek egindako kopia berriz 127.a, nahiz “dialecto aezcoano” gisa ageri den eta ez Etxenikeren kopia gisa. Dena den letran hautematen da bi idazle desberdin direla. Etxenikek egindako kopiatik Loperenaren eskutik ateratako orijinalera aldaketa ba-

(9) González Echegaray eta Arana Martijaren katalogoan 261.a eta 103.a hain zuzen ere.

(10) Iñaki Camino, “Argitasun batzuk Aezkoako dotrinei buruz”, *ASJU* XXIII-3, 1989, 801-807.

tzuk daude, bereziki txistukari bizkaralbeolareen sailean, afrikatuak frikarietarik berezten baitira. Horrezaz landa Etxenikek grafiaren bati dagokion hotsarekin arazoren bat ere baduela ikus daiteke.

Jose M. Satrustegik oraintsu argitara eman Almirantearena aetzaren dotrina dakarren lanean (11), aipatu bi testuok —Loperenaren orijinala eta Etxenikek honetatik egin kopia— nahasi dira. Zeinahi testuren gainean juzkuak egin baino lehen, beraren zatiak ongi identifikatzea —letra, tinta, egiletasun kontuak e.a.— baitezpadakoa da. Satrustegik Loperenaren orijinala beharrean honen fotokopia baliatu baitu, ez bide du fotokopian, Loperenaren orijinalean Etxenikek egin zuzenketen kolore horixka hauteman. Zuzenketok adizkien laburdurari nahiz grafiaren arloari dagozkio, batez ere ixaren hotsa adierazten duten <s> bikoitzak <ch> bilakatuaz. Dotrinaren lehen orrian berean adierazten digu hori Etxenikek tinta marroiaz, eta dotrinaren barreneko aldean badira paper pusketa batzuk zuzenketen berri esplizitua frantsesez ematen dutenak. Txistukarien zuzenketa saio hau, dotrinaren erdi aldean bukatzen da, 45. orrialdetik aurrera berriz <s> bikoitzak baititugu. Dirudienez hobeki iritzi zion Etxenikek testu guztia buruan buru kopiatu eta moldatzeari, testu originalaren zuzenketa bukatzeari baino.

Aipatu Satrustegiren lanean esaten zaigu ere, 1865.ean eskuraturikako Loperenaren hau dela Bonapartek 1869an Londresen argitara eman zuen Asteteren ediziorako —Erronkariko, Zaraitzuko eta Aezkoako testuak biltzen dituen argitalpen hirukoitza hain zuzen (12)— Pedro Jose Minondo Garraldako maisuaren testuarekin batera aezkerari dagokion eredua osatzeko baliatu zuena. Datuek ez dute hori frogatzen ordea. Bonapartek berak dio 1869ko argitalpenaren izenburuan, Aezkoako eredua osatzeko, Pedro Jose Minondo Garraldako maisuaren jatorrizko testuaz gain, Martin Elizondo aribearraren nahiz beste zenbait nekazari jenderen laguntza baliatu duela, Loperena deusetarako aipatzen ez duela:

avec la coopération de Don Martin Elizondo d'Aribe... avec le concours de gens de la campagne, et après avoir rendu les trois versions aussi comparatives que possible.

Nekazari jende hori 1866ko ibilaldian galdezkatua nahiz 1869ko hasieran Aezkoa, Zaraitzu eta Erronkaritik Donibane Lohizunera eramnarazi zena izan daiteke.

(11) "Aezkoako Geronimo Almirantearenaren dotrina argitaragabea", *ASJU* XXVII-2, 539-549.

(12) Ikus orain Iñaki Camino & Ricardo Gómez, "Bonaparteren argitaratzeko irizpideez: Aezkoa, Zaraitzu eta Erronkariko dotrinak (I)", *ASJU* XXVI-2, 1992-2, 453-581, eta Euskaltzaindia, *Opera Omnia Vasconice* III, Bilbo, 1991, 255-330.

1869ko ediziorako Bonapartek Minondoren nahiz Loperenaren testuak oinarritzat hartu zituela esaten bada, hori baieztatzeko frogak zein diren erakutsi beharra dago, eta garrantzizkoago dena, inolako zalantzarik gabe aezkeraren barrenean kokatzen ditugun Orbarako bi dotrinak, Ariakoa eta Abaurrepeakoa ez zirela erabili frogatu behar da ere.

Claudio Otaegik Manterolari 1870eko ekainaren 28an bidali zion txosten batean kontatzen denak aukera ematen digu pentsatzeko 1866ko ibilaldian erdietsi zituzkeela Bonaparte printzeak Orbarako, Abaurrepeako eta Ariako dotrinak. 1869ko ediziorako baliatu ahal izan zituen testu hauek, baina hori frogatu beharko litzateke. Ikus dezagun Otaegik idatzitakoa (13):

1866 garrengo urtean lagundu nion Principe Jaun oni berari, Aezkoa, Salazar, Ronkal, eta Nafarroko beste ibar askotara; aetako euskara ikas-tera: an egin ziran lan aundiak geroztik publikatuak izandu dira batzuek bere kosturá. Bidaje artan bildu ziran liburu eta eskuizkribatu asko, eta utzi giñuzen enkargatuak beste lan asko.

Beren ezaugarriengatik, Orbarako biak, Ariakoa eta Abaurrepeako kristau ikasbidea 1866 baino lehenagokoak direla dakigu; nabarmena da ez direla printzearen ekinbideak idatzi eraziak. 1866ko neguan enkargatu haietako bat, Aezkoakoa, Garraldako Pedro Jose Minondo maisuaren dotrina da. Bonapartek Otaegiri 1866ko ekainaren 7ko gutun batean aipatzen dio bildu duela. Garbi dago Minondoren testutik Londresen argitara eman zenera Bonapartek aldaketa handiak egin zituela, herri-formei ataria zabal ireki baitzien, eta Martin Elizondo aribearraren eta agian beste aetzen baten datuek zerikusia dukete honetan. Zaraitzuko eta Erronkariko kristau ikasbideekin bateratu nahiak ere sortu zituen aldatetarak.

4) Bonaparteren aginduz Etxenikek Aezkoan bildu dotrina baten kasu praktikoarekin hasi aurretik, eman ditzagun azken urteetan hizkuntzalaritza orokorraren barrenean landu den ildo bati buruzko xehetasun batzuk.

* * *

Hizkuntzalaritza orokorra ez da gehiegi kezkatu mende honetako seigarren hamarkada ingurua arte aldakortasunaren arazoa ikuspegi teorikotik aztertzen, eta hizkuntza ente homogeneotzat hartu ohi du, datu

(13) Julio Urkixo liburutegian gordetzen da Otaegik Manterolari 1870eko ekainaren 28an bidali zion txosten baten kopia. Bertan zegamarrak, urtez urte 1863tik aurrera zerrendaturik, euskararen alde egin lanak azaltzen ditu "Nafarroco Euscarazco Elcargó"-ari eta d'Abbadieri aurkezteko.

enpirikoen arteko erlazio abstraktuen errealitateari begiak hertsiz; homogeneitatea ordea, Mathesius-ek zioenez, datuetan baino, metodologian egon ohi da.

Estrukturalismoa hizkuntzaren sisteman oinarritu zen, eta honi baitezpada homogeneitatea zegokiola juzkatzen zuen. Sistema abstraktoaz arduratzen ziren, abiaburu gisa hiztun indibiduala hartuaz —ondoren hizkuntzalaritza sortzailea hiztun idealaz arduratuko den gisan—, hizkuntzaren baitako aldakortasunaz sobera kezkatu gabe. Heterogeneitatea teorikoki garrantzirik ez zuen zerbaitzat jotzen zen, estilistikaz edo dialektologiaz arduratzen zirenek hizkuntzalaritza periferikoa egin zezaten utzia zutela zirudiela. Ikusi besterik ez dago hizkuntzalaritza sortzaileaz arduratzen den *Linguistic Inquiry* bezalako aldizkari batek 1980tik aurrera dialektologiaz zein guti —deus ez hobeki esan— argitaratu duen.

Dialektalizazioa ordea, hizkuntz aldakortasunaren “variability” eta hizkuntz aldaketaren “change” arteko erlazio hertsia, ñabar eta konplexuen menpe dago. Denbora aldi zehatz bateko idiolekto baten analisi deskriptiboan bata bestearen ondoan edo gainean dauden sistemak ageri zaizkigu, batzuk denbora aldi baten bukaerara hurbiltzen direnak, besteak hasten ari direnak. Hitzunen gaitasuna deskribatzean, beren gramatika barreneratuaren irudikatzea dakarten formulazioek, hitzunek egokitasunez eta behar den unean darabiltzaten aldaki eta desberdintasun guztiak erakutsi behar dituzte.

Halako simetria bat gertatzen da, komunitate batean denboran zehar gertatzen den dialektoen trantsizioaren, eta eremu batean zehar gertatzen den dialektoen arteko trantsizio geografikoaren artean; kasu bakoitzean, sistema diferentea duten hitzunen arteko kontaktua dago. Idiolekto homogeneo indibidual edo monolektala gaingitu beharra dago transferentzia mekanismo ulergarriago batera iristeko. Badira hitzunik beren dialektoa edo hizkera eta beste bat ere aktiboki kontrolatzen dutenak, nahiz gehiago diren aldameneko hizkera edo dialektoa pasiboki ezagutzen dutenak. Bloomfield-ek (1933) zioenez (14), hiztun oro bere hizkuntza ohiturei leialki loturik ari daiteke bizitzan zehar, baina baita bere interlokutorenei etengabe egokitzen ere. Azken kasu honetan, ordua arte zerabiltzan hizkuntz forma batzuk utzi egiten ditu hitzunik, beste berri batzuk bereganatzen ditu, eta ondorioz, hizkuntz forma batzuen erabileraren maiztasuna aldatzen du, forma zaharrak osoki alde batera utzi gabe edota berarentzat berria den formaren bat osoki onartu gabe.

(14) *Language*, New York: Holt, 327-328. or.

Antzera dihardute Fries eta Pike-k ere (1949) (15):

In the process of change from one phonemic system to a different phonemic system of the same language, there may be a time during which parts of the two systems exist simultaneously and in conflict within the speech of single individuals... It is impossible to give a purely synchronic description of a complex mixed system, at one point of time, which shows the pertinent facts of that system; direction of change is a pertinent characteristic of the system and must also be known if one wishes to have a complete description of the language as it is structurally constituted

Estatu Batuetan Labov-en lanek eratu ereduaren barrenean ordea —bereziki hirietako aldakortasun linguistikoa ukitzen zuten lanetan, eza-gunena New York hiriar buruz 1966an egin dela (16)—, hizkuntzaren baitako heterogeneitatea eta aldakortasuna, periferikoa ez, hizkuntzalari-tzaren erdiguneko gai gisa ageri zaigu. Estatu Batuetan Labov-ek eta egin lanek —klasiko bihurtu da 1968ko Weinreich, Labov eta Herzog-en lana (17)— erakusten dute erregulartasuna eta egitura ez daudela etsaiturik heterogeneitatearekin, badirela aldakortasun eredu batzuk hala hiz-tun indibidualarengan nola —eta hau garrantzi handikoa da— hiztunen komunitate osoan. Komunitate horretan aldakortasuna gertatzen da, egunik egun eta hiztunik hiztun alda daitezkeen joerekin. Paradigma berrian aldakortasun sistematikoa txertatzen zaie hizkuntzaren teoriari eta deskribapenari, gramatikaren erregela kontzeptua “erregela aldakor” edo “variable rule” aldaerarekin aberasturik, ordura arteko “optional rule” kontzeptua gaindituz, honek ez baitzuen aldakortasun sistematikoa aintzat hartzen, ezta kontestu fonologiko, morfologiko edo sintaktiko zehatz batek nahiz adinak, gizarte-mailak, estiloak edo sexuak erregela baten operatibitateko probabilitate eta maiztasunean duten zerikusia kobariazio neurketa sistemen bidez aztertzen. Erregela kategorikoak ditugu beste aldean, eremu batean beti —edo sekula ez— aplikatzen direnak.

Bestalde, teoria honetan, ardatz sinkronikoa eta diakronikoa gogoan hartzen dira. Ereditu honen aldaki bilakatuagoa Cedergren eta Sankoff-ena (1974) dugu (18). Erregela aldakorren alorrean —Cedergren eta San-

(15) “Co-existent Phonemic Systems” *Language* 25, 29-50, 41-42. or.

(16) *The Social Stratification of English in New York City*, Washington, D. C.: Center for Applied Linguistics.

(17) “Empirical foundations for a theory of language change” in *Directions for historical linguistics*, ed. by W. P. Lehmann and Y. Malkiel, 95-195, Austin, Texas: University of Texas Press.

(18) “Variable rules: performance as a statistical reflection of competence”, *Language* 50, 333-355.

koff-en lanari ukituak eginez— Kay eta McDaniel-en lana (1979) (19) eta hauei Sankoff eta Labov-ek eman erantzuna (1979) (20) aipa daitezke.

“Kuantitatibo” gisa izendatu den eredu honekin batera hizkuntza kreolaideen zenbait azterketatan landu den “eredu dinamiko” deritzana dago aipatu beharra; jakina denez, elkar hizketa errealak *in vivo* aztertuz jabetu daiteke ikerlea hobekien hizkuntz aldaketaz, konbergentzia prozesuaren izakera soziolinguistikoa horrela atzematen baita aiseenik; Bickerton-en (1971-75) (21) eta Bailey-ren lanetan (1973) (22) ageri zaigun eredu honen arabera, aldakortasun hori ez da gertatzear dagoen hizkuntz aldaketaren aldi bat baizik, aurrekoen ustez hizkuntza komunitatearen berezko ezaugarritzat jotzen zela. Aurrekoen ustez, hizkuntz aldaketa orok aldakortasuna eta heterogeneitatea inplikatzan dituen arren, hizkuntzaren egitura ageri den aldakortasunak eta heterogeneitateak ez du beti hizkuntz aldaketa inplikatzan. Hizkuntz aldaketaren azterketarako zazpi hatsarri nagusi eman zituzten Weinreich, Labov eta Herzog-ek (1968).

Aurkeztu berri dugun eredu dinamikoan analisi ororen funtsezko dimentsioa denbora da. Aurrekoen erregela aldakorrik ez darabilte beste hauek. Hizkuntz aldakortasunaren eta hizkuntz aldaketaren gorputz teoriko berria hartu zuten ideia hauek Bailey-ren lanaren bidez (1973). Honen ereduari Schmidt-en (1872) uhinen teoriaren berritzea ageri zaigu, isoglosen konbinazio desberdinak dituzten geografi eremuetan antzekotasun maila desberdineko dialektoak eta hizkuntzak ditugula.

Teoriaren arabera, indibiduo bakar batek lekto desberdinak errepresenta ditzake sare panlektalaren barrenean aldi desberdinetan. Implikazionaltasunez erlazonatutako hainbat lekto dira; badago lektoaren gramatika bat erregela inplikatzaileak dituen, baina baita *continuum*-eko hiltun sailena ere. Lekto horiek sinkronikoki eta historikoki erlazonaturik daude. Aldaketaren uhinak, denboran zehar, espazioan zehar edo gizartean zehar hedatzen dira, eta adina, sexua edo gizarte-maila beza-lako harresiek geldieraziak gerta daitezke, aldakortasuna interpersonala nahiz intrapersonala dela.

Aipatzekoa da Bailey-ren ereduaren barrenean, hauraren hizkuntza jabekuntzako prozesua —gramatikaren jabekuntzari dagozkion eredu eta ezaugarriak— garrantzi handikoa dela. Beste alde, Bailey-ren ereduari S letra larriaren irudia duen bihurtzea baliatzen da populazio batean zehar gertatzen den hizkuntz aldaketa aurkezteko, non guti diren denbora

(19) “On the logic of variable rules”, *Language in Society* 8, 151-187.

(20) “On the uses of variable rules”, *Language in Society* 8, 189-222.

(21) “Inherent variability and variable rules”, *Foundations of Language* 7, 1971, eta baita *The Dynamics of a Creole System*, London: Cambridge University Press, 1975.

(22) *Variation and Linguistic Theory*, Arlington, Virginia: Center for applied Linguistics.

aldi jakin batean aldaki zehatz bataren edo bestearen erabilpen garbia egin gabe, bi aldakiren erabilpen ertaineko portzentaia ematen duten hiztunak. Neurketa sistemaren arabera, aldaki baten erabilpen portzentaia baxua duten hiztunak ezaugarri berria hartzen ari dira, eta portzentaia gora dutenak jadanik ezaugarri berria bilduak dira. Izan dira kritikak Bickerton eta Bailey-ren eredurako. Fasold-ek (1973) (23), erregela aldakor “geldituak”, “stagnant” direlakoak, aipatzen ditu, urteetan zehar ezaugarri batetik besterako aldaketa aktiboa gertatu ondokoan, erregela aurrerakuntzan dagoen seinale garbirik ez dagoen kasuetan. Horrezaz gain, dialekto taldeez egin zuten ukazioaren ondorioz Macauley-ren kritikak etorri ziren (1978) (24). Ikus kritika gehiagoren berri nahi izatekotan, Petyt 1980 [1986] (25).

Hizkuntz aldakortasunaren ildoan eta dialekto urbanoen erakutsia gogoan izanik, Chambers eta Trudgill-en 1980. urteko lana gogora eraztekoa da (26). Hizkuntz ezaugarrien eta berrikuntzen hedaduran parte hartzen duten eredu geografikoek kezkatuak, sare espazialen ulermen sakonago bati eta hizkuntz aldakortasunari buruzko hipotesien alorra ukitzen dute. “Geolinguistika” izendatzen dutenaren barrenean, ohiko geografia dialektala eta dialektologia urbanoaz gain, giza geografia —geografoen berrikuntza teorikoetan gizarte jarrerak eta komunitate arteko sareak aztertzeke eredu dinamikoak garatu dira— sartzen dute. Azterketa urbanoetan garatutako lanabesak eskualdeetako dialektologian baliatzeko joera ere erakusten dute.

Testu zaharren gure gaiari gehien lotzen zaion iharduna Dees-en lanetan aurki dezakegu (1988) (27). Frantses zaharrari buruz hainbat idazki argitaratu duen jaun honen lanetan metodologia zehatza aurki daiteke hizkera edo dialekto bateko garai desberdinetakoko testu zaharrak eskueran eduki ditzakeenarentzat.

Egun erabat onartzen da dialekto baten edo testu baten barreneko aldakortasuna ere hizkuntzalaritza orokorraren teoriaren atal bat gehiago dela, eta behatzaile modernoak prest egon behar du erabateko erregula-

(23) “The concept of ‘earlier-later’; more or less correct”, in C.-J. N. Bailey & R. W. Shuy (eds.): *New Ways of Analysing Variation in English*, Washington: Georgetown University Press.

(24) “Variation and consistency in Glaswegian English”, in P. J. Trudgill (ed.): *Sociolinguistics Patterns in British English*, London: Arnold.

(25) “Other recent approaches”, in Harold B. Allen & Michel D. Linn (eds.), *Dialect and language variation*, Academic Press, Inc., San Diego, California, 35-60.

(26) *Dialectology*, Cambridge University Press.

(27) “Propositions for the study of Old French and its dialects”, in Jacek Fisiak (ed.), *Historical Dialectology. Regional and Social*, Mouton de Gruyter, Berlin-New York-Amsterdam, 139-148.

ritatez aplikatuak diren gramatika erregelen bidez deskribatua izan ez daitekeen edozein hizkuntz jokabide erabat zilegi dela aitortzeko.

Estrategia gisa hizkuntz fenomeno edo ezaugarri batek testuan duen agerpen maiztasuna neurtzea proposatzen du Dees-ek bere lanean, eta ahal dela aspaldiagoko eta ondorengo testuetako agerpen maiztasunarekin alderatzea, aldakuntza edo berrikuntzaren norabideaz eta garaiaz juzku zehatz ez inpresionistak egin ahal izateko. Honela, testu batean forma baten aldaki bat –kontestu fonologiko bateko ezaugarri bat, item lexiko bat, forma morfologiko bat...– %0-%10 eta %90-%100 bitarteko agerpen maiztasunaz ageri denean, erregularitate maila handia dago ezaugarri horri dagokionez, testuan ezaugarri hori ia erabateko homogeneitatez ageri baita. Ordea, bi formen arteko txandaketa mailarik handiena, forma horien agerpen maiztasuna %40-%60 bitartekoa denean gertatzen da. Hizkuntz aldaketan eta beren garapenaren datazio zehatza laguntzen du elkarren lehenia dauden formen maiztasun erlatiboa denboran zehar neurtzeak. Eremu anitzetako antzinako eta ondorengo testu dialektal data zehatzekoak izatera, hizkuntz aldaketa baten “temporal and spatial contiguity of the cause and effect” deritzanaz juzkuak egitea aise hobeki egiten da.

5) Orain artean ukitu dugun hizkuntz aldakortasunaren harian, bukatzeko, dialektologia historikoa egiteko abiaburu izan daitekeen hizkuntz formen agerpen idatzien eta ikerketa modernoetan bildu formen arteko alderaketan sakonki sartuko ez bagara ere, XIX. mendeko Loperenaren dotrinan ageri diren dimorfismo batzuk eta egungo aezkera modernoan ageri diren beste batzuk aurkeztu nahi ditugu hondarreko atal honetan. Hori baino lehen, interpretazioetan sortzen diren arazoez bi hitz aipatu beharrak gara.

Modernoegiak dira aezkeraz idatzitako testuak beren bitarteko alderaketatik ondorio erakargarriak atera ahal izateko. Guk dakigula, data jakina duen kristau ikasbiderik zaharrena Abaurrepeako 1794koa da, edo data hori ageri du behintzat. Gainerako data eta idazle jakineko dotrina guztiak XIX. mendekoak dira, edo XIX. mendeko dataren bat ageri da egile ezagunik ez duten kristau ikasbide horietan. Testu aspaldiagokoak genituzke gogokoago aukeran.

Lehenagoko hizkuntz egoera baten berreraiketa garai bateko testu idatzien bidez osatzen saiatzean, hutsak egiteko arriskua zenbaterainokoa den neurtzea ez da aise. Gure informazioa partziala da: idazkiaren egileak hizkuntz jarrera aldakorra ager zezakeen, edo testuko hainbat eta hainbat forma hizketa arruntean benetan esistitzen ote ziren frogatzea ere ezina izanen zaigu behin baino gehiagotan; dokumentuek ez dute beti ahozko hizkera leialtasunez islatzen.

Egungo ahozko dialekto bat aspaldiagoko beraren testu batekin alderatzean ager daitezkeen bi arazo nagusi honakoak dira:

a) testu zaharretan ageri zaigun forma, hots edo egitura zenbait, ez da jada egungo hizkera mintzatuan ageri;

b) egungo hizkera mintzatuan erruz erabiltzen den eta beraren egitura fonikoagatik arkaismoa dirudien forma edo hitz bat ez da inolako testu zaharretan ageri. Eman dezagun testuen kronologiari dagokion adibide bat.

Zein interpretazio eman XIX. mendeko dotrina zaharretan <jan>, <jarri> bezalako formen agerpenari —baina <sequi> [šeki] ‘jaiki’, <sayac> [šayac] bezalakoak ondoan dituztela—, egungo aezkera mintzatuan herri guztietan [šan] eta [šarri] ahoskatzen baldin bada? Kultismotzat jo behar dira <jan> eta <jarri> horiek, ala pentsatu behar ote da txistukari frikari sabaiaurrekoa belarizatzeke prozesua hasi zela, eta gero berriz ere atzera egin zuela eta hitz horiek berriro txistukari frikari sabaiaurrekoaz ebakitzen segitu zela?

Gaur egun, dialektologiaren arazo eta kezka nagusienetakoa —erabili beharreko metodologia sailkatzaileaz gain—, muga dialektal bat zer den galdezka segitzea da, eta honek betiko galderara garamatza: ba ote da dialektorik? Nabarmena da dialektoak badaudela. Kasurik ageriena, jauzi dialektal handia duten bi hizkera desberdinen neurketaren emaitzak eskaintzen digu. Metodologiagatik gainera, maiz, alderatzen diren bi atalak bi sistema desberdin direla aitortzen da *a priori*, konbergentzia eta berdintasun maila txikia ez izanik ere. Jauziak hain nabariak ez direnean eta hizkeren *continuum* egoera ñabarra gertatzean, dialektologiaren metodologiari buruzko hamaika galdera datorkigu gogora. Honela, Gumperz eta Wilson-en 1971ko lan ospetsutik segitzen denaren arabera (28), ez da beti aise izaten pidginizazio, kreolizazio eta bestelako hedadura prozesuen arteko mugak ezarri ahal izatea, beren arteko desberdintasuna graduala baita. Ohartzen baldin bagara, testu zaharren gure gaian ere berdin gertatzen da: testu bat heterodialektala den —bi dialekto desberdin nahaska ageri direnean—, edota testu horretako dialektoan beste dialekto baten kutsua edo arrasto batzuk dauden juzkatzea, gradu kontua da, ez da klaseari edo generoari dagokion zerbait.

Orain artean aipatu dugun Loperenaren dotrina honi dagokionez, idazlea, idazlearen gurasoak, sorterrria, garaia, kristau ikasbidearen itzul-penerako egileari Bonapartek eman irizpideak e.a. ezagunak ditugu, eta

(28) “Convergence and creolization. A case from the Indo-Aryan/Dravidian Border in India”, in (Dell Hymes ed.), *Pidginization and creolization of languages*, Cambridge University Press, 151-167.

ez da guti, euskal testuen eremuan bestetara ere usaturik baikaude. Gure dotrinan gainera, ez dago kanpotikako beste hizkeraren baten eraginean pentsatzea justifika dezakeen ezaugarri dialektalik, esan daiteke aezkera garbian idatzia dagoela, eta hori baieztatzean intuizio modernoa darabilgula jabetzen garelara aitortu behar dugu.

Dialektologia ez da soilik hizkuntza formek arealtasunean duten hedaduran oinarritzen. Diakroniari ere kasu egin behar zaio, hedadura ez baita beti berdina izaten: isoglosa berriak sor daitezke, lehenagoko batzuk galdu edo lekuz mugitu...

* * *

Gatozen testura eta ikus ditzagun XIX. mendeko dotrina honek bere baitan biltzen duen aldakortasunaren atal batzuk:

Diptongoen sailean aldakortasuna nabarmena da: *gauren* (59)/ *gouren* (59)/ *neure* (14), *eure* (32); *eztauquenac* "ez daukanak" (26)/ *douquen* "daukan" (78); *zaudena* (1)/ *doude* (64); *deus* (72)/ *ezdausteic* (39)/ *dous* (72); *gou* "hau" (64)/ *gauces* (68). Baita honako beste hau ere: *oroyceco* (27)/ *oraiguiten* (62).

Ai/ei txandaketa ere, espero zitekeenez, gertatzen da: *guirelaic* (19)/ *guireleic* (32); *chey* "jai", [Etxenikek <*ssey*>-tik zuzendua] (3)/ *ssayac* (70); *deitequenean* (84)/ *eztaiquena* (34).

Hiatoetan ere berdin: *vezalacuan* (45)/ *vezalacoan* (45).

Sinkopa ageri duten kasuak ageri ez dutenekin batera ditugu: *limboetra* (2)/ *limboetera* (5).

Kontsonanteen sailean berriz, hona hiru kasu. Bokal arteko *r* bakenaren erorketa ageri duten formak ageri ez dutenekin batera ageri dira: *testimonioic* (4)/ *peligroric* (6). Hitz hasierako *j*-ri dagokionez, *ssaveari* (72) adibidearen ondoan *jaun eta jave* (39, 58) dugu. Ozenen bustidurari dagokionez berriz, *gañeraco*-z gain (11, 65), *gaineraco* (29) eta *gainetic* (3) ditugu.

Izenaren morfologiaren barrenean hona beste hiru adibide. Lehenean edute genitiboa, lau forma ageri dituena: *ssavearen* (72)/ *lagunain* (4)/ *consejueina* (10)/ *soberbian contra* (9). Bigarrenik ablatiboaren forma pluralak: *esayetari* (1)/ *esayetaic* (24)/ *gaistoetatic* (20). Hirugarrenik lehen pertsonari dagozkion izenordainen formak: *neure* (14)/ *nere* (14)/ *enea* (60).

Hitzen formaz denaz bezainbatean hona bi adibide: *Yrugarrena* (3)/ *irugarrena* (19) eta *Laugarrena* (3)/ *Laugarrena* (5).

Adizkien formei dagokienez, hona lau adibide. Ahalekoetan *dezaque* (49)/ *ezpaitiro* (64, 76). “Zioten” formarako ere bi aldaki: *zecote* (43)/ *zacote* (45). “Daiteke” formak anitz aldaki du: *ezpaitateque* (87)/ *ezpaiteteque* (30)/ *deitequenean* (84)/ *dataque* (89). “Dizkidazu”-k berriz bi ditu: *diazquidazula* (14) eta *dazquidazula* (14).

Dotrinarekikoak utzi eta egungo aezkera modernoari dagozkion polimorfismo kasu batzuen berri emanen dugu orain, giza jokabideaz sarrratto bat egin eta.

Gizarte arloa gogoan hartu behar du dialektologiak —hala sinkronikoak nola diakronikoak—, komunitatearen nahiz norbanakoaren hizkuntzan ageri diren hizkuntz aldaki batzuk gizartezko egokiera jakin batzuekin loturik egon baitaitezke. Komeni izaten da gainera, hizkuntz gertakari edo aldaki bati buruz gizarteak duen oharren maila neurtzea, usu argigarri gertatzen baita fenomenoaren nondik-norakoaz jabetzeko.

Giza espezieari dagozkion beste bi ezaugarri aipatu nahi ditugu oraino. Giza jokabidearekin loturikako guztian prediktabilitate eza nagusitzen da maiz, gudan eragiten duten faktoreak askotarikoak baitira. Hiztun guztiek ez dute hizkuntz ezaguera bera ezta gaitasun bera ere; hiztun batzuek besteek baino gehiago biajatu dute, bestelako formen ezagutzen honek dakarrenarekin; aldameneko komunitateko hitzunetik jarraera ere ez da berdina komunitate barreneko kide guztien artean. Inkestagintzan oso gogoan eta arretaz hartu beharrak dira ñabardura hauek guztiak.

Hiztunen jokamolde desberdinei erreparatu behar zaie, ez baitute denek jarrera bera erakusten inkestalariarekiko; esaterako, ez da bat ere harritzekoa are inkestagileari ziria sartzen saiatzea ere, hiztuna ohartzen baita aldaki bat ezaugarri sozial gardena dela. Santandereko Carriedo ibarrean honakoa gertatu zitzaion Menéndez Pidal-i 1930.ean (29):

También fuera del Valle de Pas, lindando con él, la parte más meridional del Valle de Carriedo practica la inflexión metafónica... en Selaya mismo, las gentes más cultas, que eran las que me informaban, desconocían por completo la esencia de la inflexión, pues me aseguraban que en esos barrios apartados también se decían en femenino **cabrira*, **utra*... En las tres aldeas de Selaya, Bustantegua, Campillo y Pisueña, observamos durante el interrogatorio que los sujetos disimulaban a veces la inflexión, en las contestaciones a nuestras preguntas directas, sin embargo la usaban en la conversación entre ellos con toda intensidad *guápu*, *bisu* “beso” etc.

(29) *Pasiegos y vaqueiros. Dos cuestiones de geografía lingüística*, Universidad de Oviedo, 1954, 14-15. or.

Ildo berean, Menéndez Pidal-ek Asturiasko dialektologiari buruzko lan honetan dioskunez, Salas herriko La Espina eremuan, aurretik unaienak izandako pentze batzuetara nekazariak lekuz aldatzean, hiztun nekazariak saiatzzen ziren *mucher* “emazteki” forma utzi eta *muyer*-era pasatzen, bestea unaiena zela baitzeritzoten.

Bigarren ezaugarria gizakiok elkarri eragiteko —hizkuntz formak barne, honek konbergentzian duen eraginarekin— dugun berezko gaitasuna da. Honela, hizkuntz elkarreragina lagun bakarraren nahiz komunitatearen mailan gerta daiteke, eta hizkuntz aldaketak abiatu. Honen guztiaren ondorioetarik bat dimorfismoa edo polimorfismoa da, komunitate edo eremu batean hitz beraren edo forma baten bi aldaki desberdin edo bi baino gehiago izanik: bata bestea baino erabiliagoa, edota bertakoagoa, edo zaharragoa, edo emaztekiek bakarrik darabiltena, edo artzainek erabilia, edota bata eragin kanpotar zenbaitek ekarri berria... Schuchardt-ek, Brugmann-i segituz, aipatzen zuen forma baten hala ama nola alaba elkarren ondoan ager zitezkeela ez bakarrik dialekto berean, baita norbanako berarengan ere. Rodríguez-Castellano-k honako kasu bitxia aurkitu zuen Asturiasko hizkuntzan Belmonte kontzejuko Llamoso eremuan (30): aiton-amonek *ts*-rekin ahoskatzen zuten “otso” hitza: *tsobu*. Seme-alabek aldiz *ll*-rekin, *llobu*, eta bilobek berriz gaztelerazko eran *l*-rekin: *lobo*.

Itxuraz galtzen ari diren formei dagokienez argigarria da Frantziako hurrengo adibidea. 1903. urtean Friburgoko kantonamenduko Charmey-en Gauchat ikerlariak bildu zuenez, elkarrekin bizi ziren hiru belaunaldien baitan —zaharrak, helduak eta gazteak— aldaketa foniko bat gertatua eta kontsumatua zen. Ermann ikerlaria, ordea, egoera horrexki ohartu zitzaion 1929.ean mende laurden bat beranduago, eta 1903an gazte ziren zenbait oraino 1929an ahoskatze zaharraren ordezkari zirela baieztatu ahal izan zuen (31). Arestian aipatu dugun Asturiasko Llamoso herrian antzera gertatu zen 1910eko Menéndez Pidal-en bilketa eta 1953ko Rodríguez-Castellanoarena alderatu zirenean *ts*-/*ll*- ezaugarriari dagokionez.

* * *

Ikus ditzagun orain Loperenak idatzi dotrinan ageri diren dimorfismoek bizirik jarraitzen dutela adierazten diguten aezkerazko adibide moderno batzuk.

Aezkoako Aria herrixkan 1991n egindako inkesta bateko datuak dira. Inkestotan, bertako gizonezko batek eman forma bikoitzak ageri dira: *áuria/éuria*, *naurónek/neurónek*, *náurri/néurri*, *níz/náiz*, *yárrri/xárrri*, *oilás-*

(30) Menéndez Pidal, op. cit, 25. or.

(31) Menéndez Pidal, op. cit, 26. or.

ko/oillásko, eitzúrres/aitzúrres. Den denak aezkeraren zer nolakoa definitzeko garrantzi betekoak. Herri bereko emazteki batek berriz, honakoak eman zizkigun: *áuli, áuri, dáuse, náurri, naurónek, xárri, níz ...* Bestelako argibiderik ez bagenu *naiz* forma *niz* baino zaharragoztat jo beharko bagenu ere, intuizio modernoa erabiliz, badakigu gizonezkoaren *naiz* forma kutsatua dela, aezkeraren erregela batek *neiz* eskatuko lukeelako *naiz*-en orde; testu zahar guztietan beti *niz* agertzen da, eta Aezkoa guztian denek *niz* darabilte. Aribeko nahiz Auritzeko ferietan edota Donibaneke nahiz Heletakoetan ibiltzen ziren gizonezko aetzak, eta leku horietan nagusiki *niz* entzuten zuten. Baina gainerako Nafarroan *naiz* da nagusi, eta gerra denboran nahiz bortuko lanetan *naiz*-en erabiltzaileekin aritu beharra gertatuko zitzaien gizonezko ariatarrei naski. Herritik ia atera ez diren emaztekiek ez dute hizkera hibridorako hainbesteko joerarik. Gizonezkoaren *naiz*-en erabileran inkestalariaren presentzia erabakigarri gertatu ahal izan dela ere ez litzateke atzendu behar.

Baina *euri/auri* bezalako adibideetan ez dago hain erraza gizonezkoaren forma bikoitzaren jatorria zein den ebaztea. Argi dago *euri*-k *auri* eman duela eta berrikuntza dela. Arratialedean eta Mungialdean ere eza-guna da *eu* diptongoak *au* eman duela, eta Aezkoa, Burunda eta Sakanarako ere berdin idatzi ohi da. Ez da esan ordea, Estellerrian, Garesen, Iruñerrian eta Artzibarren ere gertatzen denik. Garaziko eta Zaraitzuko hizkeretan ez gertatzeak bere munta dialektologikoa du, beste hizkuntza berrikuntza sorta handi bat bezala, ezaugarri hau aezkeraz eta hegoaldeko goi nafarreraz ageri baitzaigu, aezkera behe nafarreratik aldentuz. Hegoaldeko goi nafarrera diogunean ez dugu ukatzen Mitxelena 1972an aipatu ekialdeko eta mendebaldeko goi nafarrera kontzeptuen balioa (32), baina orain darabilgun kasurako berdin da modu batean ala bestean aritu.

Hona aditzera eman nahi duguna: Ariako emaztekiak *auli, auri, dause, naurri, nauronek* erabiltzeak pentsarazten digu gizonaren *euri, neurri* e.a. herritik kanpo ikasi formak direla, *niz/naiz* aferan gertatzen zen bezala. Ordea gauzak zailtzen dira dotrina zaharretan ere bi formak ageri zaizkigula ohartzean. Esaterako Loperenarenean, *deus* eta *daus*, nahiz *neure* eta *gauren* ditugu. Pentsa daiteke beraz dimorfismo hau zaharra dela eta aldaki batek ez duela bestea erabat garaitu. Pentsa ote daiteke, testuen kronologia aintzat hartuz, ezaugarri honetan gizonezkoa emaztekoa baino kontserbatzaileago gertatu dela? Ez jakin.

Honekin loturik *eutzi* zaharrago batetik heldu den *utzi* hitzaren kasua dugu. *Eu* > au diptongo alaketaren berezitasuna duen Altsasuko hizkeran *autzi* da hitza. Fenomeno bera duen aezkeraz ere halako zer-

(32) "A note on Old Labourdin Accentuation", *ASJU* VI, 110-120, 113. or.

bait espero genuke. Aezkoako dotrina zahar gehienetan *utzi* forma ageri zaigu bitan ezik. Halaz ere, bi horietan, *gauren* eta *daus* bezalakoen ondoan, ez zaigu <*auci*> ageri, <*euci*> baizik, eta baita *deus* eta *gueuren* ere. Zein neurritaraino ziurta daiteke bi dotrina horietan kanpotikako kutsua dagoela?

Zenbait hizkuntzalariri huskeria irudituko zaizkion gora-behera hauek dira dialektologilariaren arreta bereganatzen dutenak, halako alderatzeetarik batzuetan hizkuntz aldaketaren garaia edo eragilea usma baitaiteke. Urrunago ere joan daiteke, konparaziorako argitasuna eta testu zaharrak edukitzera. Gu ez gaude beste hizkuntza askoren egoera berean testuen aintzinasunari dagokionez, baina ezin muzin eginen diegu hizketagai izan dugun Etxenikerena bezalako ekarpenei. Bestalde, maki-na bat testu eta datu dago oraindik behar bezala ikertu eta orraztu gabe Euskal Dialektologian, horien artean Aezkoakoak, eta horretan dihardu hitzaldi hau eman dizuenak.

Jaun-Andreok, esker mila.

BRUNO ETXENIKE, BONAPARTEREN ITZULTZAILE ETA BIDELAGUN NAFARROAN ZEHAR

*Euskal Filologian lizenziatua eta
Iruñeko **San Fermin** ikastolan irakasle
den Ander Arana Bareño semeari.*

Iruñea, 1994.03.25

J. A. Arana Martija

Bonaparte printzeaz eta haren itzultzaile eta bidelagunez gaur ematen diren hitzaldiak ez dira lehenbizikoak jauregi honetan. Euskaltzain ohorezkoa zen Erriezuko Jorgek, Kontseilu Foraleko aretoan 1958.eko otsailaren 4ean "El Principe Luis Luciano Bonaparte" hitzaldia irakurri zuen, nik orain bezala Nafarroan egin zituen bidaiei eta izan zituen harremanei lehentasuna emanez.

Bost aldiz etorri zen Luis Luziano Bonaparte Euskal Herrira: 1856, 1857, 1866, 1867 eta 1869 urteetan. Eta azkenean izan ezik, beste lauetan Nafarroatik ibili zen. Egia esan, 1867.eko bidaia udaberrian egin zuen eta udazkenean Nafarroatik beste bidaia bat egiteko asmoa zeukan, hementxo egoera politikoagatik eta jasan izan behar zuen gaixoagatik burutu ezin izan zuena. Nafarroako euskalkiek zalantzak eta kezkek sortzen zizkieten euskararen ikerketetan, eta ondorio zuzenak ateratzeko bere beharrez edo aholkularien iritziak bilduz froga sinesgarriak lortu nahi izaten zituen.

Aholkulari, itzultzaile eta bidelagunen artean Urdazubin, Axularren jaioterrian, 1820an mundura etorritako Bruno Eugenio Maria Etxenike Garmendia izan zuen Bonapartek. Euskal Herrira 1856an lehen bidaia egin zuenetik agertu zuen Nafarroarekiko atxekimendua. Uztailaren 19an heldu zen Baionara eta abuztuaren 4ean Antoine D'Abbadieri idatzi zion gutunean nafar euskaldunekin harremanetan hasteko gogoia adierazi zion. Berehala erantzun zion D'Abbadiek abuztuaren 7an zera esanez: Charles anaiak Elizondoko euskaldun jator bat ezagutzen zuela, gure Etxenike hain zuzen. Baztango gizon honi eta Aldudeko apaizari dei egin zion Bonapartek Baigorriko Etxaux jauregian abuztuaren 12an elkar ikusteko.

Egun horretan elkar ezagutu zuten Bonaparte eta Etxenikek. Eta inolako luzamenduetan ibili gabe, bertan agindu zion printzeak San Mateoren Ebangelioa Elizondoko baztanerara itzul zezala. Hurrengo urteko udazkenean Bonaparte berriz etorri zenean, Billing-en moldiztegi inprimatuta ekarri zion Ebangelioaren ale bat, itzulpen aldetik hainbat arazo sortuko zituen (1).

Etxenike Elizondoko Datuegaraia jauregian bizi zen garai hartan, baina Gasteizera sarritan joaten zen eta Arabako hiriburu horretan egotaldiak ere egiten zituen, Juan San Martinek dioskunez Ruiz de Alegria andere arabarrarekin lehendabizi ezkondua zelako. Prudenzia Meoki anderearekin ezkondu zen bigarrenez. Baina 1856.eko irailaren 6an Bonaparte Gasteizera joan zenean, ez zen Etxenike bidelagun izan, Tolosatik Udabe apezarekin joan baitzen. Hiri horretan zeuden euskaldunekin hitz egiteko madrildar batek eman zion uste gabeko laguntza: Vicente Isac osagilea izan zen laguntzaile hori, lehen Elorrioren egonda euskara bertan ikasi zuena.

Eskuizkribuzko egunkari zehatza zeraman aldean Bonapartek eta bertatik datuak hartzeko aukera izan dut. Irailaren 13an, larunbatean, Elizondora heldu zela arratsaldeko 6etan diosku. Igandea eta astelehena ere Datuegaraia jauregian iragan zituen Nafarroako zereginak planifikatuz: euskalki eta azpieuskalkietako itzultzaileak bilatu, liburu zaharrak eta eskuizkribuak bildu, bidaiak antolatu, eta abar. Irailaren 16an Iruñera etorri zen Bonaparte eta hurrengo egunean Tolosako bidetik Baionara itzuli zen (2).

Bigarren bidaiak 1857.eko urriaren 14tik azaroaren 12ra arte egin zuen Bonapartek. Nafarroako euskara aztertzea zen bigarren bidaiak honen helburua. Baina tokian tokiko lanetan hasi baino lehen, Baionan antolatu zuen bilera laguntzaileekin ortografia batuaren arauak finkatzeko, eta hurrengo egunean, urriaren 17an, Berara heldu zen arratsaldeko lau terdietan. Lexikoa biltzeari ekin zion eta gorriz idatzirik honako hitz hauek agertzen dira egunkarian: *Jaungoikua, Jinkua, Trumoya, Argizegiya, lupu, lupua, Marrubill, Surangill, Musker, Negel, Sagarroi, Udare, Madari, Kuku, Bortz, Baittut, Nere, Aitta, Biatz, Lestemia, Armigo, Eskimbel*. Hurrengo goizean, Etxenike bidelagun duela, Elizondorantz abiatzen da. Hona hemen bidaiaren egunkaria:

(1) Euskaltzaindiak argitarturiko *Opera omnia vasconice* liburuan agertzen da Ebangelio honen itzulpena. Kaleratu ez zen bigarren argitalpenerako Bonapartek eta Etxenikek izan zituzten oztopoak nire *Bibliografia Bonapartiana* liburuan, 477. fitxan aurki daitezke.

(2) Etxenikek Bonaparteri bidalitako liburu eta izkribuetaz, ikus: GONZALEZ ECHEGARAY, Carlos; ARANA MARTIJA, Jose Antonio: *L.L. Bonaparte. Eskuizkribuak - Argitarapenak* 1989, honako fitxak: 64/77, 79, 107, 127, 144, 205, 207, 317.

Urriak 18, igandea: Igantzi, Sunbilla (*Listorra, Chatel*), Donestebe (*Ortots*), Narbarte, Oieregi, Oronoz, Arraioz, Irurita (*Irmí-arma*), Elizondo, bost terdietan heltzen delarik, Etxenikeren jauregian ostatua hartuz. Astelehenean, goizeko bederatziak laurden gutxiagotan Iruñeko bidea hartu zuten Bonaparte eta Etxenikek.

Urriak, 19, astelehena: Irurita, Ziga, Aniz, Almandoz, Arraitzeko Benta (bazkaria, 2,45 / 4) Olague, Astitz, Olabe, Arre, Atarrabia, Iruñea (afaltzeko 7,15 heldu ziren) (3).

Urriak, 20, asteartea: egun osoa Iruñean.

Urriak, 21, asteazkena; Iruñetik goizeko 8,30 atera. Berriobeiti, Añezkar (*Castellano y vascuence* idazten du egunkarian eta *Esan*), Saratsa, Eritze, Irurtzun (*Lañoa = nube, niebla*), Etxeberri (hemen *Vascuence y castellano* idazten du), Etxarren, Egiarreta, Ekai, Zuhatzu, Satrustegi, Hiriberri, Ihabar, Irañeta, Murgindueta, Uharte-Arakil (*Dut, lañoa = nube, niebla*), Arruazu, Lakuntza, Arbizu, Etxarri-Aranatz, Bakaiku (bazkaltzera geratu omen ziren, hainbat ohar idatzi zituen eta: *dot (det) dezu, arek du, deu, zek dezéi, aik déi; en, zin duen, zen, ginduen, zindubéin, zein, gu ga (gara), zerái, zian*) Iturmendi, Urdiain, Altsasu, Olatzagutia, Zior-dia, eta Araban sartuta Agurainera heldu ziren afaltzeko 7,30 tan.

Urriak 22-azaroak 4: Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Lapurdiko herrietan ibili zen Bonaparte eta ez dut uste Gasteiztik aurrera Etxenike bidelagun izan zuenik.

Azaroak, 5, osteguna: Zaraitzuko euskara aztertzeraz dator Otsagabiara, oraingoan Intxauspe apezaz duela bidelagun. Ostegun arratsaldea eta ostiral osoa ematen ditu Zaraitzuko herri honetan, eta larunbatean, goizeko 7,15 tan itzultzen da Baionarat, Euskal Herriko bigarren bidaia bukatutzat emanez (4).

Zortzi urte iraganen dira Bonaparte 1866an hirugarren bidaia egitera etorri arte. Bitarte horretan ez dira Bonaparte eta Etxenekiren arteko harremanak eten. Julio de Urquijok RIEV-en argitaratutako gutunak ikustea aski da. Ehiztari eta arrantzari amorratua omen zen Etxenike. Eta etxe oneko semea. Esku-zabala zen Bonaparte lan-sariak ordaintzerakoan, baina Etxenikek ez zion onartzen dirutan laguntza ordaintzerik. Arrantzarako amuak bidali zizkion printzeak Londresetik 1857.eko abenduaren 1ean. Gero, urrezko erlojua eta bi pistola ere oparitu zizkion.

Itzulpen lanetan dihardu Etxenikek aldi horretan. Bonaparteren iriziz, Elizondokoa zen Baztango euskalkiaren eredurik onena. San Ma-

(3) Gaztelaniazko grafiaz idazten zituen Bonapartek herrien izenak. Nik hemen Euskaltzaindiak gomendatutako grafia erabili dut.

(4) Otsagabia eta Isabako lexiko konparatu bat agertzen da Bonaparteren paperetan.

teoren Ebangelioa Etxenikek itzuli zuenean, Urdazubiko hizkeratik hartu zituela hainbat hitz eta esamolde esaten zion printzeak, eta Elizondoko propioa nahi zuela argitaratu. Baldintza horrekin onartu zuen Etxenikek Ruth-en liburua itzultzea, baina lana nahi duen bezala burutu dezan, dialektologia eta ortografiako oharra egiten dizkio printzeak 1861 garreneko uztailaren 22an. Goi Nafarroako Elizondoko euskalkian bost itzulpen aipatzen dizkio Bonapartek Etxenikeri 1861.eko irailaren 7an:

1. Ruth-en liburua, jadanik egina. "Jolie traduction" dela diotso Bonapartek. Ez zuen honek argitaratu eta eskuizkribuetatik argitaratu du Pello Salaburuk.

2. San Mateoren bigarren bertsioa. Honetaz zerbait esan dugu lehen.

3. Jonas-en liburua. 1861.eko abenduaren 11an itzulpena jaso duela diotso Bonapartek Etxenikeri. Hurrengo urtean inprimatu zuen eta Euskaltzaindiak argitaraturiko *Opera omnia vasconice* liburuan agertzen da faksimila. Pello Salaburuk ere argitaratu du.

4. Salomonen Kantiken Kantika. Jonas-en itzulpenarekin batera jaso zuen Bonapartek itzulpen hau. Ez zuen Bonapartek argitaratu. Pello Salabururen eskutik egina da argitalpena.

5. Apokalipsia. 1862.eko urtarrilaren 5ean jaso zuen Bonapartek Parisen itzulpen hau, baina ez zuen argitaratu. Hau ere Pello Salaburuk argitaratu du.

Bonapartek aipatzen ez duen seigarren itzulpen bat ere egin zion Etxenikek, hots, "Cristau doctrinain declaracioa" Baztango euskalkian eta Elizondoko hizkeran. Hau ere ez zuen Bonapartek argitaratu, baina Pello Salaburuk eman zigun testua *ASJU* aldizkarian, 1986, 3, 817-844 orrialdeetan.

Beraz, Etxenikek egin zituen itzulpen guztiak argitaratuak ditugu une honetan.

Bonapartek Euskal Herrira egin nahi duen hirugarren bidaia 1866.eko urtarrilaren 21etik martxoaren 22ra arte antolatzen du. Orain ere Nafarroan zehar egin nahi duen bidaiarako bidelagun izatea, Otaegi-ekin batera, eskatzen dio Etxenikeri urtarrilaren 31.eko gutunean. Zaraitzu, Aezkoa eta Erronkariko euskalkiak dira oraingoan ikertu nahi dituenak. Otsailaren 6an burutzen dute bidaia laburra Ainhoatik Urdazubi eta Zugarramurdira. Otsailaren 15ean Gasteizera (5) idazten dio Bonapartek

(5) Etxenikeri galdetu zion Bonapartek 1866.05.28ko gutunean noiz arte egongo zen Gasteizen. 1863 urtetik aurrera Elizondon egon zela dirudi.

Etxenikeri zera eskatuz: otsailaren 23.eko gauean Angelun egon dadila, *Carta Linguística* aztertu nahi du eta. Han biltzen dira Intxauspe, Duvoisin, Uriarte, Etxenike eta Otaegi, Bonaparteren laguntzaile prestatuenak, otsailaren 25ean, egun pare bateko lanean. Otsailaren 27an, Etxenike eta Otaegirekin, hasten du Bonapartek Zaraitzu, Aezkoa eta Erronkariko bidaia. Hala dio egunkariak:

Otsailak, 27: Arnegi, Luzaide, Orreaga, Auritz.

Otsailak, 28: Auritz, Garralda, Arike.

“On horseback”, hau da, zaldi gainean ibili zela lurralde hauetatik diosku, letra gorritz, egunkarian. Garraldan ezagutu zuen Pedro Jose Minondo, herriko maisua, zeinek itzuli zion Asteteren Dotrina, Aribeko ostalaria zen Martin Elizondoren laguntzaz. Garraldatik eraman zituen Bonapartek Jabier Loperenak itzulitako San Mateoren Ebangelioa eta Dotrina bat, argitaratu gabe geratu zirenak. Elizondoren ostatuan egon zen eta lanari ekin zion martxoaren 1, 2 eta 3 egunetan.

Martxoak, 4: Arike, Garaioa, Abaurrepea, Abaurregaina, Eaurta.

Zaraitzuko herri honetan agurtu zuen Pedro Jose Samper, apaiza, zeinek itzuli zizkion 50. Salmoa eta Asteteren Dotrina. Honekin eta Franzisko Remondegirekin aztertu zuen Zaraitzuko aditza. Eaurtako apaizaren etxean dihardu zuen lanean Bonapartek martxoaren 5, 6 eta 7 egunetan.

Martxoak, 8: Eaurta, Ezkaroze, Orontze, Espartza, Ibiltzieta, Sartze, Gorza, Erripalda, Igari, Bidankoze.

Prudenzio Hualde Maio, Bidankozeko apaizaren etxean egon zen Bonaparte martxoaren 9, 10, eta 11 egunetan, Ariben eta Eaurtan bezala hiru egun eginez Erronkariko euskalkia aztertzeko. Hualdek egindako Asteteren Dotrinaren itzulpena argitaratu zuen Bonapartek, baina ez San Mateoren Ebangelioarena, gero RIEV-en argitaratu zena (ez osoa) (1934) eta FLV-en itzulpen osoa (1982) Jose Estornes Lasak paratua. Bidankozen beste laguntzaile bat ere izan zuen Bonapartek, Mariano Mendigatza, 50. Salmoa itzuli ziona eta Londresen argitaratua.

Martxoak, 12: Bidankoze, Igari, Gorza, Erripalda, Izize, Galoze, Uskartz, Ustaize, Aizpurgi.

Martxoak, 13: Aizpurgi, Zabaltza, Irurozki, Imirizaldu, Artaxo, Murillo, Aiantz, Ekai, Agoitz.

Imirizalduetik aurrera “by carriage” edo zalgurdian jarraitu zuela bidaia diosku Bonapartek.

Martxoak, 14: Agoitz, Uritz, Auritz, Orreaga.

Martxoak, 15: Orreaga, Luzaide, Arnegi.

Euskal Herriko hirugarren bidaia honetan Zaraitzu, Aezkoa eta Erronkariko liburu, itzulpen eta datu oparoak bildu ondoren Londresera itzuli zen printzea. Bidaia honetan ikusi dugunez, Klaudio Otaegi eta Bruno Etxenike izan zituen bidelagun. Londresetik 1866.eko apirilaren 12an Etxenikeri idazten dion gutunean, bidelaguntza eskertzen dio.

Hurrengo udaberrian, 1867an, berriz dator Bonaparte Euskal Herri-
ra, eta oraingoan ere Nafarroara dator. 1867.eko martxoaren 3an Etxeni-
keri idazten dio laguntza eman diezaion eta Bonaparte Saratik datorre-
larik Zugarramurdin biltzen dira biak martxoaren 20an. Saratik
Zugarramurdira bidaia "à cheval" (zaldi gainean) egin zuela dio prin-
tzeak, eta Sarara itzulia "à pied" (oinez) egin zuela diosku.

Urte bereko udazkenera arte utzi zuen bostgarren bidaia egitea ho-
netan ere Nafarroa zeharkatzeko asmoa zuelarik. Baina beste lan batetan
frogatu nuenez (6) ez zuen bidaia hau burutu. Lapitzez idatzirik proiektu
batetan agertzen da printzeak zuen plana:

1867, irailak 2, 3, 4, 5: Urdiain

irailak 9, 10, 11: Uharte-Arakil

irailak 19, 20, 21: Lizaso

irailak 23, 24, 25: Oltza

urriak 3, 4, 5: Urrotz

urriak 9, 10, 11: Elizondo

urriak 13, 14, 15: Bera

Beraz, 1869.eko urtarrilaren 21etik martxoaren 3ra arte egin zuen az-
ken bidaia, bostgarrena izan zen. Baina oraingoan, Espainian zeuden ara-
zo politikoengatik, Donibane Lohizunen geratu zen eta bertan bildu zi-
tuen, beste batzuen artean, Elkanoko Jose Jabier Larrainzar, Gareseko
Jose Maria Otamendi, Oltzako Juan Martin Ugarte eta Goñiko Vicente
Gulina. Hil terdi horretan ez zuen Etxenikerekin egoteko paradarik izan.
Londresera itzuli ondoren, apirilaren 8an, Etxenikeri idazten dio aurtan
ez ikusteaz izan duen arrenkura azalduz. Baina elkar ikusi ez arren, prin-
tzearentzat lanean jaraitu zuen Bruno Etxenike itzultzaile eta bidelagu-
nak.

(6) GONZALEZ ECHEGARAY, Carlos; ARANA MARTIJA, Jose Antonio: *L.L. Bo-
naparte. Eskuiz-kribuak - Argitarapenak*. Euskaltzaindia, 1989. "Prologo", 18-19 orr.

**RAIMUNDO OLABIDE, ODON APRAIZ, FEDERIKO
BELAUSTEGIGOITIA ETA LUIS GONZALEZ DE ETXABARRI**

Vitoria/Gasteiz, 1994.04.22

EN EL 75 ANIVERSARIO DE LA FUNDACION DE LA REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA/EUSKALTZAINDIA

Vitoria/Gasteiz, 22.04.1994

*Juan Pastor Alvarez,
Presidente de las Juntas Generales de Araba/Alava*

Egunon, adiskideak!

¡Buenos días a todos, queridos amigos!

Amigos de Euskaltzaindia, de la Real Academia de la Lengua Vasca:

Señoras y Señores:

Para quien con todo orgullo y de manera responsable ostenta la Presidencia de las Juntas Generales de Alava, y por lo tanto tiene el honor de representar a esta institución que disfruta de una antigüedad de más de cinco siglos, constituye hoy, ahora, un indiscutible honor acogeros en este salón de plenos, y dirigiros unas palabras.

Damos la bienvenida, tan sincera como cordial, al Presidente y a los restantes miembros de una Real Academia de la Lengua Vasca, que en su setenta y cinco aniversario, ha querido acogerse a la hospitalidad de una cámara que, repito, es ya más que cinco veces centenaria. Estamos enormemente satisfechos de teneros aquí, académicos de Euskaltzaindia, amigos todos, en este salón de plenos de las Juntas Generales de Alava, de nuestras Arabako Biltzar Nagusiak, que es sede central de una trayectoria iniciada en el año 1463 para culminar en unas realidades operativas, modernas, que fueron definidas en la reinstauración institucional de 1979 en principio como “órgano de participación del pueblo alavés, a través de sus municipios agrupados en hermandades, en la administración y gobierno provincial”. Para con posterioridad en base al Estatuto de Autonomía y en configuración de los Organos Forales de los Territorios Históricos, añadirle el concepto de la representación y así culminar con la actual norma foral de organización institucional, estableciendo que:

“Las Juntas Generales constituye el órgano máximo de representación y participación popular del Territorio Histórico.”

Pues bien quiero manifestarles, por tanto que en nuestra actual cámara legislativa alavesa se viene ofreciendo constantes testimonios donde se respeta, ampara, potencia y utiliza el euskera..., y es por todo ello por lo que tanto el Presidente que os habla como el resto de los representantes y miembros de la institución os acogemos, os felicitamos por vuestro bien demostrado trabajo, y os deseamos, para los venideros años lo mejor.

¡Muchas gracias por vuestra atención, amigos todos!

Eskerrik asko denoi!

EUSKALTZAINDIAREN 75. URTEURRENEAN

Gasteiz, 1994.04.22

*Alberto Ansola Maiztegi,
Arabako diputatu nagusia*

Egunon denori,
Haritschelhar jaunari,
Euskaltzainak,
Adiskideak,
Lagunak eta den-denoi.
Egunon, berriro ere.

Nik uste dut txalogarria dela gaur bertan, Arabako Foru Aldundian Euskaltzaindiaren bilera hemen egitea eta baita ere, aurtan Euskaltzaindiak ospatzen duen 75.urteurrena Araban bertan ere ospatzea, behar den neurrian eta behar den ohorean. Gure erakundeen artean asko daude geure-geureak eta bihotzean euskaldun guztiok daramatzagunak. Horietariko bat, nola ez Euskaltzaindia da, geure euskararen eta geure Herriaren hizkuntzaren alde lanean 75 urtetan ihardun duen Erakundea. Pozgarria da batez ere noizean behin, hemen, Araban, Foru Aldundi honetan, egiten dituzuen bilerak hauekin gogoraziz euskaldun guztiei, euskotar guztiei hobeto esanda, Araba ere euskalduna izan nahi duela eta euskaldunen artean bizi nahi duela eta, nola ez, hori lortzeko Euskaltzaindia erakunderik egokiena izan daiteke, batez ere sinbolo bezala edo ikur bezala. Urteurren hau ospatzeko, Oñatin lehendabiziko bilera egin genuenean. Han izan genuen aukera hitz egiteko eta behar diren hitzaldiak emateko. Baina nik uste dut gaurko aukera ez dela alperrikakoa zuei zorionak berriro emateko eta ez gaur euskaltzain zaretenoi bakarrik, euskaltzain izan diren guztiei baizik, eta bereziki, zuen baimenarekin, baita ere Arabatik lehendabiziko euskaltzainak izan zirenei.

Lau gizon, lau hizkuntzalari eta lau euskaltzale horiei ere bereziki agur bat eman nahi diet hemendik, gaur baino une txarragoetan euskararen alde lana egin zutelako eta Arabako euskaren aldeko ikur izan zirelako eta gaur ere direlako, nola ez! Historia ez da desegiten nahiz eta mundu honetatik bestera joanak izan, eta historiaren barruan dauzkagu

lau gizon hauek, zuek gaur gogaraziko dituzuenak. Araban, nik uste dut, gaur egun ez dagoela inor lau gizon hauekin bat ez datorrenik eta gure artean, euskal giroan behintzat, argi eta garbi dago egunero aipatzen ditugula bata, bestea edo laurak. Horregatik nahi nuen gaur, momentu honetan aipamen bat egin, lau gizon hauek euskararen alde, bereziki arabako euskararen alde, egin zuten lana mahai gainean jartzeko. Etxe honetara etorri zareten guztioi bihotz bihotzez ematen dizuet nire agurririk beroena, eta berriro zorionak 75.urteurren honegatik eta jarrai deza-zuela euskararen alde lanean, opa dizuet. Gure hizkuntzan zenbait sail oraindik behar diren beste sakondu gabe daude eta hizkuntza izan daiteke Herriaren mamia, kultura edo sozial-gai bat, behar bada; baina baita ere akademi gai bat ere bada, akademiko hutsa ez da baina nik horretaz ezin dizuet behar bada jakinduria gehiegirik eman, zuek zarete ni baino jakintsuagoak eta, nola ez, egoki ipiniak zaudete behar den lekuan, ni baino jakintsuagoak zaretelako, hizkuntza gaietan. Baina nire egin beharra gizartean edo politiko-sozial alorrean dago kokatua eta horregatik momentu honetan, behar bada ez da izango egokiena, baina esango nizueke hizkuntza honen etorkizuna ez datorrela gramatikatik bakarrik, baita erabileratik ere. Horregatik lortu behar dugu hezkuntzan eta beste alorretan ere hizkuntza erraz, herrikoi bat eta, era berean, gramatikal bat sartzea. Uste dut denok dakizuela zertaz ari naizen eta ez naiz gehiago luzatuko, baina gaur euskaldun berri asko sortzen ari zaigu, askok ez nahi dugun beste behar bada, beste batzuentzat nahi duten baino gehiago izatea baliteke ere; baina gaur egun euskaldun zaharrek, eta berriek, bereziki, ez dute gizartean girorik aurkitzen euskara erabiltzeko eta hau da daukagun arazorik haundienetarikoa: hizkuntzaren erabilera. Eta arazo hau konpontzea denon eginkizuna dela, uste dut. Behar bada zuek pentsatuko duzue hitz egiten dagoenak ardura gehiago daukala alde horretatik zuek baino, zuena beste egitasmoa, beste proiektua, beste ardura dela eta baliteke arrazoi pixka bat izatea, baina denon artean, Euskaltzaindia eta Erakunde Publikoen artean, lortu beharko genuke ez bakarrik euskara ikastea, baizik eta eguneroko erabileran normaltasun batera iritea. Itxaropen honetan, eskerrik asko etortzeagatik eta zorionak berriz ere zuen 75. urteurren honegatik eta nola ez, opa dizuet egoera hoberena Araban eta Euskal Herria osoan eta Euskaltzaindiari etorkizun ospetsuena.

Eskerrik asko.

**ERRAIMUN OLABIDE, ODON APRAIZ, FEDERIKO BELAUS-
TEGIGOITIA ETA LUIS GONZALEZ DE ETXABARRI JAUNEI
OMENALDIA EUSKALTZAINDIAREN 75. URTEMUGAN**

Vitoria/Gasteiz, 1994.04.22

*Jean Haritschelhar,
euskaltzainburua*

Alberto Ansola jauna, Arabako diputatu nagusia,
Juan Pastor Alvarez jauna, Arabako Batzar Nagusietako burua,
Euskaltzainkideak,

Jaun-Andereak.
Agur.

Nahi dizkizuet eskertu orain bertan eman dizkiguzuen ongi etorria, hain alegera, hain gozoa. Badakigu, hemen sartzen garelarik gure etxean gaudela eta beti hartu gaituzue behar den bezala, eta zure partez euskaraz. Hori ez da guti guretzako.

* * *

Quisiera de alguna manera agradecer a Vd., Señor Juan Pastor, las palabras de bienvenida que nos ha dedicado. Estamos aquí en el Salón de las Juntas Generales de Alava y desde luego es para nosotros un placer y un honor estar aquí.

* * *

Hemen gaude beraz, Gasteizen. Eta gure 75.urtemuga hori ospatzen dugu aurten. Hasi gara Oñatin, iazko urriaren lehenean eta segituko dugu datorren urria arte. Erran dut aldi bat baino gehiago eta errepikatu, gure urte hau alde batetik zorionezko urtea dela eta denbora berean ere lan-urtea. Horretarako biltzen gara probintzia bakoitzeko hiri

nagusietan. Hala nola, bildu gara jadanik Donostian LEF batzordearen lanak aztertuz, bildu gara Bilbon Jagon Jardunaldi horietan, bildu gara Iruñean eta hor ukan dugu Juan Cruz Alli jaunaren ongi etorria eta gramatika gauza batzuk aztertu ditugu eta orain Gasteizen Hiztegi Batuaz ariko gara. Bilbon datorren hilean ahoskera aztertuko dugu; hurrengoan Miarritzera joango gara Onomastika edo Exonomastika batzordeak bildurik; Donostian berriz ere literatura aipatuko dugu. Eta hain zuzen hor izango dugu egun berezia, hala nola irailaren 21a. Irailaren 21ean bilduko gara, beraz, Donostian eta zertako egun hori? Zeren eta dela 75 urte bildu baitziren orduko prentsaren ordezkariak eta hor izendatu baitzituzten zortzi euskaltzain. Lehenbizikoak izendatuak izan ziren urte bat lehenago, Oñatin, eta beste zortziak Donostian. Hortakotz bilduko gara 75 urteren buruan gogoan hartuz han osatu zela Euskaltzaindia. Gero ukanen dugu XIII. Biltzarra Euskal Herriko Unibertsitatean, Leioan, urriaren 3tik 7arte. Egun Horiek ez ziren nolanahi hautatuak izan: eta hain zuzen behar bezala suertatu zaigu urriaren 3a dela astelehena eta urriaren 7a ostirala. Baina duela 75 urte urriaren 3an hasi zen Arantzazuko Kongresua eta han eman zituen lehenbiziko urratsak euskara batuak. Hori ere nahi dugu gogoratu zeren eta nahi guke beste urrats bat eman euskara baturantz edo batuari buruz. Bukatuko dugu Kongresu hori edo Biltzar Nagusi hori urriaren 7an eta hain zuzen duela 75 urte Donostiako Foru Aldundian bildu ziren lehen aldikotz euskaltzainak, eta lehen aldikotz beraz orduan erraiten ahal dugu bai martxan jarri zela Euskaltzaindia, orduan izendatu zuten euskaltzainburu Resurrección María de Azkue. Horiek dira beraz aurtengo urratsak.

Eta denbora berean ere ohiko bilkuretan aritzen gara eta jarraitzen ditugu gure lanak. Hain zuzen, goiz honetan aditzari buruz, hitanoa nola beharko den erabili eta hor pixka bat aditz trinkoak aztertuz, erabaki ditugu aditz laguntzaileak eta beraz, urrats bat gehiago eman da. Emeki-emeki, baina dira gauzak behar lehenik behar den bezala antolatu, preparatu, batzordeak horretarako lanean ari dira eta lan ederra egin digute Gramatika batzordekoek goiz honetan ikusi dugun bezala.

* * *

Voy a resumir en dos palabras lo que he dicho, porque creo que aquí todos no saben el euskara. Este es un año de trabajo para Euskaltzaindia. Nació hace 75 años y este año lo estamos pasando trabajando. Nos reunimos en todas las capitales, en primer lugar Donostia, después Bilbo, Pamplona el mes pasado y hoy en Vitoria/Gasteiz. Iremos en junio a Biarritz y después terminaremos, pasando por Donostia otra vez y por fin, en la Universidad del País Vasco en Lejona.

Año de trabajo dentro de unas etapas que estamos siguiendo, tratando de criterios lexicológicos, haciendo también reuniones, como se ha visto en Bilbao, de la Sección Tutelar; viendo temas de gramática, como en Pamplona en donde nos acogió el Sr. Alli. Esta tarde y mañana vamos a trabajar sobre los criterios lexicológicos y también sobre el léxico unificado, pensando que de 2.000 palabras que se dieron hace 25 años, tenemos ya unas 5.000 palabras ya unificadas. Se tratará de fonología en Bilbao en el mes de mayo, de exonomástica en Biarritz a finales de junio y primeros días de julio. También se reunirá Euskaltzaindia para oír temas de literatura y vamos a reunirnos el 21 de septiembre en Donostia. El 21 de septiembre es un miércoles, pero lo que queremos recordar es que el 21 de septiembre de 1919 se eligieron a los ocho académicos que faltaban porque se habían elegido los cuatro primeros en septiembre de 1918 en Oñate. Y aquel día los representantes de la prensa de todo Euskal Herria se reunieron en Donostia y eligieron a los ocho académicos para hacer el número de doce que era el de entonces. Con esto quiero decir que 75 años después, el mismo día vamos a reunirnos en Donostia y que convidaremos a la prensa y no sólo por recordar a los de hace 75 años sino también a los modernos medios de comunicación que son la radio y la televisión. Porque Euskaltzaindia quiere estar muy cerca de esos medios de comunicación; le hace falta tener comunicación con los demás, no sólo con los euskaltzales, no sólo con los euskaldunes sino con los euskotarras. Y terminaremos el año en un Congreso, el XIIIº de Euskaltzaindia desde su fundación, en la Universidad del País Vasco. Euskaltzaindia tiene un convenio con la Universidad del País Vasco y se vale de esto para reunirse allí entre el 3 y el 7 de octubre. Será un congreso abierto porque Euskaltzaindia quiere obtener el consenso de la mayor parte de los euskaldunes para avanzar hacia este lenguaje literario común, hacia este euskara batua. Y este acontecimiento también tiene históricamente su valor. El 3 de octubre de hace 25 años se reunieron los académicos en Arantzazu y se dieron los primeros pasos del euskara batua. Queremos recordar esto porque nuestro ideal es ir avanzando, dando pasos hacia este lenguaje literario común. Y se terminará el 7 de octubre, fecha que corresponde con la primera reunión de Euskaltzaindia, el 7 de octubre de 1919, hace 75 años. Este es un recuerdo que históricamente queremos mantener. Aquel día se reunieron los académicos y eligieron a Resurrección María de Azkue como primer presidente.

Este es el trabajo de Euskaltzaindia. Euskaltzaindia quiere ir por todas partes y decir lo que quiere hacer, expresar la voluntad que tiene de seguir avanzando en este camino, que no es nada fácil, del euskara batua. Pero teniendo en cuenta la trayectoria que hemos recorrido desde hace 25 años, yo me encuentro muy optimista sabiendo que las co-

sas han cambiado. En 1968 cuando se celebró la reunión de Arantzazu el euskara vivía mal. Ahora desde luego han cambiado las cosas y gracias al apoyo que tenemos de nuestros dirigentes políticos ya podemos ir hacia adelante. Por tanto, otra vez les quiero agradecer las palabras que han pronunciado dándonos el mejor ongi etorri que pensábamos tener.

RAIMUNDO OLABIDEREN BIZITZA ETA LANAK (1869-1942)

Gasteiz, 1994.04.22

Patxi Altuna

Kontu kontari natorkizue gaur, hizkuntzazko edo filologiazko ikerlan astun-nekosoak alde batera utzirik eta, aspaldi honetan ahaztuxe daukagun aita Olabide mintzagai harturik. Ez ordea haren euskal obraren tantaia neurtzeko eta iuiatzeko, baizik, haren jaioterrian gaudenez gero, haren bizitzaren berri emateko. Zeren ez baitugu gaurko euskaldunik gehienok behar adina ezagutzen, nahiz hil zenetik mende erdia baizik igaro ez den eta bere obra gorena, *Itun zahar eta berria*, argitaratu zenetik hogeita hamabost urte baizik ez. Nahi nuke biziki ene kontaktizun honek norbaiti haren obra hobeki ikertzeko gogoaz piztu liezaion!

Joan zen hilean, martxoaren 15ean, bete ziren ehun eta hogeita bost urte hemen, Gasteizen, 1869an sortu zenetik. Odolez gipuzkoarra zen aitaren aldetik; tolosarra, dirudienez, nahiz aita Mugikak andoaindartzat daukan, eta goragoko etorkiz legazpiarra. Madriltarra, aldiz, Dolores Carrera amaren aldetik. Ez dirudi umetan euskaraz mintzo zenik: “ni en su niñez ni en su primera juventud oyó la lengua de sus apellidos”, dio Felix de Areitiok (1). Mutikotan Urduñako jesulagunen ikastetxe famatua igorri zuten gurasoek ikastera eta, batxilerra bururatzean, jesulagun izatea erabaki zuen eta Loiolan sartu hamabost urte zituela. Ohi bezala bi urtez nobizio izan zen eta han bertan gero, lehen zinitzak egin ondoren, beste hiru urtez aritu Gramatika eta Humanitateak zerizten ikasmailak ez ezik, Retorika ere lantzen. Azken bi urteetan ondu zituen latinezko lau olerki, oso poliki taxutuak, Loiolako artxiboan aurkitu ditut eta neure paperen artean hementxe ditut. Lau metro desberdinez onduak dira: lehena hexametroz, bigarrena bertso alkaiko direlakoez, hirugarrena asklepiadeoez eta azkena distikoz. Baina ez beldur, ez dizkizuet irakurriko, bai ordea hitzaldiari bukaeran erantsiko.

(1) AREITIO, Felix de: “La Biblia vasca de Olabide”, *Estudios eclesiásticos*, 1959, 347-352. or.

Hurrengo txanda hiru urtez Filosofiako ikasketak egitekoa zuen eta halaxe egin zituen, ez ordea bere gainerako lagunek bezala Oñan, baizik Beruelan urtebete eta Tortosan bi. Garai hartan, eta geroago ere bai, fama zuten Aragoi-Kataluniako jesulagunek, artean Probintzi bakarra osatzen zutenek, matematika eta natura-zientzietan irakasle hobeak ziztuztela Kastillako jesulagunek baino, eta, Olabide Urduñan batxiler-ikasle zenetik bertatik nabarmendu baitzen halako gaietan, gero gai haietan irakasle izan zedin igorri zuten, dirudienez, probintzi hartara, Filosofia-rekin batera egin ohi ziren ikasketa haiek hobeki egitera.

Maisu-txiki —gazteleraz “maestrillo”— deituriko gazteek ikastetxee-tan egiten zituzten lanetara ateratzeko garaia heldua zuen honenbestez 1892an. Gorabehera handixe izan ohi zen nora suertatzen zitzaion bati joatea edo, hobeki esan, nora igortzen zuten bat agintariak, ez baitzen berdin euskaldun batentzat Bilbora zein Donostiara edo Jijonera zein Valladolidera bidali, eta, batez ere, zenbat urtetarako igortzen zuten, hiru ala gehiagotarako, horrek berekin baitzekarren apaiz egiteko atzerapena batetik eta bestetik hirutik gorakoa zigortzat hartu ohi baitzen maizenik, nahiz ez izan hala beti. Oroit zaitezte Orixe sei urtez eduki zutela lan-tegi horretan.

Nora, eta Jijonera igorri zuten Olabide. Han hiru urtez aritu zen bere-bereak zituen zientziatzko gaiak irakasten eta mutil-saldoak, ikasten nahiz jolasten ari zirenean, begiratzen. Urte haietako batean balentria bi-pila egin zuen: Salamankako Filosofia eta Letretako fakultatean matri-kulatu eta ikasturte bakarrean, 1894-95ekoan, ikasgai guziak gainditu, hasi eta buka. Ondoren urte berean, 1895ean, ahozko azterketa “ejercicio de grado” deitzen zitzaiona egin zuen Urriaren 8an. Gaiaren zozketan hau atera zitzaion: “El gran cisma de Occidente: sus causas, sus diferentes vicisitudes hasta Nicolás V”, eta “bikain” nota eman zioten epaimahaiko hiru irakasleek. Aita Mugikak bestela kontatzen ditu kontu hauek (2), baina atzo bertan hartu nituen Salamankatik agirien eta txartelen foto-kopiak eta fede eman dezaket gauzak horrela eta urte horretan gertatu zirela. Egia ote da, Mugikak dioen bezala, gau eta egun ikasten jardunik egin behar izan zuen gatazka eta ardailagatik, loa galdu eta, medikuek esanik lokartzeko bide bakarra erretzea zuela, Ordenako nagusiek baimena eman ziotela erre zezan? Hil arte hala egin zuela, bai, egia omen da.

Horrenbestez usteko zuen hiru urte haien ondoren agintariak emango ziotela ikasketa guzien gaina zen teologiarako pasa-agiria, baina ez, hiru urte haiek burutzean ez zioten oraindik utzi Oñara teologia

(2) MUGIKA, Pl.: “Olabide A.-ren bizitz-arteko berri”, *Euzko-Gogoa*, 1958, IX, 451. or.

ikastera joaten. Gaztetxo iritzi zioten, agian, hogeita bost urte baizik ez baitzituen artean eta, bertantxe Oñara joan izan balitz, hogeita zortzi urtez apaiztuko baitzen, gutxitxo aukeran jesulagunak apaiz egin ohi diren adinerako.

Beste urtebete eduki zuten “maisu txiki” lanetan, ez ordea han bertan, baizik Valladoliden, orduarteko gai bertsuak irakatsiz eta are musika-koruko zuzendari ere izanez. Hura izan balitz azkena, gaitz erdi, baina ez; hura bukatzean ere gaztetxo iritzi ziotelako edo, ez jakin, beharbada bere kabuz hartu berriak zituen eta desorduetan lantzen zituen ikasketa berezi batzuen surmurra agintarien belarrira iritsi zelako, gauza da berriz ere atzeratu ziotela teologia ikasten hastea eta beste urtebeterako Salamankako “Apezetxe zentrala” zeritzanera igorri zutela, oraingoan latina eta gerquera irakastera.

Ikasketa bereziak aipatu ditut arestian, bere kabuz hartu eta desorduetan lantzen zituenak. Ze ikasketa ziren horiek? Euskarazkoak; bai, euskara ikasteko erabakia hartu zuen Olabidek batbatean, eta gogotik ekin zitzaion eta gogotik jarraitu urte handietan; eta nahiz alde txiki bat baden lehengoek hori kontatu diguten moduan —moduan baino gehiago, ikasten hasi zeneko lekuan, Valladoliden aurreko urtean ala Salamanka egon zenekoan—, funtsari dagokionez bat datoz. Campionen Gramatika eskuetara omen zitzaion behin eta han irakurri hitz haiek: “Entonces me avergoncé de llevar sangre eúskara en las venas y de ignorar la lengua nativa de los eúskaros”. Oinazturak jo balu bezala, euskara ikasteko erabakia —sendoa noski, bestelakorik hartzen ez omen zekien Olabidek— hartu zuen eta bertantxe ekin lanari. Hogeita zazpi urte zituen.

Oraindik ia hogeitaz urte geroago, 1915ean, Pontevedrako La Guardian bizi zelarik eta bere lehenbiziko liburu itzulia argitaratua zuelarik, lagun batek galdegin zionean ze euskal liburu zituen lanerako, bost hauek zirela erantzun zion berekin zituen guziak: Azkueren Hiztegia, Eleizalderen Morfologia, Arana Goiriren Ortografia, Lardizabalen “Testamentu Zarreko eta Berriko Kondaira”, Campionen Gramatika eta garai hartako aldizkari batzuk.

Hurrengo ikasturtean (1897-98) Oñara joaten utzi zioten azkenean, baina orduan ere Teologia ikastera ez. Berak Tortosan Filosofiako bi azken urteetan bezala, Oñan Filosofia ikasten ari ziren jesulagun gazteek ere Natura-zientziak ikasten zituzten, besteak beste, eta haiek haiei irakasteko ez zuten nonbait nagusiek irakasle hoberik ezagutzen Olabide baino, eta hartara igorri zuten beste urtebete —seigarrena— “maisu txiki” izatera. Ez zait iruditzen haatik erabat haserre joango zenik; beste ikasketxeren batera igorri balute bezain haserre ez bederen, zeren han ez baitzuen behintzat mutil-saldorik goizetik gaueraino zaindu beharko eta

gartsuki lantzen ari zen ikasketa bereziei ekiteko askoz ordu gehiago izango baitzuen.

Hogeigarren mendearen ataria zen, 1898. urtea. Hamabost urterekin Loiolan sartu, hogeita hamar bete behar laster, eta halere bost falta ditu oraindik jesulagunen hazibide osoa beretzeko. Hurrengo lau ikasturteetan han bertan jarraitzen dela diote Katalogoek; oraingoan, haatik, Teologia ikasten. Lau urte segidan izan ohi ziren, baina hirugarrena amaitzean apaizgoa hartu ohi zen. Ez zitzaien ordea guzietan multzoan ematen hartarako eskua; ez zen aski Teologiako hirugarren urtea ikasia izatea apaiz egiteko, banaka ematen edo ukatzen zitzaien hartarako eskua. Eta Olabideri nonbait ukatu egin zioten; bere mailako kideek 1901eko udan apaiz ordenak hartzen dituzten bitartean, Olabide hartu gabe gelditu zen urte hartan eta hurrengo udan, 1902koan, San Inazio bezperan, esaten zaigu hartu zituela eta biharamonean lehen Meza eman. Zergatik? Euskarari Teologiaren kaltetan denbora gehiegi eman ziolako? Ez jakin; baina ez dirudi. Hona zergatik:

“Examen ad gradum” delakoa egin behar izaten du jesulagunak filosofiako eta teologiako azterketa guziak gaititu eta gero, laugarren zinitza delakoa eginik “profeso” izango bada. Halakoa egin zuela Olabidek eta gaititurik maila horretako jesulaguna izan zela badakigu. Beraz ez dirudi, teologiako ikasketei denbora handirik ostu zielako keixu izan zitezkeenik agintariak. Olabideren “ad gradum” delako azterketa horretako pasadizu bat heldu da guganaino ahoz-ahoz eta lehengo batean kontatu zidan berriro harekin bizi izandako 86 urteko jesulagun batek. Epaimahaiko bost irakasleetatik batek aski gogor hartu nonbait Olabide; ez etortzen bat honek azaldu zuen dotrinaren batekin; eztabaida latzean orapilatu biak, eta irakaslea garraxika hasi zitzaiolarik, Olabidek patxada osoarekin erausi: “Ne nimis clames, ne forte ceteri credant te rationem habere”. (Ez orro egin, besteek pentsa ez dezaten arrazoia duzula).

Manresan egin zuen “hirugarren probantza” delakoa eta, orduko hogeita hamalau urte izanik, trebatua zegoen edozein ikastetxetara irakasle handi, eta ez lehen bezala “maisutxi”, izatera joateko. Jijonera igorri zuten lehenik berriz ere eta, lehen han bertan hiru urte eman bazituen, orain beste sei ematen ditu segidan. Hantxe egin zituen 1906ko irailaren 15ean azken zinitz handiak.

Sei urte haien ondoren, 1909-1910eko ikasturtean, zazpi urtez biziko den leku berrian aurkitzen dugu, Pontevedrako La Guardian, bere lehen euskal lana burutu eta argitaratu zuen hirian. Ia hogeita urte ziren euskara ikasten hasi zela. Urte horietan egin zituen aurrerapenen aztarnarik ez dugu; isilik eta bakarrik aritu zen lanean. Loiolan badira ariketa gisa egi-

niko itzulpen batzuk, Esoporen gerkerazko fabuletatik euskaratuak. Ez dakigu noizkoak diren, baina oso goiztarrek ezin izan, biziki ongi oratuak baitaude. Hona ale bat, aita Mugikak dakarren gisan (3):

NEKAZARIA TA BERE SEMEAK

Nekazari batek, bizitza bukatzerakoan, bere semeak lugintzara yoak nairik, dei egin ta esan zien: “Ene semeak! Nereak laxter egingo du noski. Billa ibilki, aurkituko dezute, nik mastian eortzi dedan guzia”. Aiek ba, altxorra ango nonbait eortzi zuala uste izanik, masti-lurra, aita il ezkerro, barneraíño atxurtu zuten. Altxorrik, orraitíño, ez zuten aurkitu. Baña ederki atxurtutako mastiak zitu ugariago ekarri zien.

Ipuiñondo: Ipuiñak darakus gizonen altxorra lana dala.

Orduarte ixilik egin zuen lanaren emaitzak batbatean erakutsi zituen, 1914an *Loyola-tar Eneko Deunaren Gogo-Iñarkunak*, San Inazioaren *Ejertzioak* deritzagun liburukia, alegia, argitaraturik. Hona zer dioen aita Villasantek:

“La traducción está hecha con palabras ultrapuras, pero no tiene olor, color ni sabor vasco. Así, por ejemplo, “El llamamiento del rey temporal” se traduce: *Aldiko Bakaldunaren Deya*, et sic de ceteris” (4). Aita Areitiok bere aldetik hau diosku: “La traducción, depurada por su amigo el catedrático D. Luis de Eleizalde, es neta, aunque algo tiesa todavía” (5).

Beste bi urte eman zituen La Guardian, zazpi danera, lehen esan bezala, eta 1916. urteko udan Valladolidera igorri zuten. Hurrengo urtean, 1917an, argitaratu zuen bigarren liburua, *Giza-soina* izenekoa, ia 7.000 hitzeko hiztegia, sail handi baten lehena izan behar zuena eta, asmo hura burutu izan balitz, gure egunotako UZEI-ren aitzindari izango zatekeena. Nahi baitzuen hari jarrai zekizkion Giza-gogoari, Erljioari, Lugintzari, Kimikari, Fisikari, Izadiko Jakintzei eta abarri zegozkienak ere. Lacomberentzat liburu hau da “livre indispensable á consulter par quiconque veut se livrer á des études synthétiques sur le vocabulaire euskarien” (6). Justo Garate medikuak hau idatzi zuen:

“Por lo que a léxico atañe, nuestra obra fundamental es la del P. Olabide titulada GIZA-SOIÑA, para el que todos mis elo-

(3) MUGIKA, Pl.: Hor berean.

(4) VILLASANTE, Luis: *Historia de la literatura vasca*, Edit. Aranzazu, 2. ed., 367. or.

(5) AREITIO, F.: Op. cit., 348. or.

(6) LACOMBE, Georges: “Le nouveau Testament basque du Père Olabide”, *Gure Herria* 1932, XI, 239-242. or.

gios serán escasos por su riqueza léxica, acertada disposición y utilísimos índices vasco y castellano” (7). Dunixik beste hau: “Una de las más excelsas mentalidades del renacimiento vasco, el P. Olabide, acaba de dar a luz en buena hora un libro fundamental en nuestro idioma” (8). Eta aita Villasantek Olabideren hitzak bere eginez esango digu: “quiere recoger las piedras dispersas que pueden servir para la construcción del edificio de la cultura vasca. La gran fuente de que se ha servido para este repertorio de voces sobre el cuerpo es, como lo confiesa, el magno diccionario de Azkue” (9).

1918an egin zen Oñatin aurtien guziok ospatzen ari garen Biltzarra, non Euskaltzaindia sortu baitzen. Han izan zen Olabide eta han aurkeztu zuen gazteleraz lan aski luzea, ez batere txarra, Lexikologiaz eta Lexikografiaz. Ikus zer dioen horretaz Lafitte jaunak: “En 1918, au Congrès d’Oñate, l’auteur du *Giza-Soina* fit un rapport très fouillé sur la “Lexicologie”, et montra l’insuffisance de la présentation alphabétique; en 1919, il reprénait sa thèse dans “Euskal-Esnalea”, et montrait la nécessité d’un “Thesaurus” formé comme le Sander en Allemagne, le Roget en Angleterre, le Zanotto en Italie” (10). “Euskal-Esnalea”-koa, egia esan, Oinatiko gaztelerazkoaren euskarazko laburpena baizik ez zen izan.

1919ko uda. Duela lau hilabete egin ditu Olabidek 50 urte. Hogeita hamar dira Loiola utzirik erromes atera zela Euskal Herritik mutiko pijo gasteiztar, Areitioek honela deskribatzen digun hura:

...el espíritu gigante de aquel alavesito, bajo más bien que alto, de armazón ancha, frente y cabeza despejadas, ojos vivos y apostura marcial, siempre que los dolores de úlcera no la engogiesen e hicieran palidecer sus rojizos pómulos” (11).

Azkenean etxerantz dator berriz ere, hobeto esan, etxetik umetan ateratzean lehen ikasketak egin zituen ikastetxera, Urduñara. Bi urtez iraungo du han eta, aurreko ikasturte guzietan bezala, irakasle izango eta eskolak ematen jarraituko. Eta euskal lanetan ere bai, zer esanik ez.

Lan horien saria laster etorri zitzaion. 1919ko irailaren 21ean Donostian Euskaltzaindi sortu berriak egin zuen biltzarrean, euskaltzain oso

(7) GARATE, Justo: “Los estudios de Medicina en el País Vasco”, *RIEV* 1929, 388. or.

(8) AZKUE, Dionisio (“Dunixi”); in Mugika Plazido, “Olabide A.- ren bizitz-arteko berri”, *Euzko Gogoa* 1958, IX, 453. or.

(9) VILLASANTE, L.: Op. cit., 367. or.

(10) LAFITTE, Pierre: “Autour de la Bible traduite en basque par le père R. Olabide”, Bayonne, *Herria*, 1959, 17. or.

(11) AREITIO, F.: Op. cit., 349. or.

hautatu zen beste zazpi lagunekin batean eta handik hilabete batzuetara, Urduñako bigarren urtean, eman zuen argitara bigarren liburu itzulia, lehen eta gero hainbeste bider euskaratua izan den “Kristoren Imitazioa” edo “Kempisa”, Olabidek “Josu-Kistoren Antzbidea” izendatua. Orixeren hitzak dira honako hauek:

“Gogo-Iñarkunetan’ laxko da. ‘Kistoren Antzbidean’ samurrago, geroago ta ixurberago. Erriarentzat ez baño erdiko jakintsuarentzat ari da, ta barkakizun ez ezen goresgarri ere bada” (12).

Orixe aipatu dudanez gero, ez nuke hemen laburki bada ere kontatu gabe utzi nahi aita Gotzon Goenagak hementxe, Gasteizen, 1959ko martxoaren 15ean, Olabidek bizi izan balitz laurogeita hamar urte beteko zituen egunean, egin zuen mintzaldian Orixeren ahotik astebete bat lehenago entzunda kontaturiko pasadizua. Honela dio aita Goenagak:

“—Egia ote da Olabidek buruz zekiala Azkueren iztegia? galdetu nion joan dan astean Orixeri. —Bai, esan zidan. —Baño erderazko eta euskerazko itzen artean bakoitzari zegokiona txarteletan edo nunbait eukiko zun? —Ez txartel, ez txartel-toki ez nizkion iñoiz ere ikusi, zortzi urtebete berekin lanean ari izan arren, esan zidan Orixek” (13).

Lagunditik 1923ko irailean atera eta Azkuek laguntzaile hartu zuenean, Euskaltzaindiaren bulegoan aritu zen Olabiderekin lanean eta, dirudie-nez, beste euskaltzainekin baino gehixeago.

“...nik ateratzen bainition bost aldaki, ark itzuli-ala”, diosku berak (14). “Olabide ere lagunkide zuen Euskaltzaindiko bulegoan, Bilboko Erribera kalean”, dio Paulo Iztuetak (15).

Hor ditugu ere lekuko Orixe beraren “Lenengo gaiñezkaldiak” deritzan olerkiaren bi bertso-lerro hauek:

Euskaltzaindiaren
etxean giñardun
Paul’en eskutitzak
aldatzen garbira.

(12) ORIXE, Nikolas: *Euskeraren-Alde*, 1922, 252. or.

(13) GOENAGA, Gotzon: “Breve exposición sobre la figura del R. P. Raimundo Olabide, S.J.” (Homenaje en el Teatro Principal de Vitoria, 15 de marzo de 1959), Vitoria, 1959.

(14) ORIXE, N.: “Paul gurenaren eskutitzak”, *Euzko Gogoia*, 1958, 519. or.

(15) IZTUETA, Paulo: “*Quiton arrebarekin*” *irakurriz*, 145. or.

(Olabide baizik
iñor ez lekuko;
jun zan ni baiño lèn
zeruko urira) (16)

Utz dezagun Orixe eta itzul gaitezen Olabidegana. Urduñan utzi dugu hango bigarren ikasturtean “Josu-Kistoren Antzbidea” argitara eman berritan. Mugarria izan zen urte hori haren bizitzan. Hor amaitu baitzen Olabide irakaslearen etapa, hogeita hiru urte iraun zuena, eta hor hasi ofizialki Olabide idazlearena, Katalogoan harrezkero “Scriptor” soilak adieraziko zuena. Ordutik aurrera libro uzten dute agintariek, beste egitekorik gabe, proposatu dien itzulpen larri eta itzel bati buru eta berlarri ekin diezaion. Eta horretarako 1921garren urte hartan, lehengo “Giza-soiña”-ren osagarri izan behar zuen “Giza-gogoa” oso aurreratua zeukalarik, batbatean, goi-argiaz hala ikusi balu bezala, bertan behera utzi hura eta eskuartearen zituen gainerako lan guziak, eta Biblia osoa euskaratzeko asmoa eta erabakia hartzen du, eta Loiolara biltzen da, antzina Larramendi ere bildu zen bezala.

1921garren urte hori euskal literaturaren istoria berrian beste gertari bategatik ere izan zen mugarria. Urte horrexetan sartu ziren Loiolan nobizio, izan ere, gero euskal letretan hainbat nabarmendu ziren eta “Loiolako eskola” deitu izan deneko ikasle bikain izan ziren Zaitegi, Ibinaga-beitia, Lauaxeta, Mujika, eta abar. Hona nola idatzi zuen gero azken honek:

“lan ontan ezagutu genun Loiolan, eta garai artan gaztetxo gñanok gure Maixu agurgarri ta eredu bezela artzen genun Olabide aita euskaldun guziok” (17).

Ia ez omen zuten ikusten, bizimodu bakartia omen zerman, “genio”-tzat omen zeukaten: hala esan zidan lehengoan garai hartan Loiolan bizi zen batek. “Zabale” izeneko baserrira joan ohi ziren egun-pasa ostegunetan gazteak eta, aita Errandonea eta hiru urte geroago Loiolara irakasle izateko heldu zen aita Estefania, gazteei lagunduz “Zabale”-ra maiz joaten zirela esaten zaigun bitartean, aldiz Olabide oso gutxitan urtean.

Ondoko hamar urteak Loiolan eman zituen jo eta ke lanean, gaztetan ikasitako gerkera eta hebreoa berriztatzen, arameoa hutsetik hasita ikasten, Izkribu Sakratuei zegozkien ezagutzak bereganatzen, Izkribu haiei buruz frantsesez, alemanez eta ingelesez eginiko libururik hoberenak irakurtzen eta ikertzen. Testamentu berritik hasi zen, beti ere

(16) ORIXE, N.: *Euskaldunak Poema eta Olerki guziak*, 584. or.

(17) MUGIKA, Pl.: Op. cit., 453, or.

samurrago izango zitzaiolakoan, eta hamar urte baino lehen ez zuen burutan atera. Bilbon 1931. urtean argitaratu zuen. Eta Bilbora, inprimategiko probak zirela-eta, maiz joan behar zuelako, Loiolatik Urduñara aldatu zen bizitzera azken urte hartan. Aurrekoan, 1930ean, agertu zen lehenbiziko aldiz Katalogoan haren deitura *b* letraz idatzia.

Itun Berria eman zion izena liburuari. Arrakasta handia izan zuen. Lafittek honela dio: “l’ouvrage eut un grand succès outre-mont auprès du jeune clergé” (18). Lacombe honela: “Au total il survivra sûrement et sera souvent cité. Les philologues d’aujourd’hui et de demain... en feront leurs délices” (19). Areitioen ustez,

“Hay un grandísimo avance en esta obra sobre las anteriores; por supuesto, el vocabulario es ya inmensamente más rico, pero sobre todo el estilo, sus giros, su expresión vienen a ser mucho más suaves y sabrosos que antes” (20).

Garai txarrak zetozkien jesulagunei. 1932an erbestera egotzi zituen Gobernuak. Loiolan ez zen kristaurik gelditu. Gazteek eta gazteen ardua zuten irakasleek eta nagusiek Belgikara aldegin zuten; kargugabeko apaiz helduak hemen inguruan barreiatu ziren eta ahal zuenak ahal zuen lekuan bilatu zuen babesa. Katalogoan “Coetus” edo taldetan pilaturik bizi zirela esaten zaigu, baina horrek ez du esan nahi batera bizi zirenik, elkarrengandik gertu baizik eta nagusi bera zutelarik. Olabide XIgarren “Coetus”-ean ageri da Aitzolen anaia Inazioarekin batean. Badakigu Cortina jaun-andreen etxean bizi izan zela ostatur, orain Euskaltzaindiak bere egoitza nagusia duen Plaza Barrian berean, gero Arantzazun izkutatatu zela aldi batez, 1933ko Eguberrietan edo, eta harekin egun batzuk igaro zituela han Koldo Agirre apaiz bergararrak. Entzun aita Villasante:

“Según la crónica (manuscrita) del convento de Aránzazu, el 20 de mayo de 1935, el P. Olabide se despidió definitivamente de aquí y se trasladó a Guernica (Vizcaya), donde residía en una casa particular, juntamente con los hermanos Goicoechea, jesuitas también. Allí le sorprendió el Alzamiento Nacional” (21).

Bai, Artekalde kalean, 37garren zenbakian bizi zela dio 1936-37ko Katalogoak. Egun tristea hura, 1937ko apirilaren 26a! Hasi zen bonbardaketa eta egun hartan Olabideri gertatua poliki kontatzen du aita Villasantek (22). Neri, ordea, orduan 17 urteko gudari zen eta gaur jesulaguna den batek honela kontatu zidan duela hamabost egun.

(18) LAFITTE, P.: Op. cit., 18. or.

(19) LACOMBE, G.: Op. cit., 242. or.

(20) AREITIO, F.: Op. cit., 348. or.

(21) VILLASANTE, L.: Op. cit., 366. or.

(22) VILLASANTE, L.: Ibid., 366. or.

“Kale batean apaiz batekin topo egin nuen; nor zen ez nekien; hark, etxean balio handiko paper mordoa zuela eta, laguntza behar zuela bertantxe, haiek sutatik jaregiteko; gudariak, bazela hirian premia handiagoko egitekorik eta nola nahi zuen berak egoera hartan auto bat inguratzea; Yoseba Elosegí, ‘Saseta’ baitailoiko 3. Konpainiako Kapitanagana jo, zer paper ziren esan, auto batean kartoezko kaja guziak sartu eta Kanalan, hango Erretore jaunaren etxean izkutatu”.

Handik aurrera aukalo nork eta nora eraman zituen jakak eta kajen jabea! Guk bakar-bakarrik dakigu 1937-38. ikasturtean Toulousen bizi zela, Kataloak dioskunez: Rue des Fleurs, 22an.

Hemengo gerratea bukatu eta gero ere ez zen handik mugitu, ez zen hegoalderantz hurbildu. Lanean aritzen zen egun osoan, Biblia osorik itzuli arte, eta hantxe hil zen 1942ko irailaren 9an, Arantzazuko Ama Birjinaren egunean, hain zuzen, “itxuratzarki, erarik traketsenean, ixtripu ergel batean” (23), Mitxelenaren beste bat hil zeneko hitzez esateko. Kaleetan barrena zihoala, kamioi batek kaleburu batean bira egitean, hango enbor luze batek jo eta ormaren kontra bota zuen; kolpeaz gain min handirik hartu ez zuela uste, baina barruan zerbait lehertu nonbait, eta egun gutxitara hil zen. Aita Galdos Erromatik zetorrela gertatu zen han egun hartantxe Olabideri ikustaldi bat egitera joana, eta gorpu aurkitu zuen.

Erabat bukatua utzi zuen Olabidek Biblia osoaren itzulpena, azken prestalanak, ukituak eta oharra izan ezik. Hauek egiteko egokiena aita Patxi Etxeberría iruditu zitzaizen agintariei eta Formosatik etorriarazi zuten, non baitzegoen mixiolari Txinatik ihes egin ondoren, eta ia bi urteko lan isilari eskerrak, azkenik 1958an eman zuen argitara. Hauxe izan zen euskaldun berri Olabideren bizitzako obra erraldoia. Honi buruz Orixek honela idatzi zuen:

“... zenbatez goxoagoa dan hango euskera. Liburu zailen artean or daukazu Dabiden eresiak. Zein ederki itzuliak!... Eta izkuntza zaillera baldin bagoaz, or daukazu Lebi'tarren Liburua, dena korapilloz betea... Eta Job'en liburua? Arrigarri da! ... Zein euskera bizia, adierazmen aundikoa, xehe-meherik txikiena ere galzten uzten ez duna” (24). Lafittek beste hau: “reconnaissons les grandes qualités de la traduction dans son ensemble: le P. Olabide a cherché le mot juste, évité les périphrases, visé à la variété, obtenu la concision et la noblesse du style” (25). Villasan-

(23) MITXELENA, L.: “Luis Martin Santos”, MEIG, 28, 80. or.

(24) ORIXE, N.: “Paul gurenaren eskutitzak”, *Euzko-Gogoa*, 1958, 519. or.

(25) LAFITTE, P.: Op. cit., 23. or.

tek: “quedará siempre como un monumento, como un algo logrado, digno de admiración y respeto. Y su autor pasará a la historia de la literatura vasca con su sello personal, inconfundible, como el más genuino representante de una época y de una tendencia”, dio (26).

Baina iritzi guzien artean bana-banakoa, bizian eman zituen guzietan, ene ustez, hoberenetakoa, Lizardiz eta Orixez eman zituenen parekoa, Mitxelenak emandakoa izan zen (27). Hona lerro gutxitan laburtua.

Alde onak eta txarrak ikusten ditu Mitxelenak Olabideren obran. Txarrak Mitxelenarentzat ez dira lau, ez hiru, ez bi, bat baizik: hizkera (nahiz beheraxeago bi huts larri dituela dioen). Eta Olabideren hizkeraz ari zaigu maisuki zazpi orrialdetan barrena. Joera baten eredu bezala ager omen daiteke, “ez baitu beste inork hain urruti jo bide horretatik eta, batez ere, ez baita beste inor hain zeharo eta jakinaren gainean ibili bide horretan barrena” (112. or.). “Saio-hizkera, hots, euskara experimental deritzat Olabideren hizkerari”, dio, “bide berri batetik abiatuz gero noraino hel litekeen antzemateko sortua edo” (ibid.).

Saio-euskara horren ezaugarri hauek aipatzen ditu:

1) ortografia;

2) hitzen aukera, eta hor berrizale ez, baina zaharzale, zaharregi-zale omen da Olabide; bere buruaz, berriz, “zaharzalea nauzue, baina zahar-nahiz berrizaletasunean beharrezkoa dirudi neurriak”, aitortzen digu Mitxelenak.

3) Euskalkiak nahasi ageri omen dira, “Euskalerriko xokorik galdue-netan jaso izan diren hitzak” maizegi hartuz.

4) Erdaratikako euskal hitzak ez omen ditu zeharo baztertzen; gehiegi samar bai, ordea.

5) Hitz berri asko omen ditu liburuak, “zaharraren zaharrez ahaztuak edo, bazterren batean ezagunak badira, euskal literaturan inoiz sarrrerarik izan ez dutenak”; Olabidek bai omen zekien horien orde z bazuela besterik, ez egin ordea jaramonik behinola Larramendik Mendibururi eman burubideari; eta ezin omen egin ere, “euskaldun berria izanik, eta bere aldiko euskaldun berria, ezin gauzak ikus Larramendiren begiz”; ezin ekar orduko euskaldun berri batek begiramen handirik euskaldun jator bati.

(26) VILLASANTE, L.: Op. cit., 372. or.

(27) MITXELENA, K.: “Itun zar eta berria”, MEIG, 22, 11. or.

6) Hizkera hau saio-hizkera dela sinesten ez duenari argibide bat eskaintzen dio: ez omen da elizgizonik prediku batean esaldi hau dagoen dagoenean emango lukeenik: “Entzun duzute esanik dagola: *ez izorrtu...*”. Hiru akats omen ditu hitz horrek: bat, luzexeagoa da; bi, “ez du hor ezarri nahi zaion zentzua”; hiru, sermolari batek ezin dezake hezur-haragizko euskaldunen aurrean esan.

7) Azkenik euskalkien nahasmenduak, mami-mamiraino joz gero, gauza bera frogatzen duela, Olabideren hizkera gipuzkera soilak dela eta enseiukarreen bezala aditz sintetikoa hartu duela dio.

Alde txar guzi horiek laburbilduz honela dio, azkenik: “Huts larriak, bi ditu itzulpen honek. Esan dudak naturaltasunik eza, aurrenik, eta pekatu larria da,... Beste hutsa teoriari dagokio, baina saioetan teoriak, eta teoria zuzenak, behar du izan gidari, sasi tartean galduko ez bagara” (120. or.)

Honaino alde txarrak. Ikus ditzagun ere laburki alde onak. Liburuarenak lehenik:

1) “euskaldun batek letra sailean inoiz burutu duen egitekorik larrienetakoa da eta are larriagoa agertzen zaigu euskaldun berri batek egin zuela gogoratzean” (111. or.).

2) “Jatorrizko hizkuntzetarik hartua dago Olabiderena, ez latinetik, eta Biblia gaietan egungo egunean aurki daitekeen jakitearen laguntzarekin itzulia” (112. or.).

Hizkerarenak gero: “ugari, txit onak eta onenetakoak” omen dira:

1) Gaiari begira... *longe princeps* omen da Olabiderena Bibliaren euskal itzulpenen artean.

2) Hizkuntzari dagokionez “ezin utzizkoa eta miratu beharrekoa” omen da; ederki ikasi omen zuen euskaraz.

3) Seinalagarri diren zatiak ez omen lirateke berehalakoan aipatuko, eta bakar batzuk aipatzen ditu.

4) Euskal aditzaren bereiztasunak bere lekuan utzi omen ditu Olabidek, —entzun ondoko ziztada hau— “euskalari gorengoen iritziak gorabehera (eta ez ziren zoritxarrez euskaldun berriak)”, dio.

5) Bihotz-bihotzez nahi omen zuen euskalkien arteko batasuna, ez omen zuen ordea behar zen lekuan bilatu; gerora begira omen zegoen eta batasuna lehenean egoki.

6) Giza-eredutzat hartzekoa omen da, hizkuntz-eredutzat inola ez, ez omen baitzuen behin ere menderatu hizkuntza. Eta esaera antzeko

perpaus honekin amaitzen du artikulua: “Saioa egina dago. Ez dago bide horretatik Olabide baino gorago joaterik”. Kritika ederra, ene ustez. Hutsarteak haren garaiko dotrinei, merezimenduak pertsonari egozten dizkio Mitxelenak. Nago ados legokeela Olabide eta pozik sinatuko lukeela erabat harturik oso goresgarri den iuiamendu hori.

Badugu honenbestez Olabideren euskal itzulpenen berri zehatza eta kritikari zorrotzen iritzia aratza. Bere baitako euskal lanak gutxi dira damurik; oso gutxi. Harritzekoa al da? Hogeita zazpi urtez hasi euskara ikasten, non eta Salamankan; gero Oñan, Manresan, Jijonen, La Guardian, Valladoliden bizi izan, eta bizi izan irakasle lanetan jardunez eta desorduetan euskara landuz, batere maisurik gabe, bakar-bakarrik, eta horrela hogeita hiru urte Euskal Herrira behin ere itzuli gabe, berrogeita hamar urte bete arte... Nork ez du konprenituko eremu horietan eta bizigiro horretan euskara mintza-mailan ez menderatu izana?

Euskaraz idatzi zuena bi lerrotan aipa daiteke. Baina uztazue lehenik, arren, iragaitzaz badere aipatzera gazteleraz idatzi zuena, lehen aipatu dudun “Lexicología y lexicografía”-z gain. 1925eko “Informe acerca de un Diccionario de la conjugación euskérica en los escritos de los siglos XVI y XVII” delakoari nagokio. Egin izan balu, Lafon jaunaren aitzindari izango zatekeen. “Un diccionario de flexiones verbales ha de ser completo y metódico”, dio hastean berean. Eta gero: “ni el más insignificante pormenor de nuestra conjugación debe dejar de recogerse”; “el otro afluente, el principal, el más interesante y el de más laboriosa captación, es el habla viviente”; “para estas consultas bien se ve que la catalogación alfabética de las formas verbales euskéricas es perfectamente inútil. Lo que debe estar catalogado es el ideario conjugativo”; “nuestro diccionario no será una gramática de la conjugación euskérica, pero valdrá por todas las gramáticas, que tendrán que venir a él para rehacerse...”; “he aquí cómo concibo yo esta catalogación ideológica”, eta bi sailetan banatzen du azalpena: aditz sintetikoa eta perifrastikoa.

Hona azkenik euskaraz idatzi zuena: *Gogo Iñarkunak* direlakoei eta *Giza-Soña*-ri ipini zizkien hitzaurreak; *Euskal-Esnalea*-n 1919an argitara zituen bi lantxo: “Itzetazkuna”, edo Lexikologia, bat eta “Euzkel-iztegia” bestea, eta azkenik Damaso Intzak Euskaltzaindian sartzean egin zuen hitzaldiari eman zion erantzuna (28). Entzun bi zati hauek, grafian aldaera txiki batzuk eginik:

“Lotsagarria da gure Erri maitean aspaldi aspalditik gertatzen dana. Senegal-darrak Franzen bezela, euskaldunak beti arrotzen arazoetan murgildurik gabiltza. Euskalerrria aztuta, atzerriko

(28) *Euskera*, 1921, II, 36-50. or.

naspiletan euskaldunak aurrelari beti, aurreneko lerroetan burrukari. Zuri naiz beltz, gorri naiz urdin, ez da atzerrian ikurri-ñik eraikitzen, euskaldunok ara berealaxe su ta gar jotzen ez dugunik. Arrotzentzat egiñak bide gera; aien zama jasotzeko, aien kezka urduri ibiltzeko; aien atseginez pozteko; aien eduz agertzeko; aien izkeraz mintzobearrak; aien ederra orotan irabazi ta eukitzekoak. Euskelerria baño egokiago Morroi-erria deitu gaitezke. ¡Ain gera arrotzarekiko tiñel ta adeiberak; gure Erriarekiko, berriz, soraioak!”.

Geroxeago beste hau:

“Gutxi dira, noski, eskolagabeko euskaldunak. Eskolatik, baña, euskaldunok zer atera dezakegu? Eskoletan euskera ito, edo euskaldunak ezer ez ikasi bear. Eskolara orduko, atadian bertan, gure umetxo euskaldunei oñazkarren burrunba antzeko otsez esaten zaie: *lasciate vostra lingua voi ch'intrate*: utikan euskera, sartu zeratenok. Euskerarentzat tokirik emen ez dago; eskola erderarena ta erderarentzat baizik ez da. Erderaz izan ezik, emen ezin diteke itzik ere ez entzun, ez egin. Euskal-usai-ñik ere ez da emen zillegi”.

Bukatu dut. Galdera bat: hain zaila eta nahasia, hain zokoko hitzez eta zaharkituz betea al da Olabideren hizkera? Eta desira bat: ez daitez-zen gehiago egia izan Orixeren hitz haiek:

“Badira oraindik aren lanari muziñ egiten dioten euskalzaleak, ez baitute bear aiña ezagutzen, ez ezagutu nai ere” (29).

* * *

Hona hemen gaztetan eiho zituen latinezko olerkiak:

A) *Hispaniae custos*

Armorum sonitus ingens Hispania coelo
Audiit, atque tremens maurorum perfida vidit
Agmina funesto campos vastantia ferro.
En, hostis clamat, Christi quae nomine tellus
Infesto nos Marte petit bellumque minatur.
Christiadum gentes pereant, urbesque lucosque
Omnes vastemus flammis, segetesque madescant
Fuso natorum persaepe cruore suorum.
Irruit in nostros agros densissimus hostis,
Infensae veluti cum coelo messibus alto

(29) ORIXE, N.: “Paul gurenaren eskutitzak”, *Euzko-Gogoa*, 1958, 518. or.

Locustae veniunt agros populare rubentes,
 Maturos fructus gravidosque secare racemos.
 ¡Heu! quantam Hispani caedem stragemque dolebunt!
 Ecce autem coelo demissus dux Iacobus
 Adstat, et ipse ferox claris circumdatus armis
 In mauros stricto molitur fulmina ferro.
 Obruit ingenti formidine pectora terror,
 Afrosque exultans patriis excedere terris
 Hispanus tandem vidit; palmasque decoras
 Ad coelum visumque levans, dignasque rependens
 Grates, ductoris tanti virtute salutem
 Sensit detectam, tollensque ad sidera vocem,
 Auxiliumque petit servatoremque fatetur.

Raimundus Olavide s.j.
 (Junio 1887)

B) *Beatissimo Leoni Papae XIII*

Eja laborum, Christiadum decus,
 Nox atra cessit; solis et aurea
 Coelo renidet nuntia orbi
 Pax et amica reducit ora.
 Vidi cruentas ora vomentia
 Spumas; et hostes arma micantia
 Vidi tuorum in cor vibrare
 Corda truci et rabie tumere.
 ¡Eheu! catenis regia pectora
 Visenda nobis quis fore crederet
 Innexa, foedatumque sceptrum
 Pulvere regibus obsequendum?
 Haec cerno, et auras carpere gaudeo?
 Solque ut fugabit nubila cernere
 Qui pandet exutam coronae
 Caesariem niveam Leonis?
 Cesset labores noster amabilis
 Perferre custos; et Leo gaudeat
 Virtute partis saepe palmis
 Despiciens generosus hostes.
 Qualis minaces aequoris impetus
 Contundit acer cedere nesciens
 Rupes; et atri immotus Orci
 Ictibus invalidis resistis.

Raimundo Olavide s.j.
 (Enero 1888)

C) *Ad Societatem congratulatio pro honoratis hoc anno tot eius filiis.*

Prolis magnanimae Parens,
 Salve, namque licet tempora lucidis
 Ornes luminibus, jubar
 Solis quae superent dum medius nitet.
 En vexilla per ultimas
 Telluris volitant Lojolidum plagas;
 Et nunc conspicit Africa,

Necnon Americae devia littora,
 Nigrumque Oceani genus,
 Sinarumque potens imperium tuos
 Cernunt usque laboribus
 Quaerentes animos, corda beandaque.
 Dum quaerunt alii latens
 Imis sepositum montibus invidi
 Argentum pretii, Claver
 Illustrat penetrans claustra nigrantia
 Claris luminibus Crucis.
 Illic pestifero vulnere laetior
 Iam liquentia lambere
 Festinat carie, quam genialibus
 Coenis semiviri bibunt
 Gentiles avidi vitea pocula.
 Illic usta ferocibus
 Signis servitii tempora qui ferunt
 Afros, fluminis abluit
 Sacri rore. Claver delicias ibi
 Scivit quaerere, turgidum
 Quo mundus trepidat ferre pedem, levi
 Mallens flamine garrulo
 Famae nomen agi in dissita littora.
 Hac virtute Briantus et
 Fortis Campianus nil veriti trucis
 Mortis saevitiem, neque
 Diras immitium vindicium, legunt
 Acres funera sanguine
 Effuso oppetere, flectere nescii
 Regum jussibus impiis
 Summus corda Deus, quae sibi vindicat.
 Berchma(n)s interea libris
 Insudat cupiens artibus indui
 Armis ut validis, quibus
 Elati Satanae vim premat impiam.
 Mater, indue gaudia;
 Vicisti purior cum nive candida
 Berchmans agmina coelitum
 Instructus petiit praesidio tuae
 Servatae bene Regulae.
 Et cum clavigeri gloria nominis
 Alphonsi tua munia
 Reddit parva etiam grandia gentibus.
 Hic te sol velut aureas
 Stellae inter adest clarius emicans,
 Conspexit magis undique
 Fulgentem reliquis Religionibus.
 Gaude, mater amabilis,
 Luxit namque tibi splendor jam dies
 Qua, scissis nebulis, sciat
 Mundus qua genitos lacte tuos alas.
 Acri gignitur acer, et
 Tellus ruricolae fructibus horrea
 Replet, prodiga seminis

Quod sulcis voluit credere rusticus.
Gaude, namque patres manet
Qua fulgent geniti gloria nobiles.

R. Olavide s.j.
(Junio 1888)

D) *Martyrium Divi Stephani*

Iudaei crebris infligunt vulnera saxis
Magnanimo Stephano; obrutus ipse ruit.
Ne tamen exstinctum doleas discrimine tanto;
Scinduntur coeli; praepetibusque chori
Descendunt alis geniorum, luce corusci;
Sparsa levesque legunt sanguine saxa viri.
Sertoque ex illis contexto, tempora cingunt;
Militis haec tanti digna corona fuit.

R. Olavide s.j.
(Enero 1889)

LUIS GONZALEZ DE ETXABARRI, HASIERAKO EUSKALTZAIN URGAZLEA

Gasteiz, 1994.04.22

Manuel M.^a Ruiz Urrestarazu

Euskaltzaindiak, sortu zen hasiera-hasieratik, euskaltzain osoen lagungarri euskaltzain urgazle edo laguntzaileak egitea onuragarritzat jo zuen.

Asmo horrekin, 1919ko urriaren 26an, lehenengo euskaltzain urgazleak izendatu zituen. Hasierako lehenbiziko haien artean, Arabaren aldetik bi izan ziren izendatuak. Odon Apraiz Buesa eta Luis González de Etxabarri. Arabaren aldetik esan dut eta, beharbada, Arabako euskalkiaren aldetik esatea hobeto izango litzateke.

Nor genuen ba Luis González de Etxabarri hau? Luis Vicente Pedro Francisco González de Etxabarri Martínez de Mendibil Ubiden (Bizkaian) jaio zen, 1893ko urriaren 8an. Ubide, Bizkaian egon arren, Arabako muga ondoan dago, Arabako lurraldea Ubideko lehenengo etxeetaraino heltzen baita. Muga baten ondoan dauden hiri eta herri guztiak, edo gehienak behinik behin, izpiritu zabalekoak ei dira, inguruan dituzten bi lurraldeen usadio eta ekarpenak izaten ohi dituzte eta.

Ubidek, Gorbeia atarian, mendi eder horren maldetan du bere kokagunea. Gorbeiak berak Araba eta Bizkaia batzen ditu bere tolestapen geologikoan; bere tontor biribilduan, Araba eta Bizkaiko lur goienek Mendebaldeko Euskal Herria ikustatzen dute begirada batean, eta baita Euskal Herri osoko gailur nabariak ere ikusten dituzte, han urrunean, eguraldi gardenarekin, batez ere neguan, egun argitsu, zoragarri eta garbi horiek suertatzen direnean.

Gasteizko Lautada inguratzen duten ibar eta haran maitagarri askoren artean, hor aurkitzen dugu Ubide, Undebe ibaiak eratzen duen ibar xume horretan bilduta, Gorbeiapean. Bizkaian bai, berriro diot, baina Ubide inguruko urak Arabaruntz, Ebroruntz, doazelarik. Gero ur prezia-tu horiek, gizonak egindako urtegien bidez, eta behin batez erabaki zen heinean, bizkairatuko dira berriro (hori bai dela Bizkaitik Bizkaira joatea,

Arabaren bidez kasu honetan), Bilbo eta Bilbo inguruko biztanleen beharrei aurre egin ahal izateko.

Honela da gure geografia eta baita guk egindako hiri eta lurralde antolaketa ere. Bizitza uhinkorra omen da eta aski bihurgune du.

Araba eta Bizkaia artean osatzen den marko ikusgarri hori aurkeztea beharrezkotzat jo dut, gure omenaldi-egun honetan goraipatzen dugun Luis González de Etxabarri euskaltzain urgazlearen bizitza eta sentimenduak errazago ikusteko eta azaltzeko. Gizona gizonak berak eta bere inguruko paisaiak egiten omen dute.

Luis González de Etxabarrik, bizkaitarra jaiotzez eta arabarra jatorriz, bere lehenbiziko urratsak Ubide eder horretan egingo ditu eta bere belarriek, erdaraz gain, horko euskara berezia entzungo dute, Araba bizkaiera edo zuzenago nahi bada Gorbeia aldeko goi-bizkaiera, Ubide, Otxandio, Oleta, Legutio, Elosu, Nafarrate, Urrunaga, Goiaín, Urbina eta ordurarte Zigoitiko herrixka batzutan mintzatzen zen hizkera hunkigarrria.

Luis González de Etxabarriren aita, Ramón González de Etxabarri, Gasteizkoa zen, eta ama, Juana Martínez de Mendibil, Eskoriatzakoa; aiton-amonak, aitaren aldetik, Gasteiz eta Frías (Burgos)-koak ziren, eta, amaren aldetik, Okariz eta Legutiokoak. Aitak Medikuntza estudiatu zuen eta, behin osagilea izanez gero, urte batzuk Ubiden egin zuen lan. Handik Gasteizera joan zen eta berarekin batera familia osoa. Gasteizen estudiatu zuen Luisek batxilergoa. Hurrengo pausoa Lege estudioak egitea izango da eta ordurako bilboratuko zen.

Bilbo izango da Luisentzat bere agerpen publikoa ikusiko duen hiria. Mende honen hasierako Bilbo zabala (gaur estua bihurtu dugun Bilbo hura) izango da Luisen urte hoberenen hiria.

Luis González de Etxabarrik estudio eta lanak eginez gain, kazetaritza zuen batez ere gogoko, lan adoretzu hori politikazko ekintzarekin batera trebe egiten zuen eta. Luisi, gaztetasun sasoiaren izanik, urte horiek oparo gertatu zitzaizkion, bere barrutik zerizkion kemen eta sormena literatur eta zabalkundeko idazlanetan gauzatuz.

Euskal Herrian, eta baita beste herri askotan ere, maiz ikusi ditugu idazleak izen berri eta egokiak bilatzen, eta, sarri askotan, bilakizun horretan ere, euren bururako izen egokienaren aurkikuntzan ahalegintzen. Horrelaxe egin zuen Luis González de Etxabarrik, "Aizkibel'dar Bingen" izen trinkoa beraren bururako izengoitiz hautatu zuenean. Izan honekin euskaraz egindako lanak sinatuko ditu eta "Vicente de Aizkibel"arenarekin erdarazkoak.

Behin izena hautatuz gero, bere ideia, sentipen eta burutapenak hitz idatzien bidez agertuko ditu. 1915ean, 21 urterekin, “Euzkadi” aldizkariaren urteko II. alean bere lehenengo lana ikusiko dugu; euskal abertzaletasuna gorpuztu zen lehenbiziko egunetatik gaurdaino bizi iraun duen bitasun kezkarri baten galdera aukeratuko du lan horren izenburuz: “Euskaldunak ala euzkotarak?”, euskaldun euskaltzale baten kezka, euskarak dirauen bitartean, gai iraunkor honi buruz azaltzen dizkigu eta.

1916an “Eusko Gaztedi”-ko burukidea izendatua izango da eta erakunde horren alde lan eta behar politikoak gogotsu egingo ditu. Urte horretan bertan “Idearium” aldizkarian “Renacimiento euzkérico” artikulua idatziko du.

1917an “Aizkibel’dar Bingen”en lehenengo liburuak argia ikusiko du; kontu liburu bat zen lehenbiziko hau: *Ipuin aberkoyak*, Grijelmo-n argitaratua. Izenburuak dioen legez, *Ipuin aberkoyak* liburu honetan Luis-ek Aberriarekiko zuen atxekimendua kontu mamitsuetan eratzen digu.

Urte berean, 1917an, Bilboko *Hermes* kultur aldizkaria Luisen aldizaldiko lan literarioak agertzen hasiko da. Urte haretan, *Hermes*-en bost poesia agertuko dira, “Edufne”, “Ni...non ni”, “Eunlarija”, “Ama-se-meak”, “Agurra”, gabonetako kantu bat, “Seaska abestija”, eta Zuloagaz artikulua bat. *Euskal Esnalea* aldizkarian “Illobea” olerkia idatziko du.

1918an beste liburu bat eskainiko digu, *Uretxindoña* izenarekin, Grijelmo-n bertan argitaratua; liburu baikor eta kantakor gertatzen zaigu *Uretxindoña* hori. Honez gain, zazpi olerki agertzen ditu “Aizkibel’dar Bingen”ek *Hermes*-en, “Guiard”, “Mosuba”, “Donostia”, “Zegaitik-ete?”, “Bakea”, “Otza” eta “Regoyos”, lan bat, “Zindoen batzaña” eta Kirikiño ren *Abarrak* liburuari buruzko artikulua bat idazten du *Hermes*-en bertan.

1919an euskarazko zazpi olerkik argia ikusiko du *Hermes*-en, “Ezau-nak”, “Biotzen bila”, “Gogo eresitsua”, “Lora zimela”, “Lora jauftia”, “Abestia” eta “Ilunabaña”, eta erdarazko poesia bat, “Canto a Sabino” izenekoa, handik bederatzi urte, 1928an, *Patria Vasca*-n berrargitaratuko dutena.

Euskaltzaindiak bere lehenbiziko pausoak ematen zituen, eta, urte hartan, 1919an, urriaren 26an, gure Luis González de Etxabari euskaltzain urgazle izendatu zuen, arabar bizkaiera hizkeraren izenean, Ubi-deko Luis González de Etxabari, Gasteizkoa zen Odon Apraiz Buesa-ekin batera, hasieran genion bezala.

Euskaltzain urgazlea izan ondoren, idazteko gogoz jarraituko du “Aizkibel’dar Bingen”ek, bai alor literarioan eta baita lan eta zeregin politikoan ere. 1920an “Ezaugoa” olerkia idazten du *Hermes*-en eta aldizkari berean, eta antzerki arloan oraingoan, bere lehenengo saioa aurkez-

ten digu; antzerki lan labur bat, “Jai Alai” izenekoa. Hiru urte lehenago aipatzen genuen euskaraz idatzitako *Ipuin abeĥoyak* liburua oinarri hartuz, 1920an erdarazko *Cuentos patrióticos* liburua argitaratuko du Bilbo-ko Editorial Vasca-n.

1921ean bi poesia agertuko ditu *Hermes*-en, “Irudia” eta “Aterik-ate” izenekoak, eta beste bi *Euzko Deya*-n, “Ituna” eta “Egija” izenekin. Urte hartan erdarazko bi libururen kritika egingo du *Hermes*-en, J.C. Gortazar-en *Bilbao a mediados del siglo XIX* eta Arana eta Conde-ren *Fraternidad vasco-histórica* liburuena, hain zuzen.

1922an Luis González de Etxabarri ezkonduko da, 1922ko urtarrila-ren 21ean, Santiago parrokian, 1949an Bilboko katedrala izango zen eliza gotiko ikusgarri horretan. Luisek 28 urte zituen.

1920. hamarkada hori aldaketa askorena izango da mundu osoan, batez ere Europan eta Ekialde Hurbilean. Brest-Litovsk, Versailles eta Saint-Germain tratatuak sinatu berriak ziren eta germaniar eta errusiarren artean estatu mordo bat eraiki zen. Batzuk tradizio zaharrekoak edo ondo sortuak, Polonia, Lituania eta Finlandia, esate baterako; beste batzuk, berriz, aski era zailetan egindakoak, hala nola, Txekoslovakia eta Serbia, Kroata eta Eslovenoen Erresuma, geroxeago Jugoslavia izango zelakoa. Otomanoen Inperioaren suntsipenak beste inperio batzuren zabaltzea ekarriko du, batez ere ingelesa eta frantsesarena, II. Gerra Mundiala etorri arte; baina hor somatzen ditugu pil-pilean, gero pol-polduko ziren arazo larri batzuk: Palestina, Jordania, Libano, Siria, Irak, Kuwait eta Arabiako zenbait jaurerri. Mendebalerago itzuliz, Éire-ren “Home Rule” zelakoa lehenbizi eta segidako burujabetza edo independentzia adibidea izango zen egun haietako hainbeste estatu gabeko nazionalistentzat.

Esandako hori dena politikari bagagozkio. Era berean, ohiturak eta usteak ere aldatuz joan ziren, eta mende honen hasierako sufragista edo emakume botozale famatu haiek, urratsez-urrats, emakumegoaren gorakada astirotsua ikusiko zuketean, bizitza luze xamarra izanez gero. Gorakada hori hanketatik hasi zen itxuraz, gonon luzeera moztuz, burura heldu zen berehala, “à la garçon” ile mozketarekin, eta, batzuek uste baino laisterrago eta sendoago, kontzeptu eta usadio asko nabarmen aldatu ziren.

Faxismoa ere orduan hasten zen. “Camicie nere” haiek jarraitzaileak izan zituzten. Eta Espainian Alfontso XIII.ak amu hori irentsiko zuen, 1923ko irailean, Primo de Rivera generalaren “coup d’État” hura onartu zuenean, parlamentarismoa zazpi urtetarako alboratuz.

Gure gizona, Luis González de Etxabarri, urduria zen eta inguru guzti horren giroak hura ere influentziatuko du. Eusko Alderdi Jeltzalea-

ren zatiketa gertatu zen, eta *Aberri* egunkaria sortzen denean, hor ikusten dugu “Aizkibel’dar Bingen” kazetaritzan iharduten, batez ere euskarazko artikuluak egiten. 1923an *Aberri* zuzentzera helduko da eta, hurrengo urtean, Eusko Abertzale Ekintzakoekin lan egiten ikusiko dugu. Azken erakunde honen aretoan hitzaldi deigarri eta poetiko bat eskainiko du, “Arana Goiri, bardo de la patria” izenarekin, 1924ko azaroaren 30ean.

Euskadiko giroa hertsituz zihoala, halabeharrez, eta Luis González de Etxabarrik Ameriketako bidea hartzea erabakitzen du. Hango lur zabalagoak, hemengoekin gonbaratuz, izpirituz ere zabalagoak izango zitzaizkion esperantzarekin hartzen du Luisek Argentinarako itsasontzia.

Betiko izango zitzaion argentinaratze hura. Ez zen berriro Euskal Herrira itzuli eta emaztea eta alabak ez omen zituen gehiago ikusi.

Argentinara heldu bezain laister, 1925ean, Euskadirekiko maitasunak eraginda, eta Sebastián de Amorrortu-ren moldiztegian, Arana Goiri-ri buruz emandako azken hitaldia argitaratuko du eta, etxe berberaren bitartez, berak egingo duen azken liburua agertuko digu, “Cantos de Euzkadi” izenarekin.

Ordutik aurrera, Argentinan kazetari gisa biziko da. *La Nación* argentinari egunkari famatuan lan egingo du, bere erretirapena etorri arte. Ingeles eta frantsesetik itzulpenak ere egingo ditu, bizitzaren beharrei aurre egiteko.

Ameriketako, Argentina eta Mexikoko, eusko aldizkari askotan idatziko du “Vicente de Aizkibel”ek: *Mundial*, *Euskalduna*, *La Baskonia*, *La Nación Vasca*, *Patria Vasca*, *Vida Vasca* eta *Euzko Enda*-n.

Euskarazko lanak ere aldiro-aldiro egiten jarraituko du, batez ere olerkiak idatziz, eta *Egan*-en poesia batzuk agertuko dira. 1956an *Vida Vasca*-n *Illezinak* euskarazko olerkia idatziko du, 1928an “Gente inmortal” bezala ezagutu genuena.

Azkenean, Luis González de Etxabarri Buenos Aires-en hilko da, 1971ko abuztuaren 7an, 77 urte zituelarik.

Ohore “Aizkibel’dar Bingen”i, gizon kementsu eta adoretzu honi, arabar bizkaieraren edertasuna maitatu zuen euskaltzain urgazle ohoregarriari.

PIERRE LHANDÉ, MARTIN LANDERRETXE

Biarritz, 1994.07.01

AITA LHANDE ZENAZ

Biarritz, 1994.07.01

Jean-Louis Davant

Zilegi bekit Biarritzeko Udaletxe honetan, baiones handi baten ospatzen hastea. Ezen aita Lhande zena Baionan sortu zen, iragan mendeko hirurogeita hamazazpian, eta hor pasa zituen lehenbiziko zortzi urteak.

Haren biziak eta obraz, ez dizuet mirarizko apokalipsorik aterako, baina jadanik erranak dizkizuet labur bilduko. Haren jaiotzaren mendeurrena ospatu baikenuen Zalgizen duela hamazazpi urte, aita Lhanderen bizitza nahiko zehazki aipatu nuen; aita Lafittek aldiz, haren obraren bilduma egin zuen. Beraz, bi mintzaldi horien laburpena dizuet hemen emango.

Aitamak zuberotarrak zituen: aita Atarratzekoa, ama Mendikotakoa, baina Montebideon sortua.

Tratulant plantatu ziren Baionan. Komertzioko harremanak bazituzten Elizondo aldean. Horien kariatara, aita han gazterik hil zen, eta emazte alargunak senarraren gorpua kontrabandan gibel ekarri zuen. Laster Zalgize Apatian kokatu zen bere hiru semeekin, haietarik gehiena zela Pierra famatua.

Ikasketak egin zituen Mauleko San Frantses instituzioan, eta behin ihes egin zuen handik. Baionako apezgaitegian ere, diziplinaren aldetik lanak zituen, eta lekuak hustu zituen, bota zezaten haiduru egon gabe.

Jesusen Lagundian hobeki konpondu zen eta jesuista egin beraz.

Erakasle egon zen Hernani eta Hondarribiko instituzio batzuetan. Hor gipuzkeraz ongi ikasi zuen, hanbatetaraino non aita Lafittek zioen zubereraz baino hobeki ari zela Probintziako euskalkian.

Puerto Santa Marian ere, erakasle lanetan ihardun zuen.

Bitartean sortuko baita Euskaltzaindia, lehenbiziko hamabi euskaltzainen artean izendatuko dute. Zuberoako euskalkiaren izenean.

Gero, bost urtez (1925-1930), pobre ta txiroen apeza izanen da Parisen eta inguruetan. Eskertzekoa da han egin zuen lan erraldoia, eraiki baitzuen: 52 eliza, 90 gazteen biltoki, 52 parropia-etxe, 40 eritegi, 12 eskola, 8 haur baratxe ta 14 haurtxotegi.

Ber denboran, Garizumako peredikuak hasi zituen Parisko “Notre-Dame” eliza nagusian, izigarriko arrakastarekin. Hain zuzen, Eliza ama sainduaren altzoan eta magalean ere batzutan gertatzen den bezala, bekaiztu zitzaizkion beste apez ospetsu batzuk.

Beraz, Ameriketara bidali zuten bi urterentzat, hango euskaldunak balaka eta susta zitzala bere dohain bikainez. Baina hark lana hiru hila-betez egin zuen airez aire, ta Parisera zirimolan itzuli zen, arranoa kabiara bezala.

Ber urtetsuetan (1927-1934), irratiz, gaitzeko perediku saila egingen du, “L’évangile par-dessus les toits” deritzana, hots Ebangelioa teilatuen gainetik.

Ber denboran, mundu guzia kurrituko du gizon horrek, eta nekadura dela, edo Indian bilduko duen eguzki kolpe bat, memoria galduko du bat-batean, berrogeita hamazazpi urteetan; gero ez du osoki arrabilduko.

Ondorioz, bere biziko azken herena zinez mendraturik pasako du Atarratzeko xahar-etxean, hor itzaliko da 1957-an, laurogei urteetan, eta Zalgizen ehortzirik dago.

Haren ondoko zuberotar euskaltzaina, eta nire aitzinekoa, Guillaume Eppherre apeza izanen da.

Zilegi bekit ere aita Lhande zenaz dudan oroitzapen bakarraren aipatzea. 1948.ko uztailaren 9an zen, Mauleko San Frantses instituzioan. Ikasurteko azken eguna zen, eta denbora hartan, handizki ospatzen zuten, ikasle onei sariak emanez. Ikasle gazte nintzen, bigarren mailako klase apalenean.

Urte hartan beraz, hor genituen René Elissabide tokiko kontseilari orokor eta jenerala, eskuindarra, Jean-Pierre Champo Mauleko auzapez sozialista, eta denen buru aita Lhande. Hiruak aldika mintzatu zitzaizkigun. Ez dakit beste biek zer erran ziguten. Baina hark kondatu zigun nola haurtzaroan, Mauleko instituzio horretarik ihes egin zuen. Irripar ederrik egin genuen, bistan dena, harekin bat baikinena horretan, eta gaitzeko izpiritu xorrotxa baitzuen oraino, bultaka.

Gizon lirain eta ernea zen, umoretsua, ile xuria zuen, eta begi urdin argia.

Lhanderen idazkiak hiru zatitan bana ditzakegu, aita Lafitte zenari esker:

1.— Euskarazkoak.

2.— Euskal gaiez, frantsesez eman zituenak.

3.— Beste gai askoz, frantsesez eginak.

1. Euskarazkoak ditu xuhurrenak:

Kopla batzuk, itzulpen bat edo beste, gutun eta hitzaldi bakarren batzuk, *Eskualdun ona* delako astekarian berrixa zenbait zubereraz...

Baina elaberri bat, *Yolanda*, gipuzkeraz argitaratu zuen.

Haren obra nagusiak izan ziren bi urtez kudeatu zuela *Euskera* Euskaltzaindiaren agerkaria, eta *Dictionnaire basque-français* delako hiztegi handia hasi zuela.

Azken lan eskerga hau, jarrai eta bukatuko zuten Aranart eta Lafitte apezek.

Baina bere itzal ospetsua ekarri zion (eta zien) gure jesuista handiak.

2. Euskal gaiez asko idatzi zuen frantsesez:

— Historiaz, arimaz, etxondoaz, ohidurez, pilotaz, antzerkiaz...

— Olerki, entseiu, elaberri, estudio, artikulua, ikerketa, mintzaldi, eta abar luze bat.

Ez naiz hemen gaur xehetasunetan sartuko. Gehiago jakin nahi duenak aurki ditzake Lafitteren delako mintzaldian, *Gure Herria* agerkiak 77.eko udan atera zuen zenbakian.

Izenda ditzadala halere *La tombe basque*, *L'émigration basque*, eta Larrasquet apezarekin *Etxahun Barkoxekoaz* ondu zuen liburuxka.

L'émigration basque delakoan, Ürrüstoi Baxe-Nabarren emaiten du: denak ezin jakin gizon handi eta jakintsuek ere...

3. **Frantsesez gehiago idatzi du beste gaiez**, bereziki bere apez lanaren ildotik: artikulua, hitzaldi eta elaberriak burrustan, ugari. Hor ere, ikus Lafitte zenaren delako mintzaldi hura.

Bukatzen dut erranez euskaraz ez bazuen askorik idatzi aita Lhandek, euskararen alde gehiago egin zuela frantsesez, eta oroz gainera, bere itzal erraldoia ekarri ziola, eman dezagun aita Barandiaranek geroztik egingo zuenaren antzo. Beraz goian bego Baionako zuberotar handia.

MARTIN LANDERRETXE,
euskaltzain apeza,
(1842-1930)

Biarritze, 1994.07.01

Xabier Diharce "Iratzeder"

Martin Landerretxe, euskaltzain apezaz bi hitz erran behar eta, bannindagon: zergatik niri izan ote zait galde hori egina?

Landerretxe bezala Lapurdi-n bizi naiz eta Landerretxe bezala lapurtar-euskaraz ari. Egia da.

Bainan, gehiago dena! ez ote naiz Euskaltzaindian haren ildo bere-tik sartua? Landerretxe-ren ondoko euskaltzaina, 30-ean Elissalde-Zerbitzari izan zen; eta Elissalde-Zerbitzari-ren ondokoa... 62-an ni.

1. Ez dut nik Landerretxe bera ezagutua; Zerbitzari bai. Hona zer zioen hartaz bere sarrera-hitzaldian:

"Landerretxe apeza ehun urteeri buruz abiatua zen... Berak ez omen zakien nun sortua zen, are gutxiago noiz sortua zen. Beraz nola finka zaharra zela?

Dena dela, Landerretxe apezak ehun eta berrehun urte balin bazituen ere, norbeit zen oraino... Ez ote zaizko aski espantuka ari obra gu-ziak?

Espantuka guziz, hainbertze eta hainbertze urtez halako artarekin, erdaratik euskararat itzulirik, argitaratu dituen *Fedearen hedameneko li-buruak*?

...Norbeitek erraten balaut ez dela beti errex errexa haren eskuara... Egia hau da: bere itzal ttiki guztien gatik, aintz egin duela eskuararen alde Landerretxe apezak." (*Euskera*, 1931, 69-70.orr.).

2. Larogoita ta zazpi urtetan ari zen beti, bi hilabeterarik, berro-goita hamar orrialdeko agerkari hori euskaralatzen.

- Lan handi hortaz bertzalde, baditu zazpi laburragokoak *Euskal-esnalea-n* argitaraziak; eta bertze zazpi *Revue Internationale des Etudes Basques* agerkari jakintsuan.

- *Euskera* aldizkarirat baditu lau igorriak: “Erran zuhurak” (1925 eta 26-an), “Erran zuhur eta errankizun adituzkoak” (1927 eta 28-an).

- *Gure Herria* hilabetekarian ere irakur ditake haren 1928-ko “Orroi-tzapen bat”.

OHARRA:

1. *Euskal-esnalea-n*:

1911-an “Ateraldiak”.

1912-an “Erosizko bi musu”.

“Gizon gaztea”.

“Arrosarioa eta ministro-ezoraikoetarik”.

1916-an “Nere Jaun Legasse aphezpikua”.

“Sinhetsi, obedecer”.

Arlo honetan bat gatz Idiazabalek (1991b) Oitz eta beste haur elebidun baten determinatzaileen jabekuntza arakatzeari esandakoagaz. Idiazabalentzat Oitzek 2;00;05eko adinaz burutzen duen bat determinatzailearen erabilera zeharo funtsezkoa da izen-sintagmaren jabekuntzaz hitzegiten hasteko, lehenago, guk ikusi dugun bezalaxe, *-a* marka baino ez baitu erabili. Barreñak (1994b eta c) *-a* markaren erabilera goiztiar bakarra beste haur euskaldun elebidunengan ikusi ahal izan du, beronen izaera lexikoa erakutsiz.

Alabaina, behin adin honetatik aurrera sarritan ikus dezakegu NOR egitura-ren erabilera. Hona hemen zenbait adibide:

(6) *txapela ipini; ni(k) argia ikutu; ez da(g)u zezena; buruhaundia ipini; tipa-azala* (3) (2;00;22); *argie* (4) *izetu da* (2;01;19); *hori, ume txikia; hori, ha(r)tz luzia; izar haundia* (2;02;00); *har(r)ia ekartzen; hemen da(g)u komune; hemen da(g)u har(r)ie* (2;03;09)

NOR pluralak ere sasoi honetan ikus ditzakegu:

(7) *txaluek holan ez!; zapatak kenduta* (2;00;05); *eskilarak; baztar(r)ak* (2;01;19); *ume txikiak bakar(r)i(k) ez; hor danak punba zer?* (2;02;00); *eta bi-har(r)ak e(g)in tratorak; etxie eiten; zikin zikinek* (5) (2;03;09); *hemen ipintzen zi-ren gauzatxo batzu* (2;10;12)

Hurbilaren erabilera, ohizkotzat jo dezakegun adibide goiztiar batez gain, beluago ere badarabil haur honek, baina lantzean behin baino ez. Hona hemen bildu ditugun ekoizpen guztiak:

(8) *biok* (2;02;00); *niri hau ez jate(zait) gustetan, hau tontuoi* (2;08;13); *zu harek(haiek) biok, kiko!* (2;10;29); *biok izango gara haundiek* (3;05;27)

Mugagabearen erabilera ere aurkitu dugu, baina zerbait beranduago. Hona hemen adibide goiztiar batzuk:

(9) *hiru zubi* (2;04;24); *zein kamaru?* (2;05;05); *zenbat ladrilo!* (2;06;05); *hormie, zein horma?* (6); *zein pelota?* (2;07;05); *be(g)itu, hiru zaldi* (2;08;13); *aber, zein kotxe?* (2;08;18); *lau urte* (2;09;00); *zein amets?* (2;11;12); *zein txandal?* (3;05;27)

NOR edo absolutu-kasuaren egitura, laburbildurik, 2;00;05eko adinaz erabil-tzen hasten dela baieztatu dezakegu. Une horretan singularra eta plurala darabiltza, subjututzat zein osagarritzat. Mugagabea eta hurbila, ostera, geroago ikus ditzakegu.

Halere, Idiazabalek (1991b) seinalatu zuenez, izen-sintagmaren erabilera (gure ustez absolututzat ere har dezakeguna) 2;00;05eko adinetik aurrera ez da beti zuzena, arauari begiraturik behinik behin. Une honetatik aurrera, hasieran sarritan, baina gero eta gutxiago, aurreko aldian erabili dituen egitura lexikalak ere badarabiltza haur honek. Horrela, sintagma berekotzat jo daitezkeen osagai guztietan *-a* marka ikus dezakegu:

(10) *hori umia txikia* (2;02;00); *zatarra zatarra dana guztia* (2;04;11)

Egitura berriaren jabekuntza erdietsia duen arren, badirudi aurreko aldian erabili duen egiturari oraindik ere eusten diola aldi baten eta lantzean behin berataz baliatzen dela.

(3) Haur honen inguruan, *t(r)ipa* hitzak *-a* marka izanez gero, *tipia/tipie* izango litzateke.

(4) Bizkaiko ekialdean ohizkoak dira halako fenomeno fonetikoak: *-ea > -ie, -ia > -iel/ije, -oa > -ue, -ua > -ue*.

(5) Aurreko *i* zein *u* bokalak *a > e* bihurtzen du azpi-euskalki honetan.

(6) Hitz honek *-a* mugatzaile erantsia balu, *hormie* bihurtuko litzateke, hurrengo, bali-zko egoera berean, *pelotie* litzatekeen bezala.

3.2. Ergatiboa edo nork kasua

NORK edo ergatibo-marka, gorago aipatu dugunez, 2;00;05eko adinaz has-ten da Oitz erabiltzen.

Aurretik, hots, 1;05;19ko adinetik 1;11;05eko adina bitartean, ez dugu erga-tibo markarik behin ere ikusi. Gainera, nabaria da aldi honetako ergatibo-marka-ren ekoizpen-eza. Hona hemen zenbait adibide:

(11) *aitita(k) apu(r)tu (1;06;22); Jugi(k) atara (1;07;20); ni(k) igon (7); ni(k) atia; Mikel(ek) ezin stara (1;11;05)*

Ekoizpen hauek, lehenago esan dugunez, ez dute sintagma-egiturarik gauza-tzen, eta haatik, besteak beste, ez dute inolako deklinabide-markarik hartzen.

Baina haurrak 2;00;05eko adina duenean lehen ergatibo-eraketak ikus ditza-kegu. Hona hemen ergatibo-markaren erabileraren zenbait adibide goiztiar:

(12) *nik; eba(g)i nik; nik dana hartu (2;00;05); nik; zuk; muk kan (2;00;26); Andonik; t(r)enak; guk ikusi; nik hor punba; Asunek eka(rr)ita; nik hau nora bota? (2;01;19); bere amatxok lehen; hori honek ez; zuk hona bota; berak emon (2;02;00)*

Halere, une honetan, sarritan uzten du ekoitzi barik ergatibo-marka:

(13) *azala ni(k); gu(k) eba(g)i; pianoa gu(k) ezin jo (2;01;05); ni(k) argie ikutu; mis(ek) kan; zu(k) (2;00;26); aitite(k) zelan?; ezin atara Antonio(k) (2;01;19); inor(k) ez kendu; inor(k) ez kendu bere gol (8); ni ni ni(k) kertsie badeko(t); nor(k) eruen?; (2;02;00); o(ra)in ni(k) nun marraztu? (2;03;09)*

Alabaina, 2. taulan ikus daitekeenez, 2;04;11ko adinetik aurrera ez-egokita-sunak gero eta gutxiago dira, eta beronen erabilera guztiz zuzena dela esan de-zakegu. Ondoko 2. taula honetan ergatiboaren, datiboaren eta partitiboaren ekoizpen-datuak bildu ditugu.

Ergatiboaren erabilerari dagokionez, bada, erabilera-eza 2;04;24ko adinaz, orohar, bukatu dela esan dezakegu, hemendik aurrera lantzean behin baino ez baitugu akatsik ikusiko.

Hona hemen une honetatik aurrera ekoizten dituen zenbait adibide zuzen:

(14) *berak badaki zubia e(g)iten (2;04;11); guk e(g)in dogu; zuk ez dakizu (2;04;24); Mikelek ez dau(du) entzuten; eske ez deko bestiek palarik; Mikelek hartu dau(du) (2;05;05); nik nik kordeioe joko dot; eta zuk zer e(g)in bi(bihar) dozu? (2;05;21); otsuek itxi zuen e ehiztari bat (2;07;05); edo goitik kenduko dau(du) hai-ziek edo mutil batek edo gabario batek (2;09;00)*

(7) Ume honen inguruan atara aditzak zentzu iragankorra baino ez du. *Igon* aditza, bestalde, iragankor bezala erabiltzen da bizkaieraz.

(8) Gol hitza, nini-hitza denez, mugatzaile barik darabil Oitzek.

2. TAULA

ABSOLUTUAREN, DATIBOAREN ETA PARTITIBOAREN, EKOIZPEN-KOPURUAK ADINAREN ARABERA

	NORK		NORI		PARTITIBOA	
	Ez	Bai	Ez	Bai	Ez	Bai
1;06;22	1	—	—	—	—	—
1;08;29	1	—	1	—	—	—
1;10;12	—	—	—	—	2	—
1;11;05	6	—	—	—	—	—
2;00;05	9	3	—	3	—	—
2;00;26	6	6	—	—	1	—
2;01;19	4	19	—	1	—	—
2;02;00	9	25	—	6	—	—
2;03;09	3	29	—	15	—	—
2;04;11	6	38	—	2	—	—
2;04;24	1	50	—	6	1	—
2;05;05	—	47	—	12	—	6
2;05;21	—	15	—	2	1	—
2;06;05	—	56	—	7	2	3
2;06;25	—	24	—	3	1	1
2;07;05	1	24	—	—	—	1
2;08;13	—	23	—	8	—	3
2;08;18	1	31	—	2	—	1
2;09;00	—	29	—	1	1	1
2;10;12	—	18	—	3	1	1
2;10;29	1	39	—	3	—	1
2;11;12	—	26	—	2	—	1
3;00;02	1	25	—	3	—	—
3;00;10	—	34	—	1	—	1

Ergatibo-pluralaren lehen adibideak beluago agertzen zaizkigu. Hona hemen lehenetariakoak:

(15) *hahaha e(g)iten dabie(dute) sorginek* (9) (2;08;13); *medikuek eukitzen dabez(dituzte)* (2;10;12); *garabiuek hau erueten dabe(dute)?*; eta *induskailuek eukiten dabie(dute) palie* (3;00;10)

Lantzean behin Oitzek, araua jarraituz, bere burua zuzentzen duela ere esan daiteke. Ondoko adibideetan behintzat, argi geratzen da absolutu-, datibo- eta ergatibo-marken arteko nahasketa eta ondoko zuzenketa:

(9) Gogoan izan adibide hauetako *-ek* marka fonetikoa dela, lehen esan dugun legez, aurreko *i* eta *u* bokalek $a > e$ bihurtu baitute.

(16) *hori ez dau(du), horrek ez dau(du) eruten (2;04;24); ba nik ni etorri naz zuregana ta ... (2;07;05); ze Jontxuk, Jontxu ez zan konturatu (2;10;12); ni nik holakue badeket (3;00;10); niri niri hau nik niri honek(hauek) gustetan jatez(zaizkit) (3;01;28)*

Arakaturiko korpusean behin ergatibo-hurbilaren erabilera ere aurkitu dugu. Hona hemen berau:

(17) *guk biok (2;06;25)*

Ergatibo-markaren jabekuntza-garapenaz, beraz, zera esan dezakegu: erabilerazak berezten duen aldiaren ondoren, 2;00;05eko adinaz gauzatzen hasten dela, baina hasiera baten ekoizpen-eza ere sarritan gertatzen delarik. Ondoren, 2;04;24ko adinetik aurrera, erabileraren egokitasuna sendotu egiten da, eta Oitzek bere burua zuzentzeko duen gaitasuna ere une honetatik aurrera ikus dezakegu. Guzti honez gain, oso garrantzitsua iruditzen zaigu Oitzek gramatika-hatsarreen arabera, NOR eta NORK kasuak bereziz, bere burua zuzentzeko erakusten duen gaitasuna.

3.3. Datiboa edo nori kasua

NORI kasuaren marka, NORK kasuarena bezala, 2;00;05eko adina duenean ikus dezakegu lehen aldiz:

(18) *zuri; hori niri Ju(r)gi(k) buruan ekar(r)i; o(ra)in zure iloari (2;00;05); Andoni, nik zuri tena (2;01;19); honi honek ez; hori hori txikiari hau; honek(hauek) zuk txikiari emon; niri katu hau begira (2;02;00); ba aititari makila konpontzen; o(ra)in honeri sakatu; honeri obatu; nik palazuari jo honekin(2;03;09)*

Lehenago, ordean, datibo-markaren erabilera-eza ere ikusi dugu. Hona hemen markarik gabeko adibide goiztiar hau inguru eta guzti:

(19) *Mintzaidea: Ta nori esango dotze(g)u(diogu) etortzeko gurekin?
Oitz: Amane(ri) (1;08;29).
Mintzaidea: Amaneri*

NORI pluralaren erabilera ere aurkitu dugu arakaturiko Oitzen ekoizpenean:

(20) *botoiei ez! (2;08;18); lehoieri, lehoiei ixten badotzezu(diezu) (3;02;10)*

Mugagabea eskatzen duen inguru goiztiar bakarrean, aldiz, mugatu singularri dagokion forma agertzen zaigu:

(21) *ba zer mineri sakatu? (2;03;09)*

Kontuan izan behar dugu NOR mugagabea beluago ikusi dugula, 2;04;24 edo 2;05;05eko adinaz hain zuzen. Beharbada, oraingoz ez da mugagabearen hatsarreak jabetu eta horregatik ezin du NORI mugagaberik erabili une goiztiar honetan.

Aditz mugaturen batez ekoitziriko NORI kasudun adibideak ez dira hain ugariak korpusean zehar. Honen arrazoia, euskaraz ohizkoa denez, zehar-osagariak isiltzean egon daiteke. Edozelan ere, hona hemen zenbait adibide:

(22) *oin ja jo e(g)in dotzet(diot) kotxiari (2;06;25); niri ez jate(zait) gustetan; niri hau ez jate(zait) gustetan, hau tontuoi!; honek zer esaten dotze(dio) sorginari? (2;08;13)*

Laburbildurik, datibo-markaren erabilera edo NORI kasuaren jabekuntza, 2;00;05eko adinaz erdiesten duela esan dezakegu, beraren erabilera zuzena une honetan hasita, hemendik aurrera ia grabaketa guztietan ikus baitezakegu (ikus 2. taula). Edozelan ere, mugagabearen erabilera beranduago agertuko zaigula ere esan behar dugu.

3.4. Partitiboa

Partitibo-markaren erabilera 2;05;05eko adina duen arte ez dugu aurkitu arakatu dugun korpusean.

Goizago, oster, nabarmena gertatzen da batzutan erabilera-eza (ikus 2. taula). Hona hemen, partitibo-marka eskatzen duen inguruetan, haurraren jokaera 2;05;05eko adinaren aurretik:

(23) *oihala ez (birritan) (1;10;12); ez da(g)u zezena (2;00;26); ez da(g)o beste bat (2;04;24)*

Argi dago partitiboaren ordezkari markaz osaturiko hitzak edo NOR sintagma darabiltzala aldi goiztiar honetan. Baina behin adin batera helduz gero, nabaria da partitibo-markaren erabilera ezezko perpausetan:

(24) *eske ez deko bestiek palarik; ez deko hankarik; ez deko hankarik, gainera; ez da(g)u kotxerik; ez da(g)u beste kotxerik; ez e(g)in bultzerik; ez e(g)in barrerik (2;05;05); ez deko lekuri baina (2;06;25); nik ez dot eukitzen hotzik (2;07;05); nik ez dekot anai txikirik; hemen ez da(g)u gizonik (2;08;13); ez dekogu beltzik (2;10;12)*

Galderetan ikusi dugun adibide bakarra ezezkoan denez, zaila egiten zaigu baieztatzea halako inguruetako erabileraz jabetu denentz:

(25) *zergatik ez da(g)u gizonik? (2;08;13)*

Edozelan ere, beste zenbait markarekin ikusi dugun lege, erabileraren hasieran ez-egokitasuna ere ikusi ahal izan dugu:

(26) *ez da(g)u beste bat (2;05;21); ez e(g)in holan bultze(rik)! (2;06;05); ez e(g)in barre(rik)! (2;05;25)*

Hala eta guztiz, 2;06;05eko adinetik aurrera ez-egokitza jo ditugun adibiderik gehienen ez-egokitasuna (ikus 2. taula) zalantzezkoa da, partitibo-marka barik ere ohizkoak baitira helduen artean (ikus 26 adibide-multzoko azken biak).

Laburbildurik zera esan dezakegu: Oitzek 2;05;05eko adina duenetik, ezezko inguruetan behintzat, partitiboa egoki darabilela erakusten digula. Nolanahi ere, azpimarragarriak dira hasierako erabilera-eza, eta erabiltzen hastean, une baten, beti ez darabilela. Bestalde, badirudi partitiboaren erabilera mugagabearekin batera gauzatzen hasten dela.

3.5. Genitiboa edo noren kasua

NOREN kasu-markaren erabilera aurkeztean genitiboaren funtzioari mugatuko gatzazkio. Birdeklinaketaren erabilera, aitzitik, geroago azalduko dugu.

Marka honen erabilera, NOR, NORK eta NORI kasu-marken legez, 2;00;05eko adinaz ikusi dugu lehen aldiz arakatu dugun korpusean. Ondoko grabaketetan erabilera sendotu eta zabaldu egiten dela esan daiteke. Hona hemen lehenetariko adibide batzuk:

(27) *zure ulea; o(ra)in zure ulea; zure iloari (2;00;05); nire etxien; Teo(re)n anaia; bere aita; Teo(re)n laguna; bere aita nun? (2;00;26); amama(re)n erregalue; zu zure botekin; ni nire botekin (2;01;19); bestien aita; Isabelen etxien; hemen bere aitatxo (2;02;00)*

Oitzek, bere inguruan egiten den legez, -n/-en marka darabil genitibo hau eraikitzean. Eta erabilera honi hurrengo hilaibeteetan ere eusten dio:

(28) *karga(t)u e(g)in bi(bihar) dot nire kamioie; nun da(g)uz nire egurrek? (2;05;05); Mikelen aita da; hau zure laguna da ta; astuen modokue (2;06;05); eta Teoren amatxo?; han da(g)u [xx] bere aitatxorekin (2;07;05); hori izan zan autobuse baten errobedie (2;09;00)*

Genitibo-pluralaren lehen erabilera, guk aztertu ahal izan ditugun datuen arabera, beluago agertzen zaigu:

(29) *baina muinekuen etxie be bada (2;09;00)*

Bildu ditugun datuetan oinarriturik, 2;00;05 edo 2;00;26ko adinaz genitiboaz jabetu dela esan dezakegu. Goizago, oster, badugu genitibo-marka eskatzen duten inguruetan ekoizpen-ezaren adibiderik:

(30) *Amane Pero; Anoni tita (1;08;29)*

Lehenengo ekoizpeneko *Amane (alaba)* eta *Pero (aita)* hitzek genitibo-markaren bat beharko lukete: *Amaneren Pedro (alaba/umearen aita)* edo *Pedroren Amane (aitaren alaba/umea)*. Bigarrenean, *Andoniren tita (erlojua)* esan behar zukeen. Argi geratu da, bada, 2;00;05eko adinaz aurretik ez duela halako markarik erabiltzen.

Bestalde, behin 2;00;05eko adinetik aurrera grabaketa guztietan ikus dezagu genitibo-markaren erabilera (ikus 3. taula).

3. TAULA

GENTIBOEN ETA BERAIEIEN FORMA BIRDEKLINATUEN EKOIZPEN-KOPURUA ADINAREN ARABERA

	NOREN		NORENA		NONGO		NONGOA	
	Ez	Bai	Ez	Bai	Ez	Bai	Ez	Bai
1;08;29	2	—	5	—	—	—	—	—
1;11;05	—	—	—	1	—	—	—	—
2;00;05	—	4	—	4	—	—	—	—
2;00;26	—	5	—	17	—	—	—	—
2;01;19	—	6	—	7	—	—	—	—
2;02;00	—	3	—	4	—	—	—	2
2;03;09	—	6	—	2	—	3	—	7
2;04;11	—	2	—	1	—	1	—	—
2;04;24	—	3	—	1	—	—	—	3
2;05;05	—	4	—	7	—	5	—	1
2;05;21	—	8	—	4	—	1	—	—
2;06;05	—	21	—	8	—	1	—	2
2;06;25	—	7	—	2	—	1	—	—
2;07;05	—	4	—	1	—	1	—	1
2;08;13	—	8	—	2	—	—	—	4
2;08;18	—	3	—	2	—	—	—	2
2;09;00	—	13	—	7	—	1	—	8
2;10;12	—	5	—	6	—	6	—	9
2;10;29	—	4	—	6	—	1	—	8
2;11;12	—	4	—	3	—	4	—	6
3;00;02	—	4	—	1	—	—	—	1
3;00;10	—	7	—	4	—	—	—	5

3.6. Genitiboaren birdeklinaketa: norena kasua

NORENA kasuaren erabilera, birdeklinaketa aurkeztean azaldu beharrean, genitiboaren ondoren egitea erabaki dugu. Guzti hori, gure ustez behinik behin, kasu honen erabilerak NOREN kasuarekin izan dezakeen erlazioaz gain, kasu honen goiztiartasuna ikusirik erabaki dugu.

NORENA kasu-markaren erabilera oso goiztiarra da, baina 2;00;05eko adina duen arte hitz zehatz bitara mugatzen da: *nirie eta no(re)na?/nu(re)na?*, hain zuzen ere. Oitzek ekoizten dituen lehenetariko adibideak hauek dira:

(31) *nirie (1;07;20); no(re)na?; niria (1;08;29); hau nu(re)na?; ez, niria (1;10;12); hau no(re)na, ama?; hori no(re)na?; ama, niria popota (1;11;05)*

Hala eta guztiz ere, erabilera goiztiar hau, ez dirudi gramatika-hatsarren bati lotua dagoenik. Gure ustez, erabilera hau lexiko-arlokoa da, hitz bi hauek oso arruntak baitira haurren munduan.

Eritzi honen alde hona hemen 1;08;29ko adina duenean bildu ditugun adibide batzuk. Guztietan mintzaideak NORENA galdera luzatzen dion arren, haurrak delako markarik gabe erantzuten dio. Hona hemen:

(32) (a) *Mintzaidea: Ta norena dok tiktak-tiktak hau ba?*

Oitz: Amane

(b) *Mintzaidea: Hori Amanerena da?*

Oitz: Amane

(c) *Mintzaidea: Ta norena dok hori?*

Oitz: Amane (1;08;29)

Halere, une honetan nirea hitza egoki darabil mintzaideak luzatzen dion itaunari erantzutean:

(33) *Mintzaidea: Norena dok hori ba?*

Oitz: nirea (1;08;29)

Gure irudiko, kasu-markaren erabilera ekoizkorra beluago lortzen du haur honek. Nirea eta norena hitzez gauzaturiko ekoizpenez gaineko lehenengo adibidea iluna samar gertatzen zaigu inguruaren arabera eta ez dago hain argi markaren erabilera zuzena:

(34) *ez, kotxiena (1;11;05)*

Ekoizpen honetan haurragaz diharduen mintzaide helduak kotxekoa itxaroten du, grabaketaren arabera behinik behin. Zalantzarik da, beraz, kasuaren jakakuntza une honetan.

Hurrengo grabaketa transkribatuan, aitzitik, argiro aurkitu dugu marka honen erabilera ekoizkorra. Hona hemen une honetatik aurrera Oitzek gauzatzen dituen zenbait adibide:

(35) *ez, kotxiena (1;11;05); medikuena; Ju(r)gina ez (2;00;05); Idoiana; jolasena; Amaiana; Teona; zurie; honena; hori neskiana; aittitana; Akardona (2;00;22)*

Beluago ere, kasu honen erabilera sarritan ikus dezakegu haur honen ekoizpenean:

(36) *Arantzarena da; Mikelena da (2;05;05); badue aitatxorena; ez zara honena (2;05;21); Txano Gorritxurena (2;07;05); honena da; baina hau kamioiena da (2;09;00); hau nire bizikletiarena da; eske iguel izango da eskatzena (2;10;12)*

Lantzean behin, pluralean ere ikusi dugu birdeklinaketa-marka hau:

(37) *norenak? (birritan) (2;02;00); hemen ipintzen ziren honek gauzatxuek, t(r)enenak (2;10;12)*

NORENA kasu-marka, beraz, orain arte ikusi dugun goiztiarrenetarikoa da, 2;00;05eko adinaz ekoizkor baitarabil. Halere, badu hilabete goizago adibide ilun

samar bat ere. Edozelan ere, azpimarragarria iruditzen zaigu, gure datuen arabera behinik behin, genitiboaren birdeklinaketa honetaz genitiboaz berataz batera edo goizago jabetu dela baieztatzea (ikus 3. taula).

3.7. Toki-genitiboa eta nongoa birdeklinaketa

Lekua adierazten duen *-ko* genitibo-marka geroago agertzen zaigu. Nolanahi ere, oraingoan ere goizago aurkituko dugu NONGOA egitura NONGO bera baino (ikus 3. taula). Hona hemen lehen ekoizpenak:

(38) *holakue nun?*; *hori, hor, holakue nun?* (2;02;00)

Eta *holakoa* hitzaren erabilera zalantzarria izan badaiteke ere, lexiko-arloko ikaspentzat jo baitezakegu, hurrengo hilabetean NONGO zein NONGOA kasu-markak darabiltzala ikus dezakegu:

(39) *halako pinturak*; *ba halako makina bat*; *hau, barrukue*; *holakue nun da(g)u?* (2;03;09)

Pluralaren lehen erabilera ere une berean ikus dezakegu:

(40) *barraketako pailasok ko tenan* (2;03;09)

Hemendik aurrera sarritan ikus ditzakegu erabilera biak, hots, singularrez zein pluralaz:

(41) *hauxe, etxeko erlojue* (2;04;11); *hemen barruko kotxie*; *holakuek*; *ez, hor erdiko gelan* (2;05;05); *hau da treneko gizona* (2;07;05); *nik holakuek* (2;08;13); *ipurdikuek e(g)ingo doguz(ditugu)?*; *kamioikue* (2;09;00); *eruango duaz(ditut) barra-ketako jaira*; *nunguek?*; *horkuek*; *behekue* (2;10;12); *hau telefonokue da*; *ta hemenguek nun da(g)uz?* (2;10;29); *baina hemen erueten zabiezen(zituzten) honek, ikastolakuek eta...*; *erdikue behar dot* (2;11;12); *ze dekoz tripetako min asko* (3;05;27)

Behin mugagabez ere agertzen zaigu NONGOA kasu-marka. Hona hemen:

(42) *eske ez zara konturatu niri ze koloretakue gustetan jaten(zaidan)?* (3;01;28)

Toki-genitiboa, beraz, genitiboa baino beranduago agertzen zaigu haur honi grabaturiko korpusean. Edozelan ere, aldi-ezberdintasuna hile bikoa baino ez da (ikus 3. taula).

3.8. Soziatiboa edo norekin/nogaz kasua

Bizkaiko ekialdean forma biak erabiltzen dira, nahiz lehena sarriagotan erabili pluralaz, eta bigarrena *-az* itxuraz ere agertzen zaigun.

Haur honek, gurasoen euskalkiaren eta estandarraren eraginez, kasu-marka biak darabiltza, eta gainera biak agertzen dira batera bere garapenean:

(43) *Akardokin; honekin; ni Arantzakin (2;00;22)*

(44) *Andoniaz; Arantzagaz (2;00;22)*

Ikus dezakegun legez, marka biak batera eta hitz berarekin darabiltza haur honek, eta jokabide honi eusten diola esan daiteke:

4. TAULA

SOZIATIBOAREN, DESTINATIBOAREN, MOTIBATIBOAREN ETA INSTRUMENTALAREN EKOIZPEN-KOPURUAK

	NOREKIN		NOGAZ		NORENTZAT		NOGAIK		NORTAZ	
	Ez	Bai	Ez	Bai	Ez	Bai	Ez	Bai	Ez	Bai
1;10;12	1	—	1	—	—	—	—	—	—	—
2;00;05	—	—	—	—	—	—	—	—	—	2
2;00;26	—	6	—	2	—	—	—	—	1	—
2;01;19	—	10	2	6	—	—	—	—	—	—
2;02;00	—	2	—	—	—	—	—	—	—	—
2;03;09	—	10	—	3	—	—	—	2	—	—
2;04;11	—	1	—	—	—	—	—	—	—	—
2;04;24	—	13	—	2	—	—	—	—	—	—
2;05;05	—	1	—	—	—	—	—	1	—	—
2;05;21	—	1	—	—	—	—	—	—	—	1
2;06;05	—	3	—	—	—	2	—	—	—	—
2;06;25	—	1	—	—	—	—	—	—	—	—
2;07;05	—	2	—	—	—	1	—	—	—	—
2;08;13	—	10	—	—	—	—	—	—	—	1
2;08;18	—	—	—	1	—	5	—	—	—	1
2;09;00	—	14	—	1	—	1	—	—	—	7
2;10;12	—	4	—	—	—	—	—	—	—	2
2;10;29	—	3	—	—	—	—	—	—	—	1
2;11;12	—	10	—	2	—	1	—	—	—	1
3;00;02	—	2	—	—	—	1	—	—	—	1
3;00;10	—	10	—	—	—	—	—	—	—	2

(45) *zurekin; zapatakin; hor(r)az; atxuraz; atxuraz han jo; atxurrekin danba-danba (2;01;19); zurekin juen nintzen; laranja ibili zen Jurgi Iratirekin (2;08;13); muinekoaz e(g)ingo dot? (2;09;00)*

Lehenago ez darabilela ere esan dezakegu. Oitzek 1;10;12ko adina duenean ekoizpen-ezaren frogatzat har daitekeen adibidea aurkitu dugu. Inguruaren araber argi dago sozietibo-markaren bat ez duela ekoitzi. Hona hemen berau:

(46) *o(ra)in o(ra)in Jugi(rekin/gaz) (1;10;12)*

Bestalde, pluralaren erabilera batez ere NOREKIN markaz ikusi badugu, lantzean behin NOGAZ marka ere pluralaz agertzen zaigu:

(47) *txotxuekin (2;05;21); ... eta hau atzazkalakaz (2;08;18); otsuekin; batzutan otsuekin; baina torniluekin (2;11;12); ez, haginekin ez!; eskuekin e(g)in holan! (3;00;10)*

Soziatiboa da pertsonen (edo gauzen) arteko harremanak adierazten dituzten gainerantzeko kasuen artean agertzen zaigun lehena (ikus 4. taula). Destinatio, motibatiboa edo instrumentala, gutxienez laupabost hilabete beranduago agertzen zaizkigu. Hau guztiau hobeto ikusteko, hona hemen kasu hauen ekoizpen-kopuruak eskaintzen digun taula:

Guzti horrez gain, azpimarragarria iruditzen zaigu, grabaturiko korpusean behintzat, NOREKIN forma NOGAZ forma baino sarriagotan darabiltzala (ikus 4. taula).

3.9. Destinatio edo norentzat kasua

Kasu honetaz eraikitako adibideak ere aurkitu ditugu grabaketetan zehar. Hona hemen lehenetarikoa zenbait:

(48) *hori zaila da zuretzat; hau niretzat, aguanta(tu)! (2;06;05); ipini niretzat! (2;07;05); hau niretzat eta zuretzat hori (2;08;18); eta gero zure kamioiarentzat e(g)ingo dogu (3;03;25); bai, honentzat (3;04;22); eta egoten bada kar(r)amar(r)u haundi bat Kinkonentzat, jan egindo dau(du) Kinkonek (3;06;24)*

Kasu-marka honen lehen adibideak, beraz, soziatiboa baino beluago ekoizten ditu haur honek (ikus 4. taula). Inoiz NORENTZAKO itxura ere hartzen du marka honek:

(49) *niretzako hau da (3;00;02)*

Bada NORENTZAT hurbilaren ekoizpenik ere. Hona hemen adibide guztiak:

(50) *biontzat; holan biontzat (3;02;04)*

3.10. Motibatiboa edo zergatik kasua

Motibatiboaren kasu-markaren erabilera oso gutxitan aurkitu dugu aztertu dugun korpusean. Gainera, guztietan izenordain bati erantsirik (*horregatik*) ikus dezakegunez, zalantzarik da beraren jabekuntza ekoizpen honen bidez derakusala. Halere, hona hemen Oitzek ekoizten dituen adibide guztiak:

(51) *hoaiti hemen; hoaitik (2;03;09); nik ho(rreg)aitik hau hartu (2;05;05)*

3.11. Instrumentala edo zerez kasua

Instrumentala ere aurkitu dugu Oitzen ekoizpenean, baina zertxobait beranduago. Gainera, sarritan, kasu-marka honen erabilera lexikoaren jabekuntzari lotuta dagoela esan daiteke, ohizko esakerak ekoizten baititu: *buruz behera*, *hegaz*, *hankazgora*, *berez*, ... Horrelakoak dira, gure ustez, hasierako adibideak:

(52) *kontuz ibili!; kontuz! (2;00;05)*

Kontuz hitza, gure ustez, haurrak lexikaldurik bereganatu du. Ondoko adibidearen bidez haur honek egitura hau oraingoz ez darabilela ikusi ahal izango dugu:

(53) *Mintzaidea: Zerez mozorrotuko haz ihauterietan?*
Oitz: Teo (2;00;26)

Geroago badira kasu-markaren jabekuntza adierazten duten adibide bakan batzuk:

(54) *ta hau zergatik da(g)u negarrez? (2;08;13); edo buruz behera?; hankazgora; kotxez; trenez (2;09;00); ze bestelan zegaz eingo dau(du) hegaz?; eta gu altxatzen paliaz (2;11;12); hau nik hartu dot, adibidez (3;00;02); erderaz (3;00;10); eta gero lotu katiez (3;02;10); badakizu hau berez harrapa(i)u dotziela(diel)? (3;03;00); esaten dozu auskeraz; Mikel, juen horrutza(g)u, ze da(g)u mila aldiz gehia(g)u (3;03;25)*

Badirudi, beraz, instrumentalaren jabekuntza pertsonen arteko harremanak adierazten dituzten beste kasuak baino beluago erdiesten duela (ikus 4. taula). Honen arrazoiatariko bat ekoizpen gehienen mugagabetasunean egon daiteke, mugagabea, lehenago ikusi dugun legez, beranduago bereganatzen baitu.

Bestalde, atzizki hau denbora adierazteko ere badarabilela ikus dezakegu. Alabaina, baliteke haurra esakera honetaz lexikoki jabetu dela pentsatzea:

(55) *baina gabaz bazkaltzen dogu (3;03;25)*

Geroago ikusiko dugunez, instrumentalaren birdeklinaketa ere badarabil haur honek.

3.12. Inesiboa edo non kasua

Toki-kasuen jabekuntza arakatzen hasi orduko, hona hemen ekoizpen-kopuruak biltzen dituen taula:

5. TAULA

TOKI-KASUEN EKOIZPEN-KOPURUAK ADINAREN ARAIBERA

	NON		NORA		NOGANA		NONDIK		NORANTZ		NORAINO	
	Ez	Bai	Ez	Bai	Ez	Bai	Ez	Bai	Ez	Bai	Ez	Bai
1;06;2	—	—	1	—	—	—	—	—	—	—	—	—
1;11;0	—	1	2	—	—	—	—	—	—	—	—	—
2;00;0	—	4	—	1	—	—	—	—	—	—	—	—
2;00;2	—	6	—	2	—	—	—	—	—	—	—	—
2;01;1	—	5	—	8	—	—	—	4	—	1?	—	—
2;02;0	—	8	—	6	—	—	—	2	—	—	—	—
2;03;0	—	5	—	2	—	—	—	—	—	—	—	—
2;04;1	—	6	—	2	—	—	—	12	—	—	—	—
2;04;2	—	6	—	3	—	—	—	—	—	—	—	—
2;05;0	—	13	—	7	—	1	—	2	—	1	—	—
2;05;2	—	13	—	14	—	1	—	2	—	—	—	—
2;06;0	—	8	—	1	—	1	—	1	—	—	—	—
2;06;2	—	14	—	8	—	4	—	—	—	—	—	—
2;07;0	—	4	—	1	—	2	—	4	—	2	—	—
2;08;1	—	4	—	4	—	1	—	—	—	—	—	—
2;08;1	—	6	—	1	—	—	—	—	—	—	—	—
2;09;0	—	9	—	9	—	—	—	1	—	—	—	1
2;10;1	—	16	—	6	—	—	—	1	—	—	—	1
2;10;2	—	4	—	4	—	—	—	—	—	—	—	—
2;11;1	—	13	—	1	—	—	—	1	—	—	—	2
3;00;0	—	—	—	1	—	—	—	1	—	—	—	—
3;00;1	—	11	—	1	—	—	—	7	—	—	—	—

Tokia adierazten duen NON kasu-markaren lehen erabilera Oitzek 1;11;05eko adina duenean gauzatzen du:

(56) *kotxean (1;11;05)*

Lehenago, NON kasuarekin eta tokiarekin zerikusi handia duten aditzon-doez eta galdetzaileaz jabetu da haur hau:

(57) *han (1;06;22); han t(r)ena; hemen a(r)gia (1;07;20); hau nun? (1;10;12)*

Gainera, 1;08;29ko adinaren inguruan, *-an* atzizkia duten hitz bi ere badarabiltza:

(58) *kotan; akolan (1;08;29)*

Halere, hitz hauen esanahia zeharo berezia da. *Kotan* hitzak kanpoan zentzua du. *Akolan* bere anaia dago, etxean ez dagoenean. Ez ditu beste inguruetan erabiltzen.

Gure ustez, hitz hauetaz lexikoki jabetu da haur hau. Ez dute ohizko esanahirik eta inguruak eraginda darabiltzala esan daiteke. Eritzi honen alde une berreko adibide hau dugu (haurra eta mintzaidea ipuin bat begiratzen ari dira eta mintzaidearen arabera, badakigu ipuineko umea *-Amane*, Oitzen berbetan-, ez dagoela *kortan*, ipuineko marrazkian ez dela agertzen baino):

(59) *Mintzaidea: Amane?*

Oitz; Kotan (1;08;29)

Mintzaidea: Bai, etxien, bere etxien egongo da

Beste horrenbeste esan daiteke adibide honi buruz, mintzaideak bere anaia non dagoen itauntzean:

(60) *Mintzaidea: Nun ete da(gu) Jurgi?*

Oitz: kortan (1;08;29)

Adibide hauek, beraz, orain arteko erabilera lexikoaren aldeko frogak dira. NON kasu-markaren erabilera ekoizkorra, ostera, 1;11;05eko adinaz hasten dela ikusi dugu (ikus 56 adibidea). Baina une honetan adibide bakarra baino ez dugu aurkitu. Gainera, geroago ikusiko dugunez, grabaketa berean NORA kasu-markaren erabilera ez-zuzena ere gauzatzen du. Guzti horregatik seguruago egiten zaigu 2;00;05eko adinaz jabetu dela esatea. Hona hemen une honetatik aurrera ekoizten dituen zenbait adibide:

(61) *hori niri Ju(r)gi buruen ekar(r)i; hori eskuan (2;00;05); etxian; kanpuen; ez, t(r)atoran hori; bakar(r)i(k) etxian; hor atzian (2;00;26); aitite han beheien; zapatan min (2;01;19); holan, holan buruan; buruen txapela; itsasuen kamarue (2;02;00); gainien hauxe da(g)u (2;05;05)*

Bestalde, inesibo-pluralaren erabilera ere agertzen zaigu:

(62) *hemen, barraketan (2;08;13); baina gazteluetan bai (2;09;00); ibiltzen barraketan; gure eskilaretan? (2;10;12); ta gero tripetan e(g)ingo dotzet(diot) (3;05;27)*

Inesibo-mugagabearen erabilera ere singularraren ostean aurkitu dugu:

(63) *uretan ibiltzeko (2;06;25); hemen da(g)uz uretan danak (3;02;04); egitan, aita; egitan erosi holakue (3;03;25); guzurretan; baina guzurretan, guzurretan; askotan (3;05;27)*

Halere, mugagabe-multzoko hainbat adibide baliteke ZERTAN kasudunak izatea (*gezurretan, egi(a)tan*), edo berauen erabilera egitura honen bidez bereganatu dituela pentsatzea, behintzat.

Baina inesibotzat hartzen dugun marka hau, haur honek tokiaz gain, denbora adierazteko ere badela ikasi du. Hona hemen erabilera hau baieztatzen duten adibide batzuk:

(64) *itxi piskaten tena; itxi piskaten Mikel; Mikel itxi piskaten hori ze nik ez dekot eta (2;05;05); zazpiretan etorri naizela gaur; zazpiretan etorri naizela; ... eta e e zazpiretan etorri naizela esan (2;05;21); egun baten bai (2;06;25); zu juen zara goizien istitutura ta ... (2;09;00); denbora guztien (2;10;12)*

Denbora adierazteko tokia adierazteko baino beranduago badarabil ere, ZERTAN egitura eraikitzeko oso goiz ikus dezakegu haur honen ekoizpenean. Era guztietan, bildu ditugun halako adibideak apur batzuk baino ez dira izan:

(65) *zu ze(r)tan?; dantzan ez! (2;00;05); martxan; ... gizon batzukin berbetan (2;11;12); hor(r)ekin ohiek ein bi(bihar) doguz(ditugu) ze barkuen lotan doiez; baina egon bi(bihar) ziren lotan, eta ... (3;06;24)*

Alabaina, funtzio honegaz marka hau sarriagotan darabil aditzei erantsia:

(66) *etxiek e(g)iten (2;04;11); hanka, hankie topetan (2;05;21); ba patatak erosten (zetan doi Durangora? galderari erantzunez); ni ibili naz telebista ikusten; badabiz jaten (2;06;25); ze Andoni da(gu) grabetan (3;02;04)*

3.13. Adlatiboa edo nora kasua

Tokia adierazten duen NORA kasu-markaren lehen erabilera oso goiz ikus dezakegu hitz baten:

(67) *akolala (1;07;20) (1;08;29)*

Baina NON kasu-markagaz gertatu den legez, hitz honek esanahi hertsia du, bere anaia nora joan den adierazteko, baina ez baitarabil. Gure ustez, bada, leixiki bereganatu du hitz hau ere.

NORA adierazten duten aditzondoak 1;11;05eko adinaz aurkitu ditugu:

(68) *ni hara; ba horra (1;11;05)*

Halere, une honetan nabarmena da oraindik haurra ez dela jabetu egitura honetaz. Hona hemen erabilera ez-zuzenaren adibide bi:

(69) *Mintzaidea: Zuk zer uste dozu dala?*

Oitz: Tonbolara

Mintzaidea: Tonbolakue?

(70) *Mintzaidea: Baina zertarako horrenbeste gauza?*

Oitz: Eskolara

NORA kasu-markaren erabilera ekoizkorra, gure ustez behinik behin, 2;00;05eko adinetik aurrera ikus daiteke. Hona hemen zenbait adibide:

(71) *ale bar(r)ural; nora? (2;00;05); eskolara (2;00;26); bar(r)ura; ba Bilbora; hara behera; hori karretilara bota; gu hara behera juen; gu apapara juen (2;01;19); kortara due; garajera nue (2;05;05); Tximino Gorri juen zan azokara ta ... (2;07;05)*

Pluralaz ere aurkitu dugu marka hau:

(72) *Jurgirekin barraketara (2;10;12)*

Bada mugagabearen erabilera ere. Alde batetik, ohizkotzat har dezakegun uretara hitza agertzen zaigu mugagabez. Bestetik, zertara jolastu adierazteko darabil:

(73) *uretara punba (2;02;00); nik telefonotara; zuk honekin honetara ez do-
zula jolasten? (2;10;29); isil-isilik gordetara; jolastuko dogu gordetara?; jolastuko
dogu medikutara? (3;03;00); jolastuko dogu komunetara?; badakit zertara, gauza
batzutara (3;03;25); eta uretara botatzen (3;06;24)*

Baliteke, beraz, zertara jolastu egiturari dagozkion ekoizpenak ZERTARA balizko kasuaren bidez bereganatuak izatea.

3.14. Bizidunen adlatiboa edo norengana kasua

Gramatika-testuetan NORENGANA kasua bizidunekaz erabiltzen den NORA kasuaren aldaeratzat hartzen bada ere, guk berezita aurkeztea erabaki dugu.

Arakatu dugun korpusean bizidunekiko erabilera hau bizigabeekikoa baino beranduago aurkitu dugu (ikus 5. taula). Halere, Oitz haurrak egoki darabil bizidunen marka hau, hasiera-hasieratik bizidunekaz eta bizidunekaz baino ez baitarabil:

(74) *niregana (2;05;05); eta gero Gorkanera juen bi(behar) da, Gorkagana (2;05;21); doie zuregana; badator zuregana (2;06;25); ta jueten naz zuregana eta zuk lagundu e(g)iten doztezu(didazu); baina ni etorri naz zuregana ta ... (2;07;05); juen da bere lagunarengana (2;08;13)*

Nolanahi ere, aurkitu dugu adibide ulergaitz bat ere:

(75) *eta norantza sartzen ziren mutikuek?, tripagana (2;09;00)*

Biziduen adlatibo-pluralaren jabekuntza ere baieztatu dezakegu:

(76) *zergatik jueten da katugan-katuengana (2;06;25); lehoiengana jueten bazara, ... (3;02;10)*

Guk arakatu ahal izan dugun korpusean, NORENGANA da haur honek tokia adierazteko darabilen bizidunentzako kasu berezi bakarra. Halere, egitura honetaz sarritan baliatzen dela baieztatu dezakegu. Laburbildurik, beraren jabekuntza 2;05eko adinaz erdietsia du.

3.15. Ablatiboa edo nondik kasua

Galdetzailea eta aditzondoak, tokia adierazten duten beste hainbat kasutan bezalaxe (NON, NORA), lehenak dira agertzen:

(77) *Ju(r)gi hemendi; nundi? (2;00;05); bakar(r)i(k) horti (2;00;26)*

Ondoren, ablatiboaren kasu-markaren erabilera ekoizkorra ikus dezakegu:

(78) *lehen soloti; ba ordun, ni bakar(r)i(k) bajatu eskilarati (2;01;19); ni zubitik, ni teilaturik; ta o(ra)in zubitik; ez, baina hemen kaminotik; leihotik; ni zulo-zulotik (2;04;11); ta o(ra)in trena alde batetik bestera pasa(t)uko da (2;10;12)*

Pluralaren erabilera ere agertzen zaigu korpusean:

(79) *ni jueten naz hona eskileretatik eta ... (2;07;05)*

Denbora adierazteko, aitzitik, ez dugu ikusi, guk aztertu dugun korpusean behintzat, atzizki honen erabilerarik.

3.16. Hurbiltze adlatiboa edo norantz kasua

NORANTZ kasu-markaren jabekuntza ere badakusagu Oitzen garabidean. Kasu-marka hau haur honek forma ezberdinez darabil: *-rutz*, *-rantza*, *-runtz*, hain zuzen ere. Hona hemen zenbait adibide:

(80) *hau norutz? (2;01;19); kortarutz (2;05;05); baina zu juen horrutza-txua(g)u!; juen horrutzatxua(g)u!; ni banoie horrantza (2;07;05); ... eta esaten do-tzie(diete) hankie goruntz; behiek jueteko honuntz; ez, dendaruntz (3;04;22); harutz; hau horruntza(g)u eruen bi(begar) dot (3;05;27)*

Hurbiltze adlatiboaren jabekuntza, bada, 2;5;05eko adina duen arte ezin dugu baietsi (ikus 5. taula).

3.17. Adlatibo destinatiboa edo noraino kasua

NORAINO kasu-marka ere ikus daiteke grabaketetan zehar. Edozelan ere, beluago aurkitu dugu marka honen gauzapena. Hona hemen adibide apurrak:

(81) *zeruraino (2;09;00); honaino ailegatzen dana (2;11;12); honaino baino ez (3;03;25); ez da ailegatzen hor(r)aino; zu juen hor(r)aino (3;05;27)*

3.18. Beste zenbait kasu

Ondorengo kasu-markak, gutxiagotan agertzen zaizkigulako, edo gramatika-testuetan beraien kasutasuna hain argi nabarmentzen ez delako, azpi-atal honetan bilduko ditugu. Bestalde, Oitzek kasu hauek gutxitan darabiltza.

3.18.1. NOIZKO kasua

Denbora adierazteko batzutan *-ko* atzizkia ere erabiltzen da euskaraz. Hona hemen haur honek halako marka darabilen adibide bi, guk aurkitu ditugun barrak, alegia:

(82) *jan biharko! (2;06;24); ze bestelan, biharko (3;02;04)*

3.18.2. *ZERTARA kasua*

Lehenago ikusi dugu erabilera hau, NORA kasuaren mugagabea aurkeztean, alegia. Oitzek *zertara jolastu* egitura ekoiztean darabil kasu-marka hau (ikus 73 adibide-multzoa).

3.18.3. *ZERTARAKO kasua*

Adlatibo destinatiboa edo ZERTARAKO/NORAKO kasu-markaren erabilera ere badakusagu korpusean. Hona hemen aurkitu dugun adibide bakarra:

(83) *hau e(g)in bi(bihar) dot gauza batetarako* (3;03;25)

3.18.4. *ZELAN kasua*

Ez da ohizkoa izaten ZELAN kasu-zerrendetan aurkitzea. Era guztietan, gure ustez behintzat, Oitzek oso goiz darabiltza egitura honetako aditzondoak:

(84) *holan ez!* (2;00;05); *holan punba* (2;01;19)

Baina *-an* markaz ekoitziriko adibideren batzuk ere baditugu. Hona hemen:

(85) *hegeran doie* (2;07;05); *holan jueten da, arineketa baten; holan arineketa baten* (2;08;13); *danborrarijen moduen* (2;10;12); *ez, igerian* (3;00;10)

3.19. *Birdeklinaketa*

Birdeklinaketaz, gure lan honetan, ohizko deklinabide-kasuei *-ko* atzizkia erantsirik gauzatzen diren eraiketez gain, genitiboei beste edozein kasu-marka atxikirik gauzaturiko egiturez arituko gara. Edozelan ere, gogoan izan NORENA eta NONGO birdeklinaketak lehenago ikusi ditugula.

3.19.1. *NONGO kasuaren birdeklinaketa*

Hona hemen NONGO kasuari inesiboaren marka gehituz Oitzek darabilen zenbait adibide, singularrean zein pluralean:

(86) *holakuen ibili naz?*; *Andoni, holakueta Larraitzekin ibili nintzen, holakueta* (2;08;13); *hurrengokuen bai* (2;10;12)

Baina ez da inesibo-marka NONGO kasuari eransten dion bakarra, ergatibo-marka ere horrela baitarabil:

(87) *niri hori esan dozten(zidan) nire lagun batek, ikastolakuek* (2;11;12)

3.19.2. *NOREN kasuaren birdeklinaketa*

NORENGANA kasuaren baliokidetzat jo dezakegun egitura honen bidez, ablatibotasuna eransten dio haur honek bizidunei NORENERA markaz. Hona hemen, NOREN kasu-markari *-(re)n* haurraren hizkeran) ablatibo-markaren *-(e)ra* eransketa gauzatzen duela erakusten duten adibideak:

(88) *eta gero Gorkanera juen bi(bihar) da, Gorkagana; Gorka medikue da, ez dozu nahi medikuenera juetie ala?* (2;06;05)

Adibide hauetan argi geratzen da haurrak *-arenera* eta *-a(ren)gana* atzizkiak baliokidetzat hartzen dituela.

Korpusean bada inesibo-marka erantsiriko adibiderik ere, hots NORENEAN kasu-marka:

(89) *gurean* (2;10;12)

3.19.3. *ZEREZ kasuaren birdeklinaketa*

Ohizkoa den legez, instrumentalari *-ko* marka erantsi eta deklinatu egiten du haur honek. Sarritan darabil ZEREZKOA egitura. Hona hemen zenbait adibide:

(90) *ekarri ha, kartoizkue, eurie da ta* (2;05;05); *baina hemen zurezko bat sartuta* (2;10;29); *plastikozkuek; zaldizkuek hor egoten diez?* (3;01;12); *ez diez karamelozkuek* (3;01;28); *otso haundi bat ba papelezkue; papelezkue, ez benetazkue, pinturazkue* (3;02;04); *bai, txokolatzekuek* (3;06;24)

3.19.4. *NORANTZ kasuaren birdeklinaketa*

NORANTZ kasu-marka gutxitan ikusi ahal izan dugun arren, bada ekoizpe-nean tokia adierazten duen marka honi *-ko* atzizkia erantsi eta deklinaturiko adibidea, pluralaz gainera:

(91) *honek(hauek) diez gorunzkuek* (2;11;12)

3.19.5. *NORENTZAT kasuaren birdeklinaketa*

Hona hemen NORENTZAT kasu-marka singularrari zein pluralari erantsitako *-ko* atzizki birdeklinatuaren adibideak:

(92) *nik zelan e(g)in bi(bihar) doten honentzako hegue; zelan e(g)iten da hegue, heguek, hegazkinentzako?* (2;11;12)

Ondoko taulan birdeklinaketaren ekoizpen-kopuruak adinaren arabera tajaturik ikus ditzakegu (kontuan izan NORENA eta NONGOA egituren datuak 3. taulan aurkeztu ditugula):

6. TAULA

BIRDEKLINAKETAREN EKOIZPEN-KOPURUAK ADINAREN ARABERA

NONGOAN		NONGOAK		—	—
2;08;13	5	2;11;12	1	—	—
2;10;12	1	—	—	—	—
NORENERA		NORENEAN		—	—
2;06;05	1	2;10;12	1	—	—
ZEREZKOA		NORANZKOA		NORENTZAKO	
2;05;05	1	2;11;12	1	2;11;12	1
2;10;29	1				
3;01;12	2	—	—	—	—
3;01;28	1	—	—	—	—
3;02;04	4	—	—	—	—
3;06;24	1	—	—	—	—

Birdeklinaketaren jabekuntzaz hitzegitean 6. taulako datuez gain 3. taulako NORENA eta NONGOAK egituren datuak ere gogoan euki behar ditugu. Orohar, fenomeno honetaz jabetu dela esan daiteke. Kontuan izan behar dugu halako egituren erabilera helduen hizkuntzan ere oso bakana dela eta arrazoi horri dagokioke haur honek ere adibide gutxi ekoiztea.

3.20. Postposizioaren jabekuntza

Postposizioaren jabekuntza aurkeztean, fenomeno hau zentzu zabalean hartu dugula esan behar dugu. Alabaina, multzo handi bitan bereiziko dugu.

Alde batetik, gure hizkuntzan izentzat ere darabiltzagun hainbat hitz bereziren postposizio-erabileraren jabekuntza arakatuko dugu. Hauetakoak dira, adibidez, *gain*, *ondo*, *azpi*, eta abar hitzak.

Bestetik, orohar, postposizioan bakarrik erabiltzen diren partikulen jabekuntza aztertuko dugu. Halakoak dira, adibidez, *barik*, *moduan/modura*, *arte* eta abar partikulak.

Lehenengo postposizio-partikulen jabekuntza erakutsiko dugu. Amaieran, postposizioan erabil daitezkeen hitzena.

3.20.1. *MODU partikularen postposizio-erabilera*

Modu partikula da aurkitu dugun lehena. Sarritan darabil haur honek postposizio-bide hau. Hona hemen zenbait adibide:

(93) *aititen moduan* (2;01;19); *beste bat jausi da Mikelen modue(n)* (2;04;24); *aitatxon modokue* (2;05;21); *astuen modokue* (2;06;05); *hau horren modokue da?* (2;09;00); *danborrariaren moduen* (2;10;12); *Jurgik dekon modokue*; *nik honen modokue badekot* (2;10;29); *kokakolaren modokuek* (3;01;28); *nire moduen ez dekozuz*; *Andoni, ipini asto moduen* (3;03;00)

Partikula honen aurreko hitzak, arauak hala eskatuz, genitiboaren marka hartzen du Oitzen erabileran. Halere, behin, genitibo-markarik ez du gauzatu (ikus azken adibidea). Gure ustez, ez gauzatze honek zerikusi handia du *bezala* hitzaren eta bere erabileraren jabekuntzaz, jakina baita azken honek ez duela genitibo-markarik eskatzen.

Bestalde, *modu* partikulak *moduan* eta *modukoa* formak hartzen ditu haur honen ekoizpenean, guk bildu ditugun adibideetan behinik behin.

3.20.2. *BEZALA partikularen postposizio-erabilera*

Hitz hau beluago hasten da ekoizten, gutxitan erabiltzen badu ere. Hona hemen bildu ditugun adibide guztiak:

(94) *gurie gure bezelakue* (2;07;05); *hemen bezela*; *o(ra)in bezela* (2;11;12); *honen bezelakuek* (3;01;12); *antzera bezela e(g)ingo dotzut(dizut)* (3;02;10)

Badirudi haurrak arazoak dituela *bezela* hitzaren erabileran, aurreko sintagmari, sarritan, *modu* formarekin egiten duen *bezala*, genitiboaren marka eransten baitio. Honez gain, ez da bat ere gardena *antzera bezela* ekoizpena. Baliteke haurra *antzera* formaren erabileraren atarian egotea.

Bestalde, *bezala* hitza, *bezalakoa* itxuraz ere ekoizten du.

3.20.3. *BARIK partikularen postposizio-erabilera*

Gabe partikularen ordezeko honegaz aurreko sintagma mugatu gabe agertzen zaigu beti Oitzen korpusean:

(95) *teilatu barik* (2;04;11); *ta ni etxe barik geratu*; *eta ni eta ni eta ni etxe barik* (2;05;21)

Aditzen ondoren ere ikus dezakegu partikula hau:

(96) *ni banue bultze barik* (2;04;24); *eta gero batu barik* (2;11;12); *bizirik dala hil barik* (3;06;24)

3.20.4. *ARTE partikularen postposizio-erabilera*

Guk arakatu dugun korpusean birritan aurkitu dugu partikula hau. Hona hemen berauek:

(97) *ni eskaba(d)ora artien (2;09;00); sartu dau(du) jolas artera (3;02;10)*

Ohizkoa den legez, aurreko sintagma inolako markarik gabe agertzen zaigu. *Arte* partikula, bestalde, *artean* eta *artera* itxuraz, hots, deklinaturik ekoizten du.

3.20.5. *BILA partikularen postposizio-erabilera*

Behin baino ez dugu ikusi partikula hau. Hona hemen:

(98) *ez, sendagilearen bila (3;04;22)*

Partikula honen erabilera, haur honen ekoizpenean, ohizkoa dela ikus dezakegu: aurreko sintagma genitiboaren markaz eta postposizioa bera inolako marka barik.

3.20.5. *ZEHAR partikularen postposizio-erabilera*

Behin *zehar* partikula ere agertzen zaigu arakaturiko korpusean. Hona hemen delako adibidea:

(99) *hortik zehar (3;03;25)*

Zehar partikularen aurreko hitza NONDIK kasu-markaz agertzen zaigu adibide honetan, agian haur honen inguruan erabilera hau NON kasu-markarena baino hedatuago dagoelako.

3.20.7. *IZENAK postposiziotzat*

Azpi-sail honetan, lehenago aurreratu dugun legez, izen autonomotzat erabili arren, postposiziotzat ere darabiltzagun formen ekoizpena erakutsiko dugu.

Baina postposizioaren erabileraz ihardun baino lehenago ohar bi egingo ditugu. Alde batetik, kontuan izan behar dugu sintagma burutzean haur honek sarritan darabilela, ohizkoa denez, inolako markarik gabe elkaturiko izen biren egitura:

(100) *be(g)itu, euri-hotsa ikusten da, be(g)itu, entzuten da! (2;05;05); hau da kanpin-dendie ta! (2;08;13); o(ra)in, kamiioi-saltzailie (2;10;29); hori da anbulantzikotxie; kotxe-gidaria (3;01;12); ez, hau da barku-kapitaina; kaka-kolorien modokuek (3;01;28); hemen da(g)uz ur-tantak (3;02;04); argazki-makinie (3;03;00)*

Bestetik, postposiziotzat darabiltzan formak hitz autonomotzat ere ikus ditzakegula Oitzen korpusean. Hona hemen zenbait adibide:

(101) *ta hau goian (2;04;11); be(g)itu beheien zer dekoten nik!; be(g)itu gainien hauxe da(g)u! (2;05;05); hau gainian (2;05;21); barruen deko janarie (2;06;25); o(ra)in gainetik; o(ra)in nik gainetik; hemen beheien (2;07;05); iguel beheien egongo diez (2;10;12)*

Jarraian postposiziotzat darabiltzan hitzen bidez eraikitako adibideak erakutsiko ditugu. Baina lehenengo, aurreko sintagmagaz inolako marka barik elkarturikoak (102 adibide-multzoa), eta ondoren, aurreko sintagmarekin genitibo-markaz lotuak (103 adibide-multzoa):

(102) *Arantza, ipiniko dot etxe gainien hori? (2;07;05); ni jausi naz ohe gainera (2;08;13); eruen etxe barrura! (2;10;12); Iratxeren bide bazterrien (2;11;12); hau txalupie be ur azpira eta ... (3;02;04); jausiko da soka gainetik; ur azpitik ibiltzen den barkue (3;04;22)*

(103) *Andoni(re)n onduan (2;04;11); eta ni bere atzien; nire gainera (2;05;21); ba honen onduan (2;06;25); bai, azeitunen gainetik; honen azpitik (3;00;10); beltza, honen onduen (3;01;28); nik badakizue noren gainien eiten doten uger? (3;03;00); eta honen gainien nahi dot ipintzie (3;03;25); ha ez zan egon harrien gainien, ha, trenbidien gainien (3;04;22);*

Laburbildurik, postposizio legez, korpusean zehar, *ondo (ondoan), barru (barrura), gain (gainera/gainean/gainetik), bazter (bazterrean), azpi (azpitik-azpira) eta atze (atzean)* ikusi ditugu.

4. LABURBILKETA ETA PROPOSAMENAK

Hasteko, 7. taulan, guk arakatu dugun korpusean Oitzek darabiltzan kasuak bilduko ditugu. Erabilera bakoitzaren alboan adinik goiztiarra ere adieraziko dugu. Adin goiztiarren hau jabekuntza-datari dagokio, beraz.

7. TAULA
KASU EZBERDINEN AGERRERA-UNEAK

GRAMATIKA-KASUAK		
Absolutua	NOR	2;00;05
Ergatiboa	NORK	2;00;05
Datiboa	NORI	2;00;05

GAINERANTZEKO KASUAK		
Partitiboa	ZERIK	2;05;05
Genitiboa	NOREN	2;00;05
Soziatiboa	NOREKIN	2;00;22
Soziatiboa	NOGAZ	2;00;22
Instrumentala	ZEREZ	2;08;13
Motibatiboa	ZERGATIK	2;05;05
Destinatiboa	NORENTZAT	2;06;05
Prolatiboa	NORTZAT	—
TOKI-KASUAK		
Leku-genitiboa	NONGO	2;03;09
Inesiboa	NON	1;11;05-2;00;05
	NOIZ	2;05;05
Adlatiboa	NORA	2;00;05
Bizidunen adlatiboa	NORENGANA	2;05;21
Hurbiltze adlatiboa	NORANTZ	2;05;21
Muga adlatiboa	NORAINO	2;09;00
Adlatibo destinatiboa	NORAKO/ZERTARAKO	3;03;25
Ablatiboa	NONDIK	2;01;19

Birdeklinaketaren datuak, ostera, 8. taulan bildu ditugu:

8. TAULA

BIRDEKLINAKETA EZBERDINEN AGERRERA-UNEAK

NORENA	1;11;05
NORENEAN	2;10;12
NONGO	2;02;00
NONGOAK	2;11;12
NONGOAN	2;08;13
NORENTZAKO	2;11;12
ZEREZKOA	2;05;05
NORENERA	2;06;05
NORANZKOA	2;11;12

Postposizioan darabiltzan hitzak zein partikulak, aitzitik, beranduxeago agertzen zaizkigu. Forma hauen agerrera-une ezberdinak 9. taulan ikus daitezke.

9. TAULA

POSTPOSIZIO-FORMEN AGERRERA-UNEAK

moduan (2;01;19)	modukoa (2;04;24)	
bezalakoa (2;04;24)	bezala (2;11;12)	
barik (2;04;11)	—	
artean (2;09;00)	artera (3;02;10)	
bila (3;04;22)	—	
zehir (3;03;25)	—	
gainera (2;05;21)	gainean (2;07;05)	gainetik (3;00;10)
bazterrean (2;11;12)	—	
ondoan (2;04;11)	—	
barrura (2;10;12)	—	
azpitik (3;00;10)	azpira (3;02;04)	

Proposamen-bilketari ekinez, hona hemen, guk arakatu ditugun datuen arabera, Oitzek gauzatzen dituen deklinabide-kasuen arloko jabekuntza-garapenaren ezaugarriak behinenak:

1. Orohar, 2;00-3;00ko adina bitartean deklinabide-kasu gehienez jabetu dela esan daiteke. Jabekuntza-garapena 2;00ko adinaz hasi duela erakutsi dugu, eta 3;00ko adina duenerako sarritan eta egoki darabiltza kasu-marka ezberdinak. Adinaren arabera zehaztasun handiagorako ikus 10. taulan Oitzek ekoizten dituen kasu-marka ezberdinak.

10. TAULA

DEKLINABIDE-KASU EZBERDINEN ERABILERA ADINAREN ARABERA

1;11;05: NON
2;00;05: NOR, NORK, NORI, NOREN, NORENA, NORA, ZERTAN
2;00;22: NOREKIN, NOGAZ
2;01;19: NONDIK
2;02;00: NONGOA
2;03;09: NONGO
2;05;05: PARTITIBOA, ZERGATIK, NOIZ, ZEREZKOA
2;05;21: NORENGANA, NORANTZ
2;06;05: NORENTZAT, NORENEA
2;06;24: NOIZKO
2;07;05: ZELAN
2;08;13: ZEREZ, NONGOAN
2;09;00: NORAINO
2;10;12: NORENEAN
2;10;29: ZERTARA
2;11;12: NORANZKOA, NORENTZAKO
3;03;25: ZERTARAKO

Kontuan hartzen badugu 1;11;05eko adinaz NON kasua behin baino ez due-la ekoizten eta une berean NORA kasuaren erabilera ez-zuzena erakusten duela, taula honen arabera argi geratzen da kasu-markarik oinarritzkoenak 2;00;05eko adinaz hasten dela ekoizten. Hori gertatzen da gramatika-kasu guztiekaz, geniti-boaz eta hainbat toki-kasuz. Halere, nabaria da hainbat kasu-markaren beluagoko agerrera, adibidez, PARTITIBOA (2;05;05), NORENGANA (2;05;21), NORENTZAT (2;06;05), NORAINO (2;09;00) edo ZERTARAKO (3;03;25) kasuak.

Bestalde, prolatiboa esateko, ez dugu ikusi aztertu dugun korpusean.

2. Garrantzitsua da, gure ustez, 1;05;19ko adinetik 1;11;05eko adinera bitartean ez duela inolako deklinabide-markarik erabiltzen, azken grabaketako NON kasuaz eraikitako adibide bakarra izan ezik. Baliteke jabekuntza-garapenean haurrek aldi auresintaktiko bat ezagutzea (10), hots, gramatika-ezaugarriak gabekoa. Nolanahi ere, nabaria da aldi honetan, deklinabide-markarik ez darabilela haur honek.

3. Kasu-markaren bat erabiltzen hasten denean, badirudi aldi baten ez due-la berau beti erabiltzen. Kasu-marka guztiekaz ez badugu fenomeno hau nabaritu, jokabide hau igartzea errezago den kasuekin horrela izan da. Horrelakorik NOR, NORK edo partitibo-kasuek aztertu dugu.

Gure ustez, Oitz haurrak egitura berriren bat ikastean, berau beti erabili beharrean, lantzean behin, aurretik zerabiltzan egitura ere erabiltzen jarraitzen du. Ondoren, egitura berria nagusitu egiten da, eta berau baino ez darabilela esan daiteke.

Jokabide hau, deklinabide-kasuen jabekuntzan ez ezik, beste kategorien jabekuntzan ere ikus daiteke (ikus Barreña (1993a edo 1994c)), eta jabekuntza-maiakatuaren ondorioa dela uste dugu.

4. Nolabait behintzat, haurra gramatika-hatsarreez jabetu dela ere esan dezakegu uste dugu. Gogoan izan dezagun haur honek burutzen duen jokabidea NOR, NORK eta NORI kasu-marken erabilera-nahasia edo okerra zuzentzeko (ikus 16 adibide-multzoa).

Gure ustez, hiru urte egin aurretik, haurrak gramatika-hatsarreez jabetzen dira, edo jabetzen hasten dira behinik behin. Jabekuntza honek bideratuko du haurren ekoizpena. Edozelan ere, ez dugu uste jabekuntza hau kontzientea denik, baina badela bai.

5. Birdeklinaketaren hatsarreak ere 3;00ko adina izan aurretik darabiltzala Oitzek. Beharbada, haurrak ez ditu birdeklinaketa-aukera guztiak, baina bai oinarritzkoenak. Bere ahalmenaren arabera gai da genitibo biak birdeklinatzeko zein toki-kasu ezberdinei eta instrumentalari *-ko* atzizki birdeklinagarria eransteko.

6. Postposizioaren fenomenoaren hatsarreak ere jabetu dela esango genuke, hainbat formaren erabilera egokia ikusi ahal izan baitugu. Nolanahi ere, arlo

(10) Hau guztiau zehatzago aztertu ahal izateko, ikus Barrena (1994b). Bertan haur elebakar honen eta beste elebidun biren aldi auresintaktikoaz dihardu.

honetako adibideak urriagoak izan dira, baina agian gauza bera gertatzen da ohizko hizkuntzan.

7. Euskal gramatikan, toki-kasuak gauzatzean, bizidunen eta bizigabeen artean egiten den berezketa ere 3;00ko adina izan aurretik bereganatu duela baieztatzeko. Bildu ditugun adibide guztiak kasu bakarrari dagozkion arren, NO-RENGANA kasuari hain zuzen, sarritan eta hagitx egoki darabil egitura hau:

Beste bizidun kasu bereziren erabilerarik aurkitu ez dugun arren, hatsarrez jabetu dela esan dezakegu. Gainera, halako beste markarik ez aurkitzea, behar bada, eskatzen duten inguru berezi-bereziagatik izan daiteke, edo Oitzen korpusa biltzeko erabili den metodologiagatik.

8. Numeroari dagozkionez, singularra eta plurala errez berezten dituela, eta ia hasiera-hasieratik, gainera. Halere, zaila izaten da hainbat kasuren plurala eskatzen duten inguruak aurkitzea.

9. Mugagabeaz ere jabetu dela ikusi dugu. Nolanahi ere, mugagabearen jabe-kuntza beranduago gauzatu du: 2;05eko adinaren inguruan alegia. Une honetan ikus ditzakegu lehen NOR mugagabeak edo partitibo-markak. Agian instrumentalaren agerrera berandutxoagoren arrazoia ere mugagabearen jabe-kuntza belutxoagoan egon daiteke.

NOR mugagabea, *zein*, *zenbat* edo zenbakiekin ekoizten du. Partitiboa ezezko inguruetan. Alabaina, badira beste kasu batzuen mugagabeak: NONGOA (ikus 37 adibidea), ZEREZ, ...

10. Hurbilaren erabilera ere aurkitu dugula. Halere, hiru kasu ezberdinetako adibideak aurkitu ditugun arren, *bi* hitza izan da haurrak hurbilaren markaz erabili duen bakarra. Zalantzarik egiten zaigu, beraz, fenomeno honen jabe-kuntza baiestea.

Kontuan izan behar dugu ezaugarri hau bizkaieraz sarritan erabiltzen den arren, inguru oso bereziak eskatzen dituela.

11. Jabe-kuntza-mailakatuari dagozkion zailtasunez (11) gain (ikus proposamenetako 3.a), ez dugula beste zailtasun garrantzitsurik ikusi. Esan nahi duguna zera da: ez ditugula oinarritzko akatsak edo desegokitasunak ikusi. Horrela, haur honek hasiera-hasieratik berezi ditu genitibo bien arloak eta zereginak, tokia adierazteko darabiltzagan kasu-marka ezberdinak, bizidunen eta bizigabeen artean egiten den berezketa, eta abar.

BIBLIOGRAFIA

BARREÑA, A. (1993): *Haur euskaldunen hizkuntzaren jabe-kuntza-garapena: INFL eta KONP funtzio-kategorien erabileraz*. Euskal Herriko Unibertsitatea, Gasteiz: doktorego-tesia.

(11) Egokiago deritzogu ondorioez hitzegitea, eta ez zailtasunez. Kontuan izan gara-bide zehatz baten ondorio gertatzen direla direlako balizko zailtasunak.

- BARREÑA, A. (1994a): "Sobre la adquisición de la categoría funcional COMP por niños vascos". J. Meisel argitaratzaile: *La adquisición del vasco y del español en niños bilingües*. Vervuet/Iberoamericana: Frankfurt/Main, 231-284.
- BARREÑA, A. (1994b, agertzeko): "Haur euskaldunen hasierako hizkuntzaren zenbait berezitasun". M. Etxebarria, I. Idiazabal eta J. Tynan argitaratzaile: *Lingüística Aplicada a la Enseñanza de las Lenguas*. Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen-zerbitzua: Donostia.
- BARREÑA, A. (1994c, agertzeko): *Gramatikaren jabekuntza-garapena eta haur euskaldunak*.
- BARREÑA, A. (1994d): "Aditz-denboraren erabilera goiztiarra haur euskaldun elebakar batengan". *ZUTABE* 35. HABE: Donostia.
- BICKERTON, D. (1990): "Syntactic development: the brain just does it". University of Hawai'i at Manoa: eskuizkribua.
- BROWN, R. (1976): *A first language. The early stages*. Harvard University Press: Cambridge.
- EUSKALTZAINDIA (1987): *Euskal Gramatika Lehen urratsak*. Euskaltzaindia: Iruñea.
- EZEIZABARRENA, M.J. (1991): "Ezeztapenerako formen bilakaera bi haur elebidunen eta elebakar baten hizkuntz jabekuntzan". I. Idiazabal argitaratzaile: *Hizkuntz jabekuntza haur elebidun eta elebakarretan / Adquisición del lenguaje en niños monolingües y bilingües*. Euskal Herriko Unibertsitateko argitalpen zerbitzua: Donostia. 183-195.
- EZEIZABARRENA, M. J. (1994): "La concordancia con el Sujeto en euskera: formas verbales de simple, doble y triple concordancia". J. Meisel argitaratzaile: *La adquisición del vasco y del español en niños bilingües*. Vervuet/Iberoamericana: Frankfurt/Main, 181-229.
- HUALDE, J. I. (1988): "Case assignment in Basque". *ASJU* 22, 313-330.
- IDIAZABAL, I. (1991a): "Haur txikien hizkuntz heldutasuna neurtzeko baliapide bat: esaldien batatz besteko luzeera" (EBBL) edo "MLU". J. A. Lakarra argitaratzaile: *Memoriae L. Mitxelena Magistri Sacrum*. Gipuzkoako Foru Aldundia - ASJU Gehigarria, 1289-1295.
- IDIAZABAL, I. (1991b): "Izen Sintagmaren Determinante-artikulua eta bere jabekuntza. Lehengo emaiak euskaraz eta erdaraz". I. Idiazabal argitaratzaile: *Hizkuntz jabekuntza haur elebidun eta elebakarretan / Adquisición del lenguaje en niños monolingües y bilingües*. Euskal Herriko Unibertsitateko argitalpen zerbitzua: Donostia. 169-181.
- IDIAZABAL, I. (ed.) (1991c): *Hizkuntz jabekuntza haur elebidun eta elebakarretan / Adquisición del lenguaje en niños monolingües y bilingües*. Euskal Herriko Unibertsitateko argitalpen zerbitzua: Donostia.
- IDIAZABAL, I. (1994): "Elementos de cohesión y conexión en las primeras fases de la adquisición del lenguaje: Análisis de la producción verbal de un

- niño vasco-hispanófono". J. Meisel argitaratzaile: *La adquisición del vasco y del español en niños bilingües*. Vervuet/Iberoamericana: Frankfurt/Main, 35-68.
- LAFITTE, P. (1979): *Grammaire Basque (Navarro-Labourdin littéraire)*. Elkar: Donostia.
- LARRAÑAGA, M. P. (1994): "La evolución del caso en euskera y castellano". J. Meisel argitaratzaile: *La adquisición del vasco y del español en niños bilingües*. Vervuet/Iberoamericana: Frankfurt/Main, 113-150.
- MAHLAU, A. (1994): "Orden de palabras y estructura oracional en los niños bilingües". J. Meiser argitaratzaile: *La adquisición del vasco y del español en niños bilingües*. Vervuet/Iberoamericana: Frankfurt/Main, 69-111.
- MEISEL, J. (1986): "Word order and case marking in early child language. Evidence from simultaneous acquisition of two first languages: French and German". *Linguistics* 24, 123-183.
- MEISEL, J. (1994a): "La adquisición de la negación en euskera y español. Sobre la separación temprana de sistemas gramaticales por niños bilingües". J. Meisel argitaratzaile: *La adquisición del vasco y del español en niños bilingües*. Vervuet/Iberoamericana: Frankfurt/Main, 151-180.
- MEISEL, J. & EZEIZABARRENA, M. (1994b): "Subject-verb and object-verb agreement in early basque". Eskuizkribua: Universität Hamburg.
- OYHARÇABAL, B. (1992): "Structural case and inherent case marking: ergacusativity in Basque". J. Lakarra & J. Ortiz de Urbina argitaratzaileak: "Syntactic Theory and Basque Syntax". ASJU gehigarriak 27, 309-342.
- OUHALLA, J. (1992): "Functional Categories, Agrammatism and Language Acquisition". *Linguistische Berichte* 143, 3-36.
- PARODI, T. (1989): "The acquisition of word order regularities and case morphology". J. Meisel argitaratzaile: *Two First Languages: Early Grammatical Development in Bilingual Children*. Foris: Dordrecht.

COMMENTAIRE CRITIQUE SUR LES 'MATERIALES PARA UN
DICCIONARIO ETIMOLOGICO DE LA LENGUA VASCA',
ASJU XXIII-2, 1989 (Astama-Bahakatu, pp. 463-532)

1994.09.21

Michel Morvan
URA 1055 du CNRS

P. 463

Astamadari 'peral silvestre'. De *asta-* y *madari*, según señala Campión, *EE*11, 198. Astamats (*ms*, Lond.) 'nueza blanca, uva silvestre o briona'. De *asta-* y *mats*, según Campión, l.c.

Les étymologies présentées sont exactes, mais il n'y a aucune raison de donner la forme en composition *asta-* pour le premier élément du composé qui est *asto* "âne" utilisé au sens de "sauvage" comme d'autres termes tels que *larre* ou *otso*.

P. 464

Astaran 'ciruelo silvestre'. De *asta-* y *aran*²: ya en Campión *EE* 11, 198.

Astatipula L 'cebolla albarrana'. De *asta-* y *tipula*.

Astaza AN 'lampsana, berza silvestre'. De *asta-* y *aza*, como ya señaló Campión.

Même remarque que pour les termes de la p. 463. Donner *asto* et non *asta-*.

Astazaia G, BN, astazain V 'pastor de burros'. De *asto* y *-zai(n)* (de *artzain*).

Pourquoi donc "de *artzain*"? Les auteurs ont-ils voulu dire "d'après le modèle de *artzain*"? D'autre part, *-zain* doit-il vraiment être présenté comme un suffixe?

P. 466

Aste(o)ro ‘cada semana’ (‘semanalmente’). Es menos claro *asteoro* salac. Tovar opina que el adverbial *-ro* es forma reducida de *oro/oso*.

On ne voit pas en quoi la forme *asteoro* est moins claire (??). Elle paraît au contraire évidente: “toutes les semaines” = “chaque semaine”.

Asteria R ‘sarna’, hasteria L ‘cierta enfermedad del ganado’. Para Azkue está claro, y puede muy bien tener razón, que es un compuesto de *ats*¹ y *eri* ‘enfermedad’. Corominas se pregunta si es ‘enfermedad pestilencial’.

L’explication à partir de *ats* “respiration, haleine, odeur, etc.” comme premier élément du composé est peut-être intéressante, mais ne me paraît pas assurée. La gale est une maladie de la peau qui provoque de fortes démangeaisons et pousse les animaux à se gratter. Certes Azkue donne *ats* “démangeaison” comme neuvième acception dans son dictionnaire (dialecte labourdin), mais on ne perçoit pas bien le rapport sémantique avec *ats* “souffle, etc.”. Il me semble donc préférable de chercher du côté du sens “démangeaison” ou “se gratter”, à partir d’une base étymologique **(h)ast-* ou bien de faire le détour par *atsegale* (L) “prurit”. Quitte à proposer une métathèse *(h)ats* > *(h)ast*, pourquoi ne pas évoquer aussi *hatz/hazt-* (*hatzegin* “se gratter, donner des démangeaisons”). La mobilité des sifflantes étant par ailleurs monnaie courante en basque, l’alternance *z/s* ne poserait pas de réel problème. Du reste, sous l’entrée *hasteria* (L) “maladie du bétail à cornes”, P. Lhande indique p. 149 de son dictionnaire une variante *hazteria* et nous retrouvons à la p. 424 *hazgale* “démangeaison” (BN ald.) qui semble confirmer que *ats(e)gale* (L) “prurit” (cf. aussi *hazdura* “id.”) se trouve peut-être rangé à tort avec *atsegale* (S, Inch.) “voluptueux” et avec l’idée de “plaisir” (p. 85, *atsegin*, etc.). Cela ne veut pas dire qu’il n’y a aucun lien entre les deux, le fait de se gratter pouvant procurer précisément un certain plaisir.

P. 467

Hastia-, var. de hastio- (en composición) ‘repugnancia, nausea’. Lh. compara bearn. *hasti*.

Les formes en composition n’ont pas leur place en entrée d’un dictionnaire étymologique, sauf si le terme de base n’est pas connu ou attesté (racine, etc.).

P. 474

Atanda S ‘situación, posición, dirección’, (Lh) “parcours proche de la maison”.

Derivado de *atan*¹ en su acepción de ‘en aquello’ (cosa no clara para Corominas).

Es interesante comprobar que la forma es antigua, pues este derivado corresponde a la forma primitiva en V. Corominas sugiere, con duda, cast. *tanda*.

Il me semble que tout ceci reste flou. En fait *atan*² ‘portal, atrio’ (de ate “porte”) conviendrait aussi bien que *atan*¹.

P. 475

Atariko V ‘de aquella especie’, ‘aguardiente que se toma por la mañana, matarratas’ (vulg.). A caso en relación con *atarik* del que sería como una forma substantivada; la segunda acepción es con seguridad un eufemismo.

La seconde acception pourrait aussi bien provenir de *atari* “portail, porche” et du suffixe *-ko* avec le sens de “verre que l’on boit le matin sur le pas de la porte avant de partir” par exemple. Pas de solution définitive par conséquent.

P. 476

Atarte V, atharta (Duv.) ‘portal, vestibulo’. Cf. *atarbe* (*atarpe*). De *ate* con el suf. *-arte*? Mejor quizá, como apunta Corominas, de *atari*.

Je ne vois pas bien en quoi la première solution n’est pas satisfaisante. L’analyse *ate-arte* me paraît bonne, même si l’on peut effectivement envisager une haplogogie *atar(i)-arte* > *atarte*.

P. 477

Ate V, G, AN, athe BN ‘puerta’, V, G, AN, L ‘fuera’.

Dans la série des étymologies recherchées hors du basque, ce qui est possible puisqu’il s’agit d’un terme du vieux fonds autochtone, il

convient d'ajouter l'ouralien **ηVte* "porte", l'initiale **η*- étant une prothèse (cf. A. sauvageot, *Recherches sur le vocabulaire des langues ouralo-altaïques*, Paris, 1930, 77).

P. 480

Atondu V 'disponer(se), arreglar(se)'. Se trata de una forma sin dipthongar aún del esp. *atuendo*, del lat. *attonitus*, documentado ya en lat. med. de la Península con la significación de 'fausto, pompa, aparato' o diversos utensilios, ajuar, etc. (Corominas 1, 327 s.). Cf. port. *atondo*.

Si la forme basque est *atondu*, et s'il s'agit d'une "forme non encore diphtonguée de l'espagnol *atuendo*", quel est dans ce cas l'intérêt de mentionner cette dernière forme? Autant donner tout de suite comme étymologie directe une forme * *atondo* en vieux-castillan.

P. 481

? Atroia (no figura en Azkue). Phillips 7 da esta forma comparándola con lat. med. *octrojare* (Du Cange), verbo derivado de *auctor*, de donde esp. *otorgar*, port. *outorgar*, cat. y occit. *atorgar* (Corominas 1, 335). El vasco y el b. lat. proceden del fr. *octroyer*.

La dernière phrase est incompréhensible et absurde. En aucun cas les mots basque et bas-latin ne peuvent provenir du français moderne *octroyer*!

P. 482

Hatsalbo S 'essoufflé'. Mich. *ZRPh* 83, 607 cree aventurado suponerlo compuesto de *albo* lado, costado', como propone Hubschmid *Thes. Praerom.* 2, 93.

On ne voit absolument pas pourquoi la proposition de Hubschmid est "aventurée" (?). Le composé *hats-albo* est parfait. Ne dit-on pas en français que l'on a un "point de côté" lorsqu'on est essoufflé? (dolor o punzada de costado).

P. 483

Atsedan AN 'descansar', atsedo AN, atzaen V 'respiración', atsedon 'respirar', V, G, AN 'descanso', hatseden (Haran.) id., 'descansar, reposar', atsedon V id., V arc. 'apagar', atseren G 'descanso', 'apagar'.

Il conviendrait ici de mettre *atseden* et non pas *atsedan* en entrée, qui ne concerne que le seul dialecte haut-navarrais.

P. 488

Atz²G, V 'sarna', hatz L, BN 'comezón, picazón'. Las acepciones de Azkue 'eje' y 'señal' acaso relacionen con 'dedo'.

Cette entrée semble aller dans le sens de ce que j'ai exposé plus haut à propos de (*h*)*asteria*, même si une influence de (*h*)*ats*¹ est possible (cf. *atsegale*).

P. 489

Atzarteko V, G, BN 'enfermedad del ganado, por un gusanillo que nace entre las pezuñas'. De *atz* 'pata' + *ar* + *-teko*.

L'étymologie proposée est très peu vraisemblable. Il convient de lire le composé ci-dessus *atz-arte-ko*, litt. "(maladie) d'entre les pattes, d'entre les ongles".

P. 491

Atzera V, G 'atrás' (a la parte posterior), 'volver a empezar un juego', 'retraído', V, G, AN 'de nuevo'. Mich. *FHV* 162 no excluye la posibilidad de que venga de *atze*¹ y menciona gót. *aftra* 'hacia atrás' y 'de nuevo'; o viene de (*h*)*arzara* (?), con un suf. *-(k)ara*, con elisión de vibrante por disimilación.

Ces explications paraissent bien compliquées pour analyser ce qui n'est probablement ici que *atze-ra* avec un suffixe adlatif *-ra*, soit "vers l'arrière".

Atzo 'ayer' (Cf. *etzi*). V. Eys ya señalaba que tiene relación con *atze*², y se preguntaba de dónde procedía la *o* final.

Il faut lire *tiene relación* con *atze*¹ (= arrière) et non ‘con *atze*²’ (*atze*² = étranger).

P. 492

Au¹ V, G, AN, hau L, BN, S, gau V, AN, aezc., kau BN, salac., kaur R, haur ‘este’ (cf. kori/kura R, salac., go(r)i/gura, AN, aezc., como pronombres de 2.^a y 3.^a pers.).

Dans la série des comparaisons extérieures au basque, il convient d’ajouter l’algonquin *hau*, *o*, pronom de troisième personne, le japonais *ko-* (*ko-re* “ceci”). La comparaison de Trombetti avec le sémitique *hū èl* est sans valeur, car le pronom en question vient de **sṵ* attesté en sémitique commun et en vieil-égyptien, le féminin étant *hī* < **sī*. On notera qu’une forme pronominale *(*k*)*o* apparaît aussi en basque dans *díot* ou *dakot* “je le lui...”.

P. 497

Auntz² V ‘relente’.

Aucune tentative d’explication ne suit cette entrée. On pourrait peut-être y voir une variante de *ihintz* “rosée”? A rapprocher de *aintzi* “lieu humide, marais”.

P. 498

Aur¹ G, AN, L, BN, R, haur L, BN, S ‘niño’. La forma primitiva es *haurr*.

Dans la série des rapprochements avec d’autres langues, on peut ajouter le vogoul *ńawr* “id.”.

P. 501

Ahur-pala L ‘palma de la mano’. Del románico *pala* aplicado a objetos planos (Corominas).

Il faut aussi donner le sens de *ahur*, premier élément du composé, qui signifie précisément “paume de la main”.

Aurzaro R, haurzaro 'infancia'. Uhl. *RIEV* 3, 11 considera de difícil explicación la z, que se da también en *seizaro*, *zarzaro*. ¿Acaso analógica de algún derivado en *-tz-aro* ? Sería aceptable la explicación de *aur*¹ y el suf. *-zaro*, indicador de tiempo, época'.

Evidemment! Il est clair que *aro/zaro* est "temps, époque" (de l'enfance). Pour l'alternance $\emptyset$ /z-, voir aussi *apo/zapo* "crapeau".

P. 504

Auseta V 'estornino'. La descripción que se hace de ella en Azkue, si es verdad, excluye su identificación con occit. ant. *(a)lauzeta* 'alondra' (dimin. de *alauza* < lat. *alauda*).

Pourquoi donc aller chercher ici des complications inutiles en supposant un diminutif de *alauza*? De toute façon, même si la description d'Azkue avait permis l'identification des oiseaux en question, il aurait fallu dans l'hypothèse envisagée accepter la disparition pure et simple du morphème initial *al-*, ce qui est tout de même gênant. Il s'agit ici simplement d'un emprunt au gascon *ausèth* "oiseau".

P. 506

Auspaz V, auspez G, auspezka BN 'de bruces'. Pertenecen al mismo grupo auspaztu V, ahuspekatu, auspezkatu AN, salac., auspeztu 'prosternarse', ahuspe¹ 'prosternación', ahuspezka AN, ahuspez AN, L, BN 'boca abajo', auspezka 'a gatas'. Corominas analiza *auts* 'polvo' + *be* 'caer bajo el polvo, boca abajo'. Para Tovar, en cambio, es de *a(h)o* 'boca' + *z* (cf. *buruz*) + suf. *-pe* con o sin *-z* de instrumental.

Il faut parfois savoir choisir entre deux hypothèses. Il est très peu probable que celle proposée par Corominas soit la bonne. Ma préférence va donc à une dérivation à partir de *aho* "bouche" + *pe* "vers le bas". *Aho* a une var. *ahu* et d'autre part on ne voit pas pourquoi on aurait un *-h-* intervocalique avec *(h)auts*.

P. 508

Ahuts² L 'carrillo, majilla', autz V, G 'fauces', V, G, AN, L 'mofletes, carrillos', ahutz 'carrillo' (en Añ. autzak, que da pautza como equivalente V, pauts en Azkue). En *FEW* 21, 107 (Hubschmid) propose lat.

fauces; lo mismo Uhl. *EJ*, 3, 106 y Azkue, *Part.* 23-24. El mismo origen supuso como más conveniente C. Guis. 94 y G. Diego *Dial.* 203. Mich. *BAP* 6, 456 ve la dificultad mayor en el nominativo en lugar del acusativo, que es el que aparece en románico; sin embargo en *FHV* 211 remite a la forma "supra" de Añ. como posible derivada del latín. Ya Azkue *Morf.* 26 la admitía como tal. Cf. igualmente en *FEW* 3, 439 bearn. *hous* 'gorge étroite et profonde entre deux montagnes', aran. *haws*; con aglutinación de artículo prov. mod. *afous*. Como indica Corominas, no hay en ningún dialecto romance resto alguno de *fauce*, en todas parte es *fōce*, que es la forma auténtica, pues *fauces* es una ultracorrección, según indican Thurneysen *KZ* 28, 157, *M.L.*, etc. Para el vocablo lat.-romance, cf. Corominas 2, 960. La única forma lat. real *fōce* hubiera dado en vasco **oke* o **boke*; por tanto rechaza Corominas la etimología latina del vasco *ahuts*. Duda también este autor que existe la forma *pauts* 'moflete' que cita Añ. Acaso puede ser una ultracorrección de *ahuts*, si no es invención de algún etimologista. Para *EWBS*, de *ahu* (*ao*) 'boca' (!). Gabelentz 156s. compara cab. *agudi* 'rostro' y Giacomino *Relazioni* 13 el copto *uaže* 'mejilla'.

Je ne vois absolument pas ce qui empêcherait *ahul/aho* "bouche" d'être à l'origine de *ahuts* "joue", "gosier"!! Même si cette hypothèse figure chez Löpeltmann en l'occurrence.

P. 509

Ausnar V, ausnar V, G, AN, L, hausnar (Ax.), ausmar V, G, AN, L, BN, ausmer V, aizenar 'rumia' (cf. esnar², esnaur) (Supl. A² ausnarritu AN 'rumiar, roer' = ausnartu V, G, AN, L.).

Il aurait peut-être fallu tenir compte dans les formes *esnar*, *esnaur* d'une influence possible de *esne* "lait", résultat final de la rumination des vaches (étymologie populaire ?).

P. 510

Aza 'col, berza'. Se cita también una forma *azija*, que registra Azkue Uhl. *Bask. Stud.* 215 y 226 relaciona con una raíz **az* 'cortar', que él supone para *azaro*, *azilla*, *aza*, *azai*, *azao*, *asti*, y que compara con el ide : scr. *asida*, pali *asita* 'guadaña, hoz' (?), esl. *jesena*, ant. prus. *assanis* 'otoño', got. *assus* 'cosecha'.

Pour ce qui concerne *azaro*, il est clair qu'il s'agit de *azi* "semence" et *aro* "époque", le mois de novembre étant le mois des semailles.

P. 513

Azarte salac. (Iribarren 67) ‘trozo de terreno que por descuido o por otra cosa quedó sin laborar con la grada o rastra, o sin sembrar’. Es el esp. *haza* ‘porción de tierra labrantía cuya etimología Corominas 2, 889 busca en lat. *fascia* ‘faja’, y no en af. *fáhs* ‘campo’. Este mismo nos da *faza*. Con todo, le cuesta creer que haya que separarlo del occit. ant. *eissart*, fr. *essart* “défrichement, terre défrichée” (REW 3066), tanto más cuanto que el nav.-arag. conserva la *f* latina.

Toutes ces explications par les langues romanes sont bien superflues et bien tirées par les cheveux. Il s’agit ici simplement de *azi* “se-mence” et *arte* “entre, intervalle” (trozo de terreno que quedó sin sembrar)!

P. 517

Azillar AN, L ‘potaje de berzas y habichuelas’. De *azi* + *illar*, según Azkue. EWBS parte de una forma **fasil-larri*, de **fasil* < lat. *phaseus* ‘judía verde’ (!).

On pourrait aussi bien partir de *aza* “chou” (*berza*) pour expliquer ce composé.

Azitrai AN (en C. Guis. *azitaraia*) (Mug. *Dicc.* *azitrail*) ‘ajedrea’. Es la voz lat. *satureia*, que según Bertoldi *Arch. Rom.* 18, 214, junto con el hisp.-af., y el af. *za’atar*, *za’etra*, el gr. *ῥταq*, y el vasco *azitrai* vendría de una palabra oriental. El origen lat. está señalado por G. Diego *Dial.* 215. No es necesario pensar en la mediación del af.-esp. *ajedrea*. C. Guis. 94 da la forma *ašš atriya*, pero es propiamente af. *šatriya* < lat. *satureia*. Corominas 1, 68 añade a esto la forma que aparece en P.^o de Alcalá *xétria*. También señala cómo el lat. se ha conservado a lo largo del Pirineo: occit. *sadreia*, cat. dial. *sadoriya* (cat. *sajolida*, etc.).

Dire que la médiation de l’arabo-espagnol *ajedrea* n’est pas nécessaire est un peu aventuré. L’expression “es la voz lat. *satureia*...” laisse penser à un emprunt direct au latin, qui, s’il n’est pas exclu, est loin d’être évident. La correspondance phonétique entre *z* basque et *j* espagnol est attestée ailleurs, comme par exemple dans le nom de l’absinthe, *ajenjo*, en basque *azintzu*, *azinju*.

P. 518

Azkamatu S ‘ahuecar la lana, colchón, etc.’, ‘revolver, sacudir a una persona’. A Corominas le parecía procedente del cast. *escamar* ‘escar-

mentar, desazonar', cat. *escamnar* 'escamar'. El S recuerda el significado de dos textos cat. del XIII. 'castigar ejemplarmente'.

La dernière phrase concernant la "punition exemplaire" me paraît intéressante, car elle permet d'ajouter aux formes romanes citées le gascon/béarnais *escamà* "rompre les jambes, casser, couper les jambes", punition qui était en usage au Moyen-Age (supplice de la roue).

P. 519

Azkarri, azkarreko V, G 'lenitivo' (lo que hace olvidar'), V 'fuerte', V, G 'levadura', V 'realce'; azgarri V 'lenitivo, etc.'. De *aztu* 'olvidar' en la primera acepción. De *azkar*¹ pudiera ser la 2.^a. Las otras *lacaso* de *azi* 'crecer, hinchar'?

S'il s'agit de termes différents, alors il faut créer des entrées distinctes pour ceux-ci. On admettra que *azi* et *azkar* puissent demeurer ensemble, mais certainement pas *aztu* "oublier".

P. 520/521

Azkoin¹

L'article sur le nom du blaireau en basque est assez confus. Jusqu'à présent, personne n'a pu prouver l'antériorité de la forme à vibrante (*harzkü* S) qui permet l'hypothèse a partir de (*h*)artz "ours". Le nom latin scientifique du blaireau est certes *ursus*, mais cela ne constitue pas une preuve! Le rapprochement de H. Wagner, *ZCPH* 24, 92 avec le celtique **brokkos* "blaireau" n'est pas valable du point de vue génétique, mais curieusement, du point de vue sémantique, le terme celtique pour "blaireau" avait aussi le sens de "pointe" et a donné le français *broche*. Or en basque *azkon* signifie "dard" (Pouvreau). S'agit-il d'une pure coïncidence?

P. 523

Azoga V, azoka V, G 'lonja, mercado', 'trajinería, tráfico' (*ms*-Lond. 'alhóndiga'). (Unamuno da la forma *azoke*). La derivación af. a través del esp. la ha señalado este autor *ZRPh* 17, 144, G. Diego, *Dial.* 208, C. Guis. 70, Mich. *IX Congr. Intern. Ling. Rom.*, 481...

C'est la forme *azoka* qui devrait se trouver en entrée et non pas *azoga*. Non seulement c'est la plus répandue, mais en outre elle est plus étymologique que la variante par rapport à l'origine arabe du terme.

P. 525

Azpel V 'carga pequeña', 'tierra surcada para la siembra', 'puñado de paja'. En la primera y la tercera acepciones parece variante fonética de *ezpal* en el sentido de 'gavilla de trigo'. Acaso de *ax(o)* < lat. *axis*.

Soit. Et la deuxième acception ? Il faut peut-être y voir comme premier élément le terme *azi* "semence" (tierra surcada para la siembra).

P. 526

Azpizorri BN 'glándulas de la ingle'. De *azpi* + *gorri* (por media de -z- según Corominas: *azpi-z-gorri*).

Cette solution n'est pas du tout assurée, seulement possible, étant donné l'existence d'une variante *azpigorri* (influence de *gorri* ?). Le composé semble plutôt être formé de *azpi* et de *izorri*, ce dernier terme signifiant "glande (de l'aîne), bubon, peste, épidémie".

P. 530

Aztura G, AN, L, BN, astura L 'indole, carácter, costumbre', L 'crecimiento'. ...Cree, pues, Corominas, que en realidad *aztura* es una alteración de *oitura* 'costumbre' por influjo del vasco *azi*, y que *oitura* a su vez es el románico *habitud* (o *habitus*) algo alterado por acción del vasco *oi* 'acostumbrar' y del suf. de origen erdérico *-tura*.

On restera très prudent envers cette hypothèse de Corominas. Il est bien difficile d'admettre que *oitura* "coutume" soit le roman *habitud* "algo alterado (sic) por acción del vasco *oi*..."! Cela me paraît aventuré.

P. 531

B-. Como pref. quizá se puede señalar en nombres del cuerpo humano, como *begi*, *beso*... Acaso pudiera ser tal pref. también el numeral *bi* 'dos'.

L'hypothèse d'un très ancien possessif *b(e)-* me semble meilleure que celle du nombre *bi* "deux". Ce préfixe de classe, d'origine possessive (les affixes de classes sont souvent présents dans les langues très anciennes), fossilisé, existe aussi en algonquin par exemple (**m-/b-*). On l'a signalé également en caucasien.

P. 532

Ba². Como pref. del imperativo hallamos diferentes interpretaciones... Cf. Lafon *Syst.*, Tromb. *Orig.* 84 busca paralelos en lenguas africanas : yusivo bedja *ba-'e-dār* 'que él mate', bongo *bā*, kata y gonga *bi* 'él, ella'; por otro lado compara elementos demostrativos cauc.: av. *(h)a-b* 'hoc', *(h)e-b* 'illud', lic. *e-be* 'este', lid. *bi-s* 'él', hit. *a-b-*, con referencias a lenguas como manchú, americanas, etc. (!).

Le lycien, le lydien et le hittite ne sont pas des langues caucasiques, mais anatoliennes, dont certaines sont indo-européennes.

LEGUTIOKO HIDRONIMIA AITZAKI

1994.10.06

Patxi Salaberri Muñoa

El presente artículo pretende mostrar el problema del, a menudo, corto camino existente entre los llamados corrimientos toponímicos y ese modo de toponimofagia —¿por qué no denominar así a este concepto de carácter también sociolingüístico, necesario para comprender y actuar correctamente en el campo de la aplicación toponímica?— cada vez más frecuente que se extiende por nuestros territorios geográficos y culturales.

Partiendo de unos casos concretos de hidronimia en el municipio alavés de Legutiano, se presentan los términos en —más o menos relativo— conflicto entre lo mostrado por el testimonio documental y lo actualmente impuesto-aceptado.

En el paradigmático caso del topónimo *Santa Engracia*, es bien sabido que lo que en un principio fue el nombre de una ermita con advocación a dicha santa, posteriormente (hace escasos doscientos años) pasó a denominar el lugar de situación de la ermita. Evidentemente no acabó ahí su andadura. El río, que apenas rozaba el lugar en unos metros, fue consignado con el mismo hagiónimo a lo largo de todo su recorrido, desplazando totalmente a la(s) denominación(es) anterior(es) empleada(s) por los lugareños.

Desde el punto de vista toponímico, sin embargo, la situación empeoró cuando hace poco menos de cuarenta años, debido a un plan de embalsamiento de aguas, se anegó una gran parte de la superficie municipal. La evidente pérdida de uso de los terrenos anegados y la consiguiente desaparición de la necesidad de empleo de topónimos hasta entonces muy frecuentes se vieron agravadas por una solución administrativa que, dejando en el olvido una ingente riqueza toponímica, no dudó en denominar *Santa Engracia* a todo el amplio territorio cubierto por la masa de agua.

Como algo no siempre cualitativamente distinto de este fenómeno fagocitario se plantean los corrimientos habidos en un gran número de hidrónimos del citado municipio alavés.

Con todo, no es objeto de este artículo proponer soluciones ni opciones concretas de acomodación toponímica, sino simplemente dar cuenta de algunas de las variantes que, por distintos motivos, han sido alejadas de sus formas primigenias, siendo a menudo sustituidas por fórmulas generales, uniformizantes y, lingüística e históricamente, menos ricas e interesantes.

* * *

0. Toponimian gertatzen diren aldaketen sortzaileak maiz asko arlo horretatik kanpoko faktoreak direla aitortzea topikoa bihurtu den arren, fenomeno toponimikoa bere osotasunean eta behar bezala ulertu nahi bada, ezinbestekoa egiten da elementu eragile horiek kontuan hartzea.

Arabako Legutio udalbarrutiaren kasuan begi bistakoa da azken urteotan jasan dituen aldaketa geofisikoen pisu astuna. Udalbarrutiaren azaleraren % 18 inguru betetzen duen urtegi erraldoiaren ondoan, ohizko paisaiaren desitxuratzaila den industria-poligono luze-zabala agertzen da bete-betean. Eta honekin Toponimian eragin baloraezina duen pare bat faktore baino ez dugu aipatu.

Ez du falta ingurune fisikoa zaindu bai (!) baina berezitasun toponimiko gehienak ezabatzen dituen golf-zelaia ere. Ezin ahaz litezke, bestalde, inguru hauetan “concentración parcelaria” izeneko lur-biltzeak leku-izenen esparrura ekarri izan dituen ondorio murriztaileak. Era berean, eta aurreko guztia gutxi balitz, badirudi ekonomikoki aberasgarriak omen diren autobideen zama paisajistiko-toponimikoa jasateaz gain, auri autoestrata batena ere jasan beharko duela Udalerrri honek.

Baina horrekin batera bada bestelako faktorerik ere toponimiaren deskalabru honetan: udalerriko herriska bat despopulaturik geratu izana (nork izenda litzake propietatez, jakinaren gainean alegia, hutsik geratu den Nafarrate inguruko bazterrak hemendik aurrera?); Goiaian herri-gu-nearen nortasunaren desagertzea, etab.

Hitz batez esateko, Legutiok pairatzen du gaur egun litekeen kalamitate eta lazeria toponimikorik larriena. Izan ere, modelo ekonomikoak eta bizimodua aldatu ahala, lurak ere beste balio berri bat hartu du eta, oro har, ez da ñabadura geo-fisikoak (arroak, latsak, harmorak, muinoak, etab.) izendatzeko premiarik nabaritzen. Beraz, ohizko ekonomiaren, hots, nekazaritza eta abeltzaintza tradizionalaren eta bertan dihardutenen desagertze prozesuarekin batera, toponimoak ere zegokien funtzionamendua galtzen hasi dira. Eta hori faktore gizatiarrak eta soziolinguistikoa aipatu gabe, ezaguna baita hondamendia areagotu egingo dela bertako ingurunearen gorabeherak egokien izenda ditzaketen hiztunak desagertzean.

Toponimia arloan, beraz, Legutioko udalbarrutia murrizketaren paradigma bihurtzen ari da, toponimiaren beharra galtzen ari den gizarte tipoarek adibidea hain zuzen. Nornahik ikus lezake dagoeneko udalbarruti guztia gero eta toponimo gutxiagorekin konformatzen ari dela, gehienak ekonomikok funtzionatzen duten lekuak adierazteko: *Santa Engracia* urtegia, ibaia, *Goiain* industrialdea, *Larrabea* golf-zelaia, *Zabalain* parkea, *Albertia* mendia, *Aiago* ...

Oso interesgarria izan arren, ez ditugu hemen aipatuko toponimo nagusi horien guztien barnean dauden —zeuden!— leku-izenak. Baina barka bekigu, beherago aztertuko diren hidronimoez gainera, Urrunaga-Urbina-Goiain arteko triangeluan sortutako Goiain industrialdeak irentsi dituen toponimoen aipamen hutsa egiten badugu. Larria baino larriagoa bada ere, oraintsu arte bizirik iraun duen toponimia garrantzitsuenak ez bide du ezta poligono horretako kaleak izendatzeko ere balio; besteak beste, milenio baten lekukotasun idatzia duen toponimoa bera ere (*Angelua*) (1) ezabatzen da.

Aipatu kasuetan, lurra eta gorabehera geografikoek zuten balorea-rekin batera joan da toponimoen beharra. Hortaz, toponimoek marka zezaketen diferentzia de *facto* ez-pertinentea bihurtu da. Eta ez-pertinente izatetik inpertinentetzat hartzera iristeko dagoen zubinoa igaro ondoren irekitzen da fenomeno toponimofagikorako atea.

1. Baina arazo hauetan zaharrena Legutioko hidronimiari dagokiona da ziurrenik, berrogei bat urte igaro baitira udalerri hau, plangintza hidrologikoen bidez, agerizko mundura, mapenera alegia, iritsi zenetik. Garai hartan urtegiari jarritako *Santa Engracia* izena suertatuko zen denboraren poderioz toponimia irenketarako oinarriak ahalbidetuko zituena.

Leku-izen honek (2) XVIII. mendearen lehen erdialderarte ez du entitate handirik erakusten, ez behintzat sailduaren adibokaziorako balezizaz gainekorik. Izan ere, 1732an bi monje zituen “hermita desierto” huts bat bezala agertzen da (D. 1238-11785). Handik aurrera esparrua zabaltzen joango da eta hasieran ez zegozkion guneak ere barnehartuko ditu pixkanaka: “casa-venta”, “casa-horno”, “monte”, “barrio”, “puente”, erreka bera ere (“rio”) izendatzen hasi arte.

Nolanahi ere, dagokigun erreka edo ibai honek, beste elementu geografiko pertinateek bezalatsu, bazuen lehendik ere izenik, gutxienez bi mende lehenagotik barra-barra erabiltzen zen izena gainera. Jakina,

(1) *Anguella* (952: Cart. 64, 75 or.), *Angellu* (1025: Cart. 180, 176, or.), etab.

(2) Beste aldaki batzuk: *Santangrazia*, *Santa Engrazia* (1746: LUA-L 3-2), *Santa Engrasia* (1758: LUA-L 3-2).

zail litzateke mugatzen non hasi eta norainokoa zen errealtatean izen haren erabilera, ezaguna baita horrelako entitate geografikoen izendapen bakarra berri samarra dela Historian zehar eta normalean, erreka eta ibaien kasuan batipat, tokian tokiko izendapena erakutsi ohi dutela. Nolanahi ere den, lekukotasun idatziaren arabera, Urrunaga ingurutik Urbinaraino doan ibai zatiak bederen *Mauruybaya* izena erakusten du behialako *Santa Marina* (3) edo gaurko *Santa Engracia* delako horren aurretik. Izan ere, 1593an aurkitzen dugu lehen aldiz “rio y bado de Mauruybaya” gisa (LUA-K 5-4, 101 or. (4) eta indarrean iraungo du izen horrek, *Mauruybayaguirre(a)* leku-izenarekin batera, XVII. mendearen erdialderarte gutxienez (1638an (5) artikulurik gabeko formapean azaltzen zaigu: *Mauruybay*), harik eta, kontrarreforma-giroaren eraginez nonbait, “mauru” eta oroimen paganoko bestelako hitzak ezabatzen hasi eta erlijio arloko formez ordezkatu arte.

Horra hor, bada, berrehun eta berrogeita hamar urtetan, berrogei bat metro karratuko “hermita desierto” bat izendatzeko toponimoa Legutio guztiko azaleraren bostenaren (zortziehun hektarea inguru!) jabe, irentsi duen toponimia zahar eta aberatsa ordezkatzela.

2. Aberatsa izan da Legutio Udalbarrutia, eta bada oraingoz, urtegi-az landako bestelako hidronimoetan ere. Baina entitate txikia dutenak (“ur”, “iturri”, “putzu”, etab.) utzita, har dezagun adierazgarri gisa “ibai-erreka” bikotearen osagaietako bat erakusten duen toponimia. Izan ere, azterketa sinkronikoak ageri-agerian uzten du osagai bien banaketa semantikoa eta bakoitzak betetzen duen esparru hidrografiko garbia: “erreka” hitza entitate gutxiko ur-lasterak edo latsak adierazteko erabili izan den bitartean, “ibaia” ur handietarako gorde da. Urteetan zehar, halere, uraren jario-aldatzearen eta desplazamendu toponimikoaren fenomenoak gailenduko da horietan ere, normalean hizkuntzaren bilakaerarekin aski paraleloki funtzionatzen duena. Azken bi mendeotan, esaterako, euskalkiaren erabileran “erreka” hitzak hartzen duen nagusitasunarekin (esklusibotasunarekin?) batera, “ibaia” osagaia duten hidronimoen desagerpena nabaritutako da (6).

(3) *Santa Marina* eta *Santa Engracia* ibaiei buruzko informazio gehiagorako ikus 18. oharra.

(4) Legutioko Udal Artxiboan egon arren, dokumentu hau Protokolo-liburua da. Cristóbal Sáez de Viteri notariarena hain zuzen.

(5) Prot. 4.338, 8. or.

(6) “Erreka” hitzak “ibaia”-ren arlo semantikoa bete duenean, ordurarte berak betetzen zuena ez da bete “lats”, “errekasto” edo beste forma batez. Klima eta landaretza aldaketan eraginez nonbait, eta urtaroen arabera, uharrak baino ez dira gaur egun lehengo erreka horiek. Normalean, beraz, errekek zeharkatzen zuen arroak —“arro” hitzak, hobe— beteko du dagoeneko hiztunentzako “erreka”

Ildo horretatik, beraz, *Becoybaya* hidronimoa (1601: Prot. 9116, 96. or.) erabat ezezaguna bihurtuko da egungo hitzuntentzat. Ibai hori lekutzeko lorratz bakarra familia bereko *Bekoibaialdea* (7) toponimoaren eskutik etorriko da: “Rio caudal que baja a Bezina” (1638: Prot. 4338, 194. or.), “camino que ban a Echebarrico errequea” (idem, 58. or.) delakoa-ren ondoan alegia.

Antzeko zerbait esan genezake *Betxina*-n (8) Bostibaietaren urak eta beste erreka batzuk elkartu ondoren sortzen bide zen *Ibaizarrari* dagokionez (*Ybaysarra*, 1599: Prot. 9115, 98. or.; *Ybaizarra*, 1682: LUA-K 5-20, “rio de Bezina que por otro nombre llaman Ybaizarra”).

Gorago aipatu den *Mauruybay(a)* hidronimoaren galtze-arrazoien artean honako hau baino pisu gehiagokorik egon bazen ere, kronologikoki bat letorke beste “ibai”-dun hidronimoen desagerpenarekin.

“Ibai”-dun hidronimo hauen gaiera, dena den, “erreka” osagaiak ordezkatuko dueneko fase batetik pasatu ondoren gauzatu izan da inoiz. *Ybai zabala* izango genuke tarteko pausu hori ongien erakutsiko ligukeen hidronimoa (9). 1727an agertzen da lehen aldiz (LUA-L 42-14). XIX. mendean, ordea, *Errecasabal* (1861: Hipo. 407, 158. or.) hidronimoak baztertua izango du aurrekoaren erabilera.

Guztiarekin, *Bostibaieta* dugu “ibai” osagaia duten toponimoen artean gaur arte mantendu den bakarra (10). 1749an agertzen zaigu lehen aldiz *Bostybaieta* idatzirik (LUA-L 3-2) eta normalean dermio zehatza adierazteko: “termino titulado Bostybaieta y parage de Olazarra donde se unen las aguas q(ue) bajan por dos rios”, “parage de Olazarra por otro nombre Bostybaieta” (1764: LUA-L 42-5).

ez den aldizkako ur-xirripa horren adierazteko modua. Adibide garbia da, besteren artean, beherago ikusiko den *Iramaingo erreka* hidronimoarena.

(7) *Becoyba aldea* (1632: LUA-K 3-13); *Becoybayaaldea* eta *Becoybayaldea* (1638: Prot. 4338, 58 or. eta 194. or. kiri-kirian).

(8) Inoiz “rio” bezala agertzen den toponimo honek ondoko aldaki hauek utzi ditu: *Beçina* (1592: A. 1, 77. or.); *Bezina* (1601: Prot. 9116, 96. or.); *Veziña* (1650: A. 1); *Betcina* (1837: LUA-k 4-17); *Betcina*, *Bechina*, *Vecinal* (1884: D. 2293-1); *Betxina* ahoskatu ohi dute. Gaur egun urtegiak estalia.

(9) Antza denez (“Rio que baja de Lasa”, LUA-L 42-14), gaur egun Urbinan *Bagoeta* deitzen duten erreka izendatzeko erabilia, erreka bukaera, isurtze-lekua batipat. Ikus beherago.

(10) Azken urteotako asmaketa da Urbinako futbolzelaia irarritako *Ibaialdea* izena Ibaiaren ondoan egoteagatik eta, batipat, inork egindako “interpretazio eta zuzenketagatik”, jatorrizko eta tradizio handiko *Ibarbaldea* desitxuratua gelditu da erabat.

Aurrekoekin konparaturik, gehiago dira eta maizago aurki daitezke “erreka” osagaia (11) duten hidronimoak. Hona hemen jaso ditugunak:

a) Ha seleccionado con esmero los títulos de traducción teniendo en cuenta la necesidades universitarias más urgentes, y combinándolas con las demandas de un mercado cultural más amplio. Esto garantiza la presencia equilibrada de los distintos campos del saber, al tiempo que compatibiliza las obras clásicas referenciales con obras de alta divulgación de épocas más recientes. En la selección de las cincuenta primeras obras que se publicarán en un período de cinco años han intervenido activamente los miembros del Comité Científico integrado por las siguientes personalidades: Jesús Altuna, Bernardo Atxaga, Joxe Azurmendi, Carlos García Gual, Francisco Garmendia, Ander Manterola, Iñaki Oyarzabal, Ibon Sarasola, Francisco Uribarren, Jose María Valverde y Francisco Darío Villanueva, bajo la coordinación de Xabier Mendiguren Bereziartu, director de la Colección.

Además de los citados aserores, se ha contado asimismo con numerosos catedráticos y especialistas universitarios que por su parte, han propuesto obras y autores que tengan una especial relevancia desde el punto de vista de la docencia en la Universidad.

Al confeccionar el elenco de autores y obras se han conjugado equilibradamente épocas, idiomas, temas y estilos, cuidando de que la Colección no se escorara excesivamente a épocas históricas muy alejadas de la modernidad.

b) Para que las traducciones publicadas por “Pentsamenduaren Klasikoak” tenga la máxima calidad posible en su contenido, además de seleccionar los traductores más idóneos para cada tipo de obra, ha recurrido a la labor de supervisión, llevada a cabo por personas especializadas en cada tema y posteriormente, antes de la publicación, todos los textos han sido homogeneizados lingüísticamente, sin detrimento de las aportaciones dialectales a las que tiene que estar abierto el euskara unificado.

Por otra parte, ha cuidado especialmente la prologación de las traducciones, recurriendo casi siempre a la colaboración de expertos y especialistas de primera fila. Asimismo las notas y bibliografía, han sido objeto de un particular cuidado.

c) Por lo que respecta al diseño de la Colección y su presentación, se ha procurado contar con el asesoramiento de los mejores especialistas en imagen corporativa, y el resultado logrado es plenamente satisfactorio, tanto por la elegancia de la concepción, como por su solidez.

KLASIKOAK, S.A. Y SUS OBJETIVOS EDITORIALES

La sociedad sin ánimo de lucro que se ha hecho posible el citado proyecto se denomina KLASIKOAK, S. A., se constituyó en septiembre de 1991, como fruto de la iniciativa compartida de la Fundación BBV, las Cajas de Ahorro de la Comunidad Autónoma Vasca —BBK, Kutxa y Vital— la Universidad del País Vasco y la Universidad de Deusto.

La colección “Pentsamenduaren Klasikoak” se estrenó con el primer libro de *Essais I* de M. de Montaigne y hasta el presente se han publicado los siguientes títulos: *Utopia* (Th. Moro), *Also Sprach Zarathustra* (F. Nietzsche), *Le mythe de Sisyphe* (A. Camus), *Treatise concerning the Principles of Human Knowledge* (G. Berkeley), *Politeia* (Platon), *De Indis* (F. de Vitoria), *An Enquiry concerning Human Understanding* (D. Hume), *Education et Sociologie* (E. Durkheim), *De Brevitate Vitae* (L. A. Seneka), *Essais II* (M. de Montaigne), *Escape from freedom* (E. Fromm), *De Contrat Social* (J. Rousseau), *Atheismus im Christentum* (E. Bloch), *Über den Willen in der Natur* (A. Schopenhauer), *Del sentimiento trágico de la vida* (M. de Unamuno).

Desde el momento actual hasta mediados de 1997 está prevista la publicación de 34 títulos más, hasta completar los cincuenta de la primera fase. Las obras seleccionadas son las siguientes: *An Essay on Man* (E. Cassirer), *Das Heilige* (R. Otto), *The Sense of Beauty* (Santayana), *The Language* (L. Bloomfield), *Leviathan* (T. Hobbes), *The Golden Bough I-II* (J. G. Frazer), *Essais III* (M. de Montaigne), *Breviario di Estetica* (B. Croce), *Meta ta Physika* (Aristoteles), *Anthropologie structurale* (C. Levi-Strauss), *Examen de ingenios* (Huarte de San Juan), *La naissance de l'intelligence chez l'enfant* (J. Piaget), *Historiai I-II* (Herodoto), *Abhandlung über den Ursprung der Sprache* (J. G. Herder), *Darstellungen der Psychoanalyse* (S. Freud), *De Consolatione Philosophiae* (Boethius), *Ethica ordine geometrico demonstrata* (S. Spinoza), *Lettres philosophiques* (Voltaire), *The Origin of species* (Ch. Darwin), *The Principles of Political Economy and Taxation* (D. Ricar-

do), *Nouveaux essais sur l'entendement humain* (Leibniz), *Forforerers Dagbog* (S. Kierkegaard), *La rebelión de las masas* (J. Ortega y Gasset), *The Moralist* (Shafesbury), *Prolegomena* (I. Kant), *Moriae Encomium* (E. de Rotterdam), *Le plaisir du texte* (R. Barthes), *De la Démocratie en Amérique I-II* (A. Tocqueville), *The General Theory of Employment, Interest and Money* (J. M. Keynes), *Cours de linguistique générale* (F. de Saussure).

En su segunda fase la relación de autores y obras se ampliará hasta completar el total de cien títulos que en parte ya han sido previstos, y en parte se fijarán incorporando sugerencias que se reciban desde los diversos sectores académicos y culturales, a fin de que “Pentsamenduaren Klasikoak” se convierta en una biblioteca básica imprescindible dentro de la cultura vasca.

En este momento, dentro de la relación de autores seleccionados para esta segunda fase de la Colección, podemos destacar los siguientes: Tucídides, Estrabón, Plotino, Epicuro, Vitrubio, Galileo, Copérnico, Descartes, Newton, Montesquieu, Humboldt, Adam Smith, Weber, Russell, Wittgenstein, Jaspers, Husserl, Marx, Hegel, Feuerbach, Heisenberg, Popper, Adorno, Benjamin, Toynbee entre otros.

El hecho de que la sociedad KLASIKOAK, S.A. no persiga beneficios comerciales con su actividad, posibilita la oferta de la citadas obras, con el nivel de calidad ya indicado, a un precio de coste por vía de suscripción con una triple modalidad: al contado, mensual, o anual que resultan muy ventajosas económicamente para el lector. Sin embargo, también pueden adquirirse ejemplares sueltos en librerías, a un coste notablemente superior.

Ante las primeras reacciones e impresiones recogidas por los suscriptores y lectores de los primeros títulos hay que afirmar que la Colección ha satisfecho plenamente las expectativas que se habían creado en torno a ella, tanto por sus contenidos como por su presentación.

INCIDENCIA DE “PENTSAMENDUAREN KLASIKOAK”

El proyecto “Pentsamenduaren Klasikoak”, como cualquier otro similar que se haya desarrollado en las condiciones sociolingüísticas que presentan el euskara y la cultura vascas, tiene una doble y clara incidencia: por una parte, contribuye a crear la infraestructura bibliográfica necesaria para la enseñanza media y superior, facilitando al mismo tiempo las referencias culturales en los medios de comunicación en general e incluso, brinda importantes materiales para el ensayo y la creación literaria.

Por otra parte, constituye un auténtico espaldarazo a la unificación lingüística, creando una rica y variada prosa filosófico-científica, y ensayística en general, fijando el euskara batua con importantes aportaciones dialectales. El gran reto al que se ven enfrentados todos y cada uno de los traductores, contribuye eficazmente al enriquecimiento del idioma, al tiempo que el acervo tradicional se incrementa de forma importante en lo que se refiere a préstamos y calcos procedentes de los ámbitos lingüístico-culturales más variados.

Por último, el notable adiestramiento y puesta a punto de una treintena de traductores en más de una media docena de idiomas (griego, latín, francés, alemán, italiano, español...) que supone el proyecto, con la colaboración de otros tantos revisores y expertos euskerólogos significa la creación de un crisol lingüístico sin precedentes y el engrasamiento de una maquinaria traductora llamada a una creciente e importante labor de transvase cultural en los años venideros. Esto y mucho más es lo que se puede decir, a grandes rasgos, acerca del ambicioso proyecto "Pentsamenduaren Klasikoak" que de ser un sueño casi utópico, en poco tiempo se ha convertido en una cosechadora de los frutos más granados del pensamiento occidental para la cultura vasca.

* * *

La sede de KLASIKOAK, S.A. se halla en San Vicente, 8, Edificio Albia 1, 3.º, Depto. 9. 48001 BILBAO. Tlef. (94) 4240997; fax: (94) 4240479.

UNAMUNO ETA SHOPENHAUER EUSKARAZ

Egoitza, Bilbo, 1994.04.28

Xabier Mendiguren Bereziartu

Klasikoak S.A. lukro-asmorik gabeko elkarte da, 1991ean sortua. BBV Fundazioaren, Euskal Autonomi Elkarte Aurrezki-Kutxen —BBK, KUTXA eta VITALE—, Euskal Herriko Unibertsitatea eta Deustuko Unibertsitatearen ekimenaren fruitua, euskal hizkuntza eta kulturaren aldeko iharduerak burutzeko.

“Pentsamenduaren Klasikoak” bilduma berrogeita hamar libururekin osaturik dago, eta orain arte argitaratu direnak, hauek izanik:

- Entseiuak I (M. Montaigne).*
- Utopia (T. Moro).*
- Honela mintzatu zen Zaratustra (F. Nietzsche).*
- Sisyforen mitoa (A. Camus).*
- Giza ezagutzaren printzipioei buruzko tratatua (G. Berkeley).*
- Politeia (Platon).*
- Giza ezagutzari buruzko ikerketa (D. Hume).*
- Indio aurkitu berriak (Francisco de Vitoria).*
- Hezkuntza eta Soziologia (E. Durkheim).*
- Bizitzaren laburtasunaz (L.A. Seneka).*
- Askatasunetik iheska (E. Fromm).*
- Entseiuak II (M. de Montaigne).*
- Ateismoa kristautasunean (E. Bloch).*
- Gizarte Hitzarmena (J.J. Rousseau).*

Eta aurkezten diren, bi liburuak:

- Naturako Nahimena (A. Schopenhauer).*
- Bizitzaren sentimendu tragikoaz (Miguel Unamunokoa).*

SINOPSIAK*Bizitzaren sentimendu tragikoaz*

Autorea: Migel Unamunokoa Bilbon jaio zen 1846an eta Madrilén hil, 1936, Espainiako gerra zibila hastera zihoala. 1891ean Salamacán filologia eta greko-katedra lortu zuen eta 1934an jubilatuta bertako errektore izan zen. Bere gogoeta filosofikoei dagokienez existentzialistatzat hartzen da sarritan haren filosofatzearen objektu nagusia gizonaren bizitza baita eta ez espekulazio hutsa; horregatik filosofia praktikora jo zuen, bizitzari lehentasuna emanez. Sentimenduen eta arazoien arteko borrokaz, zalantza eta eszeptizismoaz larrituriko gizabanakoak esperantzak bildu behar ditu, bizitzan konprometitzea aintzakotzat hartuz. Buruarekin bakarrik ez, baizik gorputz osoarekin pentsatzen den iritzikoa zen.

MIGEL UNAMUNOKOA

Bizitzaren sentimendu tragikoaz



Obra: Entseiu filosofiko edo teologiko bat baino gehiago obra “unamuniar” bat da. Hala ere, bere obra filosofikoena da eta erroak Schopenhauer, Kierkegaard, Nietzsche eta Jacobirengan aurkitu behar zaizkio. Unamunorentzat iharduera izpiritualak bere indar sortzailea ateratzen dueneko iturburua “sentimendu tragikoa” da.

Giza bizitzaren egitura erremediogabeki duala da eta egitura bitar horrek taiukera desberdinak hartzen ditu, pentsamendua eta fedearena nagusiena delarik. Batak eraikitzen duena besteak suntsitu egiten du. Horretaz jabeturik dagoen bizitza ezinbestean da tragikoa. Horregatik deitzen dio Unamunok gaixotasun kontzientziari.

Naturako nahimena

Autorea: Danzigen jaio zen 1788an eta Frankfurten hil, 1860an. Pesimismo metafisikoaren sortzaile izan den filosofo honen obra nagusia *Mundua nahimen eta errepresentazio gisa* (1819) izenekoa da. Dresdenen bizi zela taxutu zuen bere sistema filosofikoa. Berlinen irakasteko asmotan ibili zen, baina Hegelen ospea nagusi zelarik, inor gutxi hartzen zuen aintzakotzat. *Moralaren oinarritzapena* bere obra sarituaren ondoren pixkanaka ezagunago bihurtu zen. Schopenhaueren filosofia intuizio baten inguruan eraikitako etxe handia da: gure mundua, bizitza, antzerki-errepresentazio bat dela,itsu-itsuan egiten dugula geure eginbeharra eta beti gauza bera errepresentatzen dugula.

Obra: Autoreak dioena sinetsi behar badugu bere beste edozein obratan baino argiago adierazita omen dago bere metafisikaren muina buru honetan. Eta esan horren sendogarri da lehen argitalpenetik (1836) zortzi urte igaro eta gero ere berdin pentsatzen zuela ikustea eta bera bizitzan zehar behin eta berriz argitaratu izana. Bertan, autorearen filosofiak berrespenak nola hartzen dituen adierazten zaigu zientziaren alor desberdinetatik: fisiologia eta patologia, anatomia onparatua, landare-fisiologia, astronomia fisikoa, linguistika, animalia magnetismoa, magia, eta sinologia bezalakoetatik. Nabari ageri da obran zehar autoreak iraganeko eta bere garaiko Mendebaldeko filosofo eta zientzialariak ezagutzeaz gain, Ekialdeko pentsamenduaz ere ezagupide ona duela.

UNAMUNO Y SCHOPENHAUER EN EUSKARA

Sede, Bilbao, 28.04.1994

Xabier Kintana

Klasikoak, S.A. es una entidad sin ánimo de lucro que nace en 1991, fruto de la iniciativa de la Fundación BBV, las Cajas de Ahorro de la Comunidad Autónoma Vasca –BBK, KUTXA y VITAL–, la Universidad del País Vasco y la Universidad de Deusto, para fomentar las actividades culturales en pro de la lengua y la cultura vasca.

La colección “Pentsamenduaren Klasikoak” está integrada por cincuenta obras, de las cuales hasta el momento se han publicado las siguientes:

- Entseiuak I de M. de Montaigne (Ensayos I).*
- Utopia de T. Moro.*
- Honela mintzatu zen Zaratustra de F. Nietzsche (Así habló Zaratustra).*
- Sisypforen mitoa de A. Camus (El mito de Sísifo).*
- Giza ezagutzaren printzipioei buruzko tratatua de G. Berkeley (Tratado sobre los principios del conocimiento humano).*
- Politeia de Platón (La República).*
- Giza ezagutzari buruzko ikerketa de D. Hume (Estudio sobre el conocimiento humano).*
- Indio aurkitu berriak de Francisco de Vitoria (De Indis).*
- Hezkuntza eta Soziologia de E. Durkheim (Educación y Sociología).*
- Bizitzaren laburtasunaz de L.A. Seneca (Sobre la brevedad de la vida).*
- Askatasunetik iheska de E. Fromm (El miedo a la libertad).*
- Entseiuak II de M. de Montaigne (Ensayos II).*
- Ateismoa kristautasunean de E. Bloch (El ateísmo en la cristiandad).*
- Gizarte Hitzarmena de J.J. Rousseau (El Contrato Social).*

Y las dos obras que se presentan:

— *Naturako Nahimena* de A. Schopenhauer (*Sobre la voluntad en la naturaleza*).

— *Bizitzaren sentimendu tragikoaz* de Miguel de Unamuno (*Sobre el sentimiento trágico de la vida*).

ARTHUR SCHOPENHAUER

Naturako nahimena



SINOPSIS

Bizitzaren sentimendu tragikoaz

Autor: Miguel de Unamuno nace en Bilbao en 1864 y muere en Madrid en 1936, en vísperas de la guerra civil española. En 1891 obtiene la cátedra de filología y griego en Salamanca en la que ejerció su magisterio hasta el año 1934, en que se jubiló siendo rector de la Universidad. Por lo que respecta a sus reflexiones filosóficas son consideradas existencialistas, por ser el ser humano el objeto supremo de su filosofía y no la mera especulación, por ello tiende hacia la filosofía práctica, dando primacía a la vida. El individuo acosado por la lucha entre el sentimiento y la razón, la duda y el escepticismo debe acumular esperanza, empeñándose en el compromiso por la vida. Es partidario de pensar no sólo con la cabeza sino con el cuerpo entero.

Obra: Más que un ensayo filosófico o teológico es una obra "unamuniana" por excelencia. Con todo, se trata de su obra más filosófica y sus raíces se hunden hasta Schopenhauer, Kierkegaard, Nietzsche e incluso Jacobi. Para Unamuno, la fuente de la que la actividad espiritual extrae su capacidad creadora es el "sentimiento trágico". La estructura de la vida humana es irremediable dual y esa estructura binaria adopta distintas configuraciones, siendo la más importante la de pensamiento y fe. Lo que construye el uno lo destruye la otra. La vida consciente de ello es necesariamente trágica, razón por la que Unamuno llamaba enfermedad a la conciencia.

Naturako hahimena

Autor: Nace en Danzig en 1788 y muere en Frankfurt en 1860. La obra capital de este filósofo sistematizador del pesimismo metafísico es *El mundo como voluntad y representación* (1819). Configuró un sistema filosófico mientras vivía en Dresde. Intentó enseñar en Berlín, pero la fama de Hegel era tal a la sazón que se le cerraron todas las puertas, y casi nadie le tomaba en consideración. A raíz de la publicación de su obra galardonada *La fundamentación de la moral*, paulatinamente comenzó a ser más conocido en algunos círculos. La filosofía schopenhaueriana es un gran edificio construido sobre la intuición: el mundo, la vida es una representación teatral, donde cada uno de nosotros interpreta su papel, escenificando siempre el mismo papel.

Obra: Si hemos de creer lo que nos dice su autor en la presente obra se expone con mayor claridad que en ninguna otra el núcleo de su metafísica. Y viene a confirmar lo dicho, el que ocho años después de su publicación (1836) el autor siguiera pensando igual y que a lo largo de su vida volviera a publicarla repetidas veces. En ella se nos dan a conocer los refrendos que había recibido la filosofía del autor por parte de los diferentes campos de la ciencia, desde la fisiología y la patología hasta la sinología pasando por la anatomía comparada, la fitofisiología, la astronomía física, la lingüística, el magnetismo animal o la magia. Es evidente, como se deduce de su lectura, que el autor además de conocer los filósofos y científicos del pasado y los coetáneos, tenía asimismo un buen conocimiento del pensamiento oriental.

PENTSAMENDUAREN KLASIKOAK EUSKARAZ

Egoitza, Bilbo, 1994.04.28

Andoni Iriondo

Azken hamarkada hauetan euskararen bateratze eta garatze gaiari heldu izan zaion bakoitzean, ia hutsik egin gabe aipatu izan da gure hizkuntzak bere burua gaitu beharra daukala beste edozeinek bezalaxe linguistikoki normalduriko gizarte batean dituen betekizun guztietarako. Ukaezina da zentzu horretan erakunde publiko eta pribatuak egin duten ahalegina, eta bide horretatik eman diren pausoen adierazgarri dira urtero gure artean argitaratzen diren ia mila titulu horiek.

Baina hori aitortu ondoren, oraindik esan beharra dago euskaldun askori izugarri zail, ia ezinesko gertatzen zaigula kultur bizitza asegarri bat izatea, horretarako behar adinako oinegoturarik ez daukagulako. Gauzak horrela badaude, alde batetik, gure kultur produkzioa urria delako da, eta bestetik, Jaufre Rubel trobadorearen hitzak erabiliz, euskara oraindik "urrunekoaren ostatu" (Auberge du lointain) eroso izatera iritsi ez delako, hau da, gure hizkuntzak Mendebaldeko kultura honen oinarrian dauden pentsamendu unibertsaleko obra gailenak zuzenean eta sistematikoki berenganatu ez dituelako.

Gaur egungo euskal gizarteak, Mendebaldeko kultur eremuan kokaturik da goenak, erro greko-latindarretatik eta ondorengo mendeetan haietatik abiatuz gure egunotara arte izan duen aberaste filosofiko eta zientifikotik hartzen du bere biziraina. Euskal kulturak, bere ahalbide apalen arabera, altxor horri noizean behin bere ekarpenak egin izan dizkionak, bere ingurunearekiko harreman jariakorrik lortzen ez badu, ez gaztelania eta frantsesaren bidez bakarrik, baita euskararen bitartez ere, ezin izango die etorkizuneko erronkei behar bezala erantzun, eta zimeldu eta ilauntzea beste irtebiderik ez du izango datozen hamarkadetan.

ERRONKA ETA NORABIDE BERRIAK

Euskal Herrian, eta euskararen normalkuntzari dagokionez eman diren urrats nagusien azterketa bat eginez gero, berehala nabarmentzen da aurrerapenik erabakiorrena irakaskuntzaren alorrean burutu dela, eta bertan aldiari sortu diren eskariei erantzun egokia hartu izan dutela, nahiz eta irakasliburugintzan egin den ahalegin eskerga gorabehera, beti premia guztiak erabat asetzea oraindik lortu ez den.

Bestalde, parez pare eta era paradoxazko samarrean, eskari eta beharrian berriak pixkanaka gehituz joan dira, zeren eta euskara bitarteko dutela goi-mailako irakaskuntzara iristen diren belaunaldiek agerian jarri baitute, irakaskuntza ertainetan eta unibertsitatean bibliografi oinegiturak daukan ahulezia eta asistematikotasuna. Kantitatez eta kalitatez egin den ahalegin nabaria gorabehera, urte luzeetan euskara eta euskaraz ikasten jardun ondoren, gure gazteak beren kultur hedabideak ia bertan behera uztera edo izugarri murriztera beharturik aurkitu izan dira, gaztelaniazko edo frantsesezko bibliografi eskaintzara jo behar izan dutelako, hezkuntzako lehen etapetan hasitako kultur garapen elebiduna egoki jarraitzeko euskarazko oinegiturarik ez izatean.

Goi-mailako irakaskuntzan aurrera egiteko ahalbide faltaz trabaturik gelditze hori, gure Herriak ordain ez dezakeen luxua da, are gutxiago gure identitatezentzu guztiekin European sartu nahi badugu.

Horregatik, ezinbestekoa zirudien, Unibertsitatearen barruan eta kanpoan sortu diren banako eta taldeen indar-ekimenak guztiak biltzea garai guztietako pentsamendu-obra nagusienen bilduma bat diseinatu, itzuli eta argitaratzeko eta horrela etorkizuneko euskal kulturgintzari eustazpi sendoa ezartzeko.

ITZULPENA ETA MERKATUA

Ez dugu uste ahoberokeria denik, azken urteotako euskal kulturgintzan protagonista garrantzizkorik izan bada, hori itzultzailea izan dela aitortzea, batez ere azken hamarkadari dagokionez, zeren urteroko tituluen kopurua nabarmenki ugaltu baitu, alde batetik, eta bai komunikabideetan (prentsa, irrati eta telebista) eta bai administrazioan, luberri garrantzitsuak urratu dituelako, bestetik.

Ziur gaude, itzulpenak egiteak garrantzi handia duela gure gizartean elebitasuna orekatzen; izan ere, sorkuntza propioak, bai testu literarioenak eta bai testu pragmatikoenak, oraingoz ekoizpen mugatua baitu eta baliabide gehiago zuzendu arren, nekez lortuko litzateke emaitza askoz ugariago eta hoberik. Aitzitik, itzulpenak orain arte behar adinako laguntzarik jaso izan ez badu, kulturgintzan duen garrantzia behar beste kontuan hartu ez delako izan da, eta itzultzailearen hizkuntzarekiko harremana zantibaitentzat badaezpadako samarra eta sorkuntzaren etsai gisako zerbait gertatu delako. Baina argi dago, beste edozein alorretan bezala, itzultzaileak egoki prestatuz bakarrik lor daiteke beroriek profesionalki burutuko duten emaitzaren onargarritasuna, eta ez berorien lana eta gaikuntzarekiko uzkur agertuta.

Une honetan EIZIE, Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpretarien Elkar-teak ia berrehun lankide inguru biltzea lortu du bere baitan eta Eusko Jaurlaritzak finantzaturiko "Literatura Unibertsala" bezalako proiektu garrantzitsuak burutzen dihardu. Beraz, argi dago, duela zenbait urte ez bezala, euskal kulturak baduela itzultzaile-kopuru garrantzizko bat, ongi prestatua, jatorrizko hizkuntzetatik obrak itzultzeko gai dena, eta posible dela "Pentsamenduaren Klasikoak" bezalako bilduma bat diseinatu eta plazaratzea, orain hamarkada bat lehenago agian ez bezala.

Azkenik, uste dugu, ez dagoela lekuz kanpo hemen gogora ekartzea, nola zibilizazio eta kultura handien azterketa soil bat eginez gero, beti argi eta garbi ikusten dela, itzulpen inplizitu edo esplizitua beti presente egon dela loraldi literario eta zientifiko-filosofiko guztietan giza historiaren egunsentitik hasita.

“PENTSAMENDUAREN KLASIKOAK” PROIEKTUAREN EZAUGARRI NAGUSIAK

Pentsamenduaren unibertsaleko obra nagusienak euskaratzeko eta euskal kulturaren gaur eguneko egoerari behar bezala erantzuteko, gurea bezalakako proiektuak ondoren adierazten diren baldintza hauek bete behar izan ditu:

a) Unibertsitateko premia nagusiak eta merkatu zabalago baten eskakizunak kontuan izanik arretaz hautatu behar izan ditu titulu, gai, hizkuntza eta estiloak orekatuki uztartuz. Bost urteko epean argitara emango diren lehen berrogeita hamar tituluen hautapenean, honako jakitun hauek osaturiko komite zientifikoak esku hartu du: Jesus Altuna, Bernardo Atxaga, Joxe Azurmendi, Carlos García Gual, Frantzisko Garmendia, Ander Manterola, Iñaki Oyarzabal, Ibon Sarasola, Frantzisko Uribarren, Jose María Valverde eta Francisco Dario Villanueva jaunek, bilduma-zuzendaria den Xabier Mendiguren Bereziarturen gidaritzapean.

Aipaturiko aholkulariez gainera, Unibertsitateko katedradun eta espezialista ugarirekin izan dira harremanak eta horiek ere, nork bere aldetik, Unibertsitateko irakaskuntzaren ikuspegitik garrantzizkoak diren autore, obra eta antologiak proposatu dituzte.

b) “Pentsamenduaren Klasikoak” bildumak argitara emandako itzulpenak edukinez ahalik eta kalitate handienekoak izan daitezen, obra bakoitzerako itzulzailerik egokienak hautatzeaz gainera, obra bakoitzaren gainbegiratzaila ere izendatu du gai bakoitzean aditua den norbaitek araka dezan, eta azkenik, inprimatu baino lehen, hizkuntz orraztua ematen zaio euskalkien eta euskara batua-ren artean oreka egokia lortzeko, eta Euskaltzaindiaren erabaki eta gomendioak bermatzeko.

Honetaz gainera, garrantzi handia eman zaio hitzaurregileen aukerari ere, eta ia beti, lehen mailako adituek idatzi dituzte sarrerak. Testu gehienak oharrez eta bibliografiak horniturik doaz, eta horrek ere gehitu egiten du itzulpen-balioa, irakaskuntzan erabili ahal izateko.

c) Bildumaren diseinua eta itxurari dagokionez, gorporazio-irudian espezialista hoberen laguntza izan da, eta lortu den emaitza begibetegarria da zinez, nola dotoreziari hala trinkotasunari dagokionez.

KLASIKOAK, S.A. ETA BERE HELBUMA

Aipaturiko proiektua ahalbidetu duen lukro-asmorik gabeko sozietatea Klasikoak, S.A. da, 1991eko irailean eratu zen BBV Fundazioa, EAEko Aurrezki Ku-

txen (BBK, Kutxa, eta Vital) eta Euskal Herriko eta Deustuko Unibertsitateen ekimen partekatua onorio gisa.

“Pentsamenduaren Klasikoak” bilduma Montaigne-ren *Entseiuak I* obrarekin estreinatu zen eta orain arte honako titulu hauek argitaratu ditu: *Utopia* (Th. Moro), *Honela mintzatu zen Zaratustra* (Nietzsche), *Sysiforen mitoa* (A. Camus), *Giza ezagutzaren printzipioei buruzko tratatua* (Berkeley), *Politeia* (Platon), *Indio aurkitu berriak* (F. de Vitoria), *Giza ezagutzari buruzko ikerketa* (D. Hume), *Hezkuntza eta Soziologia* (E. Durkheim), *Bizitzaren laburtasunaz* (L. A. Seneka), *Askatasunetik iheska* (E. Fromm), *Entseiuak II* (M. de Montaigne), *Gizarte Hitzarmena* (J.J. Rousseau), eta *Ateismoa kristautasunean* (E. Bloch), *Naturako Nahimena* (A. Schopenhauer), *Bizitzaren sentimendua tragikoaz* (M. Unamuno-koa).

Data honetatik 1997ra bitartean, beste 34 titulu gehiago plazaratzeko asmoa dauka, lehen aldiko berrogeita hamarrak osatu arte. Hona hemen hautaturiko obrak: *An Essay on Man* (E. Cassirer), *Das Heilige* (R. Otto), *The Sense of Beauty* (Santayana), *The Language* (L. Bloomfield), *Essais III* (M. de Montaigne), *Leviathan* (T. Hobbes), *The Golden Bough I-II* (J. G. Frazer), *Breviario di Estetica* (B. Croce), *Meta ta Physika* (Aristoteles), *Anthropologie structurale* (C. Levi-Strauss), *Examen de ingenios* (Huarte de San Juan), *La naissance de l'intelligence chez l'enfant* (J. Piaget), *Historiai I-II* (Herodoto), *Abhandlung über den Ursprung der Sprache* (J. G. Herder), *Darstellungen der Psychoanalyse* (S. Freud), *De Consolatione Philosophiae* (Boethius), *Ethica ordine geometrico demonstrata* (B. Spinoza), *Letres philosophiques* (Voltaire), *The Origin of species* (Ch. Darwin), *The Principles of Political Economy and Taxation* (D. Ricardo), *Nouveaux essais sur l'entendement humain* (Leibniz), *Forforerers Dagbog* (S. Kierkegaard), *La rebelión de las masas* (J. Ortega y Gasset), *The Moralist* (Shaftesbury), *Prolegomena* (I. Kant), *Moriae Encomium* (E. de Rotterdam), *Le plaisir du texte* (R. Barthes), *De la Démocratie en Amérique I-II* (A. Tocqueville), *The General Theory of Employment, Interest and Money* (J. M. Keynes), *Cours de linguistique générale* (F. de Saussure).

Bere bigarren aldian, autore eta obren zerrenda hori jadanik neurri handi batean aurrikusirik dauden ehun tituluak osatu arte hedatuko da, kultur eta akademi sektore desberdinen iradokizunak kontuan harturik, horrela “Pentsamenduaren Klasikoak” oinarritzko liburu-sorta ezinbestekoa gertatuko delarik euskal kulturaren baitan.

Une honetan, bildumaren bigarren aldi horretarako autoreen artean, besteak beste, Tuzidides, Estrabon, Plotino, Epikuro, Vitrubio, Galileo, Koperniko, Descartes, Newton, Montesquieu, Humboldt, Adam Smith, Weber, Marx, Hegel, Russell, Wittgenstein, Jaspers, Husserl, Feuerbach, Heisenberg, Popper, Adorno, Benjamin, Toynbee... daude.

Klasikoak, S.A. elkarteak etekin komertzialik ez nahi izateak aukera ematen du aipaturiko obrak, jadanik adierazitako kalitate-mailan eta kostu-prezioan saldu ahal izateko hiru modutako harpidetza bidez: esku-dirutan, hilerokotan eta urterokotan ordainduz, irakurlearentzat ekonomi abantaila nabarmenarekin.

Lehen tituluak direla eta, harpide eta irakurleengandik jasotako erreakzio eta iritziei bagagozkie, esan beharra dago bildumak sortutako itzaropenari erabat erantzun diola, nola edukinaren aldetik hala aurkezpenarenetik ere.

“PENTSAMENDUAREN KLASIKOAK” BILDUMAREN ERAGINA

Aipaturiko ezaugarriak dituen “Pentsamenduaren Klasikoak” bezalako bilduma batek eragin eta ondorio ugari ditu beti, baina bi azpimarratu nahi ditugu hemen duten garrantziarengatik: alde batetik, jadanik esan denez, bibliografia oi-negitura, irakaskuntza ertain eta unibertsitarioan beharrezkoa dena sortuko du, aldi berean komunikabidetako kultur erreferentziak orokorrean erraztuz, eta en-seiugintza eta literatura sorkuntzarako ere material garrantzitsuak eskuratuz.

Bestalde, hizkuntzaren batasunari egundoko bultzada emango dio prosa fi-losofiko-zientifikoa, batipat, garatuz, aldi berean euskara batua euskalkietatiko ekarpen ugari eta aberasgarriez finkatuz. Itzultzaile bakoitzak aurrez aurre izango duen erronkari erantzuteko ahaleginean hiztegia aberastu eta sintaxia malgutu ez ezik, tradiziozko altxorra nabarmen haziko da jatorri desberdinenetako mailegu eta kalkoekin.

Azkenik, doenerdi bat hizkunkatan (greko, latin, frantses, ingeles, aleman, italiera, espainol eta abarretan) hogeita hamarren bat itzultzaile trebatu izateak, beste hainbeste gainbegiratzailerekin orain arte inoiz ez bezalako hizkuntz arra-goia sortuko da, itzulpengintzako makineria oliotuz, etorkizuneko urteetan beste hainbat lan interesgarri itzuliz kultura zubigintzan aritzeko. Hau eta beste gauza asko esan liteke “Pentsamenduaren Klasikoak” bildumaz, ia amets utopiko izate-tik, Mendealdeko kulturak garatu dituen fruitu umoenak euskal kulturarako bil-tzen dituen uztamakina izatera epe laburrean iritsi den sorta horretaz.

* * *

KLASIKOAK, S.A.-ren egoitza: San Vicente, 8, *Albia* Eraikina 1, 3. Depto. 9. 48001, BILBO. tfoa. (94) 4240997; Faxa: (94) 4240479

HIL BERRIAK

JON BILBAO AZKARRETA

Puerto Ricon, Cayey hiri txikian jaio zen, 1914.eko urriaren 31an, aita “indianoa” han bizi zenean, baina hiru urte bete zituenean, aitaren jatorrizko Getxoko Osabene baserrira ekarri zuten familiakoek. Gero munduan zehar ibilia izan da, 1994.eko maiatzaren 23an asaben herrian eta etxean hil arte. Bataioan Juan Manuel Maria izena jarri ziotenak, euskal grafiatzko *Jon* erabili zuen 1939an Ameriketara joan ondoren.

Eusko Bibliographiaren hirugarren liburukia kaleratu zuenean, lan erraldoi hau eta beste euskararekiko lanak kontuan izanik, euskaltzain urgazle izendatu zuen Euskaltzaindiak 1973.eko maiatzaren 25ean, eta ohorezko euskaltzain, Pedro Irizar jaunarekin batera, Zarautzen, 1987.eko ekainaren 19an, zazpi urte etzi beteko direlarik Donostian, 1987.eko uztailaren 24an, izendapenaren diploma eman zitzaionetik. Azkue Bibliotekako batzordekidea ere izan da azken urteotan, eta nik badakit, beste askok bezala, nolako aholkuak eta laguntzak eman dizkigun.

Batxilergoa Bilboko Institutuan burutu zuen eta 1932an lortu zuen Valladolideko Unibertsitatean ‘Graduado en Ciencias’ garai hartan ematen zen titulua. Aitak Ameriketatik ekarritako diruari esker —esaten zuen Jonek— Madrileko Unibertsitateara joateko aukera izan zuen eta 1932-1936 bitartean Espainiako Historiaren Erdi Aroko doktoregoa lortu zuen. Baina Euskal Herriko historiari arduratzen hasi zen Errepublikako Hezkuntza Publikoaren ministroa zen Fernando de los Rios katedradunak honako hau esan zionean: “Unibertsala izan nahi baduzu, sar zaitez zure herriaren arimaren barnean”. Ildo honetatik abiatuz Jose Maria Lakarra ikertzailearen gidaritzapean ikerketa lanetan hasi zen Jon, Gregorio Balpardaren *Historia Crítica de Vizcaya y de sus Fueros* izenburuko hiru tomoetan agertzen ziren datuekin fitxa bibliografikoak eginez. Baina zoritxarreko gerra hasi zenean, Euskal Herrira itzuli zen eta Euzko Gudarostean sartu zen. Bilbo Franccon eskuetara erori zenean, Zierbenatik Iparraldera ihes egin beharrean aurkitu zen eta 1937.eko ekainaren 20an “Sagrada Familia” izeneko —baina izenarekin zerikusirik ez zeukan— txalupa baten agertu zen Donibane Lohizune inguruan. Handik, 1939an, beste atzeriratu batzuekin New Yorkera jo zuen, non Columbia Unibertsitatean Espainiako literaturaz ikasketak eman zituen. Gitarra klaseak ere ematen omen zituen dirua irabazteko.

Urte berean Idaho Estatuko Boise hiriburura joan zen Jose Antonio Agirre Lekube lehendakariaren aginduz, Eusko Jaurlaritzaren ordezkari gisa, hango euskaldunen artean diru bilketak egiteko, eta hara hor hango artzainekin hitz egiteko beste euskara ikasi zuen. 1940-42 urteetan, politikatik at eginda, Californiako Berkeley Unibertsitatean jarraitu zituen ikasketak eta Hizkuntzalaritzako doktoregoa

jadetsi zuen. New Yorkera itzulita Columbia Unibertsitatean 'Instructor de español' lanpostua atxeki zioten. Agirre Lehendakariarekin harreman estuak izan zituen, eta honen eraginez Antonio Irala eta Manu Sotarekin *Basques* aldizkaria sortu zuen. Bibliografia fitxak egiten jarraitzeko aukera ematen zion lanpostu honek eta hor hasi omen zen bibliografiarekiko bokazioa.

Beste toki askotan bezala, atzerritarren egoera ez zen erosoia Estatu Batuetan eta 1943an lortu zuen hiritarra izatea. Jon Bilbao Azkarreta zen hemengo dokumentazioan agertzen zen izena eta azken hitza denez han deituraz hartzen dena, Azkarreta zen jartzen zioten deitura eta Jon-Bilbao pontizena. Bilbao deitura moduan gera zedin, Azkarreta kendu egin behar izan zuen bere dokumentazioan, 28 dolar ordaindu behar izan zituelarik gure artean bigarren deitura dena kentzeko.

Jon Bilbaok Belgikako gobernuarentzat propaganda zereginetan lan egin zuen 1944an, EJE-ko faxistek egiten zuenaren aurka. *Revista Belga*-ren argitaldaria izan zen une hartan, eta gero *Ambos Mundos* aldizkariarena. Urte horretan eta hurrengo 1945ean, Columbiako Unibertsitatean Linguistika katedra jasotzeko estudioak egin zituen, baina Europara itzuli zen 1947an. Marta Saralegi anderearekin ezkondu zen La Habanan 1945.eko otsailaren 10ean.

Hego Euskal Herrira etortzeko baimenik ez zeukan eta Iparraldean bizi izan zen artean, Saran jarri zuen egoitza, Barandiaranekin lan eginez eta bibliografia bilketan jarraituz. Hemen jaio zen Amale alaba 1948an Biarritzen antolatu zen Eusko Ikaskuntzaren VII. Biltzarrean parte hartu zuen eta *Eusko Jakintza* aldizkariaren idazkaria izan zen une hartan.

Bibliografia bilketa lana bukatutzat eman zuen 1950ean, eta Ignacio Urquijo jaunak proposatu zion Bizkaiko Diputazioaren "Junta de Cultura"k argitaratzea. Baina "Junta" honek baiezeko erabakia hartu zuen baldintza batekin: *nacionalismo*ari buruz zeuzkan fitxa guztiak ken zitzala. Ez zuen Jon Bilbaok baldintza hori onartu eta hor geratu zen bertan behera bilketa lan baliotsua.

Ameriketara berriz joan beharra izan zuen, oraingoan Kubara, familiako negozioak arteztu behar baitzituen. Eta Kuban jaio zen Jon semea 1953an. Arazo hauetan lau urte (1951-1954) bete zituen Karibeko irlan, baina ez zion uko egin ikerketa lanari. Buenos Airesetako Ekin argitaletxeak 1958an kaleratu zion *Vascos en Cuba. 1492-1511* liburuaren hitzaurreari Habanan jarri zion Jon Bilbaok data 1954.eko urtarrilean. Gero Europara itzuli zen.

Duela berrogei urte, Bilbon jarraitu zuen bibliografia bilketa lana. Gabriel Arestiren auzokide izan zen, *Euzko Gogoan* urte berean (1954) olerkiak argitaratzen hasia zen poetaren etxeko salairu batean utzi baitzion lanerako lekua Elias Amezagak, gero bibliografoa izango zen idazleari (1). Baina ikerketa lanetatik aparte, Francoren aurkako erresistentzian zebiltzanekin topo egin zuen eta EAJn eskutuko lanetan parte hartu zuen. Estatu Batuetatik Huescan antolatutako era-

(1) Aduanetako agentea zen Elias Amezaga eta Barroeta Aldamar kaleko 2. zenbakia daraman etxearen lehen solairuan zeukan bulegoa, non Jon Bilbaori utzi zion lekua bibliografia lana egin zezan. Gabriel Aresti etxe horretako 4. solairuan bizi zen.

kusketa baten arduraduna zelarik atxilotu zuten francotarrek, baina Ameriketako hiritarra zenez, ezin izan zuten gartzelan sartu eta 1960.eko abenduaren 8an Washingtonera joan zen. Berak esaten zuenez, “mesfidantza sortzen zuen bibliografiaren lanean ari zela esaten zuenak ez baitzuten ulertzen ze arraio zen hori”. Bestalde, CIA-koa zela ere zabaldu zen eta aho betez ukatzen zuen salaketa hori Jon Bilbaok. Ameriketako ikasle batzuk espioi gisa hemen sartzea proposatu omen zioten, baina ez zuen halakorik onartu.



Sara, 1948. Jon Bilbao - J. M. Barandiaran.

Washingtoneko Kongresuaren Bibliotekan lan egin zuen urtebetez 1960an. Han zeuden Espainiako liburuak eta aldizkariak taiutu zituen, eta jakina, bere bibliografiarako hainbat fitxa bete zituen gure Jonek. Endrike Knörr eta Xabier Gereñorekin biblioteka horretan egon nintzenean 1985.eko abenduaren 19an, Hispanic Section zeraman Peter de la Garza jaunak eta euskal gaieta arduratzen zen Georgette Magassy Dorn andereak gogoan zuten nolako lana burutu zuen Jon Bilbaok, eta geroztik ez dutela halako laguntzarik izan aitortzen zuten. Euskal ondarearen arduradunak proposatu zidan bospasei hilabeterako lanean bertan geratzea, Jon Bilbaok egin zuen antzerako lana burutzeko. Baina ondo dakizue-nez, Bilbora itzuli ginen hamaika eguneko bidaia bukatu ondoren.

Washingtonen urtebeteko lana bukatu zuenean Europara itzuli zen Jon Bilbao. Frantzia, Ingalaterra, Alemania, Austria eta beste herrialde batzuetan ibili zen 1961-1964 urteetan eusko bibliografia bilduz. Orain ere, hamabost urte lehenago bezala, bukatutzat eman zuen bibliografiaren bilketa lana eta 1964an Washingtonera joan zen berriz, oraingoan Georgetown Unibertsitatara urtebeteko ikasketak ematera. Hurrengo ikasturtean (1965-1966) Annapolisen zegoen Estatu Batuetako Itsas-Akademian irakasle izan zen eta hurrengo bi ikasturteetan (1966-1968) Washington College famatuan. Eta handik abiatu zen 1968an Renoko Unibertsitatara, non William Anthony Douglass antropologoarekin sortu zuen 1969an “Basque Studies Program” erakundea, aurtun 25 urte bete dituen. Gogora de-

zagun, denon adiskidea den Bill Douglass jaunak, bospasei urte Euskal Herrian egon ondoren, Aulestin eta Etxalaren, argitaratu zuela Seattlen, 1969an, *Death in Murelaga. Funerary ritual in a Spanish Basque village*, 1973an gaztelaniara itzulua. Aurrerantzean Bilbao - Douglass bikoteak euskal kulturari buruzko ikerketak eta argitalpenak bultzatu zituzten Renoko lan-gunetik. Amerika osoan, Estatu Batue-tatik Argentinara, ibili ziren biak 1971 urteko udan, unibertsitateak, bibliotekak, euskal etxeak eta abar bisitatzen euskal haztarnen bila.



1992.06.26. Bilbo, Euskaltzaindiaren egoitza.
 'Azkue Biblioteka'-ren inaugurazioa.
 Jon Bilbao - Luis Villasante.

Baina Jon Bilbaoren ametsa errealitate bihurtu zuen urtea 1970a izan zen: Donostiako Auñamendi argitaldariaren eskutik *Eusko Bibliographiaren* lehen to-moa kalean ikusi zuen. Orduan, duela ia 25 urte, ezagutu nuen nik Jon Bilbao.

Kortezubiko baserritar batek ekarri zidan etxera karpeta handi bat, fitxaz beterik. "M" letrakoak ziren eta ikusten zenez, moldiztegi frogak zuzentzeko prestatuak zeuden. Berehala ikusi nuen norena zen lan hura eta Jon Bilbaori dei egin nion eta Gernikako Arrien tabernara etorri zitzaidan karpetaren bila. Haren poza, urteetako lana galdutzat ematen baitzuen. Donibane Lohizunera untzi baten bidaltzeko zeramatzen karpetak Lekeitiora eta bidean galdu omen zuen nire bidez jasotako hori. Aurrerantzean adiskide eta lankideak izan gara eta beragandik asko ikasi dut bibliografia arloan gehien bat.

Euskal Herrira itzuli zen betirako 1985ean, Renoko harremanak moztu gabe. Nevadako Unibertsitatara igortzen zituen hemen argitaratzen ziren liburu guztiak hango euskal biblioteka aberastu asmoz eta alderantziz Amerikari begira sortu zuen 1989an "Harriluze" elkarte, museo eta biblioteka burutu nahian. Zoritxarrez ez zuen lortu hemengo Aginteengandik behar zuen besteko laguntza.

Renon egin zioten omenaldia 1977an eta Gasteizen 1986.eko maiatzaren 22an. Izan bedi gaurkoa Euskaltzaindiak zor dionaren ordaina eta gomutagarria. Jon Bilbao Azkarreta bibliografoa gogoratuz batera, har bezate Gayle Slavin, bigarren emaztea alargunak, eta Amale eta Jon seme-alabek gure doluminik zintzoena.

Donostia, 1994.07.22
Jose Antonio Arana Martija

